

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2219

152/2022 DEKRETU, abenduaren 13koa, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko, Valderejoko Parke Naturaleko, Kontserbazio Bereziko Eremuko eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuko Natura Baliabideen Antolamendurako II. Plana onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 11.1.a) artikulua ezartzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da ingurumenaren eta ekologiaren arloan Estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta bere lurraldean betearaztea.

Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikulua xedatzen duenez, EAEko administrazio publikoek zainduko dute natura-ondarea babesteko politikak, besteak beste, printzipio hauen arabera gauzatuko direla:

– Natura-ondarearen kontserbazioa gailentzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduari eta kultura-ondarearen gainetik.

– Natura-ondareko naturagune babestuen kontserbazio-egoera mantentzea eta hobetzea.

– Politika publiko sektorialetan, bereziki politika-, ekonomia- eta gizarte-arloko erabakiak hartzean, natura-ondarea babesteko, kontserbatzeko, kudeatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko betekizunak txertatzea.

– Natura-ondareari eragin diezaioketen esku-hartzeetan zuhurtasun-printzipioa aplikatzea.

Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 21.1 artikulua xedatzen duenez, natura-baliabideak antolatzeko planak espazio-eremu jakin bateko naturagune babestuak osatzen dituzten elementuak planifikatzeko berariazko tresna dira, eta lurraldearen gainarazkoekin duten harremana mugatu, tipifikatu, sarean integratu eta zehaztuko dute.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa, Arabako Lurralde Historikoaren mendebaldean dagoen eskualde menditsua, Parke Natural izendatu zuten urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretuaren bidez (4/1992 Dekretua, Valderejo Parke Natural izendatzekoa). Halaber, urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretuaren bidez, Valderejoko Baliabide Naturalak Antolatzeko Plana onartu zen.

Bestalde, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatu zen martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren bidez.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura 2000 Sarean sartzeak Natura Ondarearen Naturagune Babestua kontserbatzeko irizpideak eta helburuak aldatzea dakar.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 18. artikulua arabera –une horretan indarrean zegoen araudia–, natura-ondareko naturagune babestuen hainbat kategoria toki berean gainjartzen direnean, babesaren koherentzia eta kategoria bakoitzari aplikatzen diren araubideen arteko koordinazioa bermatzeko, eremu bakoitza arautzen duten arau espezifikoak eta plangintza-tresnak dokumentu integratu bakar batean bateratu beharko dira. Era berean, lurralde beraren gainean gainjartzen diren kategorien artean eremu horretarako Natura Baliabideen

Antolamendurako Plan espezifikoa duen kategoriaren bat dagoenean, plangintza-tresna Natura Baliabideen Antolamendurako Planean txertatu beharko da. Aurreikuspen hori mantendu egiten da gaur egun indarrean dagoen Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 38. artikuluan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 5.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Baliabideak Antolatzeko Plan berri bat lantzeari ekin zitzaion, eta kontutan hartu zen, halaber, lehen plana indarrean jarri zenetik igarotako denbora.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Baliabideak Antolatzeko Plan berria Natura Baliabideak Antolatzeko Planak egiteko eta onartzeko prozeduraren arabera izapidetu da, zeina arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren 7. artikuluan. Hala, 2017ko maiatzean, Planaren aurretiazko dokumentuarekin entzunaldi-izapidea egin zen interesdun, inguruko interes sozialen titular, udal, toki-erakunde txiki eta hainbat elkarterekin. Era berean, hasieran onetsitako dokumentua jendaurrean jarri zen hirurogei egunez.

Halaber, Naturzaintza – Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Aholku Batzordearen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostenak eskatu dira, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak eskatzen dituen gainerako txostenak ere bildu dira.

Baliabide Naturalak Antolatzeko II. Plana egiteko, landa-lanetik, Organo Kudeatzailearen urteko memorietatik eta Baliabide Naturalak Antolatzeko I Planeko arau-xedapenetatik ateratako datuak erabili dira, bai eta gunea Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (HBBE) izendatzeko arauditik eta kontserbazio-neurrietatik ateratako datuak ere.

Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen bigarren xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera, lege hau indarrean sartzean hasierako onarpena jaso duten plan eta programek Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuateginean ezarritako prozedura bete beharko dute (apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen testuategin hori).

Hala eta guztiz ere, Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planak Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 47.2 artikuluan adierazitako helburuak lortzen laguntzen du. Hala, aipatutako helburuak betetzeko, natura-ondareko naturagune babestu batzuetarako diseinatutako egitura eta eduki komunak ezarri dira. Espazio horiek natura-parkea dira, eta Natura 2000 Sarean sartuta daude. Horrela, dokumentuen koherentzia hobetuko da: bereziki, espazioen zonifikazioari, erregulazioen ezarpenari eta Administrazioak esku hartzeko araubideari dagokienez (Natura Ondareko Naturagune Babestuen artean antzekoak eta alderagarriak izango dira) eta plangintzaren eta kudeaketaren arteko oreka hobetzei dagokienez.

Testu arauemailea Europako direktibetara egokitzearen ondorioz, Natura 2000 Sarearen eskakizun hau gehitu da: jarraipen-sistemak ezartzea eta Europar Batasunaren intereseko espezie eta habitaten kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioak eta txostenak egitea aldizka, Europar Batasunean ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera.

Azkenik, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legearen 24.4 artikulua ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek, natura-ondareko gunek babestuak eta Natura 2000 Sareko gunek kudeatzeko plan edo tresnen eguneratze eta berrikuspenean, eremu horiek klima-aldaketara egokitzeari buruzko atal bat sartuko dute, gutxienez, bereziki kalteberak diren espezie eta habitaten zerranda, helburuak, ekintzak eta aurrerapen- eta betetze-adierazleak

jasotzen dituen diagnostiko batekin, bai eta beste gune babestu batzuekiko konektibitate-plan bat ere. Natura Ondareko Naturagune Babestuaren eremuari dagokionez, Parke Naturalaren mugak aldatu dira, Kontserbazio Bereziko Eremuarekin eta Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Hegaziak Babesteko Eremu Bereziarekin bat etor daitezzen.

Ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2022ko abenduaren 13an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea eta helburua.

1.– Dekretu honen xedea da Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko (Arabako Lurralde Historikoa) Natura Ondareko Naturagune Babestuaren Natura Baliabideen Antolamendurako II. Plana onartzea, Valderejoko Parke Naturalari, Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Ereuari (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Ereuari (HBBE) dagokiena.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Ondareko Naturagune Babestuaren Natura Baliabideen Antolamendurako II. Plana dekretu honen eranskinek osatzen dute: I. eranskina – Kartografia, II. eranskina – Memoria eta III. eranskina – Arau-zatia.

2.– Dekretu honen helburua da Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko eremua babesteko, kontserbatzeko, hobetzeko eta zentzuz erabiltzeko neurriak ezartzea, eremu hori Valderejoko Parke Naturala, eta Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (HBBE) den aldetik.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Ondarearen Naturagune Babestuak I. eranskinean (kartografia) mugatutako eremu geografikoa hartzen du. 6.815,71 ha-ko azalera hartzen du Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroak, eta Arabako Lurralde Historikoko Gaubea eta Lantarón udal-mugarteetan dago eremu hori.

3. artikulua.– Natura Ondareko Naturagune Babestuaren Babes Eremu Periferikoa.

Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren balioak babesten laguntzeko eta kanpotik etor daitezkeen inpaktu ekologikoak eta paisaia-inpaktuak saihesteko, babes-eremu periferiko bat ezarri da. Dekretu honen I. eranskinean (kartografia) dago grafiatuta babes-eremu periferikoa.

4. artikulua.– Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren eragin sozioekonomikoko eremua.

Arabako Lurralde Historikoko Gaubea eta Lantarón udal-mugarteek osatzen dute Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren eta haren babes-eremu periferikoaren eragin sozioekonomikoko eremua.

5. artikulua.– Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planaren edukia.

1.– Dekretu honen I., II. eta III. eranskin gisa argitaratzen dira kartografia, memoria eta arau-zatia, zeinak osatzen baitituzte bai Valderejoko Parke Naturalerako zehaztapenak, bai Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuaren (HBBE) kontserbazio-helburuak eta -neurriak, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Arau-izaera dute I. eranskineko (kartografia) Natura Ondarearen Naturgune Babestuaren mugaketaren kartografiak, zonakatzeak eta babes-eremu periferikoak, bai eta III. eranskineko (araudia) arau-xedapenek ere.

3.– Izaera informatiboa dute I. eranskineko (Kartografia) EUNIS (European Nature Information System) eta Europar Batasunaren intereseko habitaten kartografiak eta II. eranskineko (Memoria) kartografiak. Memoria horrek Natura Ondarearen Naturagune Babestuaren egungo egoeraren diagnostikoaren sintesia islatzen du.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Ondarearen Naturagune Babestuari dago-kion fitxa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarea kontserbatzeko eskumena duen sailaren webgunean eguneratuko da.

6. artikulua.– Irismena.

1.– Dekretu honen arau-xedapenak nahitaezkoak eta betearazleak izango dira Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean araututa dauden gaitan. Dekretu honen xedapenek muga bat ezartzen dute lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnetarako, bai eta antolamendu fisikoko edo natura-baliabideetako tresnetarako ere, eta aipatutako tresnen zehaztapenek ezin izango dituzte aldatu dekretu honen xedapen arautzaileak.

2.– Dagoeneko indarrean dauden eta Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Baliabide Naturalak Antolatzeko II. Planarekin kontraesanean dauden lurraldearen, hirigintzaren, natura-baliabideen edo baliabide fisikoen antolamenduko tresnek Dekretu honen zehaztapenetara egokitzeko izapide egokia hasi beharko dute, Dekretua behin betiko onartzen denetik gehienez urtebeteko epean.

Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Baliabideen Antolamendurako II. Planaren zehaztapenak aplikatuko dira, betiere, aurreko para-grafoan aipatutako tresnen ginetik.

Era berean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Baliabideak Antolatzeko II. Planaren zehaztapenak erabakigarriak izango dira beste edozein jarduera, plan edo programa sektorialetan. Plan edo programa sektorialek Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Baliabide Naturalak Antolatzeko II. Planaren edukiaren aurka egin dezakete edo ez, interes publikoko premiazko arrazoiak direla medio; kasu horretan, erabakia arrazoitu eta publiko egin behar da. Erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hartuko du, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrearen informazio telematikorako tresnan argitaratu beharko da.

7. artikulua.– Indarraldia.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura Ondareko Naturagune Babestuaren Natura Baliabideak Antolatzeko II. Plana indarrean egongo da hura onartzeko jarraitutako prozeduraren bidez berrikusi, aldatu edo eguneratzen ez den bitartean, haren idazketan nagusitu diren irizpideak eta helburuak aldatzen direnean edo antolatu beharreko lurralde-eremuen baldintza ekologiko, sozial edo naturalen aldaketak beharrezko egiten duenean, bai eta jarraipenaren eta ebaluazioaren emaitzek hala gomendatzen dutenean ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen hauek indargabetuta geratzen dira:

a) 3/1992 Dekretua, urtarrilaren 14koa, Valderejo aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzen duena.

b) Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) Kontserbazio Bereziko Eremua eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua izendatzen duen eta eremu horretako kontserbazio-neurriak hartzen dituen martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren honako xedapenak: 1. artikuluko 5. paragrafoa, azken xedapenetatik lehena eta II. eranskineko (Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa (ES2110024) KBE/HBBEA kontserbatzeko informazio ekologikoa, helburuak eta arauak zein jarraipen-programa jasotzeko dokumentua) 6. apartatua (6.– kontserbatzeko xedeak eta arauak) eta 7. apartatua (7.– jarraipen programa).

c) Valderejo Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planaren arau-zatia onartzen duen eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroa (ES2110024) KEBA/HBBE natura gunearen kudeaketa gidalerro eta neurrien agiria eta Valderejoko Natura Parkearen Erabilera eta Kudeaketa Arautzeko III. Planaren Dokumentua osorik argitaratzea agintzen duen maiatzaren 15eko 72/2018 Dekretuko eranskinaren erabilera publikoaren kudeaketari buruzko III.2.5 ataleko A.1.j.6 epigrafea, aireko nabigazioari buruzkoa.

d) Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko abenduaren 13an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

I. ERANSKINA, ABENDUAREN 13KO 152/2022 DEKRETUARENA

KARTOGRAFIA

Arauzko kartografia (EHAA bisorerako estekak):

Mugaketa

Zonifikazioa

Babes Eremu Periferikoa

<https://www.geo.euskadi.eus/geobisorea/?webmap=174cb8de3bad4131d92e489411e5b99>

Informazio-kartografia (GeoEuskadi bisorerako estekak): Habitaten kartografia, EUNIS sailkapen-sisteman

Batasunaren Interesekeo Habitaten kartografia

II. ERANSKINA, ABENDUAREN 13KO 152/2022 DEKRETUARENA

MEMORIA

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren Baliabide Naturalen Antolamendurako II. Plana.

Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE), Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua (BBE) eta Valderejoko Parke Naturala.

Behin betiko onesteko dokumentua

AURKIBIDEA

1. Aurrekariak eta arau-testuingurua	1
2. Valderejo Sobrón Árcenako mendilerroa natura-ondarearen gune babestuaren ezaugarri orokorrak eta eremua	3
3. Ezaugarri fisikoen eta biologikoen deskribapena eta interpretazioa	6
3.1. Ingurune fisikoa	6
3.2. Ezaugarri ekologikoak	12
3.3. Gizarte-ingurunea	28
3.4. Baliabide naturalen erabilera	35
3.5. Zerbitzu ekosistemikoak	44
4. Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu behar diren funtsezko elementuak. kontserbazio-egoera	47
4.1. Funtsezko elementuak hautatzeko irizpideak eta kontserbazio-egoera zehaztea.	47
4.2. Baso naturalak eta erdinaturalak	48
4.3. Txilardien, otadien eta larreen mosaikoa	53
4.4. Habitat harritsuak eta leizeak	57
4.5. Eremu hezeak	59
4.6. Ibai-sistema	62
4.7. Abifauna	67
4.8. Presioen eta mehatxuen sintesia	77
5. Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa natura-ondarearen gune babestuaren diagnosi klimatikoa	82
6. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa -rako azterketa ekonomikoa	92

1.– AURREKIAK ETA ARAU TESTUINGURUA.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen Gune Babestuan (NOGB) babespeko hainbat figura biltzen dira, azaroaren 25eko, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko 9/2021 Legearen (ENOBL) 48. eta 51. artikuluek xedatzen diren Natura-ondarearen gune babestuen kategorien arabera: babestutako eremuaren zati bat Parke Naturala da (Valderejoko sektorea), eta Natura-ondarearen gune babestu osoa Natura 2000 Sarean sartuta dago, Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) gisa.

Aipatutako lehen sektorea (Valderejo) urtarrilaren 14ko 4/1992 Dekretu bidez izendatu zuten Parke Natural, zegokion Natura Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) urtarrilaren 14ko 3/1992 Dekretu bidez onartu ostean.

Halaber, Valderejo eremua Batasunaren Intereseko Leku (ES2110001 Valderejo BIL) izendatu zuten, Eusko Jaurlaritzak 1997ko abenduan hartutako erabaki bidez. Bestalde, Árcenako mendilerroaren hego-ekialdeen dagoen sektorea ere BIL izendatu zuten, Sobrón izenarekin (ES2110002 Sobrón BIL), Eusko Jaurlaritzak 2000ko azaroan hartutako erabaki bidez. Bi gune horiek Batzordearen 2006ko uztailaren 19ko 2006/613/EE Erabakiaren Eranskinean jasota daude, baita Erabakiaren eguneratzeetan ere; Erabaki horren bidez, Mediterraneoko eskualde biogeografikoko Batasunaren Garrantzizko Lekuen zerrenda finkatu zen.

Bestalde, ES0000245 Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa eremua Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) izendatu zen Gobernu Kontseiluak 2000. urteko azaroaren 28an hartutako Erabaki bidez. BBE eremuan bi sektore biltzen dira eta Burgoseko San Zadornil eremuak bereizten ditu bata eta bestea: Valderejo eta Sobrón-Árcena.

Azken batean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan Natura-ondarearen gune babestuen hiru kategoria gainjartzen ziren: Parke Natural bat, Kontserbazio bereziko eremu bat (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko eremu bat (BBE); azken biak Natura 2000 Sarearen barruan sartzen dira.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura 2000 Sarean sartzeak natura-ondareko gune babestu horren kontserbazio-irizpideak eta -helburuak aldatzea dakar; beraz, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 23.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko natura-baliabideak antolatzeko plan berri bat egin behar da, Valderejoko lehen NBAP onartu zenetik igarotako denbora ere kontuan hartuta.

Babes-figura bat baino gehiago biltzen dituzten eremu babestuei dagokienez, artean indarrean zegoen Euskal Herriko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 15eko Lege Dekretuaren (NKLTB) 18. artikuluan honako hau xedatzen da: *“Naturagune babestuetako zenbait figura leku berean gainezarriko balira, gune horien arauak zein plangintza-mekanismoak dokumentu bakar batean koordinatu beharko dira, eremuaren kudeaketa-planean, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osatzeko helburuarekin”.*

Aurrekoa betetzearren, martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren (Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa (ES2110024) kontserbazio bereziko eremu (KBE) eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremu izendatzen da, hori kontserbatzeko neurriak barne) azken xedapenetatik lehenengoan honako hau xedatzen da: *Dekretu hau onartzen denean, Valderejo eremuko parke naturalaren NBAPak Naturagune Babestuen tipologia desberdin horiek arautuko dituen dokumentu bakar bihurtzeko prozedura abiaraziko da, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretu bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren 18. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.*

Horrenbestez, azaldutakoari jarraikiz eta Euskal Herriko Natura Kontserbatzeko Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 15eko Lege Dekretuaren 18. artikulua eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 38. artikulua aplikatuta, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuari dagokion dokumentu bakarra egitea da kontua, espazio horretan aplikatu beharreko planifikazio-tresnetako edukiak biltzearen; hona hemen planifikazio-tresna horiek: Valderejoko Parke Naturaleko Natura Baliabideen Antolamendurako Plana eta Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuko kontserbazio-tresnak, biak ala biak Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22. eta 58. artikuluetan arautzen direnak, hurrenez hurren.

Kontuan izanik Valderejoko lehen Natura Baliabideak Antolatze Planak ez duela jarraipen-planik, eta bigarren NBAP horretan antolatzen den eremuaren mugak lehenengo planekoarekin bat ez datozela, ezinezkoa da bi tresnak konparatzeko azterketa bat egitea. Dena den, organo kudeatzaileak Patronatuan onartzeko aurkeztu dituen urteko memoriak aintzat hartu ditugu.

Natura Baliabideak Antolatze Plan berria prestatzeko, organo kudeatzailearen memoriez eta landa-lanaz gain, bildu ahal izan dugun informazio guztia ere baliatu dugu, bai Natura-ondarearen gune babestuari buruz azken urteotan egin diren azterlanetatik ateratakoa, bai eremuaren plangintzan eta kudeaketan eskumenak dituzten administrazioetan aurki daitekeena: basoak antolatze planak, plan hidrologikoak, ehiza-jarduerari buruzko informazioa, florari eta faunari buruzko azterketak, geologia interesdun lekuen inbentarioa eta abar.

Bestalde, dokumentua Europako Zuzentarauetara egokitu ostean, Natura 2000 Sarearen betekizunak bete behar dira, hau da, jarraipen-sistemak ezartzeko betekizuna eta Batasunaren interesekoak diren espezie eta habitaten kontserbazio-egoeraren ebaluazioak egiteko eta egoeraren berri aldizka emateko betekizuna, (Habitaten Zuzentaruaren 11. eta 17. artikulua); jarraipen eta ebaluazio horiek Batasun osorako ezarritako metodologia eta parametro zehatzen arabera egin behar dira, baina lehen NBAPan nekez aplikatu zitezkeen metodologia eta parametro horiek, ez baitzeukan egungo ebaluazio-irizpideak aplikatzeko beharrezkoa den informaziorik.

Natura-ondarearen balioei dagokienez, memoria honen edukiak martxoaren 15eko 47/2016 Dekretuaren II. Eranskineko 1. idatz-zatitik 5.era bitartekoak (Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa KBEari eta BBEari dagozkion informazio ekologikoa, arautegia, kontserbazio-helburuak, kontserbazio-arauak eta jarraipen-programa) osatzen, laburbiltzen eta eguneratzen ditu, eta Natura Baliabideak Antolatze Planetako zehaztapenei buruz Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22.1 artikuluan ezarritakoa betetzen du, baita Natura 2000 Sareko eremuei buruz arau beraren 58.3 artikuluan ezarritakoa ere.

2.- VALDEREJO – SOBRÓN – ÁRCENAKO MENDILERROA NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAREN EZAUGARRI OROKORRAK ETA EREMUA.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestua osatzen duten lurrek Arabaren mendebaldeko eskualde menditsu batean (Añanako Kuadrilla) kokatuta dagoen lurralde zabala eratzen dute: 6.815 hektarea. Eskualde horretan biztanleriaren dentsitatea txikia da, baso-masen hedadura zabalak daude eta azaleratze harritsu garrantzitsuez josita dago.

Árcenako mendilerroa ipar-ekialdetik hego-ekialdera doan kordal menditsu malkartsu gisa agertzen da. Hegoaldeko muga Ebro ibaiaren haranak jartzen du. Baso-azalera zabalak eta askotarikoak daude, gehienak pinu gorriaren pinudiak dira, baina pagadiak eta artadiak ere badaude.

Eremu horrek bi sektore ditu: Valderejo –Purón ibaiak zeharkatzen duen haran altua–, eta Sobrón-Árcena sektorea –Árcenako mendilerroak Ebro eta Omecillo haranetarantz hegoalderago dagoen zatia hartzen duena–. Bi sektore horiek Burgosko San Zadornil kokalekuak bereizten ditu; eremu horrek ere Natura 2000 Sarea osatzen du (ES410030 Obarenes mendiak).

Valderejo kota altu batean kokatuta dagoen haran bat da, honako hauek dituen: oso ondo kontserbatuta dagoen landazabala, balio biogeografiko handiko zohikaztegi batzuk barne hartzen dituzten baso naturalak, mendiko belardi zabalak eta mosaikoan banatuta dauden mikrohabitat ugari, eta, batez ere, kalitate eta naturaltasun handiko harkaiztegi zabal bat. Faktoreen ugartasun horren ondorioz, Valderejon flora eta fauna nabarmenak daude.

Sobróngo sektoreari dagokionez, bere mendi-hegalak nabarmendu behar dira, baso-hedadura zabalak garatzen baitira bertan. Pinu gorriaren pinudiek kokaleku horren iparraldearen gehiena hartzen dute, eta hegoaldeko mendi-hegaletan garrigak eta erkameztiak daude. Ameztiek ere hedadura nabarmenak hartzen dituzte; aitzitik, lekurik altuenetan, kareharri moztuen azpian, pagadi kaltzikolen eremu handiak garatzen dira. Valderejo bezalaxe, Sobrón ere abifaunaren interesarengatik nabarmentzen da.

Gune babestuak ageriko konplexutasun geologikoa dauka substratuen aniztasunarengatik eta egitura geomorfologikoengatik. Gailurreria, amildegi eta ibai-arroil ugari daude, hala nola Ebro ibaiaren haitzartea Sobrónen eta Purón ibaiaren haitzartea, mendilerroa zeharkatzen dutenak. Eremu horiek habitat paregabea dira hegazti harraparien komunitate garrantzitsu baterako. Hegazti horien artetik, nabarmentzekoak dira nekrofagoak.

Egiaztatu da Natura-ondarearen gune babestu honetan Batasunaren intereseko 28 habitat mota daudela gutxienez. Habitat horiek 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora zaintzeari buruzkoaren (Habitat Zuzentaraua) I. Eranskinean sartuta daude, eta horietatik bost lehentasunezkoak dira. Horrez gain, kontserbazio-egoera onean dauden ekosistemen aberastasun aparta dago.

EAEren testuinguruan, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa funtsezko eremutat hartzen da txilardiak, sastrakadi esklerofiloak eta larreak kontserbatzeko. Horiek guztiek Batasunaren intereseko hainbat habitatez osatutako mosaiko bat eratzen dute: 4060, 4090, 5110, 5210, 6210 eta 6220*. Era berean, baso naturalak ere badaude: pagadi azidofiloak (9120) eta kaltzikolak (9150), amilburu-oineko baso mistoak (9180*), erkameztiak (9240) eta artadiak (9340), baina bereziki aipagarriak dira itsas pinuaren pinu naturalen (*Pinus pinaster*) enklabeak. Masa txikiak osatzen dituzte Sobróngo haitzartean eta Batasunaren intereseko mota honetako habitataren enklabe bakarra dira EAEn (Pinu mesogeano endemikoen pinudi mediterraneoak -9540 habitata-). Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa habitat hori kontserbatzeko funtsezko eremua da EAEn.

Árcenako mendilerroko azaleratze harritsu bereizgarriek habitat hauek hartzen dituzte: “kareharrizko harkaiztegiak” (8210), “hartxingadiak” (8130), “mendiko megaforbioak” (6430), eta “leizeak” (turismoak ustiatu gabeko leizeak -8310-). Natura-ondarearen gune babestua funtsezkoa da Batasunaren intereseko habitat horiek kontserbatzeko. Era berean, funtsezkoa da urari eta ingurune hezeei lotutako habitat batzuetarako. Habitat horiek oso banaketa murriztua dute EAEn. Horixe da, hain zuzen ere, trabertinoen landarediaren (7220*) habitaten eta istinga basofiloen (7230) kasua.

Era berean, eremu hau nabarmentzen da flora mehatxatuaren espezieak daudelako. Espezie horien artetik honako hauek nabarmentzen dira: *Buxbaumia viridis*, *Orchis cazorlensis*, *Petrocoptis lagascae* eta *Ephedra nebrodensis*; horiek guztiak galtzeko arriskuan daude EAEn, eta eremu babestu honetan soilik aipatzen dira. Nabarmendu daitezkeen beste espezie batzuk *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus nobilis* dira, Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta daudelako.

Bestalde, eta aipatutako habitaten dibertsitatearekin eta tipologiarekin bat etorritik, Natura-ondarearen gunek babestua nabarmentzen da basafaunaren espezie-bariedade aberatsa dagoelako bertan. Valderejo- Sobrón-Árcenako mendilerroko harkaiztegiak eta amilburuak eta toki irekietako habitata (txilardiak, sastrakadiak eta larreak) ingurune egokiak dira EAEn hobekien kontserbatuta dauden eta EAEko adierazgarrienak diren hegazti harkaiztarren komunitateetako bat garatzeko. Hori izan zen mendilerro hori BBE izendatzeko arrazoia. Eredu hori, halaber, EAEko kiroptero-espezieen aberastasun handiena dagoen eremuetako bat da eta lehentasunezko eremutzat hartzen da espezie horientzat.

Valderejo sektorea hertsiki lotuta dago Burgosko probintziarekin (Gaztela eta Leongo autonomia-erkidegoa), harekin muga egiten duelako bere perimetro gehienguan, sektorearen ipar-ipar-ekialdean izan ezik. Iparraldetik eta ipar-ipar-mendebaldetik Valle de Losarekin mugatzen du, mendebaldetik Merindad de Cuesta-Urriarekin, hegoalde-hego-mendebaldetik Valle de Tobalinarekin eta eremuaren hegoaldetik eta ekialdeen dagoen lekutik Jurisdicción de San Zadornilekin.

Valderejoko lurrak Bóveda, Tobillas, Corro, Pinedo eta Valderejoko kontzejukoak dira; kontzeju horiek guztiak, era berean, Gaubeako udalerrikoak dira. Valderejoko kontzejuaren azalera osoa eremu babestuaren barnean dago eta hainbat landa-nukleo biltzen ditu, hala nola Lahoz, Lalastra, Villamardones eta Ribera; azken bi horiek hutsik geratu dira.

Sobrón sektorea bost kontzejutakoa da; Sobróngo kontzejua (Lantaróngo udal-mugartea) da azalera handiena duena eremu babestuan. Gainerako lurrak, zehazki iparraldean daudenak, Bachicabo, Barrio, Espejo eta Nogaroko kontzejuen artean banatzen dira. Kontzeju horiek guztiak Gaubeako udalerrikoak dira. Sektore horrek Burgosko Valle de Tobalinako eta Bozoóko udalerriekin egiten du muga hegoaldetik.

Natura-ondarearen gunek babestua Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren zati da. Eredu horren Lurraldearen Zatiko Plana abenduaren 28ko 277/2004 Dekretu bidez onartu zen behin betiko.

3.– EZAUGARRI FISIKOEN ETA BIOLOGIKOEN DESKRIBAPENA ETA INTERPRETAZIOA.

3.1 INGURUNE FISIKOA.

3.1.1. Klima orokorra.


Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuko klima trantsiziokoa da klima atlantikoaren eta mediterraneoaren artekoa: udak beroak eta lehorrak dira eta neguan prezipitazio ugari izaten dira. Prezipitazio horiek errekasto txikiak sortzen dituzte eta horien ondorioz, Purón ibaiak drainatze-aukera handia du. Purón ibaia eremu horretako ibilgu nagusia da Valderejoko sektorean. Purón ibaiaren arroa aldameneko arroak baino altitude handiagoan dagoenez, batez besteko tenperaturak txikiagoak dira eta neguan prezipitazio kopurua handiagoa da. Egutera-ospel efektua oso nabarmena da eremu honetan, eta kontraste handiko esposizioak eta inguruneak sortzen dira.

Lalastrako estazio meteorologikoa 911 msnm-ra dago gune babestuan bertan. Estazio horretako instalazioak 1994. urtean jarri ziren martxan eta tenperaturari eta plubiometriari buruzko datu hauek ematen ditu.

1. taula. Metatutako prezipitazioen (mm) eta hileko batez besteko tenperaturen (C°) datuak												
	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
Prezip. Metatua	104,9	89,0	70,0	75,7	86,2	47,8	34,5	32,1	52,8	75,4	110,5	102,0
Batez besteko temp.	3,5	4,2	6,6	8,1	11,8	15,4	17,3	17,8	14,7	11,1	6,4	3,7

Lalastrako estazioan erregistratutako datuak (9060D), seriea: 1994 - 2013ko apirila. Iturria: Meteorologiako Estatu Agentzia, AEMET.

Datu horiek erreferentziatzen hartuta, Lalastrako onbroklimgrama lortzen da:



1. irudia. Metatutako prezipitazioen (mm) eta Lalastrako estazioan erregistratutako batez besteko hileko tenperaturen (°C) onbroklimgrama (9060D).

Irudian ikus daitekeenez, prezipitazioak udazkenean eta neguan izaten dira batez ere, eta, bereziki azaroan, abenduan eta urtarrilean. Urteko batez besteko prezipitazioa 880,9 mm ingurukoa da.

Udako hilabeteetan prezipitazioek behera egin dute, horrek esan nahi du udan lehortea dagoela, ez oso handia, baina nolabaiteko mediterraneotasuna erakusten duena; abuztua da hilabeterik lehorrena, batez beste 32,1 mm jasotzen dituelako, hau da, urteko batez besteko prezipitazioaren % 3,64.

Urteko batez besteko tenperatura 10,05 °C da. Gutxieneko batez bestekoa urtarrilean lortu da (3,5 °C), eta hilabeterik beroena abuztua da (17,8 °C).

3.1.2. Gea.

Ikuspegi geologikotik begiratuta, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestua Euskokantauriar Eskualdearen barnean kokatzen da eta Nafarroa-Kantabria egitura-domeinuaren zati da. Kretazeoko sedimentuz osatuta dago gehienbat eta Zenoiko bi kubeta handirekin egiten du muga ekialdetik eta mendebaldetik, Treviñokoa eta Villarcallokoa, hurrenez hurren.

Alderik iparraldekoena Treviñoko egitura sinklinal handiaren ipar-mendebaldean biltzen da. Goi Kretazeoko eta Zenoiko materialak ere badaude, hegoalderanzko antolamendu monoklinal leun batekin. Konfigurazio tektoniko hori, eta material eskudenez gain beste material bigunago batzuk izateak eragin du gailur-lerroz osatutako morfologia bat sortzea, leku horretako oso bereizgarria dena.

Hegoaldeko zatia Kretazeoko azaleratze zabalez osatuta dago. Azaleratze horien egitura Lahoz eta Sobróngo antiklinalak definitzen dute. Lehenengoak egitura zabala dauka, 20 km-tik gorako luzerakoa ipar-mendebalde/hego-ekialde norabidean. Iparraldeko alpea bertikal ezarrita dago. Hego-ekialderantz, Sobróngo antiklinalak ia Ipar-Hego norabidea du eta haren nukleoa oso apurtuta dago. Bi eremuak faila arrunt batek mugatzen ditu. Faila horrek harremanetan jartzen ditu Lahoz-Sobróngo antiklinalak eta Treviñoko sinklinaren egitura-eremua.

Antzinako azaleratze Jurasikoen (karniolak eta tuparriak) eta konplexu urgondarraren eta supraurgondarraren serie detritiko baten gainean (Utrillas faziesa), Goi Kretazeokoak dira eremu horretako azaleratze gehienak. Eremu horretan oso garrantzitsuak dira trabertinoen eta toben formazioak, hots, uraren kaltzio karbonatua hondakin organikoen gainean segidako geruzetan jartzen denean sortzen diren arroka oso arinak. Purón ibaiaren haitzarteko bidezidorrean dagoen toba-azaleratzea nabarmentzen da, oso ondo bereiz daitezkeen enbor, adar eta harrizko hosto ugari dituen.

Leku horretako interes geologikoa agerian jartzen da EAEko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan bildutako 5 eremu daudelako (E.J. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila. 2014). Honako hauek dira:

- 46. GIL: Sobróngo arroilaren serie estratigrafikoa. Valderejo-Sobrón antiklinalaren hegoaldeko muturraren ebaki osoa. 7 km-ko sekzioa morfologiaren agerpen aparta da: gailur-azaleratzeak, erliebe alderantzikatuak eta bloke hektometriko kolapsatu eta irristatuak ageri dira. Gailur-azaleratze deigarrienak Valderejo-Sobrón egitura antiklinalaren alpe bertikaleko material karedunei dagozkie. Haien interes estratigrafikoa oso altua da.
- 75. GIL: Purón ibaiaren haitzartea. Ibaiak Valderejoko antiklinalaren hegoaldeko alpearen egitura definitzen duten kareharrizko barretako bat zeharkatzen duen lekuan kokatzen da. Haitzartea toba-izaerako betegarri sedimentarioa du, haitzartearen paretei itsatsita leku batzuetan 25 m-potentziara iristen diren terrazak osatuz azaltzen dena. Interes geomorfologikoa altua du.
- 86. GIL: Sobróngo ur termalak. Sobróngo eta Soportillako iturburuak (Soportillakoa NOGBaren eremutik kanpo dago) multzo bereko ur termala ematen dute (19°C), sodio bikarbonatoduna. 1859an, ur horiek hartzera hurbiltzen ziren gaixo ugariei ostatua eskaintzeko, etxe txiki bat eraiki zuten Sobrón iturburuaren ondoan. Bi iturburuak lurpeko Valderejo-Sobrón Ur Masakoak dira, zehazki Sobrón Azpiunitatekoak. Haien interes hidrogeologikoa oso altua da.

- 111. GIL: Karria Haitzeko tontorra eta monolitoak: Ipar-mendebalde/Hego-ekialde norabideko gailurreria bat da, kilometro batetik gorako luzerakoa eta 200 m baino gehiagoko desnibelegoa. Valderejoko antiklinal asimetrikoaren ekialdeko alpean kokatua (121. LIG). Coniaciarreko kareharri erabat bertikal ezarriek osatzen dute gailurreria. Interes geomorfologiko oso altua du.
- 121. GIL: Valderejoko itxiera periantiklinala. Eskala handiko egituretan EAEn hobekien kontserbatuta dagoenetako bat da, eta didaktikarako adibide bikaina da. Lalastra ingurutik ikus daiteke haran bat dela, alde banatan erliebe jarraitu eta ia erabat malkartsuak dituela; erliebeok labarrak dira, gehienbat. Multzoaren formak teilatu hondoratu bat gogorarazten du; hau da, itxiera periantiklinal bat da. Interes tektoniko/estruktural altua du.

Geologia Interesdun Lekuak. Kalteberatasuna eta degradazio-arriskua

Euskal Autonomia Erkidegoko Geodibertsitatearen Estrategia 2020 delakoaren esparruan, Geologia Interesdun Leku (GIL) bakoitza balioetsi da bere kalteberatasunaren eta degradazio-arrisku motaren arabera, toki horri ematen zaion erabilera nahiz hirigintza-garapena edo espolioazio-arriskua kontuan hartuta.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko GILen kasuan, azterketa honek egoera desberdinak erakusten ditu. 111. GILa (Karria Haitzeko tontorra eta monolitoak) eta 121. GILa (Valderejoko itxiera periantiklinala) ez dira kalteberatasun-egoeran dauden lekutzat hartzen, eta 46. GILak (Sobróngo arroilaren serie estratigrafikoa) eta 86. GILak (Sobróngo ur termalak) berezko kalteberatasun baxua dute. Bi kasuetan, erabilerengatiko arriskua baxua da. Hala eta guztiz ere, 75. GILak (Purón ibaiaren haitzartea) kalteberatasun altua du, baina erabileragatiko edo espolioazioagatiko arriskuak baxuak dira. GIL horretako eremua gune babestuko Babes Bereziko Eremuaren barnean sartuta dago.

Natura-ondarearen gune babestuko eremuan geodibertsitatearekin lotuta dauden zentroei eta ekipamenduei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira: Sobróngo Uraren Interpretazio Zentroa, uraren kontsumo arduratsua egiteko ingurumen-hezkuntzara bideratuta dagoena; eta Valderejoko Parke Naturalaren Etxea. Etxe hori Lalastran dago eta Parkean dauden ibilbideei, jardueri eta zerbitzuei buruzko informazioa ematen du. Era berean, Landareen Interpretazio Zentro bat dago. Zentro horretan haranaren historia eta bertako jendearen usadioak eta ohiturak azaltzen dira.

3.1.3. Edafología.

Natura-ondarearen gune babestuko lurzoru gehienak Xerochrept taldekoak dira. Inceptisol horrek kolore arre-marroia du eta eremu horretako zati handi batean banatzen da, bereziki Valderejo sektorearen hegoaldeetik Sobróneraino, sektore hori barne. Eremuaren iparraldean Ustochrept taldeko lurzoruak nabarmentzen dira. Lurzoru horiek ere Inceptisole mailakoak dira.

3.1.4. Hidrología eta Hidrogeología.

Hidrología.

Natura-ondarearen gune babestuko urek lau Unitate Hidrologiko drainatzen dituzte: Jerea UH, Omecillo UH, Purón UH eta Ebro UH:

- Mendebaldean dagoen muturra eta Valderejo sektorearen iparraldean kokatuta dagoen eremu txiki bat Jerea ibaiaren arrokoak dira, Ebro ibaiaren ezkerreko ibaiadarra.
- Valderejo sektorearen ekialdeko eta Sobrónen iparraldeko urek Omecillo ibaira drainatzen dute.
- Sobrón sektorearen hegoaldeko urek zuzenean drainatzen dute Ebro ibaira.

- Eta, azkenik, Purón ibaia aipatu behar da, Valderejoko ibilgu nagusia da eta gainerako eremu osoa arro horretakoa da.

Purón ibaia Recuenco tontorraren (1.240 msnm) eta Recuenco I (1.236 msnm) tontorraren inguruetan sortzen da, eta hegoalderantz jarraitzen du Ebro ibaiaren ezkeraldearekin elkartzen den arte. Purón ibaiak neurtzen dituen 18,5 km-etatik 11,0 km Euskal Autonomia Erkidegoan barrena igarotzen dira; aitzitik, gainerako 7,4 km-ak Gaztela eta Leongo Erkidegotik igarotzen dira. Purón ibaiaren arroak 57,3 km²-ko azalera du; horietatik 24,6 km² euskal lurraldekoak dira. Goiko arro bat da, garrantzi urriko sare hidrografikoa duena, erreka gehienak euri-garaian sortzen dira, hala nola Ampo eta Polledo errekaak.

Purón ibaia emari urriko ibilgu bat da. Arabako Lurralde Historikoan barrena igarotzen denean, desnibel txiki batzuk gainditzen ditu. Ibaiaren azken tartean, Burgosko lurretan sartzen denean soilik hasten dira garrantzitsuak izaten desnibelak, eta ibaia mehertuta igarotzen da haitzarte txiki batean barrena, Árcenako mendilerroa gurutzatzen du Herrán herrira (Burgos) iritsi arte.

2. taula. Purón ibaiaren ekarpenaren urteko serieen oinarritzko estatistikoak (hm ³)					
Ekarpen-arroa	Serie luzearen batez bestekoa	Serie laburraren batez bestekoa	Serieen bariazioa	Gutxienekoa	Gehienekoa
Purónen arroa	16,17	14,30	-% 11,6	5,92	25,00


Iturria: 1980/81-2005/06 seriea.

Sobrón sektoreko urek garrantzi gutxiko ibai-bideen bitartez drainatzen dituzte beren urak, ipar-hego orientazioko (La Torca, Atapuerca, La Calleja, Vallorca) eta mendebalde-ekialde (Renejas) orientazioko amildegi multzo garrantzitsu bat sortzen dute; ibilgu oso aldapatsuak dira, eta 800 metrotik gorako desnibela dago Ebroren eta mendilerroaren kota altuenen artean.

Eremu hezeei dagokienez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuan barruko ur lenitiko gisa bereizitako 20 masa daude, honela banatuta: 5 baltsa, 14 putzu eta urtegi 1, baita 5 istinga ere.

Hidrogeología.

Valderejo-Sobrón lurpeko ur-masari buruz Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako informazioaren arabera, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa gune babestua Arabako Plataformaren Domeinu Hidrogeologikoaren barnean sartzen da ia osorik. Aipatutako Domeinuaren barnean, gune babestuaren eremuko akuiferoek Sobrón sektorea osatzen dute, Valderejo-Sobrón izeneko lurpeko ur-masaren barnean. 251 km²-ko ur-masa da, Hegoaldeko muga Ebro ibaiaren ibilguak jartzen du, eta Ekialdekoa Omecilloren ibilguak eta Barrio herriak. Ipar-mendebalderantz, masa Río de Losa herriraino hedatzen da, Jerea ibaiaren ertzetan.



2. irudia. Valderejo-Sobrón lurpeko ur-masa. Iturria: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.

Ur-masa horren barnean 7 akuifero bereizi dira. Akuifero horiek, oro har, karstikoak dira, garapen aldakorra dute kareharri cenomaniarretan fluxu lausoko karstikoak baitaude, eta goragoko mailetan, aldiz, detritiko mistoa dago.

Akuiferoen artean iragazkortasun tartekatatu baxuko serie indartsuak daudenez, drainatze-sarea konplexua da. Sare horren norabideak jarraibide estrukturalak baldintzatzen dituzte, bereziki ur-masaren hegoaldean. Lahozko eta Sobrónko antiklinalen eremuan, fluxu-norabideak zertxobait Ipar-mendebalde/Hego-ekialderantz jotzen dute mendebaldeko zatian Purón ibairantz drainatzeko, eta Ipar-hegoalderantz ekialdeko zatian Eborantz drainatzeko. Ur-masaren iparraldeko zatian, fluxua hegoalderantz doa orokorrean, Omecillorantz.

Azaleratze iragazkor guztien gainean kargatzen da, baina baldintzak oso desberdinak dira aparatu exokarstikoen garapenaren arabera. Ildo horretan, lehentasunezko elikadura-eremuak daude, hala nola Sobrónko eremua. Leku horretan xurgapen modu mordo dago.

Iragazkortasun baxuko serie tartekatuek egiten duten hesi-efektuaren ondorioz azaltzen diren iturburu mordoaren bitartez egiten da deskarga, eta ibilguetarantz, batez ere Eborantz.

Unitatearen drainatze-gune nagusiak honako hauek dira: lehenik eta behin, Sobrónko hidrokarburoen zundaketak, iturbegi bidez 4 hm³ baino gehiago drainatzen dutenak urtero; eta bigarrenik, hurbileko iturburu batzuk, horiek ere Eborantz drainatzen dute, hala nola Fría iturria (20 l/s) eta del Río (7 l/s) iturria deitutakoak. Azken horretako ura mineromedizinal gisa erabiltzen da Sobrónko Bainuetxean. Halaber, mendebalderantz Riberako iturria dago, agorraldian 20 l/s-ko emaria duena eta Lalastra hornitzeko erabiltzen dena.

Jarraian, ur-masa horren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu:

3. taula. Demarkazio Hidrografikoaren karakterizazioa				
Kodea	Izena	Azalera (km ²)	Domeinu Hidrogeologikoa	Okupatutako azalera sektoreen arabera (km ²)
ES091S000034	Valderejo-Sobrón	255,4	Arabako plataforma	123,4

4. taula. Lurpeko ur-masan erabil daitezkeen baliabideak (hm ³ /urtea)						
Kodea	Izena	Azalera (km ²)	Prezipitazioaren iragazketa Sektoreak	Prezipitazioaren iragazketa masaren Gainerakoan	Ureztatze-itzulera	Baliabideak, guztira
ES091S000034	Valderejo-Sobrón	169,6	17,5	2,7	0,1	20,3

5. taula. Lurpeko uren erabilera, hartune motaren arabera (hm ³ /urtea)						
Kodea	Izena	Demarkazioa	Azalera (km ²)	Iturburuak	Zundaketak	Erabilera, guztira
ES091S000034	Valderejo-Sobrón	Ebro	169,6	0,06	0,07	0,13

Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa, 2015-2012.

Bestalde, eta Ebroko Plan Hidrologikotik ondorioztatzen denez, erabil daitezkeen baliabide naturala, lurpeko ur-masek dauzkaten ingurumen-zortasunak kenduta, honako hau da: 16 hm³/urtea, eta ustiapen-indizea: 0,002.

6. taula. Lurpeko ur-masen baliabide naturala (hm ³ /urtea)				
Ur-masak	Euriagatik kargatzea	Ibaien ekarpenak	Baliabide naturala	Erabil daitezkeen baliabide naturala
007 Valderejo-Sobrón	20,3		20,0	16,0

7. taula. Lurpeko ur-masaren edo masa multzoaren ustiapen-indizea (hm ³ /urtea)			
Masaren izena	Erabil daitezkeen baliabidea	Konprometitutako bolumena	Ustiapen-indizea
007 Valderejo-Sobrón	16,2	0,0	0,002

Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa.

Erabilitako baliabide guztiak (0,13 hm³/urtea) hiri-erabilerarako bideratzen dira.

Lurpeko ur-masa horren egoera kuantitatiboari eta egoera kimikoari dagokionez ez ezik, ur-masa horren ingurumen-helburuei dagokienez ere, Ebroko Plan Hidrologikoak (2015-2012) emaitza hauek eskaintzen ditu:

8. taula. Valderejo - Sobrón lurpeko ur-masaren egoera eta ingurumen-helburuak								
Kod.	Izena	Plangintzaren lehenengo zikloa			Plangintzaren bigarren zikloa			
		Egoera kuantitatiboa, 2008	Egoera kualitatiboa, 2008	Azken egoera	Egoera kuantitatiboa, 2013	Egoera kualitatiboa, 2013	Azken egoera, 2013	Ingurumen-helburua
007	Valderejo-Sobrón	ONA	ONA	ONA	ONA	ONA	ONA	2015

Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa, 2015-2012.

Lurpeko uren kalitatearen jarraipena egiteko Sareak –Uraren Ur Agentziak ustiatzen duenak– emandako datuek emaitza horiek berresten dituzte. Erregistratutako urte guztietan eta ur-masa horren egoera kimikoari buruzko informazioa ematen duten bi zundaketen kasuan, egoera kimikoa ona da:

9. taula. Valderejo - Sobrón lurpeko ur-masaren egoera kimikoa							
Masa	Kod.	Laginketa-puntua	2012	2013	2014	2015	2016
Valderejo-Sobrón	SC05	SOBRÓN 1 zundak	ONA	ONA	ONA	ONA	ONA
	SC25	ANGOSTO zundak (106-03)					

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko lur azpiko urak kontrolatzeko sarearen mantentze-lanak. URA. 2016. urtea.

Laburbilduz, ur-masa horren (CHE) egoerari buruzko diagnosiak honako hau ondorioztatzen du:

- Ur-masan ez dago kutsadura puntualaren zantzurik. Ur-masan ez da erauzketa nabarmenik egiten. Eskari handiena herri txikien horniduran dago. Eskari horri iturburuetatik bildutako urarekin erantzuten zaio.
- Ia ez dago presio nabarmenik ur-masaren gainean. Biztanleriaren dentsitatea oso baxua da. Omecillo ibaiaren ibilguaren ondoan dauden Uribarri Gaubea eta Bóveda herriak izan ezik, gainerako herriak ez dira 50 biztanle izatera iristen.
- Nekazaritza-azalera ur-masaren guztizko azaleraren % 12 soilik da, lehorreko nekazaritza-lurrak, belardiak eta larrediak dira; gainerako azaleran basarteak eta zuhaixka-sastrakadiak daude. Nekazaritza-sektorea oso mugatua da eta ez dago industria-sektorerik.
- Ez dago arriskuan.

3.2. EZAUGARRI EKOLOGIKOAK.

3.2.1. Habitat naturalak eta erdinaturalak.

Habitat Zuzentzarauan eta abenduaren 13ko 42/2007 Legean (Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoan) (hemendik aurrera NOBL) xedatutakoaren arabera, eta bi testuetako I. Eranskinari jarraikiz, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuan dauden Batasuneko intereseko habitatei buruzko informazioa bilduko dugu ondoren. Aipatutako eranskinetan erabili den izendapena erabili dugu (hemendik aurrera izendapen hori erabiliko da, ahal dela, dokumentu honetan), baina habitat bakoitzerako EAera egokitutako izendapena aipa daiteke testuan. (*) ikurrak lehentasunezko habitata dela esan nahi du.

Leku honetan dauden Batasunaren intereseko habitat guztiak kontserbatzeko elementuak dira.

Nolanahi ere, aipatutako jarduerak egiteari uzteagatik sortutako landarediaren birsorkuntza naturalaren ondorioz oihanpe trinkoa sortu da, espezie autoktonoetan eta ingurune horretako berezko serieen espezie potentzialetan aberatsa dena, eta agerian jartzen du pinu gorriaren basoak ordezkatzeko erabili direla. Era berean, zenbait kasutan ikusi da pago helduek ihartu egiten dituztela pago horien artean hazten diren pinuak, eta pinu gorria ordezkatu dutela.


Gaur egun, esan daiteke Natura-ondarearen gune babestuko baso gehienak banako gazteek osatzen dituztela; ikusten da ale urtetsurik ez dagoela, ezta ekosistemaren egiturari eta funtzioei laguntzen dien ingurune beste elementurik ere. Horrenbestez, zuhaitz-errezelaren estaldura ona bada ere, basoaren egitura eta arkitektura ez da egokia. Baso heldurik ez izatea beste arazo bat da baso-animalien hainbat espezie babesteko. Dena den, birsortzen ari diren gune zabalak daudenez, basoa etorkizunean mantenduko dela aurreikus daiteke.

3.4.2. Abere-erabilera.

Valderejoko sektorean bazkatzen diren aziendak behi-azienda, ardi-azienda eta zaldi-azienda dira. Valderejoko Parke Naturala kudeatzeko tresnek ahuntz-azienda egotea debekatzen dute. Valderejo sektorean bazka daitekeen sei gune daude, azalera totala: 1.784,4 ha.

23. taula. Valderejo sektorean bazka daitekeen guneak	
Gunea	Azalera (ha)
(1) El Cubo gunea - Anderejoko mendilerroa	480,0
(2) Paules gunea	67,0
(3) Recuenco – Arrayuelas gunea	204,6
(4) Polledo - Trascamayo – Valcabado gunea	633,6

23. taula. Valderejo sektorean bazka daitekeen gunekak	
Gunea	Azalera (ha)
(5) Lahoz – Villamardones gunea	280,6
(6) Riberako gunea	118,6



9. irudia Valderejo sektorean bazka daitekeen gunekak.

Ez da erraza kalkulatzeko sektore horretan zenbat abelburu bazkatzen diren, Burgosko ustategietatik iritsitako azienda dagoelako, eta ez dago ustategi horiei buruzko daturik. Dena den, erantsitako taulan Valderejo bazkatzen diren abelburuen kopuruari buruzko eta azientaren banaketari buruzko kalkulua egin da Valderejoko Parke Naturalaren III. EKZParen zirriborro-dokumentuan bildutako datuen arabera.

24. taula. Valderejo sektorean bazkatzen diren abelburuak eta azientaren banaketa				
Banaketagunea	Abelburu mota eta kopurua	ALU	Abere-zama (ALU/ha)	Presentzia
Ribera	70 behi	70	0,79	Maiatzetik azarora
	30 behor	24		Urte osoan
Lahoz-Villamardones	130 behor	104	0,37	Martxotik azarora
Paules	25 behi	25	0,91	Martxotik azarora
	45 behor	36		
El Cubo-Anderejoko mendilerroa	40 behi	40	0,08	Apiriletik urrira
Recueno-Arrayuelas	50 behi	50	0,49	Maiatzetik ekainera, noizean behin uztailetik azarora. Azienda hori Tobalina haraneko Burgosko gunekoa da eta bazkatzeko gunea partekatzen du Valderejorekin.
	40 behor	32		
	190 ardi	19		

24. taula. Valderejo sektorean bazkatzen diren abelburuak eta aziendaren banaketa				
Banaketagunea	Abelburu mota eta kopurua	ALU	Abere-zama (ALU/ha)	Presentzia
Polledo-Trascamayo-Valcabado	75 behi	75	0,14	Martxotik azarora
	190 ardi	19		Neguko hilabeteetan

Iturria: Valderejoko Parke Naturalaren III. EKZPa, 2008ko datuak.

Sobróngo sektoreari dagokionez, ez dago datu zehatzik bertan dagoen aziendari buruz. Dena den, landa-lana egin den bitartean ikusi da ahuntz-azienda badagoela. Ahuntz-azienda oso kaltegarria izan daiteke oihanperako eta oihanpean bizi diren flora-espezie batzuetarako; horregatik, ezinbestekoa da mota horretako inpaktuak kuantifikatzea eta kontrolatzea.

Abeltzaintza estentsiboaren ur-eskariari hargune propioen bitartez erantzuten zaio batez ere. Abeltzaintza intentsiboaren eskariari dagokionez, eta eguneratutako datuen arabera 20.000 m³ ingurukoa da urtean.

Abere-aprobetxamendua goi-ordokiko sastrakadian-larrean eta haran-hondoetako sega-belardietan egiten da. Bi habitatetan abeltzain-kudeaketa hau egiten da: aziendak ustiatagietako ukuiuetan igarotzen du negua eta udazkenaren zati handiena, eta bero egiten hasten duenean, udaberrian, mendiko larreetara igotzen da (goi-ordokiko sastrakadia/larria). Erabilera hori ez da ustiatagi guztietan egiten, ezta ustiatagi bereko azienda guztiekin ere, abeltzain bakoitzak erabakitzen du zenbat abelburu igoko dituen. Mendiko guneez igoko den eta mendiko guneez larratuko diren abelburuen kopuru desberdina izateak eta mendiko larreen azalera haranean dauden belardien azalera baino handiagoa izateak (batean % 41; bestean, aldiz, % 9) eragiten du aziendaren presioa handiagoa izatea belardietan goi-larreetan baino. Sega-belardiak biztanleguneetatik hurbil daude.

Belardien kudeaketa.

Neiker erakundeak egindako "Estudio de una Propuesta de Gestión Sostenible de la Cabaña Ganadera en el Parque Natural de Valderejo" izeneko azterlanetik ateratako datuen arabera (Agrosistemen eta Animal Ekoizpena Saila, Derio – Arkaute, 2004), sega-belardien azalera 288 ha-koa da Valderejoko sektorearen barnean. Belardiak lurzoru tuparrizaleetan garatzen dira. Lurzoru horiek limotsuak edo batzuetan trinko samarrak direnez, ur-kantitate handiak atxiki ditzakete. Sega-belardi gehienak duela bost urte baino gehiago ezarri ziren bazka-intereseko hainbat espezie ereinez; horregatik, agronomikoki naturalizat hartzen dira. Hala eta guztiz ere, etengabeko hobekuntzen kudeaketak (bereziki lurzoruen ongarriketa eta larratze kontrolatua) eragiten du larre gehiena bazka-balio altuko gramineoak izatea, hala nola *Dactylis glomerata*, *Festuca arundinacea*, *Lolium perenne*, *Phleum pratense*, *Arrhenatherum elatius*. Era berean, lekadunak ere badaude, hala nola *Trifolium repens* (hirusta zuria) eta *Lotus corniculatus* (mendiko uso-belarra).

Bazka kantitatez eta kalitatez sortzeko, jarduerarik ohikoena eta urtero egiten dena da larreen lursailen ongarritze organikoa eta/edo minerala. Valderejoko sektorean gehien hedatuta dagoen modua hondoko ongarritzea da, belar-espezieek nutrizio-erreserbak berreskuratu ahal izateko. Kasu gehienetan ongarririk organikoaren bitartez egiten da, zehazki urte osoan ustiatagian bertan sortutako zaldien simaurra eta beste nonbaitetik (ustiatagitik kanpo) ekarritako oilo-simaurra erabiliz (Lahozko ustiatagiaren kasu zehatza).

Udaberrian, belarra moztu aurretik, ongarririk minerala botatzen da (nitrogenoa, fosforoa eta potasioa edo nitrogenoa soilik), belarra hazten uzten da uda hasiera arte eta orduan moztzen da behin bakarrik. Udazkenean eta neguaren zati batean aziendari larreetan eta uztondoetan sartzen uzten zaio. Azienda urte osoan sar daitekeen belardietan, zona marjinaletan daudenetan, itxura desberdina da, zapaltzera egokituta dauden belarrak

nagusitzen baitira. Belar horietako askok oinaldeko errosetetan jarritako hostoak dituzte. Aziendaren presiorik ez badago, belardi marjinal horiek zakartu egiten dira eta inguruko mendi-hegaletako sastrakadien espezieak eta larreak sartzen hasten dira pixkanaka.

Bazka-biomasa urte-sasoien arabera azaltzen da: negu amaieran hasten da hazkunde begetatiboa, tenperaturak gora egiten duenean, eta ekainetik uztaiera bitarte dago produkziarik handiena; garai horretan mozten da, hain zuzen ere, lurzatiako belarra. Urteko gainerako egunetan larratu egiten da lurzatiatan. Erabilera misto hori (mozketa-larratzea) ematen zaie gehienbat Valderejoko belardiei.

Aitzitik, goi-larreak ez dira ongarrizten. Goi-ordokian tokiko aziendarentzako nahikoa leku dagoenez, azienda maiatzetik udazkenean sartu arte igotzen da mendiko eremu zabaletan eroso larratu dadin.

NEIKERek diseinatutako ADILUR programa erabiliz, kalkulatu da larre mota horrek urte bakoitzean 7 t MS/ha produzitu dezakeela; hori 2 ALU/ha/urtea baino zertxobait txikiagoa den abere-zamaren baliokide izan liteke. Dena den, beste azterketa batzuek (Rodríguez Castañón et al, 1995) adierazten dute 800 msnm-tik gora kokatutako goi-mendiko sistemetakako, aprobeztatutako belarraren batez besteko kopurua 3,9 t MS/ha/urte izan daitekeela, eta horrek 0,9 ALU/ha-ko abere-zamak ahalbidetzen ditu. Datu horiek eta Paulesko zonako egitura-ezaugarriak kontuan hartuta, litekeena da zona horrek bere muga baino zertxobait gorago dagoen abere-zama jasatea. Gainerako zonei dagokienez, ematen du abere-zama dagozkion mugetatik behera dagoela.

3.4.3. Nekazaritza-erabilera.

Arabako zona honetan zereal-hazkuntza, patata-hazkuntza eta erremolatxa-hazkuntza nagusitzen dira. Lurrak udazkenaren hasieran lantzen dira. Uda iristen denean, uzta biltzen da eta uztondoak udazkena iritsi arte mantentzen dira; une horretan berriro hasten da zikloa. Hazkuntza horien ohiko erabilera arrunta lurra iraultzea eta goldatzea da, eta, ondoren, ereitea. Erein ostean, ongarrri inorganikoa aplikatu ohi da hondoan eta kasuen arabera azaleko ongarritze bat edo bi aplika daitezke.

Nekazaritzara bideratutako azalera urri samarra da Natura-ondarearen gune babestuen barnean; Valderejoko haranean, Purón ibaiaren bi aldeetan daude erabilera horretara bideratutako lurzati gehienak. Zereala da uzta nagusia (70,3 ha); zerealen lurzatiarten behi-aziendak eta zaldi-aziendak bazkatzeko sega-belardiak tartekatzen dira. Jarduera hori bereziki txikia da Sobróngo sektorean, 17 ha dira guztira (eremuaren azaleraren % 1).

3.4.4. Erabilera publikoa eta aisialdi-erabilera.

Arrantza.

Valderejoko Parke Naturalaren erabileren erregulazioak ezartzen duenaren arabera, arrantza debekatuta dago Valderejoko sektore osoan. Ebro ibaiari dagokionez (eremu honekin hegoaldean egiten du muga), Sobróngo urtegiako arrantza ibai-zati libretzat hartzen da ziprinidoak harrapatzeko, arrantzari buruzko urteroko foru-arauen bidez arautzen da eta espezie exotiko inbaditzaileak arrantzatzea eta harrapatzea ere baimenduta dago. Urtegi horretan zebra-muskulua dagoenez, arrantzak zehurtziazko hainbat muga ditu espezie horren ugalketa eragozteko edo atzeratzeko.

Ehiza.

Valderejoko Parke Naturalaren erabileren erregulazioan ezartzen denaren arabera, ehiza baimenduta dago honako eremu hauetan izan ezik: Erreserba Integraleko Eremuan, Mendi Babesleko Erreserba Integraleko Eremuan eta Landako Biztanleguneetan. Valderejoko Parke Naturalaren eremua bat dator VI-10.103 ehiza-barrutiarekin. Eremu honetako Natura Baliabideen Antolamendurako Planak (NBAP) ezartzen du basurdea, galeperra eta oilagorra ehiza-

ustiapenaren xede izan daitezkeen espezieak direla, betiere Parke Naturalaren kudeaketa organoak ezartzen dituen lekuetan eta egunetan. Gaur egun arte, soilik basurdea (*Sus scrofa*) izan da ehiza-ustiapenaren xede, betiere Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planetik (EKZP) eratorritako araudia kontuan hartuta. Dena den, espezie jakin batzuetako aleak (orkatza) harrapatzea edo murriztea gomendatzen duten arrazoi biologikoak, zientifikoak eta teknikoak badaude, Parke Naturalaren Organo Kudeatzaileak berariazko baimenak eman ditzake eta kasu bakoitzean aplikatzekoak diren baldintzak ezar ditzake.


Sektore honek Ehiza antolatzeko Plan bat dauka. Plan horretan honako enklabe hauek ezartzen dira ehizarako ez diren enklabetzat:

- Erreserba Integraleko Eremua; ehiza-barrutiko derrigorrezko erreserba gisa ezarri da.
- Segurtasun-eremuak: 100 m-ko babes-banda landa-nukleoan (Lahoz, Lalastra, Ribera eta Villamardones) eta atsedenekuen inguruan; 75 m-ko babes-banda aipatutako landa-nukleoetara iristeko errepideen bi aldeetan; 25 m-ko babes-banda ur-ibilguen bi aldeetan; 50 m-ko babes-banda nekazaritza-bideen eta bidezidorren sarearen bi aldeetan.
- Faunarako intereseko eremuak: 100 m-ko babes-banda hegazti harkaiztarren ugaltze-tokien inguruan; 50 m-ko babes-perimetraoa putzuetan eta urak biltzeko eta banatzeko baltsetan

Eremuaren gainerako zatia (Sobrón sektorea) VI-10.073 eta VI-10.109 ehiza-barrutien artean banatzen da. Debekualdiei buruzko urteroko foru-arauek Arabako Lurralde Historikoko ehiza-jardueraren berariazko xedapenak arautzen ditu denboraldi bakoitzerako, baimendutako aldiak, ehiza-espezieak eta jarduera hori arautzeko beste berariazko arau batzuk barne. Era berean, berariazko araudi erregulatzaila dago orkatza ehizatzeke, Arabako Lurralde Historikoko ehiza larriko barruti guztiak daude baimenduta espezie hori ehizatzeke.

Mendi-ibilia.

Arabako Foru Aldundiak, Tokiko Erakundeen laguntzarekin, bi hamarkada baino gehiago daramatza lanean Arabako Ibilbide Berdeen Sarea garatzeko.



10. irudia. Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarea.
Iturria: Marta Olalde Fernandez. Biodibertsitate eta Ingurumen Zerbitzua, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Biodibertsitate Saila. Foresta: 55. zk.

Hauek dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuekin lotutako ibilbide nagusiak: *GR 282 Artzaintza Naturbidea*, *GR 1 Bidezidor Historikoa* eta *GR-99 Ebroko Bide Naturala*.

Bestalde, Valderejoko sektoreak haran horretako leku erakargarri nagusiak ezagutzea ahalbidetzen duten bidezidorren sare bat dauka. Bidezidor gehienak ibilbide laburrekoak dira, baina daukaten kokapenak ahalbidetzen du ibilbide batzuk elkartzea eta ibilbide luzeagoak egitea.

25. taula. Valderejoko Parke Naturaleko bidezidorren sarea			
Bidezidor zk.	Distantzia (km)	Iraupena (min)	Zailtasuna
1. Purón (haitzartea)	5,2	90	Ertaina
2. La sierra	9,4	210	Ertaina
3. Purón/Coronas	5,6	75	Ertaina
4. Recuenco	2,2	60	Ertaina-Baxua
5. Bóveda	1,6	40	Ertaina
6. San Lorentzo	2,6	60	Ertaina-Baxua
7. Vallegrull	5,2	90	Ertaina
8. Portilla	6,6	90	Ertaina
9. Santa Ana	3,6	60	Ertaina-Baxua

Iturria: Valderejoko bidezidorren sarea. Informazioa eta mapa Lalastra Parketxean.

Ingurumen-arloko hedapena eta hezkuntza.

Natura-ondarearen gune babestuan Parketxe bat dago Lalastraren nukleoan, Valderejoko haranean. Lalastrako Parketxea bisitariari arreta eta informazioa emateko zentro bat da, eta Parke Naturaleko elementu garrantzitsuenen erakusketa-aretoak ditu. Gidari-zerbitzuak dituzte eta gidari horiek interpretazio-zeharkaldiak eskaintzen dituzte eremuan barrena. Lortutako datuen arabera, eta Valderejoko Parke Naturala soilik kontuan hartuta, kalkulatzen da 2017. urtean 50.815 pertsona bertaratu zirela.

Sobrón sektorean Interpretazio Zentroa eta Ur Museoa dago (www.museoagua.com). Leku horrek tresna bat izan nahi du bisitarien ingurumen-hezkuntzarako eta bisitariak parte hartzeko, baliabide naturalak kontserbatzeko, ingurumena hobetzeko eta uraren kontsumo arduratsua egiteko.

Halaber, Sobrónen Aventura Sobrón SL enpresa dago. Enpresa horrek abentura-jarduerak egiten ditu eta Ebro ibaia Sobrónen barrena igarotzen denean marrazten duen meandroan kokatuta dago.

3.4.5. Aprobetxamendu hidrologikoak.

Uraren Euskal Agentziaren datuen –EAEko ur-eskariari buruzko 2014ko azterketan bildutakoen– arabera, Gaubea eta Lantaróngo udalerrietarako kalkulaturako hiri-ur gordinaren eskariak honako hauek dira:

26. taula. Hiri-eskari gordinaren totala (m ³ /urtea)			
UDALERRIA	2011ko jokalekua	2021eko jokalekua	2027ko jokalekua
Gaubea	246.317	259.084	267.470
Lantarón	227.719	233.760	238.293

Puróngo Unitate Hidrologikoari dagokionez, jendea bizi den Valderejoko bi nukleo bakarrak Lahozen kokatuta dagoen ur-biltegi batez hornitzen dira. Ur-biltegi hori, halaber, Recuencoko mendilerrotik jaisten diren iturburuek hornitzen dute.

Sobrónko sektoreari dagokionez, bi Unitate Hidrologikoetako (UH) da: Ebroko UHkoa eta Omecilloko UHkoa. Baina Natura-ondarearen gune babestuen sektore horretako muga barnean dauden hartuneak Ebroko UHkoak dira.

27. taula. Hiri-hornidurarako hartuneak NOGBaren eremuan						
Kodea	Izena	Mota	Sistema	UTM X	UTM Y	Emaria (l/s)
DP002728	Bachicabo	Tanga	Bachicabo	494061	4737512	-
DP002740	Sobrón	Ur-biltegia	Sobrón-Bergonda-Fontetxa-Larrazubi	492350	4735174	-
MN002768	Hontanillas	Iturburu	Bachicabo	492305	4737637	0,28
SN002744	Sobrón II	Zundaketa	Sobrón-Bergonda-Fontetxa-Larrazubi	490572	4734418	6,77
SN002754	Bachicabo	Zundaketa	Bachicabo	493792	4737102	0,28
SN009032	Sobrón I	Zundaketa	Sobrón-Bergonda-Fontetxa-Larrazubi	490765	4734665	6,77

Iturria:ftp://ftp.geo.euskadi.eus/cartografia/Servicios_Redес_de_Suministro/AGUAS/ABASTECIMIENTO/

Bestalde, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren hartuneen inbentarioan inskribatutako beste bi hartune daude (Kodeak: H33170, H18256) eremu horretan (Iturria: Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, <http://iber.chebro.es/geoportal/index.htm>).

Ebro ibaiaren Unitate Hidrologikoan nolabaiteko garrantzia duten udalerriaz gaindiko bi hornidura-sistema daude:

- **Sobrón sistema:** Lantaróngo udalerriko Sobrón, Larrazubi, Fontetxa eta Bergondako biztanleria-entitateak hornitzeko sistema da. Sobróngo urtegiaren harpenaz osatutako sistema bat da. Lurpeko uraren iturburu den putzu bat da, eta hortik biltegi erregulatu batera doan eroanbide bat ateratzen da. Ur-biltegi horretatik grabitate bidez eroanbide bat ateratzen da Sobróngo ur-biltegiraino eta beste bat ponpatze-estazio bateraino. Hortik Larrazubi, Fontetxa eta Bergondako ur-biltegiak eta Lantaróngo Industrialdera banatzen den ura altxatzen da. Lau ur-biltegiak bakoitzetik dagokion biztanle-entitatera banatzen da ura. Bildutako informazioaren arabera, sistema horrek ez du ur-arazorik udan.
- **Bachicabo sistema:** Gaubeako udalerriko Bachicaboko biztanleria-entitateak hornitzeko sistema da. Sistema hori iturburu baten harpenak eta lurpeko ur-putzu baten erabilera osatzen dute. Hontanillas iturburu etengabe erabiltzen da eta iturburu horretan bildutako ura grabitate bidez eramaten da Bachicabo ur-biltegia. Ur-biltegi horretara beste eroanbide bat iristen da, Bachicaboko zundaketatik datorrena; noizean behin erabiltzen da, iturburu eskariari erantzuteko adina ur emateko gai ez denean. Bachicaboko biltegitik biztanle-entitatera banatzen da ura. Bildutako informazioaren arabera, sistema horrek ez du ur-arazorik.

Uraren aprobetxamenduari eta/edo Natura-ondarearen gune babestuekin lotutako sare hidrografikoan egon daitezkeen eragozpenei dagokienez, nabarmentzekoak dira Sobróngo presaren azpiegiturak eta alemaniarren presa txikia.

3.4.6. Erauzketa-jarduerak.

Jarduera mota horri dagokionez, esan daiteke jarduera horiek marjinalak direla eta izan direla Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan. *Mapa de rocas y minerales industriales de la Cuenca Vasco-Cantábrica. Escala: 1:200.000 (Memoria eta Mapa. EEE. IGME. Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. 2009)* dokumentutik ateratako informazioaren arabera, gaur egun ez dago jarduneko erauzketa-ustategirik, eta iraganean azalera oso murriztuko bi eremu soilik zeuden, zeinetan, antza denez, gaur egun jarduerarik ez duten dolomien aprobetxamenduen aztarnak dauden, eta beste eremu txiki bat, A-2122 errepidearen eskuineko aldean, non kareharrien antzinako aprobetxamenduen aztarnak ikus daitezkeen, baina gaur egun eremu hori ere abandonatuta dago. Hiru eremu horiek Sobrón sektorekoak dira.

Egoera berdina da Valderejoko Parke Naturalaren eremuan, eta aipatutako informazio-iturriaren arabera, ez dago jasota jarduneko eta abandonatutako erauzketa-aprobetxamendurik izan zenik. Parke Naturalaren lehenengo NBAParen arabera, (urtarrilaren 14ko

3/1992 Dekretua) Natura-ondarearen gune babestua berak dauzkan balio natural garrantzitsuen kontserbazioari lehentasuna eman behar zaion eremua da, eta nekazaritzako eta abeltzaintzako nahiz basogintzako erabilerak, ehiza- eta arrantza-jarduerak, jarduera zientifikoak eta ikerketa-jarduerak eta hezkuntza-jarduerak soilik onartuko dira, betiere erabilera eta jarduera horiek bateragarriak badira kontserbazioarekin. Gainera, baimenduta zegoen landa-nukleoetan urbanizazio-jarduerak eta eraikuntza-jarduerak egitea, eta debekatuta zegoen espresuki erauzketa-jarduerak eta industria-jarduerak egitea Parkeko eremu osoan (NBAParen 6. artikulua). Hau da, 1992. urteaz geroztik agerian utzi zen mota horretako jarduerak eta Parke Naturala kontserbatzeko helburuak bateraezinak zirela.

Beste alde batetik, leku hori Parke Natural eta Natura 2000 Sarearen KBE eta BBE izendatzeko arrazoi izan ziren ondare geologikoaren, ingurumen-ondarearen eta paisaia-ondarearen balio handiak eta mota horretako aprobeixamenduarekiko ahultasun handia direla medio, ez da komeni eremu babestuan mota horretako jarduerak egitea etorkizunean. Hori kontsiderazio hauetan oinarritzen da:

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren natura-balio nabarmenak agerian geratzen dira Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean bildutako Batasunaren intereseko 25 habitat mota daudelako eremu honetan (habitat horietatik 5 lehentasunezkoak dira), hau da, gune babestuaren azaleraren erdia baino gehiago, eta horrek kontserbazio-egoera onean dauden ekosistemen aberastasun aparta ematen dio eremu honi, eta aberastasun hori nahitaez babestu behar da.
2. Baliabide ustiagarriak a priori egon litezkeen eremuak bat datoz kontserbazio-interes bereziko habitatekin eta espezieekin, honako ingurune hauekin lotuta daudenak batez ere: harkaiztegiak, hartxingadiak, leizeak eta barrunbe karstikoak. Ildo horretan, Valderejo-Sobrón-Árcena eremua Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko funtsezko eremutzat hartuta dago Euskal Herrian. Eremu horiek honako hauek dira: "Kareharrizko harkaiztegia" (8210), "Hartxingadiak" (8130), "Turismoak ustiatu gabeko leizeak" (8310) eta "Mendiko megaforbioak" (6430). Batasunaren intereseko habitat harritsu horiekin lotuta, balio ekologiko handia duten flora- eta fauna-espezieak bizi dira:
 - Ingurune horiek landare-estaldura txikia duten arren, ingurune horietan oso flora espezializatua, mota horretako inguruneetan bizitzera egokituta dagoena, garatzen da. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko habitat harritsuetatik Euskal Herrian oso banaketa murriztua duten flora-espezieak aipatu dira: *Petrocoptis lagascae*, *Antirrhinum braun-blanquetii*, *Armeria arenaria subsp. burgalensis*, *Aster alpinus*, *Aster willkommii*, *Erodium daucoides*, *Erodium glandulosum*, *Lomelosia graminifolia*, *Saxifraga losae*, eta *abar*. Gehienak benetan bitxiak dira, oso mehatxatuta daude, eta batzuk galtzeko arriskuan daude.
 - Ingurune horiekin lotuta dagoen faunari dagokionez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko harkaiztegietan eta amilburuetan hobekien kontserbatuta dauden eta EAEko ordezkarrienak diren hegazti harkaiztarren komunitateetako bat garatzen da; hori da funtsezko arrazoa ingurune hori Hegaztientzako Babes Bereziako Eremu (BBE) izendatzeko. Geroago adieraziko dugunez, Natura-ondarearen gune babestu hau –hegazti talde hori funtsezko elementua da gune horretan– oso garrantzitsua da hegazti talde hori kontserbatzeko; izan ere, gaur egun, Europako harrapari harkaiztarren populazio gehienak kontrako kontserbazio-egoeran daude eta, kasu askotan, Espainian daude munduko populazio handienak. Gune babestu honetan habia egiten duten hegaztiak hauek dira: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta hontz handia (*Bubo bubo*). Hauek ere ikus daitezke tarteka: ugatza (*Gypaetus barbatus*), aztore-arranoa (*Aquila fasciata*), eta beste batzuk. Espezie horiek guztiak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan bilduta daude. Ugatza eta aztore-arranoa Galtzeko arriskuan kategorian sartuta daude. Sai zuria eta arrano beltza Kaltebera gisa daude jasota katalogo horretan. Hontz handia espezie Bakana da EAEn eta sai arrea Interes Bereziako gisa

azaltzen da Katalogoan. Espezie horietarako mehatxu-faktore nagusien artean habitataren aldaketa eta suntsipena daude, baita gizakien eragozpenak ere umatze-eremuetan. Espezie horietako batzuk, esate baterako sai zuria bereziki ahulak dira gizakiaren presentziaren eta edozein giza jardueraren aurrean.

- Natura-ondarearen gune babestuko kareharri moztuetan eta harkaiztegietan leize txiki eta haitzulo asko daude, 'turismoak ustiatu gabeko leizeak' (8310) deitzen zaie eta bereziki garrantzitsuak dira eremu horretan dauden kiropteroen komunitaterako; lotutako fauna hori, berez, oso kaltebera da. Habitat kabernikolarekin lotura zuzenena duten kiropteroen hiru espezieak Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinetan bilduta daude. Gainera, *Miniopterus schreibersii* eta *Rhinolophus ferrumequinum* espezieak kalteberatzen hartuta daude Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan. Valderejoko sektorea EAEn dauden kiropteroen espezieen aberastasun handieneko eremuetako bat da, eta, horregatik, lehentasunezko eremutat hartuta dago 'Kiropteroen ekintza-plana EAEn' izeneko planean.

Horrenbestez, biodibertsitatea kontserbatzeko eremu garrantzitsua da, bai eskualdean, bai Europan. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko ingurune harritsuarekin lotutako flora- eta fauna-komunitatea ingurune horrek jartzen dituen baldintza zailak egokitutako espezieek osatzen dute, ingurune horietan soilik dauden espezieak dira, habitataren edozein aldaketarekiko edo galerarekiko, eta, kasu batzuetan, giza jardueretatik eratorritako edozein motatako eragozpenarekiko oso ahulak. Hau da, zuzeneko edo zeharkako edozein aldaketaren aurrean sentsibiltate handia duen eremua da.

3. Bestalde, harkaiztegiak eta hartxingadiak lehen mailako paisaia-baliabideak dira EAeko testuinguruan. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremua EAeko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren (Eusko Jaurlaritzak, 2005) barnean sartuta dago, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoko Paisaia Bikainetako bat da (Arabako Foru Aldundia, 2005) eta EAeko espazio natural garrantzitsuen katalogo irekiaren (Eusko Jaurlaritzak, 1996) barnean sartuta dago.
4. EAeko geodibertsitatearen zati baten adierazgarri gisa eta/edo eskualdean leku bakar gisa identifikatutako interes geologikoko lekuak egotea, leku horien degradazioa edo suntsitzea konponezina izango litzatekeelarik.

Dagokion atalean azaldu denez, lekuaren interes geologikoa agerian jartzen da EAeko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan bildutako 5 eremu daudelako. Honako hauek dira:

- Sobrongo arroilaren serie estratigrafikoa. Haren interes estratigrafikoa oso altua da.
 - Purón ibaiaren haitzartea, interes geomorfologikoa altukoa.
 - Sobrongo ur termalak. Sobrongo eta Soportillako iturburuek (Soportillakoa gune babestutik kanpo dago) multzo bereko ur termala ematen dute, sodio bikarbonatoduna, eta interes hidrogeologikoa oso altukoak dira.
 - Karria Haitzeko tontorra eta monolitoak: interes geomorfologikoa oso altua.
 - Valderejoko itxiera periantiklinala. Interes tektoniko/estruktural altua du.
5. Erauzketa-jarduerekin lotuta egon litezkeen arriskuak eta inpaktuak, honako arrazoi hauengatik arestian aipatutako ezaugarriak dituen gune ahulean zuhertasun-printzipioa aplikatzea gomendatzen dutenak:
 - Mota horretako jardueren ondorioz paisaia-kalitate bikaina duen gune batean izan daitekeen paisaia-inpaktu handia izatea, eta kalitate horri eusten dio, neurri handi batean, giza jardueratik eratorritako inpaktu garrantzitsurik ez dagoelako.
 - Ustiatze-girako eta erauzketa-jarduerekin lotutako instalazio eta azpiegiturarako normalean behar den lurzoru-azalera handia izatea (plataformak, prozesamendu-

instalazioak, kamioietarako garraiobideak, konexio-hodiak, fluidoak biltegitzeko tangak eta putzuak, ekipo osagarriak, eta abar).

- Sortutako trafikoak eta zaratak modu negatiboan eragin dezakete eremu horretan kontserbatu behar diren espezieetan; espezie horietako batzuk oso ahulak dira giza jardueratik eratorritako asaldura eta eragozpenekiko.
- Ekosistemetan ondorio kaltegarriak eragin ditzaketen istripuen edo isurketen ondorioz, fase operatiboan dauden azaleko eta lurpeko urak kutsatzeko arriskua izatea, betiere kontuan hartuta, gainera, ia Natura-ondarearen gunee babestu osoaren kalteberatasuna handia edo oso handia dela lurpeko uren kutsadurarekiko.
- Jarduera amaitu ondoren geratzen diren inpaktu horietako batzuk konponezinak izatea, bereziki habitatak eta habitat horiekin lotutako espezieak aldatzeari eta desagerrarazteari dagokionez.

Azken batean, erauzketa-jarduera Natura-ondarearen gunee babestuaren paisaia eratu duten ohiko erabileretatik kanpo dagoen erabileratzat har daiteke eta esan daiteke bateraezina dela Valderejoko Parke Naturala izendatzea eta lur-eremua, oro har, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu (BBE) eta Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzeko arrazoi izan ziren baliabide natural eta paisaia-baliabide garrantzitsuak mantentzearekin. Izendapen horiek Hegaztien Europako Zuzentarauaren eta Habitaten Europako Zuzentarauaren babesean egin ziren, hurrenez hurren.

3.4.7. Azpiegiturak.

Natura-ondarearen gunee babestua zeharkatzen duten garraio-azpiegitura nagusiak honako hauek dira: alde batetik, A-2122 eskualde-errepidea, Sobróngo eremua Gaubeako eta Miranda de Ebroko gainerako eremuarekin lotzen duena; eta bestetik, A-4338 eskualde-errepidea, Lahozko eta Lalastrako hiriguneak Burgosko errepide-sarearekin, zehazki Arroyo de San Zadornilekin eta Gaubeako beste hirigune batzuekin elkartzen dituena.

Basafaunaren kolpatzei dagokionez, puntu beltzetako bat Sobrón sektoreko A-2122 errepidean dago, zehazki Sobrón herriaren eta San Andresko eremuaren artean dagoen errepide-tartean, Omecillo eta Ebro elkartzen diren lekutik hurbil.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa erdi-tentsioko lineek (7,5 km) eta goi-tentsioko bi lineak (21 km KBEan) zeharkatzen dute.

3.5. ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gunee babestuak zerbitzu ekosistemiko hauek ematen ditu:

Zerbitzu mota	Zerbitzua	Deskribapena
Hornidura	Elikagaiak	Azienda-haragia.
		Ehiza-haragia.
		Basafruituak.
		Onddoak eta perretxiko jangarriak.
		Eztia.
		Arrainak.
		Karramarroak.
	Ur geza	Ur-hornidura hainbat erabileratarako (gizakien eta azientaren kontsumorako, nekazaritza-erabilerarako,...).
	Lehengai biotikoak	Zura etxeko erabilerarako.
		Zura eraikuntzarako, tresnetarako, artisautzarako.
Larrea aziendarentzat eta basafaunarentzat.		

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Zerbitzu mota	Zerbitzua	Deskribapena
Homidura	Energia berriztagarriak	Biomasa (nekazaritza eta basogintzako hondakinak, egur-sortak).
	Gordailu genetikoak eta biodibertsitatea mantentzea	Aniztasun genetikoak flora- eta fauna-espezie asko daudelako, endemismoak barne.
		Truke genetikorako eta konexio ekologikorako eremu nukleoak.
		Abere-arraza autoktonoak egotea.
Sendagai naturalak	Printzipio aktibo sendagarriak dituzten espezieak (pago-ezkurak, arte-ezkurra, erramua, ezki-lorea, kamamila, elorri zuria, <i>Calluna vulgaris</i> , sahasak, iratzeak,...).	
Erregulazioa	Klima-erregulazioa	Tenperatura freskoagoak kontserbatzea zuhaitziaren azpian.
		Airearen hezetasuna kontserbatzea ebapotranspirazioaren bitartez.
		Haizearen abiadura erregulatzea eta indargetzea.
		Prezipitazio-erregimena erregulatzea.
		Karbono-hustulekua.
	Airearen kalitatea erregulatzea	Atmosferaren kutsatzaileei eustea gas-trukearen bitartez.
		Erregulazio termikoa oro har.
	Ziklo hidrologikoaren erregulazioa	Ura lurzoruan infiltra dadin eta bana dadin sustatzea.
		Uretako ekosistemetan ur-korronteak duen abiadura erregulatzea.
		Ura ebapotranspirazioaren bitartez atmosferara itzultzearen erregulazioa.
		Partikulen sedimentazioa, eta, beraz, uren kalitatea hobetzea.
		Nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueratik eratorritako gehiegizko nutrienteak eta kutsatzaileak atxikitzeak iragazki berdea.
	Akuiferoak kargatzea.	
	Higaduraren kontrola	Lurzorua zainen bitartez egonkortzea, eurite handien garaian lurzorua galtzea saihestuz.
		Euriaren inpaktua arintzea, higadura saihestuz.
		Urak lurzoruan barrena egiten duen ibilbidea mantsotzea, materia organikoaren maileri esker.
		Uretako ekosistemetan ur-korronteak duen abiadura erregulatzea.
	Lurzoruaren emankortasunari eustea	Lurzorutik erauzitako nutriente-ekarpena.
		Nutrienteak biltegitratzea.
		Lurzoruaren hezetasunari eta gaitasun kationikoari eustea.
	Perturbazio naturalen erregulazioa	Jariatze-uraren fluxua mantsotzea eurite handien garaian, uholdeak saihestuz.
		Haize indartsuen aurka babestea.
		Baso-suteen aurka indargetzea.
Lurzorua egonkortzea, hegalaren irristatzeak saihestuz.		
Kontrol biologikoa	Hegaztien eta kiropteroen dibertsitatea egotea, elementu garrantzitsuak baitira izurriak prebenitzeko eta kontrolatzeko.	
Polinizazioa	Polinizatzaileentzako elikaduraren eta habitataren hornitzaileak.	
Kulturalak	Aisia	Kirol-jarduerak: mendi-ibiliak, eskalada, zaldiketa, bizikleta,...
		Espeleologia.
		Naturan paseatzea edo egotea.
		Bainatzea.
		Perretxikoak eta ondoak biltzea.
		Aisiarako ehiza.
	Ezagutza zientifikoa	Hainbat ikerketa-lanen xede direnak: erreserba zientifikoa, basoko abifauna, habitata (lotikoak, lenitikoak, hidroturbosoak,...), flora eta fauna mehatxatuak, polen-erregistroak, mendiko larreen kudeaketa, eta abar.
	Ingurumen-hezkuntza	Prozesu ekologikoen funtzionamenduari buruzko prestakuntza.
		Ingurumen-hedapena eta funtzio soziala Lalastrako Parketxetik.
	Paisaiaren estetikaz gozatzea	Oso paisaia preziatua bere dibertsitatearengatik eta naturaltasunarengatik.
Ezagutza tradizionala	Ikatza egitea.	
	Karea egitea (karobiak).	
	Gazta egitea.	

Zerbitzu mota	Zerbitzua	Deskribapena
Kulturalak	Ezagutza tradizionala	Abeltzaintza tradizionala (transhumantzia, mendiko larreen kudeaketa).
		Lepatzea.
		Erlezaintza.
		Arrantza.
	Identitate kulturala eta jabetza-zentzua	Ingurunea aprobetxatzeko sistema tradizionalak (larratzea, lepatzea, ikatza egitea, karobiak, teileriak, kirikiñausiak, elurtegiak, eta abar) gure historiaren aztarna biziak dira eta euskal identitate kulturala osatzen dute.
		Lotura kultural garrantzitsua leku horretako biztanleen historiarekin, ondare-elementuak baitaude (Purón ibaiko zenobia, trikuharriak, menhirrak, tumuluak eta abar).
		Euskal mitologia oso lotuta dago ekosistemei: harkaiztegiak, leizeak, basoak, ibaiak.

4.– NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAN KONTSERBATU BEHAR DIREN FUNTSEZKO ELEMENTUAK. KONTSERBAZIO-EGOERA.

Kapitulu honetan kontserbazio-lehentasunak ezarriko dira, kontserbatzeko eta kudeatzeko neurri aktiboak hartzea beharrezkoa duten habitaten eta/edo Batasunaren intereseko espezieen hautaketatzat hartuta.

Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu behar diren elementuen inbentariotik abiatuta, (inbentario hori memoria honetako 3.2 idatz-zatian deskribatu da), zuzenean edo zeharka beste osagai biologiko batzuetan edo zerbitzu ekosistemikoetan eragiten dutelako lekuaren osotasun ekologikoa mantendu edo berrezartzeko funtzio bereziki garrantzitsua betetzen duten eta dagokion lekuan osagai biologiko horien nahiz leku osoaren kontserbazio-egoera aldekoa lortzeko haietan jardutea beharrezkoa den 'funtsezko elementuak' edo habitat taldeak, espezieak, ekosistemak eta beste elementu batzuk, hala nola interes ekologikoa dutenak identifikatu dira eta lehentasuna eman zaie.

4.1. FUNTSEZKO ELEMENTUAK HAUTATZEKO IRIZPIDEAK ETA KONTSERBAZIO-EGOERA ZEHAZTEA.

Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketa egiteko funtsezko elementuak hautatzeko erabilitako irizpideak honako hauek dira:

- Natura 2000 Sare osoan eskualdean, Estatuan eta Europako Erkidegoan kontserbatzeko oso esanguratsuak eta garrantzitsuak diren, eta kontserbazio-egoera txarrean daudelako kudeaketa-neurri aktiboak behar dituzten habitatak edo espezieak Natura-ondarearen gune babestuan.
- Informazio teknikoa edo zientifikoa duten habitatak edo espezieak, eta informazio horren arabera kontrako egoeran egon daitezkeenak edo daudenak, hori saihesteko neurririk hartzen ez bada.
- Kontserbazio-egoera ona lortu dutela edo egoera horretan jarraitzen dutela bermatzeko arautu edo bultzatu beharreko giza erabileren mendeko habitatak edo espezieak.
- Talde taxonomikoen eta ekosistemen egoera zein den adierazten duten eta/edo biodibertsitatearen gaineko presioak detektatzeko baliagarriak diren, eta, beraz, monitorizatzeko ahalegin espezifikoa egitea eskatzen duten habitatak edo espezieak.
- Beste habitat edo espezie basati batzuetan edota leku osoaren osotasun ekologikoan ondorio positiboak izango dituzten habitatak edo espezieak.

- Funtsezko prozesu ekologikoak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko biodibertsitatea mantentzeko eta hobetzeko.
- Interes geologikoko elementuak eta lekuak.

Funtsezko elementu horietako bakoitzerako kontserbazio-helburu espezifiko batzuk proposatu dira, helburu horiek betetzeko hainbat neurri lotuta dituztenak.

Funtsezko elementu bakoitzerako proposatzen diren helburuak, irizpide bideratzaileak eta erregulazioak dokumentu honetako hurrengo kapituluetan garatuko ditugu.

Aipatutako irizpideen arabera, ondoren zerrendatuko diren funtsezko elementuak definitu dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gunee babestuan. Kapituluaren eremu horretako funtsezko elementutzat hartzen diren habitat multzoen eta/edo lotutako espezieen arabera egituratu da. Elementu horietako bakoitzerako honako alderdi hauek deskribatu dira:

- Deskribapena.
- Justifikazioa.
- Presioak eta mehatxuak. Kudeaketa baldintzatzen duten bestelako faktoreak.
- Kontserbazio-egoera.

4.2. BASO NATURALAK ETA ERDINATURALAK.

4.2.1 Deskribapena.

- Garrigak, erkameztiak, hariztiak, pagadiak, amilburu-oineko basoak (EB KOD: 9340, 9240, 9230, 9260, 9120, 9150, 9180*).
- *Pinus pinaster* pinudiak (EB 9540 KOD).
- Sahastiak eta Mediterraneoko makaldiak (EB 92A0 KOD).
- Lotutako intereseko fauna:
 - Kiropteroak: *Myotis myotis*, *Barbastella barbastellus*, *Plecotus austriacus*, *Nyctalus noctula*, *Myotis nattereri*.
 - Ugaztunak: basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) eta leporia (*Martes martes*).
 - Ornogabeak: ropalozeroak (*Euphydryas aurinia*, *Euplagia quadripunctaria*).
 - Baso-hegaztiak: '6. Abifauna' funtsezko elementuan sartu dira.
- Lotutako intereseko flora: *Buxbaumia viridis*, *Ruscus aculeatus*, *Ilex aquifolium*, *Quercus robur*, *Taxus baccata*, *Paeonia officinalis subsp. microcarpa*.

4.2.2. Justifikazioa.

- Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremuan funtsezko elementutzat hartu diren basoen azalera 1.713,5 ha ingurukoa da, hau da, gunee babestuaren azaleraren % 25,6 hartzen du.
- Baso horiek Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean sartuta dauden Batasunaren intereseko habitatak dira. Esate baterako, honako hauek: garrigak, erkameztiak, ameztiak, gaztainondoak, pagadi azidofiloak eta kaltzikolak, amilburu-oineko basoak eta *Pinus pinaster* espeziearen pinudiak. Horien artean, nabarmentzekoa da garrigek hartzen duten azalera, Batasunaren intereseko habitat zabalena izanik azaleraren % 15 hartzen baitu.
- Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremua funtsezkotzat hartzen da EB 9540 KOD *Pinu mesogear endemikoko pinudi mediterraneoak* habitata kontserbatzeko.

- Basoek, kasu honetan pagadiak, hariztiak, ameztiak, garrigak, erkameztiak eta pinudiek eremuaren inguruan aurkitzen diren basoekin konektatzeko funtzio oso garrantzitsua dute eta eskualdean ezarritako korridore ekologiko garrantzitsuenak osatzen dituzte.
- Natura-ondarearen gune babestuko basoek intereseko fauna-espezie mota askori ematen diete babesa. Espezie horien artean baso-hegaztien komunitatea, baso-izaerako kiropteroak eta anfibioak nabarmendu daitezke; horiek guztiak eremuaren funtsezko elementu gisa sartuta daude.
- Gune babestuko basoekin lotutako baso-kiropteroen bost espezieak Habitat Zuzentarauaren IV. Eranskinean bilduta daude. Espezie horietatik bi, *Myotis myotis* eta *Barbastella barbastellus*, Zuzentarau beraren II. Eranskinaren barnean daude ere eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoaren arabera galtzeko arriskuan daude.
- Basakatuak, Habitat Zuzentarauaren IV. Eranskinean dagoen espeziea eta Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'Interes Berezikotzat' gisa katalogatua. Espezie horrek zuhaitz hostozabaleko basoekiko hautaketa-eredu positiboa du, eremuaren funtsezko elementutzat hartzen diren basoekiko, alegia.
- Muxar grisa (*Glis glis*), Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan 'Kaltebera' gisa katalogatuta dagoen espeziea da. Espezie hori oin helduegiak dituzten hariztiei eta pagadiari oso lotuta dago. Pagadi kaltzikolak eta babespe harritsuak daudenez, eremu hori habitat paregabea da espezie honentzat. Natura-ondarearen gune babestuaren lurraldea espeziearen banaketa potentzialaren eremuaren barnean dago (González-Esteban, J., Villate, I., 2001. Actualización de la distribución y estado poblacional del lirón gris *Glis glis* (Linnaeus, 1766) en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila. 29. or.).
- Aipatutako espezieekin habitata partekatzen duten beste ugaztun batzuk daude, besteak beste, leporia (*Martes martes*), Habitat Zuzentarauaren V. eranskinaren barnean dagoena. EAEko Katalogoan "Interes Berezikotzat" hartzen da.
- Natura-ondarearen gune babestu honetan *Euphydryas aurinia* eta *Euplagia quadripunctaria* lepidopteroen espezieak egoteak esan nahi du baso-masa autoktonoen eta haietako zuhaixka-landarediaren orlaren egoera eta erabilera onak direla. Bi espezieak jasota daude Habitat Zuzentarauaren II. eranskinean. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremua leku garrantzitsua da lepidoptero horientzat eta EAEn oso arraroak diren beste lepidoptero batzuentzat.

4.2.3. Presioak eta mehatxuak.

- Basoak: Garrigak (EB 9340 KOD):
 - Baso-larratzeak (B06).
 - Txangozaletasuna (G01.02).
 - Bilketa (onddoak, eta abar) (F04.02).
- Basoak: Erkameztiak, pagadiak, ameztiak, gaztainondoak eta haltzadiak (EB KOD: 9240, 9120, 9230, 9260 eta 91E0*):
 - Espeziearteko lehiaketa (K04.01).
 - Landare-hesiak eta ibarbasoak edo zuhaixkak kentzea (A10.01).
 - Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (B04).
 - Baso-larratzeak (B06).
 - Basoak garbitzea (B02.06).
 - Ateratze ez intentsiboak (B02.05).
 - Txangozaletasuna (G01.02).
 - Bilketa (onddoak, eta abar) (F04.02).

- Basoak: Amilburu-oineko basoak: (EB 9180* KOD):
 - Ez da presiorik detektatu (X).
- Sahastiak eta Mediterraneoko makaldiak (EB 92A0 KOD):
 - Errepideak eta autobideak (D01.02).
 - Basoak garbitzea (B02.06).
- Itsas pinuko basoak (EB 9540 KOD):
 - Ateratze ez intentsiboak (B02.05).
 - Baso-larratzeak (B06).
 - Suteak (J01.01).

Lotutako faunari eragiten dioten presio eta mehatxu nagusiak adierazitakoekiko komunak dira.

Nabarmendu behar da, oro har, adin anitzeko aleen, ale helduen edo estrahelduen presentzia urria dela, eta egur hila urria dela, lurzoruan edo oinean. Basafaunarentzat babesleku diren eta zuloak, hutsuneak eta abar dituzten "habitat zuhaitzik" ez egoteak habitat horiekin lotutako espezieen presentzia baldintzatzen du, hala nola basoko abifaunaren (pizidoak), muxar grisaren edo basoko saguzarraren presentzia, besteak beste. Ildo horretan, iraganean egindako jarduerak saihestu behar dira; esate baterako, Riberan, Purón ibaiaren ertzean egindako makalen mozketa, barrunbeak zituzten ale helduak moztu zituzten, kontuan izan gabe halako ibai-ertzak habitat egokiak direla arestian aipatu diren baso-espezieentzat.

4.2.4. Kontserbazio-egoera.

Garriga iraganean egurra lortzeko edo ikatza egiteko erabiltzen zenez, hau da, iraganeko ohiko erabileretarako erabiltzen zenez, gaur egungo garriga (EB 9340 KOD) bereizten da tamaina txikiko baso garaikidea delako; baso horretan arteak kimu berrien bitartez hazten dira. Horregatik, habitat horren egitura eta funtzioak desegokitzen hartzen dira.

EB 9340 KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Erkameztiei (EB 9240 KOD), ameztiei (EB 9230 KOD), pagadiei (EB KOD: 9120, 9150) eta beste baso batzuei dagokienez, kasu honetan gutxienak direnak, hala nola gaztainadiei (EB 9260 KOD) eta haltzadiei dagokienez (EB 91E0* KOD), *Pinus sylvestris* espeziearen pinudiekin lehiatzen dira landaredi-serie potentzialak berreskuratzeko. Batzuetan ikusten da pinudiek espezie autoktonoetan aberatsa den oihanpea osatzen dutela; horrek argi eta garbi erakusten du koniferoen basoaren artifizialtasuna. Beste zenbait kasutan ikus daiteke serie klimazikoen zuhaitz helduen aleak pinua ordezkatzeko ari direla. Dena den, landaredi autoktonoak pinuaren alde galdu duen azalera oso handia da oraindik eta ematen du berreskuratzea motela izango dela. Bestalde, eta basoaren egiturari eta funtzioei dagokienez, pobreak dira, adin anitzeko ale urri daude, ale heldu gutxi eta egur hila urria da, oinean nahiz lurzoruan. Horregatik, habitat horien (EB KOD: 9240, 9230, 9120, 9150, 9260, 91E0*) kontserbazio-egoera desegokitzen hartzen da.

EB KOD: 9240, 9230, 9120, 9150, 9260, 91E0*	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Kareharrizko amilburu-oineko baso mistoak (EB 9180* KOD) erliebe malkartsuko lekuetan kokatzen dira. Leku horietan ez da zuhaitz espezie bakar bat ere nagusitzen. Baso horiek gehienetan balkoietan, erlaitzetan eta irisgarritasun zaileko lekuetan egoten direnez, beren egiturak eta funtzioak eragin garrantzitsurik gabe mantentzen dituzkete. Habitat horrek eremuan duen azalera egonkortzat hartzen da eta kontserbazio-egoera aldekoa du.

EB 9180* KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Ebroren ibaiertzeko ibarbasoarekin lotutako landarediari dagokionez (sahastiak eta Mediterraneoko makaldiak (EB 92A0 KOD)), landaredi hori Natura-ondarearen gune babestuen hegoaldeko sektorea ekialdetik mendebaldera zeharkatzen duen A-2122 errepideak etengabe eragiten dion xingola estu bat da. Horregatik, esaten da habitat horrek alboko ekosistemekin duen konektagarritasuna txarra dela. Bestalde, ur-bazterreko baso horren egitura ez da egokia; izan ere, zuhaitz urtetsuak urriak direnez, basoa gazte samarra da.

EB 92A0 KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Sobróngo haitzarteko itsas pinuko basoak (EB 9540 KOD) espezie horretako pinudi natural bakarrak dira EAEn. Beraz, Sobrón funtsezko eremua da habitat hori kontserbatzeko. Pinudi horien naturaltasuna eta flora-aberastasuna handiak dira, gizakiak gutxi erabilitako basoa delako. Erabilera hauek soilik nabarmendu behar dira: egur-erazketak eta, oso gutxitan, larratzea. Eremu horretan suteak izan dira, eta badirudi sute horiek eragina izan dutela habitat horrek hartzen duen azalera, eta, beraz, habitat horren kontserbazio-egoeran.

EB 9540 KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Azalera			x	
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Lotutako intereseko fauna:

Basakaturia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Kiropteroen komunitatea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Muxar grisa	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Lepahoria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Euphydryas aurinia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

Euplagia quadripunctaria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

4.3. TXILARDIEN, OTADIEN ETA LARREEN MOSAIKOA.

4.3.1. Deskribapena.

- Eremu epeleko txilardiak eta sastrakadiak (EB KOD: 4030, 4060, 4090)
- Sastrakadi esklerofiloak (EB KOD: 5110, 5210)
- Belar-formazio naturalak eta erdinaturalak (EB KOD: 6170, 6210, 6220*, 6230*)
- Lotutako intereseko flora:
 - *Orchis cazorlensis*, *Orchis italica*, *Paeonia officinalis* subsp. *microcarpa*, *Ephedra nebrodensis*, *Narcissus asturiensis*, *Narcissus nobilis*, *Narcissus bulbocodium*, *Arenaria erinacea*, *Centaurea lagascana*, *Coeloglossum viride*, *Genista eliasseanenii*, *Genista florida*, *Himantoglossum hircinum*, *Luzula nutans*, eta abar.
- Lotutako intereseko fauna:
 - Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.
 - Mendiko eta landazabaleko abifauna: '6. Abifauna' funtsezko elementuaren barnean sartuta dago.

4.3.2. Justifikazioa.

- Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean sartuta dauden Batasunaren intereseko habitatak dira. Naturaltasun handiko eta kalteberagarritasun txikiko habitatak dira, egon litezkeen giza perturbazioetatik urrun dauden mendiko eremuetan daudelako gehienbat.
- Ingurune hau ustiatu duten eta paisaia enblematiko hau eraldatu duten abere-kulturek duela milaka urte ezarri zuten abere-erabilera estentsiboa eta orekatua mantentzearen mende dauden habitatak dira; habitat horiek kontserbatuko dira, baldin eta gaur egun gainbeheran dagoen jarduera ekonomikoak bizirauten badu.

- Txilardien, otadien eta belar-formazioen mosaikoak Natura-ondarearen gune babestuan hartzen duen azalera handia da eta eremu horretako oso bereizgarria da, nahiz eta, larreen erabileraren eta larreak hobetzeko egin daitezkeen jardunen mende dagoenez, banaketa aldakorra den denboran. Gaur egun 1.653,8 ha inguruko azalera hartzen dute, hots, NOGBaren azaleraren % 24,7.
- Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremua funtsezko espaziotzat hartzen da 4060, 4090, 5110, 5210, 6210 eta 6220* habitatak kontserbatzeko.
- Interes botaniko handia duten espezieak –Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan bilduta daudenak– daude; horregatik, ezinbestekoa da espezie horien lehentasunezko habitatak babestea eta espezie horiek aurkitu diren lekuak babestea. Besteak beste, *Narcissus asturiensis* espeziea, Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinean sartuta dagoena eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan “interes berezikotzat” hartzen dena; *Orchis cazorlensis* espeziea, ‘Galtzeko arriskuan’ dagoena, eta *Paeonia officinalis* *subsp. microcarpa* espeziea (El Juncal arroilan aipatu dena), EAEn ezagutzen diren populazio bakarrak Valderejon aurki daitezke, edo *Ephedra nebrodensis* espeziea. Hori ere galtzeko arriskuan dagoen espezie gisa katalogatuta dago Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan, eta EAEn dagoen populazio bakarra Sobrongo haitzartean aurki daiteke.
- Habitat horiek bizi-eremu garrantzitsuak dira gune irekiekin lotutako espezie harrapari eta sarraskijaleentzat, baita babesleku ere beste hegazti-espezieentzat eta narrasti-espezieentzat ere.
- Funtsezko elementu honekin lotutako lau kiropteroen espezieetatik hiru Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinetan bilduta daude. Habitat horrekin lotura handiena duten bi espezieak, hau da, *Rhinolophus hipposideros* eta *Rhinolophus ferrumequinum* espezieak interes berezikotzat eta kalteberatzat hartzen dira, hurrenez hurren, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan.

4.3.3. Presioak eta mehatxuak.

- Eremu epeleko txilardiak eta sastrakadiak (EB KOD: 4030, 4060, 4090):
 - Larratze-sistemak bertan behera uztea, larratzerik eza (A04.03).
 - Ahuntzen larratze ez intentsiboa (A04.0204).
 - Txangozaletasuna (G01.02).
 - Higatzea (K01.01).
 - Zapaltzea (G05.01).
- Sastrakadi esklerofiloak (EB KOD: 5110, 5210):
 - Larratze ez intentsiboa (A04).
- Belar-formazio naturalak eta erdinaturalak (EB KOD: 6170, 6210, 6220* eta 6230*):
 - Larratze-sistemak bertan behera uztea, larratzerik eza (A04.03).
 - Ahuntzen larratze ez intentsiboa (A04.0204).
 - Laborantzak (A01).
 - Biozidak, hormonak eta produktu kimikoak erabiltzea (A07).
 - Txangozaletasuna (G01.02).
 - Zapaltzea (G05.01).
 - Higatzea (K01.01).

Lotutako florari eragiten dioten presio eta mehatxu nagusiak honako hauek dira:

Orchis cazorlensis: ez dira ezagutzen zein izan daitezkeen mehatxu zuzenak. Ale gutxi izateak dakar taxoi honek populazio txikietako arazo genetikoei eta ugaltzeko arazoei lotutako arrisku naturalen menpe egotea (K05). Bestalde, euren banaketa-eremuan dagoen

aziendak eragina izan dezake populazioan (A04.02). Landa-lana egin bitartean, ahuntz-aziendako zenbait aleren presentzia ikusi da (A04.02.04) Coronas eta Recuenco artean.

Ephedra nebrodensis: ez dira ezagutzen zein izan daitezkeen mehatxu zuzenak. Ale gutxi izateak dakar taxoi honek populazio txikietako arazo genetikoei eta ugaltzeko arazoei lotutako arrisku naturalen menpe egotea (K05). Bestalde, euren banaketa-eremuan dagoen aziendak eragina izan lezake populazioan (A04.02).

Narcissus asturiensis: espeziearen kontserbazio-egoeraren inguruko bi afekzio mota detektatu dira: etengabeko zapaltzearen ondoriozkoak, hala landareen kasuan, nola horien habitataren kasuan, eta aziendaren presentzia nabarmena (A04.02). Halaber, presio nabarmena eragiten dute txangozaleek, loreen bilketa egiten dutenean (F04.01). Sobrónen kasuan, zehazki, beste eragin bat detektatu da: baso-erabilera (B02).

Lotutako faunari eragiten dioten presio eta mehatxu nagusiak adierazitakoekiko komunak dira.

4.3.4. Kontserbazio-egoera.

Valderejoko goi-mendiko ipurudi herrestariak (EB 4060 KOD) naturaltasun altua dute; hori gertatzen da aldizka harkaiztegi kaltzikolekin lotuta dauden zona marjinaletan kokatuta daudelako. Egitura-konplexutasun handia du eta mosaikoan garatzen da lotutako beste habitat batzuekin, esate baterako larre harritarrekin (EB 6170 KOD). Habitat horrek Valderejon duen azalera egonkortzat hartzen da.

Sobrónen kartografiatutako txilardi azidofiloek (4030) naturaltasun handia dute eta egitura-konplexutasun ona, mosaikoan garatzen da lotutako beste habitat batzuekin. Habitat horrek Sobrónen duen azalera egonkortzat hartzen da. Hala eta guztiz ere, erabilera tradizionalak (abeltzaintza estentsiboa, adibidez) pixkanaka alde batera uzteak eragin lezake habitat horiek bilakaera bat izatea eta baso-habitatak nagusitzen diren etapa garatuago batzuetan bihurtzea.

Genistak dituzten txilardi kaltzikolei (EB 4090 KOD) dagokienez, azalera garrantzitsua dute eremu horretan. Haien kontserbazioa larratze estentsiboa eta erabilera tradizionalak mantentzearen mende dago; izan ere, horietan aldaketa garrantzitsuak egiten badira, habitat hori galdu egingo da. Natura-ondarearen gune babestuan gaur egun hartzen duten azalera egonkorra da, eta haien etorkizuna erabilera tradizionalen mende dago.

EB KOD: 4030, 4060, 4090	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Valderejo-Sobró-Árcenako mendilerroa funtsezko espazioa da ezpeldiak (EB 5110 KOD) kontserbatzeko. Habitat horrek eremuan duen azalera egonkortzat hartzen da; dena den, abeltzaintza estentsiboa jaisteak lagunduko luke habitat hori gaur egun sastrakadi kaltzikolez estalita dauden zonetan barrena hedatzen.

Aurreko kasuan bezala, gune babestua funtsezko eremua da *Juniperus phoenicea* espeziearen (EB 5210 KOD) sabinadiak kontserbatzeko. Irisgarritasun txikiko eremuetan kokatuta dagoen habitat zatikatua da, eta horri esker, naturaltasunez gara daiteke. Habitat horrek eremuan duen azalera egonkortzat hartzen da.

EB KOD: 5110, 5210	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Valderejo eta Sobróngo larre gehienak larre harritar kaltzikolak, mesofiloak, xerofiloak eta menditarrak dira eta egitura-konplexutasun garrantzitsua dute. Konplexutasun hori larre horiekin mosaikoan garatzen diren habitaten aberastasunetik dator hein batean. Natura-ondarearen gune babestuan gaur egun hartzen duten azalera egonkorra da, eta haien etorkizuna erabilera tradizionalen mende dago, bereziki larratze estentsiboaren mende.

EB KOD: 6170, 6210, 6220*, 6230*	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Lotutako intereseko flora:

<i>Orchis cazorlensis</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	
<i>Narcissus asturiensis</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			
<i>Ephedra nebrodensis</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Lotutako intereseko fauna:

Kiropteroak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

4.4. HABITAT HARRITSUAK ETA LEIZEAK.

4.4.1 Deskribapena.

- Habitat harritsuak eta leizeak (EB KOD: 8130, 8210, 8310)
- Mendiko megaforbioak (EB 6430 KOD)
- Lotutako intereseko fauna:
 - Kiropteroak: *Miniopterus schreibersii*, *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.
 - Abifauna harkaiztarra: '6. Abifauna' funtsezko elementuan sartu dira.
- Lotutako intereseko flora: *Petrocoptis lagascae*, *Antirrhinum braun-blanquetii*, *Armeria arenaria subsp. burgalensis*, *Aster alpinus*, *Aster willkommii*, *Erodium daucoides*, *Erodium glandulosum*, *Lomelosia graminifolia*, *Saxifraga losae*, eta abar.

4.4.2. Justifikazioa.

- Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean sartuta dauden Batasunaren intereseko habitatak.
- Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eremua funtsezko eremutzat hartzen da habitat hauek kontserbatzeko: “kareharrizko harkaiztegiak” (8210), “Hartxingadiak” (EB 8130 KOD), “Turismoak ustiatu gabeko leizeak” (EB 8310 KOD) eta “Mendiko megaforbioak” (EB 6430 KOD); azken habitat horren banaketa oso murrizta da eta balio ekologiko altuko flora-espezieak daude bertan.
- Balio ekologiko altuko flora- eta fauna-espezieak bizi dira bertan eta babesu eta elikagaiak eskaintzen dizkiote lotutako faunari. Gainera, hegal harritsueta landaredia zailtasunez kokatzen da habitat harritsueta; gehienak hazkunde moteleko eta trinkotasun ahuleko landareak dira, eta, gainera, endemikoak edo arraroak dira gehienak.
- Eremuko moztu ugarien oinetan oso maiz ikusten dira hartxingadiak eta harritzak. Oso habitat ezegonkorak eraten dituzte, amilburuetatik askatutako blokeen grabitazio-metaketa mendebalde. Amilburu horiek hainbat gradutan zatikatzen eta txikitzen dira. Landare-estaldura txikia dute, baina oso flora espezializatua da, ingurune dinamiko honetan bizitzera egokituta dagoena.
- Eremu horretako kareharri moztuetan leize txiki eta haitzulo asko daude, ‘turismoak ustiatu gabeko leizeak’ (EB 8310 KOD) deitzen zaie eta bereziki garrantzitsuak dira eremu horretan dauden kiropteroen komunitaterako; lotutako fauna hori, berez, oso kaltebera da. Habitat kabernikolarekin lotura zuzena duten kiropteroen hiru espezieak Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinetan bilduta daude. Gainera, *Miniopterus schreibersii* eta *Rhinolophus ferrumequinum* espezieak kalteberatzen hartuta daude Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan. Valderejoko sektorea EAEn dauden kiropteroen espezieen aberastasun handieneko eremuetako bat da, eta, horregatik, lehentasunezko eremutzat hartuta dago ‘Kiropteroen ekintza-plana EAEn’ izeneko planean.

4.4.3. Presioak eta mehatxuak.

- Habitat harritsuak eta leizeak (EB KOD: 8130, 8210, 8310):
 - Espeleologia (G01.04.02).
 - Turismo-bisitaldiak leizeetara (G01.04.03).
- Hartxingadiak eta mendiko megaforbioak (EB KOD: 8130, 6430)
 - Larratze ez intentsiboa (A04) eta baso-larratzeak (B06).

Lotutako faunari eragiten dioten presio eta mehatxu nagusiak adierazitakoekiko komunak dira.

4.4.4. Kontserbazio-egoera.

Harkaiztegien (EB 8210 KOD) kontserbazio-egoera aldekoa da Natura-ondarearen gune babestuan. Habitat horren azalera egonkorra da eta haren egitura eta funtzioak egokiak dira. Mota horretako habitaten izaerak eragiten du kasu gehienetan helezina izatea, eta horrek habitat hori kontserbatzen laguntzen du. Antzeko zerbait gertatzen da kareharri moztuetako leizeekin eta koba txikiekin ere (EB 8310 KOD), leku horietara hegazti harkaiztarrak eta kiropteroen komunitateak soilik hel daitezkeela eta horiek bakarrik goza dezaketela ematen baitu.

EB KOD: 8210, 8310	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Kareharri moztuen higakinek osatutako hartxingadien dagokienez, substratu ezegonkorreko eta dinamika honetara espezializatutako landare-estaldura baxuko habitatak dira. Landalana egin bitartean, ahuntz-azienda ikusi da hartxingadi batzuetan; eremu horietan hazten den landare-estaldura urriari eragin diezaiolke horrek zalantzarik gabe. Horrenbestez, egitura eta funtzioak ez dira egokiak.

EB 8130 KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Mendiko megaforbioak oso leku jakin batzuetan azaltzen dira nekez kartografia daitezkeen eremu txiki batzuetan. Esan daiteke Sobrónko sektorea funtsezko eremua dela habitat hori EAEn kontserbatzeko. La Mota harkaitzaren amilburuaren oinean eta erlaitz txikietan aurkitu da, komunitate aberats eta askotariko batek eratua. Irisgarritasun zaileko eremuetan garatzen direnez, kontserbazioari laguntzen diote

EB 6430 KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Lotutako intereseko fauna:

Kiropteroak	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena				x
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera				Ezezaguna

4.5. EREMU HEZEAK.

4.5.1. Deskribapena.

- Habitat lenitikoak (EB KOD: 3140, 3150)
- Habitat hidro-zohikatzak (EB KOD: 7210*, 7220*, 7230)
- Lotutako intereseko fauna:
 - Anfibioak: Gailurretako uhandrea (*Ichthyosaura alpestris*), Hegoaldeko apo pintatua *Discoglossus jeanneae* eta apo lasterkaria (*Bufo calamita*).
- Lotutako intereseko flora: *Epipactis palustris*, *Galium boreale*, eta abar.

4.5.2. Justifikazioa.

- Natura-ondarearen gune babestuko hezeguneek arreta berezia merezi dute ingurumen-balio handia dutelako; izan ere, kasu batzuetan, Batasunaren intereseko habitatak izateaz gain, eremuaren kudeaketan funtsezkotzat hartzen diren fauna-espezieen habitatak dira. Eremu horretako hezeguneak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Inbentarioan sartuta daude, hala nola Valderejoko istilak edo Corro, Lantarón, Cotillo sakana, Polledo eta Cocinillako zingirak eta Sobróngo urtegia.

Lahoztik hurbil, Valderejoko istilen konplexuko GA16_02 istilan zenbait makrofito-espeziaren dentsitate handiak aurkitu dira (*Potamogeton natans*, *Groenlandia densa* eta *Chara sp.*), Batasunaren intereseko habitatekin lotuta daudenak, hala nola honela kodifikatuta daudenak: EB 3150 KOD *Ur geldiak (edo korrante motelekoak) ur gaineko landarediekin* eta EB 3140 KOD *Ur oligo-mesotrofiko karetsuak, Chara spp espeziearen landaretza dutenak*. Zingira hori eta beste batzuk espezie mehatxatuak dituzten anfibioen komunitate aberats bateko habitata dira, hala nola gailurretako uhandrea (*Ichtyosaura alpestris*), besteak beste.

- Habitat hidro-zohikatzen (EB KOD: 7210*, 7220*, 7230) EAEn duten berezitasuna dela medio, –Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinean bildutako Batasunaren intereseko habitatak (92/43/EEE)– habitat horien egoera guztiak babestu behar dira. Oso garrantzitsuak dira funtzio hidroerregulatzailerak dutelako, eta oso ahulak dira sistema hidrológicoan eta baldintza fisiko-kimikoetan gertatzen diren aldaketan aurrean. Informazio paleobotanikoaren erregistro bizia dira.
- Valderejo-Sobróñ-Árcenako mendilerroa funtsezko eremutat hartzen da trabertinoen landarediaren habitatak (EB 7220* KOD) eta istinga basofiloak (EB 7230 KOD) kontserbatzeko.
- Funtsezkoa da esfagnaleak egoera hobereanean kontserbatzea fauna mehatxatuko espeziarentzat, esate baterako sugandila bizierrulearentzat (*Lacerta vivipara*), baso-igel gorriarentzat (*Rana temporaria*), Hegoaldeko apo pintatuarentzat (*Discoglossus jeannea*), apo lasterkariarentzat (*Bufo calamita*), eta abar.
- Valderejo-Sobróñ-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuko anfibioen komunitatea hainbat espezie mehatxatuk osatzen dute; espezie horietako batzuk Habitat Zuzentaruaren eta/edo Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan sartuta daude. Gailurretako uhandrea espezie horietako bat da. Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan kaltebera gisa katalogatuta dago.
- Nahiz eta azken urte hauetan ez den egiaztatu lagindutako istingetan Hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) ikusi denik, Valderejon egon daitezke espezie horretako populazioak. Gainera, Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinetan bilduta dagoen espezie bat da.

4.5.3. Presioak eta mehatxuak.

- Habitat lenitikoak (EB KOD: 3140, 3150):
 - Ez da presiorik detektatu (X).
- Habitat hidro-zohikatzen (EB KOD: 7210*, 7220*, 7230):
 - Azienda estentsiboa ikusi da, Baso-larratzeak (B06).

Valderejo-Sobróñ-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuko anfibioak kudeatzeko orduan kontuan hartu behar diren alderdi negatiboak berdinak dira lurralde osoan:

- Habitata aldatzea (J03.01).
- Produktu fitosanitarioak erabiltzea (A08).
- Kolpatzeak (D01.02).
- Zapaltzea (G05.001).

4.5.4. Kontserbazio-egoera.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuko hezeguneen kontserbazio-egoerari dagokionez, garrantzitsua da Valderejoko istingekin bat datozen EB 31XXX KOD taldeko habitat lenitikoak eta espazio horretan aurkitutako gainerako zohikaztegiak eta zingirak bereiztea.

Valderejoko istilak izeneko aintzira-konplexua osatzen duten 19 istiletatik soilik Paules istil handia hartu da intereseko habitatzat. Landa-lana egin bitartean, EB 3140 KOD (*Chara sp.*) eta EB 3150 KOD (*Potamogeton natans*, *Groenlandia densa*, eta abar) habitatak hezegune horrekin lotutako habitat gisa identifikatu dira. Dena den, ezin da baztertu habitat horiek espazio horretako beste hezeguneren batean azaltzea.

Paulesko putzuan, ur-xafla bere gardentasunarengatik nabarmentzen da. Bi habitatetako makrofito espezifikoek estaldura ona da, ez da eutrofizazio-zantzurik ikusten. Helofitoen komunitatea (*Scirpus lacustris* y *Thypha sp.*) pobrea da putzuaren inguruan, perimetroaren % 10etik beherako estaldura baitu. Masaren izaera artifiziala, sare bidez iragazgaiztua, nahikoa arrazoi izan daiteke helofitoen eta ur-bazterreko landarediaren, kasu honetan zume isolaturen batek osatzen duen landarediaren garapen desegokia sortzeko. Alabaina, masa hori hesituta egoteak lagundu du hura kontserbatzen, etengabe zapaltzea eta habitata galtzea saihestu baita. Masari lotutako fauna-espezieei dagokienez, ibai-karramarro autoktonoaren hainbat ale aurkitu dira. Bestalde, azken azterketetan adierazten da uhandre alpetarra ikusi dela.

EB KOD: 3140, 3150	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Valderejoko istila guztien kontserbazio-egoera balioesteko behar adinako daturik ez dagoen arren, ondoriozta daiteke azterketa hau dela-eta kartografiatutako habitat lenitiko bakarren (Paulesko istilean) kontserbazio-egoera aldekoa dela.

Istinga basofiloak (EB 7230 KOD) Polledo, Corro, Lantarón, La Cocinillakoak dira eta landa-lana egin bitartean aurkitutako zohikaztegi txikiak, hala nola Purón ibaian, Villamardones ibaian behera, aurki daitezkeenak bezalakoak, Sobróngo sektorearen iparraldeko mugan aurki daitezkeen zingira txiki bat. Espazioan habitata egonkorra bada ere, Polledoko zingiran eragina izan dezake hezegunearen inguruan dagoen pinu gorriak. Egoera horrek eragiten du pinuaren plantulak ernamuintzea zingirako ekotonoan.

Lantaróngo zingirei edo basofiloekin mosaikoan *Cladium mariscus* (EB 7210* KOD) espeziearen Zingira ere deitzen zaienei dagokienez, egiaztatu da behi-azienda ikusi dela. Nahiz eta a priori hezegunearen kontserbazio-egoera aldekoa dela ematen duen, ez dira epe ertainera edo laburrera aurreikusitako aziendak eragin ditzakeen afekzioak.

EB KOD: 7210*, 7230	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Harri bihurtzen duten eta landaredia (trabertinoak) duten iturburuei (EB 7220* KOD) dagokienez, Natura-ondarearen gune babestuan, Purón ibaiaren haitzartean bertan, toki helezin samar batzuetan hiru zona txiki identifikatu dira. Bestalde, ez da detektatu habitat horren kontserbazio-egoera arriskuan jar dezakeen edo egoera horretan eragina duen aldaketarik edo inpakturik; horregatik, esan daiteke habitat horren kontserbazio-egoera aldekoa dela.

Habitat trabertinikoen azalera urria da espazioan. Dena den, habitat hori EAEn arraroa denez, funtsezko espazioa da kontserbatzeko.

EB 7220* KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera	x			
Egiturak eta funtzioak	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Lotutako intereseko fauna:

<i>Ichthyosaura alpestris</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

<i>Bufo calamita</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

<i>Discoglossus jeanneae</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko aukerak				x
Kontserbazio-egoera			Txarra	

4.6. IBAI-SISTEMA.

4.6.1. Deskribapena.

- Ur-bazterreko landaredia (EB 91E0* KOD)
- Lotutako intereseko fauna:
 - Kiropteroak: *Myotis daubentoni*, *Miniopterus schreibersii*.
 - Ugaztunak: Igaraba arrunta (*Lutra lutra*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*).
 - Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius italicus*).
- Lotutako intereseko flora: *Osmunda regalis*.

4.6.2. Justifikazioa.

- Habitat Zuzentarauaren 10. artikuluan honako hau adierazten da: “*Natura 2000 sarearen koherentzia ekologikoa hobetze aldera, estatu kideek ahaleginak egingo dituzte basoko fauna eta florarako funtsezkoak diren paisaiako elementuen kudeaketa zuzena sustatzeko. Bereziki, egitura lineala eta jarraitua izanik (ibaiak eta dagozkien erriberak edo lursail-mugetako sistemak) edo elkargune izanik (urmaelak edo ibar-basoak), funtsezko elementuak dira migrazioarako, banaketa geografikorako eta basoko espezieen arteko trukaketa genetikoak errazteko*”.
- Ibai-sistemak, Ibai Lurralde gisa ulertuta, behar adinako zabalera eta jarraitutasuna duen eremua osatzen du. Ibai-sistemak ahalbidetuko luke dinamika hidrojgeomorfologikoa

kontserbatzea edo berreskuratzea, ibaiertzeko korridore etengabea (horrek dibertsitate ekologikoa bermatuko luke –(1992/43/EE Habitat Zuzentaraua–) eta ibai-sistemaren funtzio bioklimatikoa lortzea, egoera ekologiko ona betetzea (2000/60/EE Uraren inguruko Zuzentaraua), uholdeak naturalki xaflaz estaltzea (2007/60/EE Uholdeen inguruko Zuzentaraua), gainezka egiten duten eremuak antolatzeako arazoak konpontzea eta ibaia-paisaia hobetzea eta sendotzea (Ollero A., Ibisate A., Elso J. Notas técnicas del CIREF nº 1. El Territorio Fluvial: espacio para la restauración). Alabaina, kontzeptu hori ez dago uren arautegian sartuta.

- Ibai-sistemarekin lotutako habitatak, flora eta fauna kontserbatzeko ingurune-dibertsifikazioa bermatzen duten prozesu hidrogeomorfologiko guztiak biltzen ditu ibai-sistemak. Sistemako elementu guztiak eta haien arteko harremanak ez ezik bereziki funtsezko elementuen arteko harremanak ere kontserbatzea eta babestea ahalbidetzen du. Korridore ekologikoaren funtzioa bermatzen du, ibai-sistemen oinarritzko ezaugarria; horregatik, alboko ekosistemekiko luzetarako eta zeharkako lotura oinarritzkoa den eremua osatzen du. Uretako ekosistemaren eta lurreko ekosistemaren arteko trantsizio-eremu gisa (ekotono) biodibertsitate handia du.
- Valderejoren kasuan, ibai-sistema oso elementu garrantzitsua da haraneko paisaia egituratzeko nahiz dibertsifikatzeko. Ildo horretan, komeni da argitzea Valderejo-Sobrón-Arcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren "ibai-sistema" funtsezko elementua bereziki ordezkatzuta dagoen Purón ibaiak eta haren ibaiadarrek ordezkatzuten dutela bereziki, Molinos erreka ahaztu gabe. Espazio horren barruan garrantzi gutxiago duten beste ibai-ibilgu batzuk Sobrongo sektorean daude, eta iparraldetik hegoaldera doazen sakan multzo interesgarriak dira (Torca, Molino eta Valle); oso malkarrak dira, 800 metro baino gehiagoko aldea dute Ebroren eta mendilerroaren kotarik altuenen artean. Aldizkako ibilgu horiekin lotutako landarediak bat egin ohi du aldameneko serie potentzial klimatikoarekin, eta gutxitan bereiz daiteke ibaiertzeko berezko landaredia.
- Purón ibaiaren kasuarekin jarraitzeko, landarediak ibaiertzetan duen presentziak, gainera, ahalbidetzen du igaraba euroasiarrentzako eta presentzia duten ibai-espezientzako babesguneak egotea, besteak beste, amuarrainaren eta barbo buztangorriaren kasuan. Horrez gain, ibaiertzeko landarediak ibilguari itzala ematen dio eta makroornogabeei elikagaia; azken horiek arrainen elikagaia dira; uraren kalitatea hobetzen du, ibilgura substantzia kutsakor eta solido eseki gutxiago iristea eragiten baitu. Era berean, intereseko hegazti-espezieek (martin arrantzalea edo ur-zozoa, adibidez) atsedean hartzeko eta elikatzeko gunea eta mugitzeko bidea da.
- Purón ibaiertzeko basoa, nagusiki, landare multzo zabal batek osatzen du. EB 91E0* KOD Batasunaren intereseko *Alnus glutinosa* baso alubialen eta *Fraxinus excelsior* (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) espeziearen habitatari dagokio. Batasunaren intereseko habitat hori Habitat Zuzentarauaren I. Eranskinetan sartuta dago, eta, gainera, lehentasunezko eremutzat hartzen da.
- Habitat Zuzentaruaren bildutako Batasunaren intereseko espezieak ingurune horretan elikatu eta babesten dira. Barbo buztangorriaren kasua da, Habitat Zuzentarauaren V. Eranskinetan dago, eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan kaltebera gisa sailkatuta dago. Bestalde, nabarmentzekoa da ibai-karramarro autoktonoa; Habitat Zuzentarauaren II. eta V. Eranskinetan sartuta dago, Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan "Kalteberatzat" hartzen da eta Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan "Galtzeko arriskuan" dagoen espezieztat.
- Ugaztunen taldeari dagokionez, ibai-sistemaren kontserbazio-egoera aldekoa izateak lagundu lezake bisoi europarra eta igaraba euroasiarra aurkitzen. Bi espezieak Habitat Zuzentarauaren II. eta IV. Eranskinetan sartuta daude eta galtzeko arriskuan daude Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoaren arabera. Bi espezieek Kudeaketa Plana dute Arabako Lurralde Historikoan. Plan horiek 2003. eta 2004. urteetan onartu ziren, hurrenez hurren.

- Aipatutako espezieekin habitata partekatzen duten beste mustelido erdi-uretako batzuk daude, hala nola ipurtats arrunta (*Mustela putorius*). Mustelido hori Habitat Zuzentarauaren V. eranskinean sartuta dago eta "Bakan" gisa katalogatuta dago EAEko Katalogoan.

4.6.3. Presioak eta mehatxuak.

Lurreko korridorea:

- Oihanpearen murrizketa esanguratsua (B02.03, J03.01) behi- eta zaldi-aziendaren presentziaren ondorioz (A04).
- Baso-plantazioak (B01.02, J03.02).

Uretako korridorea:

Balitzko hiri-isuriei dagokienez, Purón-A masa naturalak presio orokor baxua du (H. Fraile & J.A. Arrate, 2009). Hala ere, abeltzaintzako ustiategietako instalazioetako aziendaren maneia (nagusiki ibilgura sartzea) eta haien azpiproduktuena (simaurtegiak) Purón ibaiko uren kalitatea okertzeko faktore larri gisa egiaztatuta da. Ibai horren uren kutsadurak, abeltzaintza-jarduerari dagokionez, jatorri konbinatua, aldizkakoa eta zehaztugabea eragin du (sega-belardien ongarritze organikoa eta/edo mineralaren jarduerak).

Aurreko paragrafoan xedatutakoari dagokionez, ia Parke Natural osoak kalteberatasun handia edo oso handia du akuiferoen kutsadurari dagokionez, mendebalderako dagoen zerrenda estu batean izan ezik. Segabeldien kasuan, pitzadurazko iragazkortasun gutxiko eremuan egon arren, margokareharriekin, tuparri kareharriekin eta kalkarenitekin tartekatutako material baten gainean jartzen dira, eta horrek xedatzen du ura akuiferora bideratzeko eremua izatea, material iragazkorak eta iragazgaitzak tartekatzearen ondorioz. Horri akuiferotik hurbil egotea gaineratzen bazaio, eremua kalteberatasun handikotzat hartzea dakar. Hori guztia dela eta, urak eremu horietan sortutako ustezko substantzia kutsatzaileak eramatean, azaleko sare hidrografikora iristeaz gain, neurri handi batean lurpeko akuiferotik igaroko litzateke.

Zeharkaezintzat hartu den oztopo bat aurkitu bada ere (J02.12.02), ibaiaren izaera fluktuatzaileak berak (K01.03) eragozten ditu arrain-faunaren joan-etorriak Purón ibaiaren goi-ibarrean, Polledo errekaetako bokaleaz haratago.

Bestalde, hainbat ur-hargune aurkitu dira Recuencotik (J02.06.02) datozen iturburuetako batean. Parketxeko langileek emandako informazioaren arabera, hargune horiek Lalastra herria nahiz inguruko abeltzaintzaren beste eskaera batzuk hornitzen dituzte.

Aireko korridorea:

Linea elektriko guztiak (D02.01) ez daude balizatuta abifaunak talka egin ez dezan.

Lotutako faunari eragiten dioten presio eta mehatxu nagusiak adierazitakoekiko komunak dira.

4.6.4. Kontserbazio-egoera.

Ibai-sistema ez da ibai-ibilgua soilik, baizik eta hiru elementu konektorek osatzen dute: lurreko, uretako eta aireko korridoreak.

Lurreko korridorea: Natura-ondarearen gune babestuko lurreko korridorea haltzadien eta lizardiaren ur-bazterreko basoek (EB 91E0* KOD) eratzen dute. Baso horien kontserbazio-egoerari dagokionez, ikusi da aziendaren ondoriozko neurrizko presioa dagoela Purón

ibaiaren Erdiko eta goiko tartean, oihanpeari eta ibaiertzeko habitatari orokorrean izugarri eragiten diena, bereziki Lahoz-Villamardones eta Ribera eremuan.

EB 91E0* KOD	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Azalera		x		
Egiturak eta funtzioak		x		
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Bestalde, ikusi da ibaiertzeko basoko berezko landaredia ordezkatzeko duten baso-plantazioak dituzten eremuak daudela –batez ere (*Populus deltoides*) makalarenak– batzuetan luzera handikoak diren tartetan. Tarte horiek batez ere Purón ibaiaren ertzetan daude, Riberaren eta Purón ibaiaren haitzarrea hasten den lekuaren arteko tartean. Baso-plantazio horiek eten egiten dute ibaiertzeko jarraitua, ibaiertzeko landarediaren egitura sinplifikatzen dutelako eta ez dutelako uzten fauna mugitzeko egokia den oihanpea garatzen, eta horrek murriztu egiten du Natura-ondarearen gune babestuko lurkeko korridorearen luzetarako konektagarritasuna.

Ibilgua gurutzatzen duten zubien presentziak ere baldintza dezake ibaiertzeko basoaren luzetarako konektagarritasuna.

Uretako korridorea: Oro har, esan daiteke uraren kalitatea ona dela gune babestuan.

28. taula. Valderejo sektoreko uraren kalitatea		
Estazioa (tarte)	Kalitate fisiko-kimikoa	Kalitate Biologikoa
PUR080	Ona	Ona

Eusko Jaurlaritzak, URAREN bitartez, lurgaineko ur-masen Kalitatea Zaintzeko Sare bat dauka, uraren kalitate ekologikoa kontrolatzeko Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako parametroen arabera. Purón Unitate Hidrologikoa ibaiak kategoriako ur-masa batek osatzen du.

29. taula. Ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko Sarearen estazioaren kokapena				
Lurraldea	Arroa	Estazioa	UTM X	UTM Y
Mendi mediterranea	Purón	PUR080	481322	4744197

Iturria: EAEko ibaien egoera biologikoaren jarraipena egiteko sarea. 2012ko kanpaina.

PUR080 estazioak kalitate 'Oneko' edo 'Oso Oneko' erregistroak ditu adierazle biologiko eta fisiko-kimiko guztien kasuan, eta 'Egoera ekologiko onaren' helburua betetzen du, erreferentziatzen hartzen den estazio baterako espero zitekeen bezala.

Baina Uraren Euskal Agentziak bere sareak ditu uraren kalitatea zaintzeko. Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (CHE) da organo eskuduna Natura-ondarearen gune babestuaren eremuko ur-masen egoera ebaluatzeko eta haren jarraipena egiteko, eta Demarkazioko uren kalitatea kontrolatzeko sareak ditu, Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako parametroen arabera.

Gune babestuaren hegoaldeko muga Ebro ibaiak eratzen du. Uren kalitatea Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako baldintzen arabera ezartzeko, beste bi ur-masa bereizten dira. Ur-masa horien kalitatearen berri bi kontrol-estaziok ematen dute, taulan azaltzen denaren arabera:

30. taula. Ur-masak eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoko uren kalitatea kontrolatzeko sarea				
KOD Masa	MASAren izen deskribatzailea	Kontrol-sarea		
		IKO	IZS	UZS
798	Ebro ibaia Sobrónigo presatik Sobrónigo zentraleraino eta Larrazubi urtegiaren amaieraraino.	0834	-	-
22	Sobrónigo urtegia			E0022

IKO: Ibaien Kontrol Operatiboa; **IZS**: Ibaiak zaintzeko sarea; **UZS**: Urtegiak zaintzeko sarea

Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa.

Egoera ekologikoa Oso Ona da Sobróngo presatik Sobróngo zentraleraino eta Larrazubiko urtegiaren amaieraraino; Egoera (Hg eta biota kontuan hartuta), aldiz, Ontzat hartzen da. Ur-masa horretarako helburua 2021ean Egoera onari eustea da. Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa (2015-2021).

Bestalde, 798. masaren ibaian gora Sobróngo urtegiari dagokion 22. masa dago. Urtegi bat denez, ur-masa aldatutzat hartzen da; horregatik, egoera ekologikoa kalkulatu ordez potentzial ekologikoa kalkulatu da. Lortutako azken datuen arabera (Ebroko Plan Hidrologikoa, 2015-2021), urtegi horrek ez du lortzen potentzial ona; hobetu behar diren adierazleak honako hauek dira: gardentasuna, oxigeno hipolimnetikoa eta fosforo totalaren kontzentrazioa. Masa horretarako helburua 2021ean egoera Ona lortzea da. Adierazle biologikoetan ere detektatzen da ez-betetzeak daudela 2008. eta 2009. urteetan (bereziki a klorofilaren kontzentrazioan), gainerako urteetan (2007-2013 zikloa), aldiz, egoera biologikoa ona edo oso ona da.

Masak presio handiak ditu aldaketa morfologikoarengatik (presak eta presa txikiak) eta espezie inbaditzaileengatik, presioak baxuak dira emaria aldatzeagatik (urtegi bidezko erregulazioa) eta gainerako kasuengatik ez dago presiorik (noizbehinkako isuriengatik eta kutsadura zehaztugabearengatik). Ur-masa horretan, presio globala baxua da.

Sobróngo urtegiak Santa María de Garoña eta San Martín de Don herrietako ur-zikinen isuriez gain, Santa María de Garoñako Zentral Nuklearretik eratorritako isuri termiko garrantzitsu bat jasotzen zuen. Gainera, Zentral Nuklear horrek 765 hm³/urtea inguruko emari batean zuen jatorria. Emari hori hozte-prozesuan erabiltzen zen gehienbat (Iturria: Ebroko Plan Hidrologikoa, 2015-2021). Adierazi behar da zentral nuklearraren ustiapenari 2017ko abuztuan utzi zitzaioela behin betiko; gaur egun instalazioak eraitsi aurreko fasean daude; zirkunstantzia horrek esan nahi du arestian aipatutako isurien jarduera eta ur-horniduraren jarduera ere amaitu direla.

Aireko korridorea: Hainbat linea elektriko gurutzatzen dira ibai-sisteman, edo sistema horretatik oso hurbil edo paralelo igarotzen dira (Ikus 4.7.3 idatz-zatia).

Lotutako intereseko fauna:

Igaraba euroasiarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	X			
Populazioa				X
Espeziearentzat habitata		X		
Etorkizuneko aukerak		X		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Bisoi europarra	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		X		
Populazioa			X	
Espeziearentzat habitata		X		
Etorkizuneko aukerak			X	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Ipurtats arrunta	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

<i>Austropotamobius italicus</i>	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			X	
Populazioa				X
Espeziearen habitata			X	
Etorkizuneko aukerak			X	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

4.7. ABIFAUNA.

4.7.1. Deskribapena.

- Hegazti hazkaiztarrak
- Baso-hegaztiak
- Mendiko hegaztiak
- Landazabaleko hegaztiak

4.7.2. Justifikazioa.

- Natura-ondarearen gune babestuaren eremuak ageriko konplexutasun geologikoa du, bai substratuen aniztasunarengatik, bai egitura geomorfologikoengatik. Gailurreria, amildegi eta ibai-arroil ugari daude, hala nola Purón ibaiaren haitzartea, mendilerroa zeharkatzen duena. Eremu horiek habitat paregabea dira hegazti harraparien komunitate garrantzitsu baterako. Hegazti horien artetik, nabarmentzekoak dira nekrofagoak, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroak baldintza ezin hobeak biltzen baititu hegazti horientzat.
- Badirudi sai arrearen eta sai zuriaren tokiko populazioak egonkor mantentzen direla denboran eta benetako aukerak daude babesturiko eremua ugatzak berriro kolonizatzeke; izan ere, mendilerro horrek hartu zuen espezie horren Euskadiko azken ale ugaltzailea. Mendilerroan honako harrapari harkaiztarrek ere habia egiten dute: arrano beltzak, belatz handiak eta hontz handiak. 70eko hamarkadaren amaieratik gutxienez gaur egun arte, aztore-arranoak (*Aquila fasciata*) ugalketako lurralde bat izan du Sobrónen.
- Era berean, garrantzitsuak dira baso-hegaztien komunitatea eta mendiko hegaztien. Gainera, Valderejoko haranean landazabaleko hegaztien komunitate bat dago, hegazti-dibertsitate handiarekin.

Hegazti hazkaiztarrak.

- Hegazti talde hori oso garrantzitsua da kontserbatzeko; izan ere, gaur egun, Europako harrapari harkaiztarren populazio gehienak kontrako kontserbazio-egoeran daude eta, kasu askotan, Espainian daude munduko populazio handienak. Ildo horretan, nabarmendu behar da Espainiako hegazti sarraskijaleen populazioak espezie horietako gehienak direla EBn (arrano beltza barne, aldizkako sarraskijaletzat har daiteke eta Europako populazioaren % 50 gainditzen du), sai beltzak % 98 inguru dira, sai arreak % 94, sai zuriak % 82 eta ugatzak % 66.
- Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan habia egiten duten hegaztiak hauek dira: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta hontz handia (*Bubo bubo*). Hauek ere ikus daitezke tarteka: ugatza (*Gypaetus barbatus*), aztore-arranoa (*Aquila fasciata*), eta abar.

Espezie horiek guztiak Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan bilduta daude. Ugatza eta aztore-arranoa Galtzeko arriskuan kategorian sartuta daude. Sai zuria eta arrano beltza Kaltebera gisa daude jasota katalogo horretan. Hontz handia espezie Bakana da EAEn eta sai arrea Interes Berezikoko espezie gisa azaltzen da Katalogoan.

229/2015 Foru Agindua, maiatzaren 22koa, onartzen duena Euskal Autonomia Erkidegoan

Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren arabera, Natura-ondarearen gune babestua 'Interes Berezikoko Eremu' bat da hegazti nekrofagoentzat: ugatza (*Gypaetus barbatus*), sai zuria (*Neophron percnopterus*) eta sai arrea (*Gyps fulvus*).

Baso-hegaztiak.

- Natura-ondarearen gune babestuko baso-falkoniformeen komunitatea aberatsa eta askotarikoa da. Zuhaitz-formazioen dibertsitateari eta leku horretako paisaia-heterogeneotasunari esker, hegazti talde horrentzat oso interesgarriak diren txoko ekologikoak sortzen dira.
- Beren kontserbazio-interesa dela-eta egungo harrapari batzuk nabarmendu behar dira, hala nola zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*), arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*), aztorea (*Accipiter gentilis*), gabiraia (*Accipiter nisus*), arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*) edo zuhaitz-belatza (*Falco subbuteo*) –espezie horietatik hainbat bikotek habia egiten dute– eta pizido batzuk, hala nola lepitzulia (*Jynx torquilla*), okil beltza (*Dryocopus martius*) eta okil txikia (*Dendrocopos minor*). Komeni da gehitzea harrapari batzuk ugaltze-garaitik kanpo etortzen direla Natura-ondarearen gune babestura, esate baterako miru gorria. Gainera, baso-ohituretako hegazti txiki asko daude; horien artean EAEn katalogatutako espezie hauek nabarmenduko ditugu: zata arrunta (*Caprimulgus europaeus*), buztangorri argia (*Phoenicurus phoenicurus*), euli-txori beltza (*Ficedula hypoleuca*), mendi-erregetxa (*Regulus regulus*), tarina (*Carduelis spinus*) eta mokolodia (*Coccothraustes coccothraustes*).

Talde honetan, EAEn katalogatutako baso-espezie ugari sartzen dira.

Mendiko hegaztiak.

- Larreko, sastrakadiko eta hartxingadi-harritzako eremu horietan hegazti hauek ugaltzen eta elikatzen dira: mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), pirripioa (*Lullula arborea*), pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*), buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*), buztanzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), harkaitz-zozo gorria (*Monticola saxatilis*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhonorax pyrrhonorax*) eta belatxinga mokohoria (*Pyrrhonorax graculus*) eta mendi-txirriskila (*Carduelis citrinella*).
- Talde honetan, EAEn katalogatutako espezie ugari sartzen dira.

Landazabaleko hegaztiak.

- Javier Villasantek et al.-ek, Valderejoko Parke Naturalaren komunitate abifaunistikoei buruz egindako azterketan, ikusi zuten hegaztien dibertsitate handiena landazabaleko hegaztietan zegoela.

Komeni da kontuan hartzea nekazaritza eta abeltzaintzako sistemei lotutako hegaztien gremioa dela azken hamarkada honetan Europan eta bereziki 28en Europan (EB) ugaltze-populazioak gehien jaitsi diren abifauna-taldea. SEO/BirdLife sozietatearen arabera, nekazaritza-ingurunekeo hegaztien kopurua orokorrean jaitsi egin da Espainian azken hamarkada eta erdi honetan.

4.7.3. Presioak eta mehatxuak.

Gizakiek sortutako eragozpenak.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa leku erakargarria da mendizaletasuna eta txangozaletasuna egiteko. Txangozaletasunaren joan-etorriek, ugalketa-garaian, hegazti harkaiztarrek habia uztea eragin dezakete. Hazkuntza-lurraldeetan gizakiek eragin dezaketen kalteberatasun handiena araldien, arrautzak errutearen eta inkubatzekeo estadioren artean sortzen da (G01). Ugalketa-arrakastaren murrizketa sortzen da, habiak suntsitu edo abandonatu direlako edo txitei emandako zaintza parentala murriztu egiten delako, habiak egiteko lekuaren aukeratzean aldaketak egon direlako, edo, aurrekoaren ondorioz, harraparien populazio-dinamikan eragiten duelako (oro har densodependentea izaten da). Hauek dira eragozpenak ekar ditzaketen aisia-jarduerak: mendi-ibiliak, eskalada, espeleologia, hegaldiak (parapentea, ala delta, eta abar), ehiza eta abar.

Elikatzeko aukera.

Harrapari harkaiztarrak, bereziki nekrofagoak, etxeko edo basoko aziendaren hilotzen menpe bizi dira; izan ere, ez dago basoko baliabide trofiko nahikorik egungo populazioei eusteko. Behien entzefalopatia espongiformeen krisiaren ondorioz ("*behi eroen krisia*"), zelaian dagoen elikagaien aukera murriztu egin da EBko eremuan. Eskuragarri dauden elikagaien murrizketa gero eta handiagoa izan da 2012ra arte, eta horrekin batera arriskuan egon dira harrapari nekrofagoen hainbat populazio. Hala, Nafarroan eta Aragoi populazio nekrofagoen ugalketan murrizketa nabarmena detektatu da (bereziki sai zuria, Natura-ondarearen gune babestuko espezie garrantzitsuenetako bat), aurreikusten ziren elikagai-iturriei lotutakoa (simaurtegiak, hondakindegia, abeletxe intentsiboak) (J03.01.01).

Pozioen erabilera.

Sarraskijaleentzako (zorrotzak eta aukerakoak) beste mehatxu-faktore bat pozoiaren erabilera da (H01.05). Nekazaritza-pestizidetatik etorri ohi da (aldicarba, karbofuranoa, S-metil demetona, fentiona, metomiloa, endosulfana, estriknina eta bromadiolona). Pozoiak harrapari nekrofagoengan duen eragina suntsitzailea da, eta tokian-tokian populazio osoak desagerraraz ditzake.

Bide-sarea.

Valderejoko sektorean, errepide-sarea zaharra da (errepide bakarra dago asfaltatuta Burgostik Lahozerraino). Bideen sarea zabalagoa da eta bertan egindako edozein jardunerako, alde zurretik balioespen bat egin beharko da abifaunaren afekzioari dagokionez (D01.02).

Sobrón eremuari dagokionez, Larrazubiko A-2122 errepidea besterik ez dago (Ebron Omecillo ibaia itsasoratzen den lekutik hurbil), Burgosko probintziako mugaraino, Ebro ibaiaren haitzartea zeharkatzen duena. (D01.02). Valderejoren kasuan bezala, bideen sarea zabalagoa da eta bertan egindako edozein jardunerako, alde zurretik balioespen bat egin beharko da abifaunaren afekzioari dagokionez.


Sare elektrikoa.

Abifaunarako beste faktore mugatzaile bat aireko linea elektrikoen presentzia da. Abifaunaren presentzia dagoen eremuan, kolpeei eta elektrokuzioarekiko oso sentiberak diren horietan (kasu honetan bezala), garrantzi berezia hartzen du kable horien ondorioz hegaztiak hiltzeko arriskuak (D02.01).

Natura-ondarearen gune babestuaren eremua babesgunea da *abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretua –goi-tentsioko linea elektrikoen kontra kolpatzearen eta elektrokutatzearen kontra hegazti-fauna babesteko neurriak jartzen dituena*– aplikatzeko. Oinarrizko araua da, eta arau teknikoak ezartzea du helburu, eroale biluziak dituzten goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan aplikatzeko (4. artikuluan definitutako babeslekuetan egongo dira horiek). Helburua da abifauna elektrokutatzeko eta kolpatzeko arriskuak murriztea.

Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindu bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatu ziren eta hegazti-faunaren babes-eremuak, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira. Aipatutako 1432/2008 Errege Dekretuaren aplikazioaren ondorioetarako, babesturiko eremu osoa abifauna babesteko eremutzat hartzen da.

Irudian ikus daitekeenez, Natura-ondarearen gune babestuaren eremua hainbat linea elektrikok gurutzatzen dute; nabarmentzekoak dira Garoñako zentral nuklearrari lotutakoak, Sobróngo eremua airetik gurutzatzen baitute.



11. Irudia. NOGBaren eremua gurutzatzen duten aireko linea elektrikoak. Iturria: Consultora de Recursos Naturales enpresa. 2016.

Azken urte hauetan, Arabako Foru Aldundiak sustatu du linea elektrikoak zuzentzea Valderejoko Parke Naturalean, linea arriskutsuenak aldatzeko eta eremu ahulenetan diseinu arriskutsuko linea gehiago jartzea saihesteko. Parke Naturalean interesekoa den abifaunari eragiten dion linea elektriko bakarra zuzentzeko jardunak egin dira, eta linea elektriko horren abifaunarengan duen eragina nabarmen jaitsi da. Linea hori Santa Anatik Coronillaren gaineraino (Portillo de la Sierratik hurbil) iristen da. Zehazki, linea hori lurperatu egin da azken tartean, Portillo de la Sierraren inguruan, eta txoriak babesteko balizekin seinaleztatu da linearen hegoaldeen dagoen tartea Araban, Santa Anaren inguruan.

Bestalde, gune babestu osoa kontuan hartuta, 2. eta 3. mailako goi-tentsioko lineei dagozkien 50 sendogarri inbentariatu dira; sendogarri horietatik 12k elektrotutzeko arriskua zeukatenez, isolatu egin dira azken urte hauetan; beraz, gaur egun, 43 sendogarri arrisku baxukoak dira; aitzitik, 6 arrisku altukoak dira eta 1 arrisku oso altukoa; azken hori Valderejoko Parke Naturalean dagoen aire zabaleko transformadore bat da.

4.7.4. Kontserbazio-egoera.

Hegazti harkaiztarrak.

Eremuko eta haren inguruneko populaketa urria denez eta bisitari gutxi hurbiltzen direnez, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerro Natura-ondarearen gune babestuko habitatek nolabaiteko naturaltasuna daukate eta hegazti harkaiztar askok (gune babestuko funtsezko elementua) ugaltzeko baldintza onak dituzte.

Alabaina, babestutako azalera ez da behar bezain zabala hegazti batzuk behar bezala kudeatzeko, batez ere harrapari handiak (sai arrea, sai zuria, arrano beltza eta aztore-arranoa), horiek bizi-domeinu oso zabalak baitituzte, Plan honen eremua gainditzen dutenak. Horregatik, gutxienez animalia talde hau kontserbatzeko neurriak kudeatzeko eta hautatzeko, komenigarria izango litzateke elkarrekin aztertzea Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa eta Burgosko zati mugakidea (ES-4120030 Obarenes Mendien Natura Sarearen eremua, 43.060,84 Ha-koa, eta Obarenes Mendiak-San Zadornil Parke Naturala, 33.064 Ha ingurukoa).

Ugatza.

Ugatza espezie habiatzailea izan zen Euskadiko mendi askotan XX. mendearen hasiera arte. Hain zuzen ere, egiaztatu da lurraldeko azken ale horiek Obarenes Mendien, Sobrónen eta Valderejoren artean kokatutako unitate ugaltzaile bati zegozkiola. Valderejon 1979. urtera arte ikusi ziren, eta azken alea 1982. urtera arte. Hezurak apurtzeko lekuak daude Vallegrullen inguruan. Gaur egun, ugatza Aralarren baino ez omen da ugaltzen, baina urtero begiztutzen da. Arabako ipar-ekialdeko koadranteaz gain, Valderejo-Sobróñ eremuan daude, hain zuzen ere, azken urteotako erregistro gehienak eta Burgosko Bujedo-Pancorbo eta Obarenes Mendiak eremuarekin batera, batez ere leku horiek dira etorkizuneko ugatzak hartzeko aukera handienak dituztenak.

Ugatza	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			x	
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Sai zuria.

Sai zuriak ugalketako lurralde bat dauka Árcenako mendilerroan, Arabaren eta Burgosen artean; beste ugalketako lurralde bat Euskadiko (Bóvedako mendilerroa) administratziomugen barnean aurkitzen da neurri handi batean eta gutxienez beste lurralde bat Burgosekin partekatuta (Karria haitza). Árcenako mendilerroa oso garrantzitsua da espeziearentzat eta Valderejo mendi-formazio horren barnean nahitaezkoa da. Izugarri jaitsi ondoren, azken hamarkadan igo egin da sai zuriaren populazio habiagilea.

Sai zuria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			x	
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Sai arrea.

Sai arrearen ale kopurua eta banaketa-eremua pixkanaka igotzen ari dira Espainian, baina oraindik ere badaude mehatxu-faktore batzuk: pozoiaren erabilera, elikagaien eskasia, linea elektrikoekin eta parke eolikoekin lotutako hildako ugari eta, eragozpenak, ugaltzeko kolonietan (eskalatzaileak, txangozaleak, azpiegituren eraikuntzak edo baso-lanak).

Sai arrea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Aztore-arranoa.

Espezie horren egoera oso kezagarria da Arabako probintzian. Badakigu 70eko hamarkadaren amaieratik aztore-arranoaren ugaltzeko lurralde bat dagoela Toloñoko mendilerroan, Arabako Hegoaldeko Mendilerroen ES-21000246 BBEaren barnean. Lurralde hori Araban nahiz Burgosen barrena hedatzen da, habiagintzako areak baitaude bi probintzietan.

70eko hamarkadaren amaieratik gutxienez gaur egun arte, aztore-arranoak (*Aquila fasciata*) ugalketako lurralde bat izan du Sobrónen. Aztore-arrano bikotea erregulartasunez ugaltu

da 1993. urtera arte eta gorabeherekin mantendu da 2001. urtean indibiduo heldu bat azkeneko aldiz ikusi zen arte (2001). Gaur egun, lurralde hori hutsik dago, baina ale bakarti batzuk ikusi dira, hala nola Arabako Faunaren Atlas Birtualean 2011ko abenduaren 5ean aipatu zena. Sobrónekin mugakide dagoen Obarenes Mendien BBEan, gaur egun, ondo ezarritako 2 heldu parek irauten dute; beraz, BBE hori funtsezko gunea da haiek kontserbatzeko. Aztore-arranoa edo Bonelli arranoa azken urte hauetan atzerakada handiena pairatu duen harrapari iberiarretako bat da.

Bonelli arranoaren edo aztore-arranoaren (*Hieraaetus fasciatus*) Kudeaketa Planak Arabako Lurralde Historikoan ezartzen du Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren area hau espeziearen Banaketa Eremu Potentziala dela eta habia gunee horretatik kanpo egiten duten indibiduoak maiz ikusten direla ere eremu horretan. Plan horretan, Torka eremua ere (Natura-ondarearen gunee babestuaren ekialdean dagoena, Sobróngo jurisdikzioaren lurretan) Interes Berezikoko Eremutat hartzen da.

Bonelli arranoa	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			x	
Populazioa			x	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Arrano beltza.

Natura-ondarearen gunee babestuan, arrano beltzaren hainbat lurralde daude: Ebro ibaiaren arroilan, Valderejon eta beste bi eremu horren iparraldean, baina bizi-eremu gisa erabiltzen dituzte.

Arrano beltzak mehatxu hauei egin behar die aurre Espainian: pertsekuzio zuzena (ehiza, habiak lapurtzea), linea elektrikoekin izandako istripuekin lotutako hildakoak, habitataren kalitatea galtzea edo eragozpenak ugaltze-tokietan.

Arrano beltza	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Belatz handia.

Belatz handiak hainbat ugalketako lurralde ditu eremu honetan: Valderejon, Vallegrullen eta Santa Anaren artean, Sobrónen eta BBEaren mugetatik haratago ere bai, Karria haitzean. Belatz handiaren populazioen egoera goranzkoa da Espainian.

Belatz handia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Hontz handia.

Natura-ondarearen gunee babestuan hontz handiko gutxienez lurralde bat dago. 1970. urtetik 1990. urtera bitarte, hontz handiak estatuan atzerakada handia pairatu zuen arren, populazio-joera positiboa da harrezkero, eta gaur egun ugari samarra da Iberiar penintsularen zati handi batean.

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Hontz handia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Baso-hegaztiak.

Baso asko gazte samarrak dira eta Natura-ondarearen gune babestuaren barnean interes ekologiko handiena duten bi formazioen, hau da, pagadien eta erkameztien hedadura urria da eremu honetan. Gainera, Purón ibaiaren inguruko ibarbasoak garapen urria du eta haren kontserbazio-egoera ez da aldekoa. Dena den, talde horretako hegazti-aberastasuna handia da.

Okil beltza (*Dryocopus martius*).

Okil beltzaren banaketa-eremua hedatu egin da Pirinioetako eta Kantauriko Mendikateko ohiko ugaltze-tokietako tarteko eremuetan, Burgosen eta Euskadin aipamen ugari baitaude haren hedapen geografikoaren esparruan Iberiar Penintsularen iparralde osoan. Aztertzen ari garen eremuan, okil beltzak hainbat urte daramatza Bóvedako mendilerroan, ugalketako lurralde bat gutxienez badauka bertan, eta duela gutxi Riberaren eta Villamardonesen inguruan azaldu da; ematen du eremu horretan bikote habiagileren bat ezarri dela Vallegrullen eta Santa Anaren artean dauden baso-masa helduetan. Hori bai, komenigarria da zuhurak izatea, zeren okil beltza kolonizazio-prozesuan baitago oraindik Árcenako mendilerroan, baina aurreikus daiteke hegazti horren populazioak gora egingo duela denborarekin.

Okil beltza	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Buztangorri argia (*Phoenicurus phoenicurus*).

Buztangorri argia oso urria da Euskadin, atzera egin du Araban eta dentsitate oso txikia du oro har. EAEko populazio habiagileari buruz egin zen eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2012an argitaratu zuen azterketan adierazten da espezie hori oso arraroa dela Araban. Gesaltza Añanan edo Erriberagoitian (Morillas) ugaltze-toki seguruak erregistratu diren arren, azkenaldi honetan ez da leku horietan aurkitu, baina Valderejon bai, hor egiaztatu da habia egin duela.

Buztangorri argia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			X	
Populazioa			X	
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak			X	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Arestian aipatutako espeziez gain, honako hauek ere nabarmendu behar dira:

Zapelatz liztorjalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Arrano sugezalea	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Arrano txikia	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak	x			
Kontserbazio-egoera	Aldekoa			

Mendiko hegaziak.

Larreko, sastrakadiko eta hartxingadi-harritzako eremu horietan hegazi hauek ugaltzen eta elikatzen dira: *mendi-tuntuna (Prunella collaris)*, *mendi-txirta (Anthus spinoletta)*, *pirripioa (Lullula arborea)*, *pitxartxar nabarra (Saxicola rubetra)*, *buztangorri iluna (Phoenicurus ochruros)*, *buztanzuri arrunta (Oenanthe oenanthe)*, *harkaitz-zozo gorria (Monticola saxatilis)*, *belatxinga mokogorria (Pyrrhocorax pyrrhocorax)* eta *belatxinga mokohoria (Pyrrhocorax graculus)* eta *mendi-txirriskila (Carduelis citrinella)*.

Mendi-eremuak oso onak dira, halaber, migrazioan eta/edo negu-pasan dauden populazio hauek hartzeko: *mendi-tuntuna*, *zozo paparzuria (Turdus torquatus)*, *birigarro txikia (Turdus iliacus)* eta *durdula (Turdus pilaris)* edo *antandobi handia (Lanius meridionalis)*, beste espezie batzuen artean. Espezie horiek guztiak ugaltze-sasoitik kanpo aurkitzen dira.

Talde horrentzat badirudi ezinbestekoa dela oinarrizko ikerketa-lanak egitea; esate baterako, ugalketarako hegaztien inbentario bat, mendi-eremuak neurri egokian balioesteko. Azterketa horiek egin ondoren, hegazi-komunitate horretarako interesa duten lekuak aurkituko balira, helburuak berriro zehaztu beharko liriateke Natura-ondarearen gune babestuetako goi-eremuetan larratzen den abeltzaintza estentsiboaren kudeaketa egokia egiteko.

Jarraian, talde honetako bi espezie garrantzitsuenek eremu honetan duten kontserbazio-egoera balioetsiko da:

Pirripioa	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena		x		
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata		x		
Etorkizuneko aukerak			x	
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Belatxinga mokogorria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Landazabaleko hegaziak.

Komeni da kontuan hartzea nekazaritza eta abeltzaintzako sistemei lotutako hegaztien gremioa dela azken hamarkada honetan Europan eta bereziki 28en Europan (EB) ugaltze-populazioak gehien jaitsi diren abifauna-taldea. SEO/BirdLife sozietatearen arabera, nekazaritza-inguruneke hegaztien kopurua orokorrean jaitsi egin da Espainian azken hamarkada eta erdi honetan.

Lehenago, landutako eremuekin lotutako hegazti-populazioek pairatu zuten kaltea iraultza berdearekin. Hegazti horietako gehienek joan den mendearen erdialdetik aurrera izan zuten jaitsiera nekazaritza eta abeltzaintzako jardunetan izandako aldaketei egotz dakieke batez ere. Esate baterako, lehen sektorea areagotzeak eragin du hegazti hauentzako "harrapakinen" (haziak eta fruituak ere barne hartzen ditugu) dibertsitatea eta oparotasuna murriztea, eta elikagai-iturriak murriztu direnez, ugalketarako populazioak jaitsi egin dira. Eta, beste alde batetik, abeltzaintza estentsiboa desagertzeak eta landa-eremua uzteak eragin du paisaia oso basokoa eta desegokia izatea goian aipatutako espezie asko kokatzeko. Landare-hesiak ezarriz, alde batetik, artropodoen komunitatea aberastuko litzateke (proteinen balio handikoa da hegaztientzat, bereziki garrantzitsuak txiten garapenean; horrek landazabaleko hegazti askoren produktibitatea areagotzen lagunduko luke), baita landare-hesien aldameneko laboreen produktibitatea ere.

Talde hori erabilera tradizionalekin eta lotutako habitatekin zerikusia duten hegaztien komunitate zabal batek osatzen du. Javier Villasantek *et al.-ek*, Valderejoko Parke Naturalaren komunitate abifaunistikoei buruz egindako azterketan, ikusi zuten hegaztien dibertsitate handiena landazabaleko hegaztietan zegoela.

Jarraian, talde honetako espezie garrantzitsuetako batzuek eremu honetan duten kontserbazio-egoera balioetsiko da:

Mirotz zuria	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena			x	
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera			Txarra	

Antzandobi arrunta	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa				x
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

Landa-txirta	Aldekoa	Desegokia	Txarra	Ezezaguna
Hedapena	x			
Populazioa	x			
Espeziearentzat habitata	x			
Etorkizuneko aukerak		x		
Kontserbazio-egoera		Desegokia		

4.8. PRESIOEN ETA MEHATXUEN SINTESIA

Atal honetan, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuak jasaten dituen presio eta mehatxu nagusien sintesia jaso da. Presioen eta mehatxuen azterketa eta balioespen hau egiteko, honako hau guztia hartu da oinarritzat: orain arte jasotako informazioa, landa-lanean egindako behaketak (2013ko abuztua), eta Arabako Foru Aldundiko Zerbitzuek duten esperientzia.

Jarraian, atalka sartu dira Natura-ondarearen gune babestua, Valderejo eta Sobrón osatzen duten sektore bakoitzeko presioen eta eraginaren azterketari dagozkion taulak. Atxikitako taulak presioen balioespen osorako matrizeak dira. Horretarako, eremuak gaur egun jasan ditzakeen mehatxuak identifikatu dira, baita presio horietako bakoitzak eragiten dion inguruko aldagaia ere. Aintzat hartutako ingurumen-aldagai bakoitzak pairatzen dituen presioak identifikatzeaz gain, presio horren balioespen globala egin da.

Presio handia (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasateko probabilitate handia dago
Presio ertaina (nabarmena)	Inguruak inpaktua jasan ahal izateko nolabaiteko probabilitatea dago
Presio txikia (ez da nabarmena)	Inguruak inpaktua ez jasateko probabilitate handia dago

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Valderejo sektorea

LURREKO KORRIDOREA		LURREKO KORRIDOREA		URETAKO KORRIDOREA		AIREKO KORRIDOREA	
31. taula. Valderejo sektorean detektatutako presioak eta mehatxuak							
PRESIO MOTA		PRESIOA/MEHATXUA		Konektibitatea		Jarratasuna	
Jatorri lausoen eragindako kutsadura	Jatorri puntualeko nitrogenoa				Baxua		
	Nitrogenoaren erabilera nekazaritzan				Baxua		
	Fosforoaren erabilera nekazaritzan				Baxua		
	Nitrogenoaren erabilera abeltzaintzan				Baxua		
	Fosforoaren erabilera nekazaritzan				Baxua		
Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera	Laboreak	Ertaina	Ertaina		Baxua		
	Sega-belardiak	Ertaina	Ertaina		Baxua		
	Ukulluratuako azienda	Ertaina	Ertaina		Baxua		
	Ukulluratu gabeko azienda	Baxua	Baxua		Baxua		
Baso-jarduerak	Egurra ateratzea	Baxua					
Aldaketa hidromorfologikoak	Ubidera itzulerarik ez duen ur-emaria desbideratu				Presiorik ez	Presiorik ez	
	Presa txikiak					Baxua	
	Babesak eta kanalizazioak	Baxua	Baxua				
Aldaketa morfologikoak	Zubiak	Baxua	Baxua				
	Ur Jabari Publikoaren bestelako erabilerak	Baxua	Baxua				
	Azpiegiturak	Baxua	Baxua				
	Linea elektrikoak						Ertaina
Turismoa	Zaratak eta eragozpenak hegaztien ugalketarekin						Baxua
	Flora zapaldu eta andeatu	Baxua					
	Perretxiko-bilketa	Baxua					
Ehiza-jarduerak	Ehiza	Baxua					

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Sobrón sektorea

Sobrón sektorea		LURREKO KORRIDOREA	URETAKO KORRIDOREA	AIREKO KORRIDOREA
32. taula. Sobrón sektorean detektatutako presioak eta mehatxuak				
PRESIO MOTA		PRESIOA	Uraren kalitatea	Iragazkotasuna
Jatorri lausoetako kutsadura	Nekazaritza-erabilera		Presiorik ez	
	Abere-erabilera		Presiorik ez	
	Hiri-erabilera		Presiorik ez	
Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduera	Laboreak	Presiorik ez	Presiorik ez	
	Ukuiuratu gabeko aziendak	Presiorik ez	Baxua	
Baso-jarduerak	Egurra ateratzea	Baxua	Baxua	
	Ubidera itzulerririk ez duen ur-emaria desbideratu			
	Presa txikiak		Presiorik ez	Presiorik ez
Aldaketa morfologikoak	Babesak eta kanalizazioak	Presiorik ez	Presiorik ez	
	Komunikazio-azpiegiturak	Ertaina	Handia	
	Linea elektrikoak			Ertaina
	Zaratak eta eragozpenak hegaztien ugalketareetan			Baxua
Turismoa	Flora zapaldu eta andeatu	Baxua		
	Perretxiko-bilketa	Baxua		
	Uretako jarduerak		Presiorik ez	Presiorik ez
Ehiza-jarduerak	Ehiza	Baxua		
ERAGINDAKO ALDAGAIAK		Konektibitatea		Jarraitasuna
ESTALDURA				
LOTUTAKO ELEMENTUAK		Ibai-sistemaren uretako habitata, igaraba, arrain-fauna, anfibioak, ibai-karramarro autoktonoa eta beste mustelido erdi-urtar batzuk...		
LURREKO KORRIDOREA		Txilardiak, sastrakadiak, belar-formazioak, zohikaztegiak, haizetako habitata eta leizeak, hosto zabaleko basoak, pinudiak, flora mehatxatua, hegazti harkaiztarren espezieak, mesogaztunak, kiropteroak, ropalozeroak...		
AIREKO KORRIDOREA		Abifauna eta kiropteroak		

5.– VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENA MENDILERROA Natura-ondarearen gune babestu-AREN DIAGNOSI KLIMATIKOA.

5.1. KLIMA ALDAKETAREN ERAGINEN AURREIKUSPENA.

Maila globalean gertatzen den bezala, Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroko baldintza klimatikoak modu esanguratsuan alda daitezke klima-aldaketaren ondorioz; beraz, ezagutza mota horretan aurrera egiteko, eta IPCCren (Intergovernmental Panel on Climate Change) azken txosteneko kontzentrazio-ibilbide adierazgarriak (RCP) deituriko klima-aldaketaren lau agertokiak erabiliz, Euskadin ere erregulartasunez egiten dira klima-joeren proiektzioak zirkulazio-eredu globalen bidez.

Osagarri gisa, EAEn klima-atlas bat egin da (1971-2015 aldiko eguneroko datuak), bereizmen espazial handikoa (1km x 1km) eta XXI. menderako proiektzio klimatikoak (2011-2040, 2041-2070, 2071-2100), RCP4.5 eta RCP8.5 agertokietarako sortuak, Euro-CORDEX proiektuaren esparruan egindako simulazioetan oinarrituta.

Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroko informazio-iturri horiek erabili dira datu klimatiko historikoak eta etorkizuneko bilakaera aztertzeko. Kasu honetan, kasurik txarrena aplikatu da (RCP 8.5 agertokia), zuhurtasun-printzipio gisa. Eta kontuan hartu da beste trantsizio-ingurune batzuetan gertatzen den bezala, Valderejo-Sobrón-Árcena Mendilerroan dauden basa-flora eta -faunako habitatek eta espezieek tolerantzia desberdinak erakusten dituztela mota horretako aldaketekiko. Aldaketa horiek, bestalde, aldakorak izan daitezke, eta horrek zaildu egiten du klima-aldaketak kontserbazio-egoeran izango dituen ondorioei buruzko aurreikuspen zehatzetara iristea.


5.1.1. Temperatura eta prezipitazioa aldagai klimatikoetan etorkizuneko eta erregistratu diren aldaketak.

Valderejo-Sobrón-Árcena mendilerroa Arabako mendebaldeko muturrean dago, alde batetik Kantauriko kostaldetik 50 km-ra dago, bertako kliman itsasoak duen eragina arintzeko moduan, eta, bestalde, tartean dauden mendikateak – Ordunteko mendiak edo Salvada mendilerroa, esaterako – lagungarriak dira bertako klimaren ezaugarri atlantikoak murrizteko. Hala ere, efektu hori oraindik ere gertatzen da neurri batean, eta muturreko termikoetan nolabaiteko moderazioa eragiten du, baita kostaldetik urrunago dauden antzeko inguruneetan baino batez besteko prezipitazio handiagoa ere.

Batez ere eremu menditsua denez, osagai orografikoa oso garrantzitsua da eskala txikiko klima-baldintzetarako. Altitude-maila zabala du (475etik 1.361era), batez besteko garaiera handia du (914 m) eta eremu malkartsu ugariak altitude-aldagarritasun eta orientazio-aldagarritasun zabala dakarte, mendiko espazioen ezaugarria dena.

Klima-nitxoen aniztasun horrek babes-aukerak ekar diezazkieke eskala txikiko habitatei eta espezieei, baina aniztasun hori baliteke Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko tenperaturetan eta prezipitazioetan espero daitezkeen aldaketen mehatxuak eragina izatea, bai eta horien banaketak urteko zikloan izan dezakeen aldaketarenak ere, aztertuko den bezala.

2023ko maiatzaren 12a, ostirala




12.-irudia. 1970 eta 2016 artean erregistratutako batez besteko tenperatura eta 2100era arte zenbatetsitako balioak (RCP 8.5 agertokia, erregionalizatua alborapen-zuzenketarekin). Eredu guztien balio maximoen eta minimoen arteko eremua itzaltuta agertzen da, eta aldizkako lerro gisa seriearen joera-lerroa (erregresio lineala)

Aurreko irudia ikusita, erregistratutako datuekin erabilitako aldiaren (1970-2016), batez besteko tenperatura 11,1 °C-koa izan da. Hala ere, epe luzearako aldaketa-itxaropenek, egoera ezkorrena aplikatuta (RCP 8.5), adierazten dute 15,2 °C-ra irits daitezkeela, eta horrek % 36ko igoera ekarriko luke.

Urtaroen araberako eraginari dagokionez, eskura ditugun datuen arabera, tenperaturaren igoera handiagoa izango da neguan, 5,3 °C-ko batez bestekotik 9,8 °C-ko epe luzearako aurreikuspenera igaroko baita, hau da, % 85eko igoera.

Prezipitazioei dagokienez, 13. irudian ikus daitezkeen bezala, badirudi euri-jasetan aurreikus daitezkeen aldaketa ez dela hain nabarmena izango, izan ere, -ereduek ziurgabetasun gehiago pilatzen baitute klima-aldagai horri ekitean, duten konplexutasunagatik.



13. irudia. 1970 eta 2016 bitartean erregistratutako eguneko batez besteko prezipitazioa eta 2100era arte zenbatetsitako balioak (RCP 8.5 agertokia, erregionalizatua, alborapen-zuzenketarekin). Eredu guztien balio maximoen eta minimoen arteko azalera itzaltstu ageri da, eta lerro eten gisa seriearen joera-lerroa (erregresio lineala).

13. irudiaren modelizazio horretan, erregistratutako aldiko eguneko batez besteko prezipitazioaren (2,2 mm) eta 2100eko prezipitazioaren (1,7 mm) arteko aldea % 23 txikiagoa da.


Prezipitazioaren urtaroen analisiak erakusten du alderik nabarmenenak udan izango direla – % 56ko jaitsierarekin –, eta, ondoren, udazkenean, % 41eko murrizketarekin eta udaberrian %33ko murrizketarekin. Modeloaren aplikazioaren emaitzek adierazten dute neguko prezipitazioak, epe luzean, bere horretan mantenduko direla, 2100ean 51eko hazkundearekin.

Laburbilduz, egindako azterketa horren arabera, tenperaturen igoera orokorra, prezipitazioen murrizketa eta, bereziki, urtaroz urtaroko banaketa aldatzea espero da, uda lehorragoekin eta negu beroagoekin.

Hurrengo ataletan, baldintza klimatikoetan aurreikusitako aldaketak gaur egun Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan dauden habitaten eta basafloorako eta basafaunako espezieen iraunkortasunerako presio edota mehatxu bihur daitezkeela deskribatzen da.

5.1.2. Análisi bioklimatiko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan.

Análisi bioklimatikoak aukera ematen du klima eta habitaten eta espezieen egungo eta etorkizuneko banaketa potentziala erlazionatzeko. Planteamendu horrekin, pisu bioklimatikoaren bilakaera aztertu da, altitudeko edo latitudeko cliserie batean gertatzen diren bizi-giroetako bakoitza, tenperaturarekin (termotipoak) eta prezipitazioekin eta horien kokapen eraginkorarekin (ombrotipoak) lotutako faktoreek batera mugatuta. Tenperaturak eta prezipitazioak aldatzeko jarraibidea espazio honetako pisu bioklimatikoaren azterketa egitean ere islatzen da, egungo ombrotipoen eta termotipoen arteko konparazioa ezarriz eta epe luzerako modelizazio batean, 2100erainoko aldia hartzen duena:



14. irudia. Egungo termotipoen (ezkerrekoa) eta epe luzerako aurreikusitako (2071-2100) (eskuinekoa) arteko alderaketa klima-aldaketaren egoera baterako (RCP 8.5, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuan).

- **Tenperatura:** egungo eta etorkizuneko termotipoak alderatzean, ikus dezakegu egungo aniztasunean orografiak eragin handia duela, eremu mesoepelen, supramediterraneoan eta mesomediterraneoan mosaiko bat sortzen baitu. Epe luzera, aldakortasun hori desagertu egiten da: espazio osoa pisu mesomediterraneoan sartuko da. Izan ere, homogeneotasun hori Arabako mendebaldean, Trebiñun, Lautadan eta Arabako Mendialdean hedatzen da.
- **Hezetasuna:** Gaur egun eremu honetan solairu hezea irudikatzen da altitude handieneko eremuetan eta subhezea gainerakoetan. Modelizazioaren arabera, epe luzera pisu horiek ordeztu egingo dira, eta, beraz, gune altuenak subhezeak izango dira, eta gainerakoak zoru lehorrean kokatuko dira.

Aldaketa-prozesuari dagokionez, termotipoen aldakuntza nahiko azkar antzematen da, nabarmena da modelizatutako lehen aldian (2040. urtera arte) eta pixkanaka jarraitzen du 2100. urtean deskribatutako azken etapara iritsi arte. Ombrotipoen aldaketak apurkakoagoak dira, nahiz eta lehen aldi modelizatuan hezeguneak – subheze izatera igarotzen direnak – galdu egin diren.

Aldaketa horiek, ziurrenik, Natura-ondarearen gune babestu honetako habitat eta espezieei eragingo diete. Zuzenean, haien presentzia ahalbidetzen duten baldintza klimatikoak aldatzean, eta zeharka, beste faktore negatibo batzuk eragin baititzakete. Azken horien artean daude espezie aloktono inbaditzaileak, maila globalean biodibertsitatea galtzeko faktore garrantzitsuenetako bat. Gaur egungo adostasunaren arabera, klima-aldaketak

mesede egingo die, alde batetik, bertako komunitateen nahasmenduagatik eta, bestetik, espezie aloktono inbaditzaile zehatzen ezaugarri biologiko indibidualei mesede egiten dielako.

5.1.3. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko emisioen arintzearen analisia.


Atmosferan dauden berotegi-efektuko gasen (BEG) mailak dira klima-aldaketaren erantzuleak, eta maila horiek atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen eta karbono-hustulekuen bidez murriztutako gasen arteko balantzeari erantzuten diote.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko ekosistemek berotegi-efektuko gasak murriztitzakete atmosferatik eta klima-aldaketaren prozesuak arintzen lagun dezakete. Horretarako, garrantzitsua da karbono-hustulekuen garrantzia jakitea. Horretarako, Natura-ondarearen gunek babesteko landare-formazioek karbonoa finkatzeko duten ahalmena dimentsionatu da, 2006ko IPCC Taldearen Gidalerroetan jasotako metodologiaren arabera eta 2018ko Baso Inbentarioko datuak erabiliz. Lortutako emaitzak adierazten du espazio horretako biomasa biziak 287.940 t C biltegitratzen dituela guztira. Kopuru moderatua da EAEko testuinguruan, espero zitekeena kontuan hartuta gunek honen tamaina eta baso-maila.

Zati horri egur hilaren forma duen karbonoa eta zorua gehitu behar zaizkio, aurreko kalkuluan kontuan hartu ez ziren aldeak. 1997-2007ko Baso Inbentarioko datuak erabiliz, hildako egurrari buruzko datuak biltzen dituen berriena, zati horretako karbono-erreserbak 12.392 t C dira. Kopuru hori frakzio horren maximo teorikoaren % 36 da.

Lurzoru-frakzioari dagokionez, interes berezikoa da azal-azaleko horizontearena (0 eta 30 cm arteko sakonera), aktiboena baita, eta errazago aska baitaiteke atmosferara, baldin eta erabilerak aldatzen badira esposizio handiagoa duelako.

Dauden datuen arabera, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gunek babestuak karbono-dentsitate handia metatzen du (75,7 t C/ha batez besteko balio gisa), eta, beraz, 516.230 t C pilatzen da lurzoruaren lehen 30 cm-etan. Biltegitratze-ahalmen hori ez da homogenea, 30 eta 180 t C/ha bitarteko balio-tartea baitute, eta honako irudi honetan ikus daitekeen bezala banatzen da lurraldean:



15. irudia. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan lurzoruko lehen 30 cm-etan biltegitratutako karbono-dentsitatea

Beste mendigune batzuetan gertatzen den bezala, lurzoruetan karbonoa biltegitratzeagatik gehien nabarmentzen diren eremuak larreak dira, Recuenco eta Mota mendien inguruko multzorik handienak. Tobillasetik hurbil ere dentistate handiko C pilaketako gunea sortzen da. Lurzoruan karbono-dentsitate txikiena duten eremuak, bestalde, baso- eta labore-eremuak dira.

Laburpen gisa, biomasa bizia, egur hila eta lurzorua zatikietan biltegitratutako karbonoa batuta, Natura-ondarearen gunea babestu honek 816563 t C biltegitratzen ditu guztira. Aitzitik, 2008ko eta 2012ko LIDAR hegaldiak alderatuz lortutako baso-hazkundeari buruzko datuak erreferentziatzat hartuta, kalkulatzen da aldi horretan atmosferatik 11.462 t C-ko erretiratze garbia gertatu zela urtean, soilik haren baso-biomasa bizia kontuan hartuta.

Beraz, Natura Baliabideak Antolatze Plan honetan planteatzen dena da lurzoruen erabileran aldaketarik ez egitea horietan biltegitratutako karbonoaren galera garbia ez eragiteko. Aldi berean, ahal den neurrian, karbono-hustuleku gisa duen eragina indartzen saiatzen da, eta hori konplexua da, batzuetan gaur egun dauden landare-formazioak aldatzea edo arriskuan jartzea ekar dezakeelako, eta horrek arazoak sor ditzake kontserbazio-helburuekin, saihestu nahi dena, hain zuzen ere.

5.2. KLIMA-ARRISKUAREN AZTERKETA.

Klima-arriskuak klima-aldaketek basa-habitat edo -espezie bati eragiteko duten gaitasuna ebaluatzen du, haren esposizioa eta kalteberatasuna kontuan hartuta. Esposizioak klimabaldintzen etorkizuneko aldaketen ondorioz banaketa potentziala aldatzeko aukera ebaluatzen du, eta kalteberatasuna, berriz, propietate intrintsekoa da, kalte negatiboa jasateko aurretiko joera aintzat hartzen duena.

Klima-arriskuari buruzko azterlan xehatuak oraindik hasiberriak direnez, eta habitatei eta basa-espezieei buruzko informazioa eta kontserbazio-egoerari buruzko ebaluazioa ez

daudenez diseinatuta klima-arriskuari buruzko azterketa mota horretarako, jarraian eskaintzen diren emaitzak etorkizunean doitu beharreko lehen hurbilketa gisa hartu behar dira.

5.2.1. Habitaten arrisku klimatikoaren azterketa.

Habitaten kasuan, Euskadiko lehorreko habitaten arrisku klimatikoa kalkulatzeko metodologia lana kontsultatu da. Haren ustez, Valderejo-Sobrón-Arcenako mendilerroak EAEko babesgune-sarearen batez besteak baino arrisku klimatiko txikiagoa du. Lan horretan zehaztutako babesgune honetako habitaten epe luzerako kalkulaturako arrisku klimatikoa (2071-2100, RCP 8.5 emisioen agertokia) taula honetan ikus daiteke, eta emaitzaren arabera, balorazio horren arabera arrisku klimatiko handiena duten habitatak honako hauek dira (beheranzko hurrenkeran): 9150 Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (*Cephalanthero-Fagion*), 9120 Pagadi azidofiloak eta G4.(V) *Quercus faginea* eta *Quercus ilex subsp.rotundifolia*-ren baso mistoa.

Kodea	Habitata	Azalera modelizatua (ha)	Espozizioa	Sentikortasuna	Egokitzeko gaitasuna	Kalteberatasuna	Arrisku klimatikoa
4030	Txilardi lehor azidofiloak	8,94	100%	1,01	1,14	1,02	0,92
4090	Txilar kaltzikola genistadunak	1.030,68	91%	1,01	1,3	1,01	0,87
5110	Ezpeldiak	133,15	100%	1,05	1,46	1,15	1,06
5210	<i>Juniperus phoenica</i> -ko ipurudi iraunkorrak	14,96	100%	1,01	1,4	1,1	1,04
6170	Larre harritar kaltzikoalak	273,09	38%	1,01	1,3	1,01	0,42
9120	Pagadi azidofiloak	94,00	99%	1,82	1,78	1,8	1,76
9150	Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>)	116,72	100%	2,11	2,93	2,34	2,31
9230	<i>Quercus robur</i> eta <i>Quercus pyrenaica</i> dun harizti galaikoportugesak	27,53	100%	1,01	1,31	1,01	0,99
9240	Erkameztiak	332,54	100%	1,01	1,3	1,01	0,96
9260	Gaztainadi zaharrak	1,62	100%	1,03	1,39	1,11	1,03
9340	Artadiak eta karraskadiak	1.000,87	64%	1	1,21	1	0,63
9540	Pinu mesogear endemikoz osatutako pinudi mediterraneoak	38,44	100%	1,09	1,39	1,1	1,05
6210*	Larre mesofiloak <i>Brachypodium pinnatum</i> -dunak (*orkidea ugaridun)	164,29	70%	1,01	1,3	1,01	0,62
6220*	<i>Brachypodium retusum</i> -eko larre xerofiloak	24,16	100%	1,03	1,15	1,03	0,92
6230*	Mendialdeko larreak	11,91	100%	1,02	1,32	1,02	0,96
9180*	Kare-amiilburupeko baso mistoak	57,46	100%	1,02	1,31	1,02	0,96
91E0*	Haltzadiak eta lizardiak	18,48	100%	1	1,3	1,01	0,63
92A0	Sahasti eta makaldi mediterraneoak	4,62	100%	1	1,36	1,06	0,8
G1.64	Pagadi basofilo edo neutroa	305,48	98%	1,01	1,32	1,01	0,96
G3.49	<i>Pinus sylvestris</i> pinudiak	2.195,52	73%	1	1,31	1,01	0,73
G4.(V)	<i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus ilex subsp.rotundifolia</i> -ren baso mistoa	0,37	100%	1	1,44	1,11	1,1
G5.61	Zuhaitz hostozabalen baso gazteak	22,88	100%	1,01	1,15	1,02	0,97

33. taula. Eremu antolatuan modelizatutako Batasunaren eta Eskualdearen Intereseko Habitatarako klima-arriskuaren emaitzak eta horiek kalkulatzeko erabilitako adierazleak (sentikortasuna, egokitzeko gaitasuna eta kalteberatasuna), modelizatutako azalera (hektareak) eta esposizio-ehunekoa (lhobe).

5.2.2. Basa-flora eta -faunako espezieen arrisku klimatikoaren azterketa.

Espezieen kasuan, Ingurumeneko eta Landa eta Itsas Inguruneko Ministerioaren lana kontsultatu da (2011) Natura-ondarearen gunek babesteko intereseko espezie guztientzat. Aipatzekoa da lan horretan ez direla sartzen gutxitan agertzen diren flora-espezieak, ez eta zenbait taldetako fauna-espezierik (kiropteroak, ornogabeak eta arrainak) edo ingurune urtarreko ekologiarekin lotura estua dutenak ere.

Habitategi buruzko aurreko atalean aplikatutako analisisian ez bezala, eskuragarri dauden informazio-iturriek baldintzatzen dute balorazio kualitatiboa aplikatu behar izatea.

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Horretarako, espezie bakoitzaren kalteberatasuna kalkulatzen da, Natura-ondarearen gune babestuan eta EAEn duen kontserbazio-egoera, joera eta klima-aldaketetara egokitzeko duen berezko gaitasuna kontuan hartuta.

Esposizioa, berriz, aipatutako lana kontsultatuz zehazten da, honako baliokidetasun hauek aplikatuz fauna-espezieen kasuan: Handia = Galera handia (etorkizunean eremu potentzialaren % 70 baino gehiago galtzea aurreikusita dagoenean), Ertaina = Galera (Eremu potentzialaren % 30etik % 70era bitarteko murrizketa etorkizunean), Txikia = Egonkorra (eremu potentzialaren murrizketarik gertatzen ez denean edo hori % 30etik beherakoa denean) eta Nulua = Handitzea (Eremu potentziala handitzea espero denean).

Azkenik, bi osagaiak konbinatu dira, arrisku klimatikoaren kalifikazioa lortu arte, hurrengo taulan erakusten den bezala. Balorazio horren arabera, honako espezie hauek dute arrisku klimatiko handiena:

Taldea	Izen arrunta	Espeziea	Esposizioa	kalteberatasuna	Arrisku klimatikoa
Flora	Gorostia	<i>Ilex aquifolium</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Haritza	<i>Quercus robur</i>	Ez dago	Ertaina	Txikia
	Hagina	<i>Taxus baccata</i>	Ertaina	Ertaina	Ertaina
Anfibios y reptiles	Txantxiku arrunta	<i>Alytes obstetricans</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Apo arrunta	<i>Bufo bufo</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Eskinko hiruatz	<i>Chalcides striatus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Iparraldeko suge leuna	<i>Coronella austriaca</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Hegoaldeko apo pintatua	<i>Discoglossus jeanneae</i>	Txikia	Handia	Ertaina
	Apo lasterkaria	<i>Epidalea calamita</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Zuhaitz-igel arrunta	<i>Hyla molleri</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Musker berdea	<i>Lacerta vivipara</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Uhandre palmatua	<i>Lissotriton helveticus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Apo pikarta	<i>Pelodytes punctatus</i>	Handia	Ertaina	Ertaina
	Horma-sugandila	<i>Podarcis muralis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Baso-igel jauzkaria	<i>Rana dalmatina</i>	Txikia	Ertaina	Txikia
	Baso-igel gorria	<i>Rana temporaria</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Arrubioa	<i>Salamandra salamandra</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Uhandre marmolairea	<i>Triturus marmoratus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
Aves	Sai motza	<i>Aegypius monachus</i>	Ertaina	Handia	Ertaina
	Martin arrantzalea	<i>Alcedo atthis</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Landa-txirta	<i>Anthus campestris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Uda-txirta	<i>Anthus trivialis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sorbeltz arrunta	<i>Apus apus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Arrano beltza	<i>Aquila chrysaetos</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Hontza handia	<i>Bubo bubo</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Zata arrunta	<i>Caprimulgus europaeus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Tarina	<i>Carduelis spinus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Errekatxindorra	<i>Cettia cetti</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Amiamoko zuria	<i>Ciconia ciconia</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Arrano sugezalea	<i>Circaetus gallicus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Mirotz zuria	<i>Circus cyaneus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Mirotz urdina	<i>Circus pygargus</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Pagausoa	<i>Columba palumbus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Galeperra	<i>Coturnix coturnix</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Kukua	<i>Cuculus canorus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Enara azpizuria	<i>Delichon urbicum</i>	Nulua	Txikia	Neutroa

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Taldea	Izen arrunta	Espezia	Esposizioa	kalteberatasuna	Arrisku klimatikoa
	Okil beltza	<i>Dryocopus martius</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Miarrirtza	<i>Emberiza hortulana</i>	Handia	Handia	Handia
	Belatz handia	<i>Falco peregrinus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Zuhaitz belatza	<i>Falco subbuteo</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Euli-txori beltza	<i>Ficedula hypoleuca</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Ugatza	<i>Gypaetus barbatus</i>	Handia	Handia	Handia
	Sai arrea	<i>Gyps fulvus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sasi-txori arrunta	<i>Hippolais polyglotta</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Enara arrunta	<i>Hirundo rustica</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Lepitzulia	<i>Jynx torquilla</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Antzandobi arrunta	<i>Lanius collurio</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Pirripioa	<i>Lullula arborea</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Urretxindorra	<i>Luscinia megarhynchos</i>	Txikia	Txikia	Txikia
	Miru beltza	<i>Milvus migrans</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Miru gorria	<i>Milvus milvus</i>	Handia	Handia	Handia
	Harkaitz-zozo gorria	<i>Monticola saxatilis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Euli-txori grisa	<i>Muscicapa striata</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Sai zuria	<i>Neophron percnopterus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Buztanzuri arrunta	<i>Oenanthe oenanthe</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Urretxoria	<i>Oriolus oriolus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Apo-hontza	<i>Otus scops</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Eperra	<i>Perdix perdix</i>	Ertaina	Ertaina	Ertaina
	Zapelaitz liztorjalea	<i>Pernis apivorus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Buztangorri argia	<i>Phoenicurus phoenicurus</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Txio lepazuria	<i>Phylloscopus bonelli</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Belatxinga mokogorria	<i>Pyrrhocorax pyrrhocorax</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Pitxartxar nabarra	<i>Saxicola rubetra</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Oilagorra	<i>Scolopax rusticola</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Usapala	<i>Streptopelia turtur</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Txinbo kaskabeltza	<i>Sylvia atricapilla</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Baso-txinboa	<i>Sylvia borin</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Txinbo papargorritzta	<i>Sylvia cantillans</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Sasi-txinboa	<i>Sylvia communis</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Etze-txinboa	<i>Sylvia undata</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Malkar-sorbeltza	<i>Tachymartitis melba</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Argi-oilarra	<i>Upupa epops</i>	Nulua	Txikia	Neutroa
	Hegabera	<i>Vanellus vanellus</i>	Ertaina	Handia	Ertaina
Mamíferos	Mendebaldeko ur arratoia	<i>Arvicola sapidus</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Otsoa	<i>Canis lupus</i>	Handia	Ertaina	Ertaina
	Baskatua	<i>Felis silvestris</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Muxar grisa	<i>Glis glis</i>	Handia	Ertaina	Handia
	Igaraba arrunta	<i>Lutra lutra</i>	Ertaina	Txikia	Txikia
	Lepahoria	<i>Martes martes</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Erbinude zuria	<i>Mustela erminia</i>	Handia	Txikia	Ertaina
	Bisoi europarra	<i>Mustela lutreola</i>	Handia	Handia	Handia
	Ipurtatsa	<i>Mustela putorius</i>	Handia	Txikia	Ertaina

34. taula. Valderejo-Sobrón-Arcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio-intereseko espezieen klima-arriskua, kualitatiboki zehaztuta.

5.3. ARRISKU KLIMATIKO HANDIENEN KONTSERBAZIO-LEHENTASUNAK.

4. atalean, Natura-ondarearen gune babestu hau kontserbatzeko lehentasunak identifikatu dira, funtsezko elementuetan edo kudeatu beharrekoetan multzokatuta. Hurrengo taulak lehentasun horien eta espazioan arrisku klimatiko handiena duten habitat eta espezieen arteko erlazioa erakusten du, aurreko ataletan egindako analisiaren arabera.

Funtsezko elementua	Kontserbazio lehentasunak	Arrisku klimatiko handidun bestelako elementuak
Ibai-sistema	<i>Mustela lutreola</i>	
Basoa naturalak eta erdinaturalak	9120 Pagadi azidofiloak 9150 Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (<i>Cephalanthero-Fagion</i>) <i>Glis glis</i>	G4.(V) <i>Quercus faginea</i> eta <i>Quercus ilex subsp. rotundifolia</i> -ren baso mistoa
Hegaztiak	<i>Emberiza hortulana</i> <i>Gypaetus barbatus</i> <i>Milvus milvus</i>	

35. taula. Klima-arrisku handiko habitat eta espezieen eta Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazio-lehentasunen arteko lotura.

Klima-ekintzaren ikuspegitik ere lehentasunak zehaztu dira, horretarako *Herramienta para el análisis multicriterio de Elementos Clave de la Red Natura 2000 de Euskadi desde la perspectiva del cambio climático* izeneko argitalpena erabiliz.

Funtsezko elementu bakoitzak biltzen dituen habitat eta espezieentzako 5 irizpide-multzoren balorazioan oinarritzen da, hauek balioesteko: 1) klima-aldaketaren aurrean sentikorrek diren, 2) naturagune babestuko karbono-hustulekuak handitzen diren, 3) egokitzeko gaitasuna duten eta/edo beren inguruko espezie edo habitaten egokitzeko gaitasuna handitzen duten, 4) onura ekosistemiko gehigarriak dituzten edo 5) onura sozialak dituzten.

Funtsezko elementuak	Lehentasuna ikuspegi klimatikoa erabilia
Eremu hezeak	2,88
Txilardien, otadien eta larreen mosaikoa	2,55
Baso naturalak eta erdinaturalak	2,50
Ibai sistema	1,99
Habitat harritsuak eta leizeak	1,44
Hegaztiak	0,58

36. taula. Funtsezko elementuen eta lehentasunen arteko lotura klimaren ikuspegitik

Ikuspegi horrekin honako eremuak lehenetsi dira: Eremu hezeak (azalera txikiko baina balio handiko enklabeak barne, zohikaztegiak kasu) eta nagusiak diren txilardi, otadi eta larreen mosaikoa eta baso natural eta erdinaturalak.

Azpimarratzekoa da Hegaztiak funtsezko elementuak balorazio eskasa jaso duela klimaren ikuspegitik. Horren arrazoia da fauna-talde bat dela, eta, beraz, karbonoa finkatzeko, lurzorua atxikitzeko, itzala sortzeko eta abarrerako gaitasunarekin lotutako irizpideetan puntuazio txikiak lortzen ditu.

5.4. KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO ETA KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO NEURRIAK.

Natura-ondarearen gune babestuaren Natura baliabideak antolatzeko planak klima aldaketa arintzeko eta egokitzeko zenbait neurri ditu, ondoren zehaztuko direnak.

5.4.1. Arintzea.

Natura-ondarearen gune babestuko zonetan ezarritako erabilera-erregimenak espazioan dauden karbono-hustulekuen kudeaketa egokia bermatzen du, batez ere aurreikusitako zonifikazioaren barruan, Babes Bereziko Eremuak, Basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak eta Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak garatu daitezkeen erabilera-motak mugatzen dituzten erregulazioak dituztelako, eta zonakatzeko bereziki bermatzaile horrek frakzio desberdinetan biltegitratutako karbonoa askatzea saihesten duelako (lurzorua, egur hila eta landare-biomasa), Horrela, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan biltegitratutako karbonoaren % 58 babesten da, taula honetan zehazten den bezala:

Zonaldea	Ha		tC biomasa		tC egur hila		tC lurzorua		tC GUZTIZKOA	
Basogintza-erabilera estentsiboa	2.006	60%	90.409	53%	3.744	60%	142.120	61%	236.272	58%
Abeltzaintza-erabilera estentsiboa	1.039		21.295		1.270		96.980		119.545	
Babes berezia	1.047		40.937		2.430		78.356		121.723	
Total	6.821		287.940		12.392		516.230		816.563	

37. taula. Eremu bakoitzean biltegitratutako karbonoaren balorazioa

5.4.2. Egokitzapena.

Egindako diagnostikoaren arabera, honako hauek dira arrisku klimatiko handieneko habitatak eta espezieak: 9120 pagadi azidofiloak, 9150 Europa erdialdeko pagadi kaltzikolak (*Cephalanthero-Fagioneko*), 9260 Gaztainadi zaharrak, *Quercus faginea* eta *Quercus ilex subsp.rotundifolia*-ren baso mistoa *Mustela lutreola*, *Milvus milvus*, *Glis glis*, *Aquila chrysaetos*, *Emberiza hortulana* eta *Gypaetus barbatus*.

Horiek guztiak Natura-ondarearen gune babestuan kudeatzeko funtsezkoak diren ingurune edo elementuen parte dira, hala nola Baso naturalak eta erdinaturalak, Ibai-sistema eta Hegaztiak, eta gehienak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren kontserbazio-lehentasunen barruan aipatu dira (*Quercus faginea* eta *Quercus ilex subsp.rotundifolia*-ren baso mistoa izan ezik) eta, den-denei NBAParen araudian ezarritako helburuek, erreferentzia irizpideek eta mugek erasango diete.

6.– VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA Natura-ondarearen gune babestu-RAKO AZTERKETA EKONOMIKOA.

Gaur egun, atal honen edukari dagokionez, bi dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuari aplikatu beharreko arauak: alde batetik, estatu-mailan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen (oinarrizkoa) 17. artikulua, zeinak 4. atalean ezartzen baitu Natura baliabideak antolatzeko planek proposatutako neurrien memoria ekonomikoa jasoko dutela, eta, bestetik, autonomia-mailan, Euskadiko Ondare Naturala Kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 22. artikulua, zeinak 1.j) atalean ezartzen baitu NBAPek horiek aplikatzeko aurreikusitako kostuei eta finantza-tresnei buruzko memoria ekonomikoa jaso behar dutela.

Espedientearen izapidetzearen esparruan, memoria ekonomikoa egin zen, eta, horrekin eta espedienteko gainerako dokumentuekin, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskatu zitzaion ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena, zeina aldekoa izan baitzen 2019ko abenduan, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzak egindako legezkotasun-txostenaren ildo beretik.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren NBAParen edukiak honako hauek dira: lurralde-eremuaren mugaketa; baliabide naturalen, ekosistemen eta paisaien kontserbazio-egoera zehaztea; erabilerei eta jardueri dagozkien muga orokorrak eta espezifikoak zehaztea; babes-araubideen aplikazioa; politika sektorialak orientatzeko erreferentzia-irizpideak; ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-araubideari lotutako jarduera, obra edo instalazio publiko edo pribatuaren zerrenda; eta horien aplikazioaren emaitzaren jarraipen-plana; beraz, berez ez dakar kostu gehigarriak. Hala ere, kostu ekonomikoak ekar ditzakete foru-organo eskudunak Natura-ondarearen gune babestua kudeatzeak eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planean (EKZP) ezartzen diren neurriek. Plan hori egitea eta NBAPetik independentea den dekretu baten bidez onartzea foru-erakundearen eskumena ere bada.

Aurrekoa gorabehera, gaur egun hainbat datu-iturritatik datorren informazio eguneratua dago, eta informazio hori erabiltzen da atal honen azterketa ekonomikoa egiteko:

1. 2021. urteko balantze ekonomikoa, ES2110024 Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren KBE/HBBE eta Parke Naturalaren urteko kudeaketa-txostenean jasoa, Patronatuak 2022ko ekainaren 7an egindako bilkuran aurkeztua.
2. 2021-2027 Lehenetsuneko Ekintza Esparrua Euskadin eta Natura 2000 Sarearen finantzaketa 2021-2027 aldirako Urte Anitzeko Finantza Esparrurako, Eusko Jaurlaritzak 2020ko apirilean egina eta sailaren https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/map/es_def/adjuntos/map_completo.pdf. webgunean argitaratua
3. Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak abian jarritako habitaten jarraipen kontratuak.

6.1. ARABAKO FORU ALDUNDIAK VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAREN KUDEAKETAREN KOSTUAK.

ES2110019 KBE/HBBE Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren eta Valderejoko Parke Naturalaren urteko kudeaketa-txostenean jasotako 2021. urteko balantze ekonomikoa ikusita, urte horretako aurrekontua 400.000 €-koa izan zen, gutxi gorabehera. Aurrekontu hori, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak (gaur egungo kudeaketa-organoa dena), Nekazaritza Sailak eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapen eta Toki Administrazio Sailak (biak ere Arabako Foru Aldundiarenak) burutzen dute eta kopuru horretako aurrekontu partida garrantzitsuenak arreta eta zaintza/kudeaketa integraleko zerbitzuak (250.000 € inguru) eta parke naturalera heltzeko errepidearen hobekuntza dira, azken hori ez da kuantifikatu.

Horrez gain, balantze ekonomiko honetako bi gai garrantzitsu nabarmendu behar dira:

- 2021ean 4.326,18 € erabili ziren konpentsazioetara, fruta-arbolengatik eta simaurtegiagatik.
- Ez dira sartzen organo kudeatzailearen langile-gastuak (1. kapitulua): zuzendari-kontserbatzailea, beste bi Natura-ondarearen gune babesturekin partekatua; administrazioan diharduen pertsona; teknikari bat; eta hiru basozain, eta horien funtzioak ere lurralde historikoko gainerako parke naturaletan egiten dira.

6.2. VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENAKO MENDILERROA NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTURA ESTRAPOLATZEA LEE-AN JASOTAKO INFORMAZIOA.

Lehenetsuneko ekintza-esparruak (LEE) urte anitzeko tresna estrategikoak dira, eta Natura 2000 sare paneuroparra eta horri lotutako azpiegitura berdeak ezartzeko beharrezkoak diren neurrien ikuspegi orokorra ematea dute helburu, neurri horietarako finantza-beharrak zehaztuz eta EBko programa eta funtsekin lotuz.

Habitategi buruzko Zuzentzailearen helburuekin (Natura 2000 Sarea oinarria dena) eta Zuzentzaile horren 8. artikuluekin bat etorriz, LEEetan identifikatu beharreko neurriek, nagusiki, honako helburu hauek eduki behar dituzte: habitat naturalak eta garrantzi komunitarioko espezieak mantentzea eta kontserbatzeko aldeko estatus bateraino lehengoratzea, eskualdeko eta tokiko ekonomia-, gizarte- eta kultura-berezitasunak eta ezaugarriak kontuan hartuta.

Europako Batzordeak berak diseinatutako LEEaren egungo formatuak informazio fidagarria eman nahi du Natura 2000ekin lotutako lehentasunezko finantzaketa-premiei buruz. Gaur egungo LEEaren formatuaren funtsezko osagaietako bat da Natura 2000ren eta azpiegitura berdearekin lotutako kontserbazio- eta lehengoratzeko neurriak banakatzea ekosistemen kategoria orokorren arabera, 8 klasetan banakatuta eta Europako Ingurumen Agentziaren MAES tipologian oinarrituta. Gainera, LEEaren formatuak bi kostu bereizten ditu: batetik, funtzionamendu-kostuak, epe luzera jarraitu behar duten neurri errepikakorrek lotuta egon ohi direnak, eta, bestetik, errepikakorrek ez diren ekintzekin zerikusia duten kostu puntualak.

Gainera, LEEean jasotako lehentasunezko neurriek, EBko naturarekin lotutako zuzentzailearen arazko betebeharrak eta helburu espezifikoak betetzen laguntzeaz gain, onura sozioekonomiko eta zerbitzu ekosistemiko garrantzitsuak emango dizkiote gizarteari. Onuren adibideetan sar daitezke klima-aldaketa arintzea eta egokitzea edo ekosistemetako beste zerbitzu batzuk, hala nola turismoarekin eta kulturarekin lotutakoak.

Jarraian, euskal Natura 2000 Sare osorako 2027 lehentasunezko finantzaketa-beharren zenbatespen-taula ageri da, haren osagai nagusietarako. Taula horren gainean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babesturako estrapolazioa egingo da, erreferentzia gisa 3.566,66 hektareako azalera hartuta.

366.427 €/urteko zifra organo kudeatzaileak gaur egun bideratzen duenaren antzekoa da, 6.1 epigrafean deskribatutakoaren arabera. Kontuan hartu behar da LEEaren zifrak globalak direla euskal Natura 2000 Sareko 55 espazioetarako, eta LEEean kostu oso handiak sartzen direla, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren beharrei aplikatzen ez zaizkienak, hala nola kostaldeko urei lotutakoak (LEEaren % 15) edo ibaien eta lakuen uretako habitat kontinentalei lotutakoak (LEEaren % 53), Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan oso garrantzi txikia dutenak.

Horrez gain, 6.1 epigrafean jasotako zifretan ez dira sartzen Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen dituen neurri horizontalen kostuak eta administrazio kostuak, eta taulako datuetatik abiatuta, urteko 47.750 € inguru balioesten dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babesturako.

Lehentasunezko finantzaketa-beharrak 2021-2027			
1.	1. Natura 2000ekin lotutako neurri horizontalak eta administrazio-kostuak	Urteko funtzionamendu-kostuak (€/ urte)	Proiektuaren kostu bakarrak (€/ urte)
1.1.	Gunearen izendapena eta kudeaketaren plangintza	6.647 €	148.007 €
1.2.	Gunea administratzea eta interesa duten eragileekin komunikatzea	3.092.402 €	32.213 €
1.3.	Jarraipena eta informazioa	193.733 €	112.769 €
1.4.	Ezagutza-hutsuneak eta ikerketa-beharrak	82.564 €	291.823 €
1.5.	Natura 2000ri, hezkuntzari eta bisitarietarako sarbideari buruzko komunikazio- eta kontzientziazio-neurriak	1.134.301 €	346.866 €
	Gutzizko partziala	4.509.647 €	931.677 €

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Lehentasunezko finantzaketa-beharrak 2021-2027			
2	Natura 2000 guneekin lotutako espezie eta habitatak mantentzeko eta lehengoratzeko neurriak	Urteko funtzionamendu-kostuak (€/urte)	Proiektuaren kostu bakarrak (€/urte)
2.1.a	Itsasoko eta kostaldeko urak	1.377.081 €	327.648 €
2.2.a	Txilardiak eta sastrakak	37.038 €	25.535 €
2.3.a	Zohikaztegiak, eremu zingiratsuak eta beste hezegune batzuk	179.154 €	127.675 €
2.4.a	Belar-formazioak	307.418 €	137.497 €
2.5.a	Beste nekazaritza-ekosistema batzuk (laboreak barne)	56.875 €	16.140 €
2.6.a	Basoak eta bestelako zuhaitz-eraketak	1.848.871 €	357.861 €
2.7.a	Habitat harritsuak, dunak eta landaretzaz urri estalitako lurak	372.807 €	158.947 €
2.8.a	Uretako habitat kontinentalak (ibaiak eta lakuak)	4.514.579 €	1.662.806 €
2.9.a	Beste batzuk (leizeak, etab.)	41.803 €	54.757 €
	Guztizko partzial	8.735.625 €	2.868.864 €
	Urteko guztizkoa	13.245.272 €	3.800.541 €
	Urteko guztizkoa (funtzionamendua+bakarrak)	17.045.813 €	
	Urteko guztizkoa Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa NOGBan	366.427 €	

Kosten datu horien parean, Natura 2000 Sareak ematen dituen onura ekonomikoei buruzko datu orokorragoak ere badaude, hala nola Europako Batzordeak eta Europako Ingurumen Agentziak (Estimating the economic value of the benefits provided by the tourism/recreation and Employment supported by Natura 2000 (europa.eu) egindako lanetan, non Natura 2000 Sareak gizarteari eta ekonomiari zerbitzu ekosistemikoak deiturikoen bidez ematen dizkien onurak azaltzen diren. Besteak beste, biodibertsitatea gordetzearen onura gehigarriak etorkizuneko belaunaldientzat, edo ekonomian existentzia-balioa deiturikoak. Labor-labor, honako hauek aipa daitezke:

- Karbonoa biltegiatzea. Eremu askok (basoak, hezeguneak, zohikaztegiak, larreak, itsas eremuak) karbono-biltegi naturalak osatzen dituzte.
- Hondamendi naturalak. Ondo kontserbatutako ekosistemek hondamendiak arintzeko zerbitzuak (uholdeak, lur-jausiak, elur-jausiak) ematen dituzte, sarri askotan gizakiak ezartzen dituen neurriak baino askoz merkeagoak.
- Elikagaien segurtasuna. Adibidez, polinizazio-zerbitzuak, arraza autoktonoak mantentzea, kontserbazio genetikoa edo nekazaritza-sektorearen erresilientzia handitzea.
- Jolas- eta turismo-zerbitzuak. Natura 2000 Sarea baliabide iturri garrantzitsua da tokiko komunitateentzat, turismo- eta aisialdi-zerbitzuen bidez, diru-sarreraren, jardueraren eta enpleguaren bidez.
- Uraren ekarpena eta kudeaketa. Natura 2000 Sareak ura ematen zein arazketa-zerbitzu naturalak ematen laguntzen du.
- Osasun publikoa. Bizi-kalitatea hobetzen eta komunitateko osasun-arazoak gutxitzen laguntzen du.
- Hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza. Bai ingurumen-hezkuntza, bai oinarriko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren oinarri gisa (farmazia-industriarako, adibidez).

Natura 2000 Sareak EBn duen eragin ekonomikoa 200.000 eta 300.000 milioi euro artekoa da urtean, eta 12 milioi enplegu inguru sortzen ditu. Zifra horiek Euskadira estrapolatuz gero, Natura 2000 Sarearen eragin ekonomikoa urtean 260 eta 390 milioi euro artekoa izango litzateke, eta 15.650 enplegu lanaldi osoan mantentzen lagunduko luke.

Europako Natura 2000 Sare osorako zifrak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa eramanda, emaitzak adierazten du Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-

ondarearen gune babestuaren onura ekonomikoak, gutxi gorabehera, 5,58 eta 8.38 milioi euro artekoak direla urtean, eta 336 enplegu inguru mantentzen lagunduko lukeela.

Natura 2000 Sarearen kostuak ordaintzeko finantza-tresnei dagokienez, LEEak honako datu hauek ematen ditu 2014-2020 aldirako:

- A. Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF): EAEko Natura 2000 Sarea kontserbatu, babestu eta kudeatzeko 7.253.110 euro esleitu zirela kalkulatu da.
- B. Eskualde Garapenerako Europako Funtza (EGEF). Biodibertsitatearen kudeaketa eta kontserbazioa finantzatzeko bi neurri posibleetatik, Programa Operatiboak bakarria aurreikusten du (85.a), guztira 10.251.300 €-ko zuzkidurarekin 2014-2020 aldirako.
- C. LIFE finantza-programa. EAEn garatutako 17 proiektu aurkitu dira 2014-2017 aldiko gastuarekin, 6.614.535 € guztira, eta horietatik 3.718.578 € LIFEaren ekarpenak dira. Programazio-aldi honetan oraindik laguntza-deialdiak egiten direnez (eta EBko beste funts batzuetan ez bezala, baterako finantzaketaren zenbatekoa ez dago aurrez esleituta), ezin da jakin 2014-2020 aldian zenbat funts mobilizatuko diren programa honen bidez.
- D. Europako lurralde-lankidetzak (INTERREG). EAEko erakundeak onuradun izan daitezkeen 4 programetatik, bitan baino ez dira aurkitu Natura 2000 Sarean eragina duten proiektuak. Aipagarriena Interreg V-A, Espainia-Frantzia-Andorra, izan ere, 8 proiektu garatu dira 2014-2017 aldian, 2.713.773 €-ko guztizko zenbatekoarekin. Proiektu horiek 2007-2013 programazio-aldikoak dira (horietako batzuk programazioaren amaieratik haratago hedatzen dira), baita gaur egungoak ere (2014-2020).

Laburbilduz, EAE osorako kalkulatu da 2014-2017 aldian 5.246.283 €-ko ekarpena egin zaiela erkidegoko funtsei EAEko Natura 2000 Sarearekin lotutako proiektuei, eta kopuru horrek euskal funts publikoen beste 4.224.072 € mobilizatzen lagundu duela (Europako Batzordeak, oro har, kofinantzaketak du, ez du % 100ean finantzatu). 2014-2020 programazio-aldi osora estrapolatuz gero, EBren ekarpena 15.900.649 €-koa izango litzateke, eta eskualde-mailako kontrapartida ia beste horrenbeste (15.822.668 €); beraz, EAEko Natura 2000 Sareari erantzuteko ia 32 milioi euro mobilizatuko lirateke.

6.3. EUSKADIKO HABITATEN KONTSERBAZIO-EGOERAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.

Kontuan hartuta natura baliabideak antolatzeko planek Eusko Jaurlaritzak definitutako jarraipen-planak dituztela, eta Euskadiko 2030erako Biodibertsitate Estrategiak bere lehenengo jarduketetako bat EAEko Natura 2000 Sarea barne hartuko duen Natura Ondarearen ebaluazio- eta jarraipen-sistema bat garatzea dela, Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, 2018tik 2025era arte, Batasunaren eta eskualdearen intereseko habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko lanak inplementatu ditu, MITECOren eta autonomia-erkidegoen artean horretarako sortutako lantaldean onartutako metodologiei jarraituz. Metodologia horiek hainbat enpresari esleitu zaizkie, lehiaketa publiko irekiaren bidez.

Dagoeneko egiten ari diren lanek 245.000 euroko kostua dute urtean, eta horietatik % 40 Eskualde Garapenerako Europako Funtzaren (EGEF), 2021-2027 kontura finantzatzea aurreikusten da.

6.4. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN BESTE FINANTZAKETA-ITURRI BATZUK.

Eonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak dirulaguntzen programak ditu, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazioa finantzatzeko lagungarri izan daitezkeenak, eta EAEko 2022ko aurrekontu orokorrak erreferentziatzat hartuta, honako hauek dira nagusiki:

- Natura-ondarearen kontserbazioari buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak. Programak 180.000 €/ urteko zuzkidura du.
- Garapen jasagarria sustatzen duten ekintzak egiten dituzten udalentsako dirulaguntzak. Programa horrek 750.000 euroko zenbatekoa izango du natura-ondarearen lerrorako 2022an.
- Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak, ingurumen-boluntariotzako lanak egiteko. Programak 200.000 €-ko zuzkidura du urtean.

Ezinezkoa da *a priori* zehaztea funts horiek nola edo zenbaterainoko eragina izango duten Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestuaren kontserbazioan; izan ere Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren lurralde-eremuan laguntzak jaso ditzaketen erakunde potentzialek eskatzen badituzte erabiliko dira, nahiz eta lehen bi programen kasuan Natura 2000 guneak kontserbatzearekin lotutako proiektuak lehenesten diren, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren kasuan bezala.

III. ERANSKINA, ABENDUAREN 13KO 152/2022 DEKRETUARENA

ARAUDIA

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen Gune Babestuko Natura Baliabideen Antolamendurako II. Plana.

Kontserbazio Bereziko Eremua, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua eta Valderejoko Parke Naturala.

Behin betiko onesteko dokumentua

AURKIBIDEA

1.– Kapitulumua. xedapen orokorrak	1
2.– kapitulumua. natura-ondarearen gune babestuan oro har aplikatu beharreko arauak	5
1. atala. Natura-ondarea babesteko arauketak	5
2. atala. Lurraldearen erabilerei eta aprobetxamenduei buruzko arauketak	13
3.– Kapitulumua. Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzearen araberako arauketak eta babes-eremu periferikoa	31
1. Atala. Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzea eta babes-eremu periferikoa	31
2. Atala. Babes bereziko eremuak	31
3. Atala. Basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	36
4. Atala. Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	39
5. Atala. Baso-ekoizpeneko eremuak	41
6. Atala. nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuak	42
7. Atala. Ibai-sistema	44
8. Atala. Hiri, ekipamendu eta azpiegituretarako eremuak	48
9. Atala. Babes-eremu periferikoa	49
4.– Kapitulumua. Politika sektorialak bideratzeko erreferentziako irizpideak	51
5.– Kapitulumua. Ebaluazio egokia	60
6.– Kapitulumua. Jarraipen-plana	62

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Antolamendu-eremua.

Natura baliabideen antolamendurako plan (NBAP) honen aplikazio-eremuak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuaren (NOGB) aldea (ES 2110024) eta haren babes-eremu periferikoa hartzen ditu barne. Hauek dira Natura-ondarearen gune babestuaren oinarritzko parametroak:

1.1 taula. Natura-ondarearen gune babestuaren identifikazioa eta kokapena 'Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa'	
Izena	Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa
Natura 2000 kodea	ES2110024
Parke naturalaren kodea (Valderejo)	ES211001
Parke naturalizat aitortu zen data (Valderejo)	1992/01
BBE izendatu zen data	2000/11
BIL gisa proposatu zen data	1997/12 (Valderejo) eta 2000/11 (Sobrón)
KBE izendatu zen data	2016/03
Azalera (ha)	6.815,71
Gehieneko altitudea (m)	1.361
Gutxieneko altitudea (m)	475,6
Batez besteko altitudea (m)	914,2
Lurralde historikoa	LH Araba (% 100)
Eskualde biogeografikoa	Mediterranea

Natura-ondarearen gune babestuaren eta haren babes-eremu periferikoaren kokapena, zedarriztapena eta zonakatzera dekretu honen I. eranskinetako dagozkien mapetan irudikatuta daudenak dira. EHAAren bisorean kontsulta daitezke, eta GeoEuskadi Euskadiko Datu Espazialen Azpiegituraren Atariko fitxategi digitalak bistaratu edo deskargatu daitezke.

2. artikulua.– Gunea babesteko eta antolatzeko arauen egitura eta edukia.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuko Natura baliabideen antolamendurako plan honek -jatorrizko bertsioa gaztelaniaz landu da- integrazio harmoniko bat proposatzen du. Gainera, indarreko araudi sektorialetik datozen zehaztapenak biltzen ditu, baita arau eta irizpide berriak ere, proposamen integral bat antolatzeko. Proposamen horrek, hain zuzen, natura-baliabideen kontserbazioa, Batasuneko eta eskualdeko intereseko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona eta natura-ondarearen gainerako elementuena bermatu behar ditu, baita guneari lotutako sektore ekonomikoen jardueraren mantentzea ere. Horrez gain, haren erabilera publiko egokia ziurtatu behar du.
2. Natura baliabideen antolamendurako plan honek Valderejoko Parke Naturalari buruzko lehenengo NBAParen helburu eta irizpide askori eusten die eta, orobat, Valderejoko sektorea, Sobrón eta Árcenako mendilerroaren gainerako aldeak Natura 2000 sarean sartzearen ondoriozko helburu eta irizpide berriak txertatzen ditu. Aldi berean, aurreko NBAP a onetsi zenetik promulgatu diren lege sektorial berriak (natura-baliabideen kontserbazioari aplikatzekoak) biltzen ditu.
3. NBAParen zehaztapenak honela banatzen dira:
 - a. Helburuak eta printzipioak. Haien xedea da Natura-ondarearen gune babestuko natura-baliabideak antolatzeko estrategia bideratzea. Horretarako, natura-ondarea kontserbatu eta babesteko jarduketak garatzen dituzten administrazio publikoen eta agenteen esku-hartze lehentasunak ezartzen dira; organo eskudunek lehentasun horiek aintzat hartu

beharko dituzte plan, programa eta proiektu publikoak prestatzean, txostenak egitean eta gune horri eragiten dioten erabilerak eta jarduerak baimentzean.

- b. Arauketa orokorrak. Kontserbazio-helburuak erdiesteko beharrezkoak diren betebeharrak, debeku, baldintza eta irizpideen multzoa osatzen dute. Haien xedea da erabileren eta jardueren garapenean arau edo muga orokorrak ezartzea, Natura-ondarearen gune babestuan dauden natura-baliabideak, habitatak, flora eta faunako basa-espezieak eta natura-ondarearen beste elementu batzuk kontserbatzeko helburuarekin. Oro har, administrazio publikoentzat eta tokiko erabiltzaileentzat dira.
- c. Eremukako arauketak. Zehaztapen horien xedea da arauak edo mugak ezartzea Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzearen arabera. Arauketa horien bidez, honako hauek integratu nahi dira: bai Natura-ondarearen gune babestuaren eremua sektorizatu den zona bakoitzean kontserbatu beharreko elementuak babesteari buruzko xedapenak bai zona horietan egon daitezkeen eta aipatutako elementuen kontserbazioan eragina izan dezaketen erabilerei eta jardueri buruzkoak.
- d. Politika sektorialak bideratzeko erreferentziako irizpideak. Idatz-zati horretan, Natura-ondarearen gune babestuan gara daitezkeen jarduera-sektoreen planifikazioan aplikatu beharreko jarraibideak eta irizpideak biltzen dira, a) idatz-zatiko helburu eta irizpide orokorrekin bat etorritik.
- e. Natura-ondarearen gune babestuan eragin nabarmena izan dezaketen plan, programa, proiektu eta jarduketan ebaluazio egokiari buruzko arauketak.
- f. Natura baliabideen antolamendurako planaren aplikazioari buruzko jarraipen-plana eta kontserbatu beharreko habitat eta espezieen kontserbazio-egoeraren aldizkako ebaluazioa.

3. artikulua.– Helburuak eta printzipioak.

1. Natura-baliabideen antolamendua eta kudeaketa zuzendu behar dituzten helburuak Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean (NOBL) eta 9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeko buruzkoa denaren (ENOBL), 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoak dira. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko 2020rako Geodibertsitatearen Estrategian eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2030erako Biodibertsitate Estrategian edo haien eguneraketetan aipatzen diren helburuak ere aintzat hartzen dira.
2. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuan, helburu horiek honela zehazten dira:
 - 2.1. Biodibertsitatearen babesa bermatzea, Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan habitat naturalak, basa-fauna eta basa-flora kontserbatuz, horiek kontserbazio-egoera onean mantenduz edo leheneratuz, Batasuneko interesekoetan arreta berezia jarrita, baita eskualdeko interesekoetan ere, balio ekologiko handiagoa edo kalteberatasun eta bitxitasun nabarmenak dituztenetan.

Helburu horrek, halaber, honako hau dakar berekin:

- a. Natura-ondarearen gune babestuko baso naturalen kontserbazio-egoera hobetzea, okupaturiko azalera handituz, baso-masa autoktonoen egitura eta osaera hobetuz, hobekien kontserbatutako enklabeen oraingo egoera babestuz eta ekosistema horiei lotutako flora-espezie eta fauna-espezie mehatxatuen kontserbazioa, populazio-eboluzioa eta bideragarritasuna bermatuz.

- b. Txilardien, sastraka esklerofiloen eta larreen multzoaren oraingo azaleraren eta mosaiko-antolaketa kontserbazioa bermatzea, atzera egitea saihestuz eta abeltzaintza-kudeaketarako jarraibideak, habitaten eta lotutako basa-espezieen kontserbazio-egoera onarekin bateragarriak direnak, ezarriz.
 - c. Harkaitzei eta kobei lotutako Batasuneko eta eskualdeko intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera ona gordetzea edo lortzea, ingurune horietako berezko hegazti harkaiztarren, kiropteroen eta flora mehatxatuaren populazioen kontserbazioa, berreskurapena eta bideragarritasuna bermatuz eta Natura-ondarearen gune babestuak espezie horiek hartzeko duen gaitasuna hobetuz.
 - d. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko gune hezei lotutako Batasuneko eta eskualdeko intereseko habitaten eta haiei lotutako flora-populazioen kontserbazio-egoera ona gordetzea edo lortzea.
 - e. Natura-ondarearen gune babestuko ibai-sistemaren funtzionaltasun osoa mantentzea, kontserbatzea eta berreskuratzea, intereseko espezie ugari hartzen dituzten habitat desberdinen berezko eremu gisa eta dibertsitatea eta prozesu ekologikoak mantentzen laguntzen duen igarobide ekologiko gisa. Horrek, berriz, zera dakar berekin:
 - Natura-ondarearen gune babestuko ibai eta erreketako uren kalitatea eta haietako ur-masen egoera ekologiko ona bermatzea.
 - Urari lotutako habitatak, fauna-populazioak eta flora-populazioak aktiboki kontserbatzea eta hobekien ordezkatuta daudenak babestea. Haien heldutasunaren, egiturazko konplexutasunaren eta biodibertsitatearen alde egitea.
 - Ur-bazterreko igarobide jarraitua lortzea, ibai-sistemako dibertsitate ekologikoa eta haren funtzio bioklimatikoa bermatzen dituenak.
 - f. Gune honetan bizi diren hegazti migratzaileen eta habiagileen populazioak babestea eta berreskuratzea, gune babestuak hegazti-talde bakoitzerako duen harrera-ahalmena hobetuz.
- 2.2. Natura-ondarearen gune babestuan garatzen diren prozesu ekologikoei buruzko ezagutzan sakontzea. Oro har Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan dauden natura-baliabideen eta Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitat eta espezieen kontserbazio-egoeraren ezagutza zehatza erdiestea.
 - 2.3. Nekazaritzako, nekazaritza eta abeltzaintzako eta basogintzako jarduera tradizionalen mantentzea sustatzea, Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu behar diren habitat naturalen eta basa-espezieen kontserbazioarekin bateragarriak diren eta horretan laguntzen duten heinean.
 - 2.4. Natura-baliabideak modu antolatuan eta jasangarrian kudeatzea, tokiko biztanleriarentzat eta oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzako ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-onura handienak sortzeko.
 - 2.5. Gune babestuko biztanleen bizi-estandarrik hobetzea, ongizate-maila handiagoa, ingurune naturala babesteko funtsezko helburuari laguntzen diona, lortzeko.
 - 2.6. Lurzoruaren erabilera jasangarria bermatzea, haren babesa eta kontserbazioa zainduz; izan ere, baliabide berriztaezintzat, giza jardueren funtsezko euskarritzat, paisaiaren elementutzat eta kultura-ondarearen artxibotzat jotzen da.

- 2.7. Paisaiaren eta ondare geologikoaren narriadura edo suntsiketa saihestea (alderdi horiek bereziki garrantzitsuak dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan), haien edertasuna eta nortasuna babestea eta narriatutako eremuak berreskuratzea.
- 2.8. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko ondare geologikoa babestea, haren ezagutza hobetuz eta bertan dauden Geologia Interesdun Lekuen garrantzia jendarteratuz.
- 2.9. Natura-ondarearen gune babestuan dagoen kultura-, arkeologia- eta arkitektura-ondarea zaintzea eta haren ikerketaren alde egitea, Euskadiko kultura-ondareari ekarpena egiteko asmoz.
- 2.10. NOBLaren 47. artikuluekin bat etorritik, Natura 2000 sareko kanpo- eta barnekoherentzia ekologikoa hobetzeko egokiak diren ahaleginak egitea; horretarako, fauna florako basa-espezieen populazioen migrazioarako, banaketa geografikorako eta haien arteko truke genetikorako oinarritzakoak diren edo funtsezko garrantzia duten paisaiako edo lurraldeguneetako elementuak kontserbatu eta, hala badagokio, babestuko dira.
- 2.11. Ekosistemen, horietako habitaten eta basa-flora eta basa-faunako espezieen kontserbazio-egoera egokia ziurtatzea, klima-aldaketara egokitzeko gai den eta haren ondorioak arintzen laguntzen duen ingurune erresiliente bat edukitzeko asmoz.
- 2.12. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuari eragiten dioten erabakiak hartzeko prozesuetan gizartearen partaidetza sustatzea, bereziki gune babestuan lursailak dauzkaten biztanleen eta udalerrien partaidetza, eta herritarrek kontserbazioan parte har dezaten bultzatzea.
- 2.13. Organo publiko eskudun guztien erakunde-koordinazioa hobetzea eta dagoen ingurumen-araudia eta sektoreko araudia egokitzea, horrelakorik ez daukaten natura-ondarearen elementuei babes-elementu berriak emateko.

NATURA-ONDAREAREN GUNE BABESTUAN ORO HAR APLIKATU BEHARREKO ARAUAK

Kapitulu honetako arauketak Natura-ondarearen gune babestu osoan aplikatzen dira oro har. Ondoren, garatu eta zehaztu egiten dira, gunearen zonakatzearen araberrako arauketen bidez.

1. atala.– Natura-ondarea babesteko arauketak.

4. artikulua.– Natura 2000 sarearen koherentzia ekologikoa.

1. Natura 2000 sarearen barne- eta kanpo-koherentzia hobetzeko asmoz, bai Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan bai gune horren eta Natura 2000 sareko gainerako espazioen arteko konexio ekologikoko guneetan, berariazko neurriak hartuko dira konektagarritasun ekologikoari laguntzen dioten lurraldeko elementuak (ibaletako ur-bazterretako landaredia, baso-espezie autoktonoen arboladiak, finken mugetako eta landa-bideen ertzetako heskai naturalak) babesteko edo berreskuratzeko. Era berean, basa-faunarentzat egokitzeko eta iragazkortzeko neurriak hartuko dira hori behar duten azpiegituretan.
2. Ingurumen-ebaluazioak horren kontrako ondorioak atera arren Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean xedatutako salbuespenezko baldintzak betez egin behar den jarduketa orotan, beharrezko konpentsazio-neurri guztiak hartu beharko dira Natura 2000 sarearen koherentzia globala bermatzeko eta kontserbatu behar diren eta jarduera horrek eragin dien elementu guztien kontserbazio-egoera egokia ziurtatzeko.

3. Lurzoruaren landare-estalki babesgarria (batez ere sute baten ondoren) berritzearekin bateraezinak diren erabilera-aldaketa edo jarduera-aldaketa guztiak debekatuta daude, Natura-ondarearen gune babestuko kudeaketa organoak aldeko txostena eman ezean.
4. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan kontserbatu beharreko habitaten funtzio ekologikoa zatikatzeko eta galtzeko prozesu berriak dakartzaten jarduketak debekatuta daude.

5. artikulua.– Ekosistemen, habitaten, basa-fauna eta basa-florako espezieen, ondare geologikoaren eta lurzoruaren oinarrizko babesa.

1. Kontserbatu beharreko ekosistemen, habitaten, flora-populazioen eta fauna-populazioen (natura baliabideen antolamendurako plan honetan zehar aipatzen direnen) babes-eremuek zabalera jakin bateko perimetro-zerrenda bat izan behar dute; zerrenda hori, kasu bakoitzean, natura-ondarearen elementu horiek (ekosistemek, habitatek, flora-populazioek, habiek, aterpeek, gordelekuek eta abarrek) okupaturiko arearen kanpoko ertzetik neurtu behar da. Kudeaketa organoak ezarri behar dituen babes-eremuak alde batera utzita, honako hauek ezartzen dira:
 - Ur-ibilguen babes-banda: 10 m-ko zerrenda, lursailaren gainean neurtuta eta ibilguaren kanpoko ertzetik zenbatuta.
 - Eremu hezeen babes-eremua: 30 m-ko perimetro-zerrenda gisa neurtzen da, lursailaren gainean, kasuan kasuko hezegunearen kanpoko mugatik zenbatuta.
 - Istingen, flora-populazioen eta fauna mehatxatuaren kokapenen babes-eremua (habiak, gordelekuak, aterpeak, etab.): 10 m-ko perimetro-zerrenda gisa neurtzen da, lursailaren gainean, elementu horiek okupatutako arearen kanpoko mugatik zenbatuta.
2. Oro har, debekatuta dago basa-flora eta basa-fauna babestuetako espezieen aleak biltzea edo harrapatzea, bereziki Batasuneko interesekoak edo eskualdeko interesekoak (NBAP honen *II. eranskinean*, *memorian*, zerrendatuta daude), Espainiako Espezie Mehatxatuen Katalogoan, Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoan, Babes Bereziko Erregimenean dauden Basa Espezieen Zerrendan, Hegaztien Zuzentarauaren (2009/147/EB) I. eranskinean eta Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) II., IV. eta V. eranskinetan barne hartutako espezieei dagozkienak, baita ondare geologikoko elementuak biltzea eta suntsitzea ere.
 - a. Landareak direla-eta, debekatuta daude horiek suntsitzeko, mutilatzeko, mozteko edo erauzteko asmoa eta haien habitataren suntsipena dakartzaten jarduketa baimendu gabe guztiak.
 - b. Fauna-espezieei dagokienez, debekatuta daude horiek (larbak, kumeak eta arrautzak barne) hiltzeko, horiei jazartzeko edo eragozteko asmoz egindako jarduketa baimendu gabe guztiak. Era berean, debekatuta dago haien habitata eta, bereziki, habiak, untxizuloak, ugalketa-guneak, negu-tokiak, atsedeen hartzeko edo elikatzeko lekuak suntsitzea.
 - c. Bi kasuetan, «galtzeko arriskuan» edo «kaltebera» kategorietan katalogatuta dauden espezieentzat, debekatuta dago ale biziak zein hilak edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, ikusgai jartzea, inportatzea eta esportatzea. Debeku bera aplikatzen zaie landareen propaguluei eta atalei. Gainera, debekatuta dago haien haziak, polena edo esporak biltzea, erregelamenduz zehazten diren kasuetan izan ezik.
 - d. Natura-ondarearen beste elementu batzuk, hala nola fosilak, espeleotemak (estalaktitik, estalagmitak, etab.) edo mineralak, direla-eta, debekatuta dago elementu horiek edo bestelako formazio eta egitura bitxiak baimenik gabe biltzea edo suntsitzea.

3. Urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean, debekatuta dago hegazkin txikiek, ultra-arinek, helikopteroek, parapenteek, delta-hegalek, drone-ek eta antzekoek lursailaren gainazaletik 1.000 m baino gutxiagoko garaieran hegan egitea, larrialdiko edo erreskateko kasuetan izan ezik, habiak egiteko aldiaren hegazti harkaiztarrak babesteko helburuarekin.
4. Faunaren pozoidurak gertatzen badira, Natura Babesteko Batzorde Nazionalak onetsitako Pozoidura Kasuetarako Jarduketan Protokoloa aplikatuko da. Gainera, indarreko legeriatik datozen oinarritzko jarraibideak eta ildoak ezarriko dira, baita ingurune naturalean pozoia eraginez kontrako erabileraren aurka borrokatzeko estrategiak eta ekintza-planak ere.
5. Natura-ondarearen gune babestuko kudeaketa organoak «Basa-fauna eta basa-florarentzako elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua» sortzeko, prestatzeko eta argitaratzeko prozesua aztertuko du. Inbentario horretan sartzen diren elementuak babestu egingo dira; beraz, eragin ahal dien edozein jardura egitekotan, haien kontserbazioa arriskuan jarriko ez dela ziurtatu beharko da. Horretarako, kudeaketa organoak, kasu bakoitzean, beharrezkotzat jotzen dituen babes-eremuak ezarri ahalko ditu berriazko kontserbazio-neurriak eskatzen dituzten inbentarioko elementuetarako.
6. Kudeaketa-tresnak edo berreskurapen-tresnak dauzkaten espezie katalogatuei, bestalde, beren onspen-arauetako xedapenak aplikatuko zaizkie. Era berean, NBAP honen indarraldian flora-espezieak eta fauna-espezieak kudeatzeko edo berreskuratzeko onesten diren planetako xedapenak aplikatuko dira.
7. *Orchis cazorlensis* eta *Petrocoptis lagascae* espezieak babesteko eta berreskuratzeko jarduketetan, “EAEko landaredi baskularraren zerrenda gorrian ‘galtzeko arrisku larrian’ dagoen landaredia berreskuratzeko planak egiteko oinarri teknikoak” izeneko erreferentziako dokumentuan (IHOBE, 2011ko otsaila) edo hori ordezkatzeko eta eguneratzen duten beste dokumentu tekniko eta zientifiko batzuetan jasotako berriazko berreskurapen-planak beteko dira.
8. Besteak beste, berriazko neurri hauek hartuko dira karramarro autoktonoa babesteko eta Natura-ondarearen gune babestuko erreketan egotea sustatzeko: arrantzatze debekuari eutsiko zaio, egun dauden populazioen inbentarioa eta ebaluazioa egingo dira eta aleen translokazioa egingo da ahalmena duten baina espezieak orain okupatzen ez dituzten erreketan.
9. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko kudeaketa organoak Natura-ondarearen gune babestuan galdu diren fauna eta florako basa-espezie autoktonoak berriro sartzeko sustatu ahalko du, erreferentzia idatzi fidagarriak dauzkatenak eta populazioak beste leku batzuetan edo itxian dituztenak barne, batez ere espezie horiek berriro sartzeko lagungarria bada Batasuneko intereseko espezieen edo habitaten kontserbazio-egoera egokia leheneratzeko. Hala bada, espezieak berriro sartzeko proiektuek Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute.
10. Oro har, espezie mehatxatuentzako bizi-aldi sentikorretan, debekatuta daude haien gune erabakigarrietara hurbiltzea dakarten jolas-jardura antolatuta edo komertzialak, kudeaketa organoak baimena eman ezean. Baimen horretan, jardura gauzatu ahal izateko baldintzak (pertsonek kupoak, distantziak, langile laguntzaileen gaikuntza, etab.) finkatuko dira.
11. Baso natural eta erdinaturaletako habitat jakin batzuk babestuko dira. 9180* habitatean —kareharrizko amilburu-oineko baso mistoetan—, horko populazioak bakanduta daudenez eta iritsiezinak direnez, naturaltasun-maila altua duenez eta kontserbaziorako lehentasunezkoa

denez, ez da gomendagarritzat jotzen hori eraldatu edo galtzea beste habitat-mota batzuen mesedetan. Beraz, Natura-ondarearen gune babestuan kartografiatutako habitat-mota horretako unada guztiak esku-hartze orotatik babestuko dira. Bereziki, bai zutik bai lurtean dagoen zur hila mantendu behar da.

Era berean, eta 9540 habitatar —itsas pinuen pinudi naturalei— dagokionez, gune babestuan kartografiatutako habitat-mota horretako unada guztiak esku-hartze orotatik babestuko dira, eta unada naturaletan baso-heldutasun bikaina lortzea xede duten esku-hartzeak soilik baimenduko dira.

12. Malda handiagatiko edo lurzoru eskasengatiko higadura-arriskuak atzematen diren eremuetan, zuhaitz-estalkia leheneratuko da eta ordezkapen-etapa serioletara eboluzionatzea eta arboladiak eratzea sustatuko da.
13. Oro har, debekatuta daude airearen, lurzoruaren eta azaleko edo lurpeko uren kalitatean zuzeneko nahiz zeharkako eragin kaltegarria duten edozein motatako jarduerak, isuri solidoak eta likidoak.

6. artikulua.— Koben eta lotutako basa-espezieen babesari buruzko arauketak.

Arauketa hauek turismoak ustiatu gabeko koben multzoari (EB 8310 KOD) eta lotutako basa-espezieei aplikatzekoak dira, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan, eskala dela-eta kartografiatu ezin direnak barne.

1. Erabilera publikoa barrunbeetan

- 1.1. Kudeaketa organoak barrunbeetarako sarbidea eta erabilera espeleologikoa arautuko ditu. Hartara, berariazko kudeaketa-plan bat ezarriko du, saguzarrek kolonizatutako haitzuloetan kontuan hartu beharreko irizpideak jasotzen dituena, talde horren kudeaketa-planetan sartutako helburu, jarraibide eta jarduketetan oinarrituta.
- 1.2. Aipatutako kudeaketa-plana eduki arte, kiropteroen koloniak hartzen dituzten kobetarako sarbide orokorra debekatuta dago, bereziki Purón ibaiko zenobioan. Barrunbe horietan, jarduera zientifikoak edo ikerketa-jarduerak soilik baimenduko dira eta kudeaketa organoak zehazten dituen baldintzen arabera egin beharko dira. Sartzeko salbuespenezko baimenak ematen badira, emandako baimenen eta haien inguruabar azpimarragarrienen erregistroa egin beharko da.
- 1.3. Debekatuta dago espezie babestu horiek behatzea eta haien erregistro grafikoa edo soinu-erregistroa egitea aterpeetatik 250 m baino gutxiagoko distantziara postu finkoak ezarriz, kudeaketa organoak berariaz baimendutako pertsonentzat eta jarduerentzat izan ezik.
- 1.4. Beharrezkoa denean, itxiturak instalatu edo ordezkatu dira, bai saguzarrak igarotzea bai aire-korronteen erregimena bermatzeko moduan.
- 1.5. Pertsonen presentzia monitorizatuko da, lurpeko aterpeetan dauden kolonien eragozpen-iturriak identifikatzeko asmoz.
- 1.6. Gainerako kobetarako bisita erregulatu egingo da, mota guztietako bisitarienezko baimenen sistema baten bitartez; sistema horrek enklabe horien erabilera-baldintzak jendarteratzea ahalbidetuko du. Erregulazio hori bat etorriko da lehen aipatutako Barrunbeak Kudeatzeko Planarekin.
- 1.7. Gainerako barrunbeetan turismo-, kirol- edo zientzia-xedeak dituzten talde antolatutako sartuko badira, kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Organo horrek, modu

arrazoituan, sartzea debekatu ahalko du, edo sartzeko baldintzak ezarri: pertsonen kopurua, egonaldiaren iraupena, etab.

- 1.8. Natura-ondarearen gune babestuko kobetako jolas-erabilerak edo turismo-erabilerak sustatzeko jarduerak, jendea sartzeko gaikuntza-proiektuen eta egokitzapen-proiektuen bitartekoak, edo azpiegiturak zein ekipamenduak instalatzea, ordeztzea nahiz aldatzea eskatzen dutenak, lekuaren osotasunari kalterik egingo ez diotela egiaztatu ondoren soilik baimenduko ditu kudeaketa organoak, dagokien ingurumen-ebaluzioko prozedura gauzatu eta gero, bidezkoa bada. Aipatutako azterketek, gutxienez, lekuaren ezaugarri mikroklimatiko, faunistiko, paleoarkeologiko eta geomorfometrikoei buruzko lehenagoko ikerketak hartu beharko dituzte barne.
- 1.9. Barrunbeetan sartu eta egon bitartean, baldintza hauek bete beharko dira:
 - a. Debekatuta dago barrunbeentzat exogenoak diren materialak, naturalak zein artifizialak, sartzea edo metatzea, baita argiztatzeko baliabide gisa karburoa erabiltzea ere.
 - b. Debekatuta dago lurpeko formazio geomorfologikoetako elementuak hondatzea edo horiei kalte egitea.
 - c. Barrunbeetan seinaleak eta edozein motatako ekipamendu finkoa instalatzeko, kudeaketa organoaren baimena eduki beharko da.
 - d. Barrunbeetan erabiltzaileek sortzen dituzten zabor eta hondakin guztiak bildu, kanpora eraman eta leku egokian utzi beharko dituzte.
 - e. Debekatuta dago barrunbeetan barruan suak piztea, pintaketak egitea edo seinaleak jartzea.

2. Ikerketa-jarduerak barrunbeetan

- 2.1. Indusketa arkeopaleontologikoak baimendu ahalko dira baldin eta kiropteroen koloniarik hartzen ez duten barrunbeetan edo kiropteroak bertan bizi ez diren aldietan egiten badira.
- 2.2. Jarduera espeleologikoan zehar baliabideei buruzko ezagutzan aurrerapenen bat (galeria berriak, faunaren inguruko informazioa, etab.) agerian jartzen bada, kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Horrek, berriz, natura kontserbatzeko arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari helaraziko dio informazioa.
- 2.3. Ekosistema hipogeoetako fauna ornogabearen kontserbazioa ziurtatzeko asmoz, ikerketa zientifikoko jardueretan baldintza hauek hartuko dira kontuan:
 - a. Ez zaio km² bakoitzeko ikerketa-talde bati baino gehiagori baimentzen ornogabeak harrapatzeko tranpak jartzea.
 - b. Tranpa horiek ezingo dira geratu hiru hilabete baino gehiago barrunbe txikietan (500 m baino gutxiagoko garapen planimetrikoetan) eta sei hilabete baino gehiago barrunbe handietan.
 - c. Ez da baimenduko ale berriak biltzea aurreko kanpaina amaitu zen egunetik gutxienez urtebete igaro arte.
 - d. Harrapaketa-kanpaina bukatutakoan, barrunbeetan jarritako tranpa eta gailu guztiak kendu beharko dira.

7. artikulua.– Harkaitzetako habitatei eta espezie harkaitzarrei buruzko arauketak.

Arauaketa hauek harkaitzen multzoari (EB 8210 KOD), hartxingadiari (EB 8130 KOD), lapiazei, megaforbio-eremuei (EB 6430 KOD) eta lotutako espezieei aplikatzekoak dira, eskala dela-eta kartografiatu ezin direnak barne.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa gune babestuaren eremua Interes Berezikoko Gunea da hegazti nekrofagoentzat, *Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planari* jarraikiz. Ondorioz, eta alde batera utzi gabe NBAP honetan jasotako gainerako arauketak bete behar direla, aipatutako planeko zehaztapenak ere aplikatzekoak izango dira.
2. Kudeaketa organoak aldizka zehaztuko ditu sai zuriarentzako eta, hala badagokio, sai arrearentzako eta ugatzarentzako gune kritikoak. Kautelaz, eta Natura-ondarearen gune babestu honetan sai zuriarentzako eta sai arrearentzako gune erabakigarriak zehazten ez diren bitartean, honako hau joko da espezieak babesteko gunetzat: sai zuriak habiak egiten dituen lekuen inguruan 1.000 m-ko erradioan eta sai arreak habiak egiten dituen lekuen inguruan 500 m-ko erradioan dagoen gunea, ugaltzeko saioak egiaztatzen diren eremuak barne, baita etzaleku komunalak ere. Ere horietan, orobat, Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planean ezarritako prebentziozko erregimena aplikatuko da.
3. Natura-ondarearen gune babestuaren eremua, halaber, Bonelli arranoaren edo arrano eperzalearen (*Hieraaetus fasciatus*) banaketa potentzialeko eremua da, Arabako Lurralde Historikoan espezie hori kudeatzeko planaren arabera. Plan horretan, La Torca eremua (Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren ekialdean dago, Sobrónko jurisdikzioko lurraldeetan) interes berezikoko gunetzat hartzen da. Beraz, plan horrek gune horri dagokionez jasotzen dituen zehaztapenak ere aplikatzekoak dira.
4. Debekatuta dago behatzeko eta erregistro grafikoa edo soinu-erregistroa egiteko postu finkoak instalatzea hegazti harkaitzarrengandik 250 m baino gutxiagoko distantziara eta umatze-toki posibleetatik, paratzeko ohiko lekuetatik, apurtzeko eta jateko eremuetatik 500 m baino gutxiagoko distantziara, kudeaketa organoak baimena eman ezean; baimen horretan, eraginpeko lurralde-eremua ezarri beharko da, aipatutako babes-perimetroaren arabera.
5. Sai zuriarentzako gune erabakigarrietatik 1000 m-ko erradioan eta sai arrearen umatze-kolonietatik eta Natura-ondarearen gune babestuan dauden gainerako hegazti harkaitzar mehatxatuek habiak egiten dituzten guneetatik 500 m-ko erradioan egin behar diren obra, lan eta jarduerak espezie bakoitzarentzako aldi erabakigarrietatik kanpo egingo dira, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik; horrelakoetan, kudeaketa organoaren baimena eduki beharko da.

Urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean, jendearentzat itxita egongo dira, behintzat, zidor hauek:

- a. Vallegrull zidorra osorik.
- b. Lerón zidorra.
- c. La Sierra zidorra, Portillo La Sierratik Recuencoraino.

Sarbide mugatuko datak eta lekuak aurrerapen zientifiko eta teknikoaren arabera aldatu ahalko dira; arauaketa hori Valderejoko Parke Naturaleko Erabilera eta kudeaketa zuzentzeko planaren eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrien bidez aldatuko da.

6. Kudeaketa organoak, era justifikatuan, eskalada eta aldi baliiodunak arautu ahalko ditu, edo distantziak murriztu, lurraldeetako erosotasuna ziurtatuzat jotzen duten gune erabakigarrietan edo sai-kolonietan.
7. Beste edozein nahasmendu debekatuko da, kontuan hartu ez arren kokapenagatik, iraupenagatik edo maila akustikoagatik Natura-ondarearen gune babestuan funtsezko elementutzat jotzen diren espezieen umatzeari, elikadurari edo atsedinari kalte egin ahal badio, bereziki, sai zuriarentzako (eta, hala badagokio, ugatzarentzako eta Bonelli arranoarentzako) gune erabakigarrietan, espezie horientzat ezarritako aldi erabakigarrietan.

8. artikulua.– Eremu hezeei eta haiei lotutako espezieei buruzko arauketak.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuko eremu hezeek eta 5.1 artikuluan definitutako haien babes-eremuaz gain, arauketa hauek lintzura alkalinoei (EB 7230 KOD), zohikaztegi karetsuei (EB 7210* KOD), trabertino-formazioak dituzten iturburu petrifikanteei (EB 7220* KOD), ur oligomesotrofiko karetsuei (EB 3140 KOD) eta aintzira eutrofiko naturalei (EB 3150 KOD), eskala dela-eta kartografiatu ezin direnei, aplikatzekoak dira.

1. Eremu hezeetako ingurunean hartu beharreko prebentziozko neurriak.
 - a. Hezeguneetan edozein jarduketa egiteko, kudeaketa organoak berariazko baimena eman beharko du.
 - b. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan inbentariatutako eremu hezeak hondatzea edo deuseztatzea ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduerak eragin nabarmena ekar dezake eta, beraz, egokiro ebaluatu behar da.
 - c. Gizakiak hornitzeko edo animaliek edateko ur-hargune berriak egiteko erakunde eskudunak (Konfederazio Hidrografikoak) emakida eman behar badu, kudeaketa organoak aldeztatik baloratu beharko du. Horretarako, URAk erakunde horri kontsulta egingo dio Konfederazio Hidrografikoak autonomia-erkidegoari egiten dion kontsultazapidean. Hargune berriek edo dauden harguneen aldaketek, berez edo beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta eremu hezeei eta haien babes-eremuei eragin ahal badiete, ezingo dute eragin nabarmenik sortu kontserbatu beharreko elementuetan.
2. Basogintza-lanak eremu hezeen ingurunean.
 - a. Eremu hezeekin mugakideak diren baso-aprobetxamenduetan 13.10 artikuluan (basogintza-erabilerak) ezarritako baldintzak beteko dira.
 - b. Dauden eremu hezeetan eta istingetan, debekatuta dago makinak pasatzea eta lurrean landaketetarako zuloak egitea. Enklabe horietako inguruneko lurzoruen izaera hidromorfikoa dela-eta bereziki sentikorrek direnez zapaltzeari eta lehortzeari dagokienez, mugatuta egongo da hezeguneen ingurunean makina astunak erabiltzeko, pistak eta ateratze-bideak egiteko eta ibilgailuak zirkulatzeko aukera, eta behar-beharrezkoa denean soilik baimenduko da.
 - c. Eremu horien ingurunean pistak handitu edo mantentzeko, berariazko neurriak hartu beharko dira higatzeko arriskuak txikiagotzeko helburuarekin.
3. Abeltzaintza-erabilerak eremu hezeen ingurunean.
 - a. Abere-zamak doitu egingo dira eremu hezeen ingurunean gainlarratzea saihesteko asmoz.
 - b. Aziendari ahalik eta gehien mugatuko zaio belardi menditarretako habitaten barruan dauden eremu hezeetarako sarbidea, batez ere zohikaztegietak (7210*, 7230), trabertino-formazioak dituzten iturburu petrifikanteetako (7220*), ur oligomesotrofikoetako (3140) eta aintzira eutrofikoetako (3150) habitaten ingurunean. Habitataren jarraipenean narriadura egiaztatzen denean, kudeaketa organoak azienda sartzeari debekatuko du eta, hala badagokio, eremua hesituko du.

- c. Debekatuta dago azienda hezeguneetako eta istingetako hesien barrualdera sartzea kudeaketa organoaren baimenik gabe.
 - d. Ereku hezeen babes-eremuan (5.1 artikuluan definitu da), debekatuta dago simaurrak, kareztadurak, ongarri kimikoak, produktu fitosanitarioak eta sua erabiltzea, salbuespenezko eta kudeaketa organoak baimendutako arrazoi justifikatuak egon ezean. Edonola ere, organo horrek ziurtatu beharko du ez zaiola eragiten babestu beharreko elementuaren osotasunari.
 - e. Debekatuta dago drainadurak eraikitzea Natura-ondarearen gunee babestuko eremu hezeen inbentarioan sartutako habitatan.
4. Habitatan eta espezieen babesaren eremu hezeetan.
- a. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunee kudeatzeko jarraibideek eta neurriek Natura-ondarearen gunee babestuko anfibio-komunitatearen habitata hobetzeko jarduketak aintzat hartuko dituzte, hala nola, idoiak eta enklabe hezeak leheneratu eta sortzea. Horretarako, kokapen onuragarrienak hautatuko dituzte, zenbait alderdiren arabera: espezieen banaketa, ugalketa-gunee ezagunak, lekualdaketa-ibilbideak, lursailen jabetza, aukerari lotutako irizpideak, etab. Jarduketa horiek batez ere espezie mehatxatuenetan ardaztuko dira: gailurretako uhandrea (*Ichthyosaura alpestris*), hegoaldeko apo pintatua (*Discoglossus jeanneae*) eta apo lasterkaria (*Bufo calamita*).
 - b. Fauna mehatxatuaren jarraipena egiteko lanetan, batez ere ibai-ibilgurei edo eremu hezeei lotutakoari dagokionez, laginketak desinfekzio nahikoarekin egingo dira, agente patogenoak eremu batetik bestera transmititzea saihesteko.

9. artikulua.– Ondare geologikoko elementuei buruzko arauketak.

1. Inbentariatuta dauden edo etorkizunean inbentaria daitezkeen ondare geologikoko elementuek NBAP hau aplikatuz dagozkien babes-araubidea edukiko dute, baita haren indarraldian onets daitezkeen arauen ondoriozkoa ere.
2. Oro har, EAEko Geologia Interesdun Lekuen (GIL) Inbentarioko lekuetan, erabilera eta jarduketa hauek debekatuta daude:
 - a. Zuzenean edo zeharka GILa suntsitzea edo haren morfologia nabarmen aldatzea ekar dezaketen jarduerak.
 - b. Bide-, energia- eta telekomunikazio-azpiegitura berriak.
 - c. Kanpoko publizitatea, elementu geologikoa hautematea nabarmen galarazten edo oztopatzen duten kartelak edo bestelako elementuak jartzea, GILa edo Natura-ondarearen gunee babestua interpretatzearekin erlazionatutako seinaleak izan ezik.

10. artikulua.– Espezie exotiko inbaditzaileak.

1. Indarreko araudiarekin bat etorritik, edozein prozeduraren bidez harrapatu, atxiki edo naturatik ateratzen diren Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko fauna-espezieen eta flora-espezieen aleak ezingo dira ingurune naturalera itzuli, ikerketari lotutako arrazoiengatik izan ezik. Partikular batek harrapatzen edo atxikitzen baditu, partikularrak foru-organo eskudunari eman beharko dio alea edo aleak, edo, bestela, ingurune naturaletik kendu edo ezabatu.
2. Debekatuta dago, Natura-ondarearen gunee babestu guztian, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko espezieekin edo etorkizunean espezie exotiko inbaditzaileen euskal katalogoan sartzen diren espezieekin birpopulaketak egitea.

3. Espezie Exotikoen Espainiako Katalogoko espezie exotikoak egoteari lotutako biodibertsitate-galera saihesteko helburuarekin, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek horiek deuseztatzea edo kontrolatzea xede duten jarduketak txertatuko dituzte, bereziki lekuko kontserbazio-helburuak arrisku handiengan jar dezaketenei (*Cortaderia selloana*, *Robinia pseudoacacia*, *Mustela vison*, *Pacifastacus leniusculus*, *Trachemys scripta*, *Carassius auratus*, etab.) dagokienez.

11. artikulua.– Paisaiaren babesa.

1. Gune babestuaren eremuan, EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren (*irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren* bidez behin betiko onetsi zen) D dokumentuan (eranskinetan) jasotako paisaiari buruzko eranskinean bildutako nekazaritza eta basozaintzako erabileretarako paisaia-antolamendurako jarraibideak ezarriko dira. Halaber, *Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuan* xedatutakoa beteko da, baita paisaia babesteko planen bidez eta, hala badagokio, paisaiari buruzko zehaztapenak txertatzeko jada onetsi diren edo onetsiko diren lurralde-plan partzialen aldaketen bidez egindako garapenean xedatutakoa ere.
2. Natura-ondarearen gune babestuan ekingo zaien jarduketa guztietan, paisaian duten eragina behatu beharko da, ahalik eta inpaktu txikiena sor dezaten. Era berean, paisaia-hauskortasun handieneko eremuetan inpaktua izan dezakeen edozein jarduera-mota egitea edo instalatzea mugatuko da; horrelakoak Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideetan eta neurrietan eta NBAP hau garatzeko dokumentuetan definitutako dira.
3. EKZPak eta kudeatzeko jarraibideek eta neurriek edo, hala badagokio, Natura baliabideen antolamendurako plan hau garatzeko tresnek zehaztuko dute zein eremutan egin beharko diren paisaia leheneratzeko jarduketak. Gainera, bidezkoa bada, lehentasunak, egikaritze-egutegia, aurrekontuak, etab. txertatuko dituzte.

12. artikulua.– Kultura-ondarearen babesa.

Babes berezi, ertain edo oinarrizkokotzat jo diren kultura-ondasunek edo etorkizunean horrelakotzat jotzen direnak egokitzen zaien babes-araubidea edukiko dute, Natura-ondarearen gune babestuan aplikatu behar den kultura-ondarea babesteko araudia aplikatuz.

2. atala.– Lurraldearen erabilerei eta aprobetxamenduei buruzko arauketak.

13. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1. Basogintza-jarduerak egitekotan, habitat naturalekin, basa-fauna eta basa-florarekin bateragarriak izan behar dute, eta horiek kontserbatzen lagundu, bereziki Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuei, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan kontserbatu beharreko espezieek habiak egiteko eta aterpe hartzeko paisaiako elementuei eta populazioak barreiatzen eta populazioen arteko harremanak izaten laguntzen duten lotura-elementuei dagokienez. Era berean, baliabide edafikoen eta ur-baliabideen kontserbazioa bermatuko dute.
2. Debekatuta dago zuhaitzi autoktonoa moztea Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketa organoaren aldeko txostenik gabe. Mozteko debeku horrek espezie autoktonoen arboladiei, ur-bazterreko zuhaixkei, heskaiei eta elordi menditarrei ere eragiten die.
3. Oro har, baso-soilketak Natura-ondarearen gune babestu guztian daude debekaturik, nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuetan eta baso-

ekoizpeneko eremuetan izan ezik, eta baldin eta maldak % 50 baino gutxiagokoak badira eta kudeaketa organoak baimena eman bada. 5 ha baino gutxiagoko azalera bati eragingo zaio, eta gutxienez 4 urte igaro beharko dira aldameneko lurzatietan egindako bi mozketaren artean.

4. Jabeak, gehienez 2 urteko epean, baso-soilketak egin zaizkien lursailak basoberrituko ditu, baldin eta erabilera-aldaketa baimendu ez bada eta leheneratze ekologikorako beharrezkoa bada.
5. Oro har, debekatuta dago sua erabiltzea basogintza-jarduerak kudeatzeko tresna gisa. Hala ere, kudeaketa organoak basogintza-hondakinak erretzea baimendu ahal izango du, eskaera egin eta baimena eman eta gero, horretarako adierazten diren tokietan pilatuta eta organo horrek ezartzen dituen baldintzetan, baita baso-suteak prebenitzeko beharrezkoak izan daitezkeen erreketa ere, betiere Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera arriskuan jartzen ez bada. Inoiz ez da erabilera hori baimenduko babes bereziko eta ibai-sistemako eremuetan.
6. Baso-antolamendurako planak, mendien antolamendurako proiektuak, basoen kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak edo bestelako plan eta proiektu baliokideak eginez gero, egokitzen den ebaluazio egokiko prozedura aplikatu beharko zaie. Gainera, nolahi ere, kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute, onetsi baino lehen.
7. Mendi-aprobetxamendurako urteko planek eta espedienteek eta baso-sartzerako, birpopulaketetarako, pistak eta enborren ateratze-bide berriak irekitzeko jarduketek edo bestelako basogintza-jarduketek kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute baimendu baino lehen.
8. Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan ez da baimenduko baso-espezie aloktonoen landaketarik.
9. Oro har, ez da baso-aprobetxamendurik baimenduko habitataren azalera murriztea badakar edo haren egiturazko konplexutasuna edo konplexutasun funtzionala arriskuan jartzen bada. Halaber, ez da baimenduko erabilera aldatzea xede duen edo orain espezie autoktonoak bizi diren eremuren baten deforestazioa dakarren jarduerarik, honako hauek izan ezik: zuhaitz-masak berritzeko edo hobetzeko helburua duten basogintza-neurriak, adibidez, erreserbatze-teknikak, mozketak selektiboak, osasuna zaintzeko edo leheneratzeko mozketak leheneratze naturalik gabeko unaden kasuan, espezie exotikoen deuseztapena, egur-eskariak erabilera hori baimenduta dagoen Natura-ondarearen gune babestuko eremuetan, etab. Dena den, salbuespen horiek egiteko, nahitaezkoa izango da haien heldutasun egokia eta egiturazko konplexutasuna bermatzea eta kudeaketa organoak baimena ematea.

Aurreko paragrafoan leheneratze-mozketei buruz ezarritakoa ez da aplikatzekoa izango hariztietako eta pagadi lepatuetako unadetan. Kasu horietan, kudeaketa organoak oin lehor eta hilen inausketak eta ordezipena baimendu ahalko ditu, baldin eta masa horien ezaugarriak mantentzearekin bateragarriak badira, arriskuan jartzen dituzten berritze-mozketak saihestuz.

10. Ibai-sistemarekin eta eremu hezeekin mugakideak diren baso-aprobetxamenduetan, baldintza hauek beteko dira:
 - a. Batasuneko edo eskualdeko intereseko lotutako habitaten eta espezieen kontserbazioa bermatu beharko da, baita uren kalitatea ere. Ondorio horietarako, mozteko baimenetan, kudeaketa organoak jarduketa horiek baimentzeko irizpideak eta baldintzak ezarriko ditu.
 - b. Jabari publiko hidraulikoari dagokion lursail-zerrenda behintzat gordeko da basogintza-lanetatik, eta 10 m zabal den zerrenda gehigarri bat ere bai, lursailaren gainean neurtuta, ibarbasoa berreskuratu edo hobetu behar denean izan ezik.

- c. Debekatuta dago ibilguak basogintza-lanetarako makinekin zeharkatzea eta, gainera, basogintza-lan horiek egin bitartean neurriak hartuko dira solidoen ekarpena murrizteko eta hurbileko ibilguen uhertasuna saihesteko.
 - d. Ateratze-bideak ezingo dira kokatu NBAP honen 5.1 artikuluan zehaztutako babes-eremuetan eta ezingo dira horietatik igaro.
 - e. Gune horietan ezingo da mozketa-hondarrik metatu.
11. Kudeaketa organoak mozteko eta erazteko metodoak zein basogintza-lanak egiteko aldia mugatu ahalko ditu, Natura-ondarearen gune babestuko eremu bakoitzeko kontserbazio-helburuen arabera. Ingurunean inpaktu bereziki handia duten aprobetxamenduak atzematen badira, kudeaketa organoak jarduera geldiarazi egingo du harik eta kontserbazio-helburuekin bateragarri bihurtzen den arte.
 12. Debekatuta dago fauna babestuko espezieek habiak, ugaltze-koloniak edo negu-tokiak egiteko plataformak edo espezie horien ebidentziak dauzkaten zuhaitz-aleak moztea edo oinetik ebakitzea; arreta berezia jarriko da Batasuneko interesekoak edo eskualdeko interesekoak diren eta Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu behar diren espezieetan. Kudeaketa organoak basogintza-jarduerak aldi baterako geldiaraziko ditu atzematen duenean jarduketak xede duen eremuan katalogatutako fauna-espezieak eta flora-espezieak daudela, eta horiek babestuta daudela bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu.
 13. Intereseko faunak kontserbaziorako erabiltzen dituen zuhaitzak edo barrunbeak (haragijaleen gordelekuak, azkonar-zuloak, baso-abifaunaren habiak, etab.) identifikatzen direnean, basoaren egiturari eutsiko zaio xede den barrunbearen edo zuhaitzaren ingurunean. Kudeaketa organoak zehaztuko ditu identifikatutako espezieen arabera aplikatu behar diren baldintzak eta, hala badagokio, jarduerak baztertzeko erradioak.
 14. Basogintza-lanen egutegia egokitu egingo da hegazti-espezie babestuen eta kiroptero zuhaitzarren aldi erabakigarri hauean ukipenak saihesteko, kudeaketa organoak baimendu ezean, eta kasu horietan kontserbatu beharreko elementuei eragiten ez zaiela ziurtatuko du kudeaketa organoak:
 - a. Sai zuria: martxoaren 1etik irailaren 1era arte.
 - b. Saia: urtarrilaren 1etik abuztuaren 15era bitartean.
 - c. Basoko hegaztiak: kudeaketa organoak zehaztuko du, espeziearen arabera.
 - d. Kiroptero zuhaitzarrak: ekainetik abuztura arte.
- Kudeaketa organoak aldi horiek aldatu ahalko ditu arestian aipatutako espezieen jarraipenetik lortzen den emaitzaren arabera.
15. Kudeaketa organoak, halaber, baso-kiroptero mehatxatuek eta abifaunak habiak egiten dituzten guneak babesteko eremuak ezarriko ditu, espezie bakoitzaren beharren arabera. Sektore erabakigarri horietan, ez da baimenduko umatzeari eragin diezaiokeen inolako basogintza-jarduerarik, ugalketa hasten denetik txitak eremutik joan diren arte.
 16. Debekatuta dago onddo-ardagaiak dituzten zuhaitzak eraztea, kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean.
 17. Debekatuta daude lurzorua iraultzea dakarten lanak, lurra zulatzea izan ezik.
 18. Basogintza-lanak, aprobetxamenduak eta birpopulaketak egiteko baimenek kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute. Horrek alderdi hauei buruzko baldintzak eta irizpideak ezarriko ditu: makinaren erabilera, lanak egiteko aldia, zein baldintza meteorologikotan egin behar diren, kontserbatu behar den eta aprobetxamenduak eragin ahal

dion natura-ondarea babesteko neurriak, gorde behar diren zuhaitzen markaketa, pistak eta ateratze-bideak erabiltzeko eta mantentzeko baldintzak, hondakinen kudeaketa, etab.

19. Baso-bideen kopurua eta horiek eraikitzeko modua egokitu egingo dira zaintzari eta basogintza-lanak egiteari lotutako benetako beharretara. Natura-ondarearen gune babestuko bide-sarea egoera egokian mantenduko da, oso garrantzitsua delako suteak daudenean eta mendian norbait bilatu eta erreskatatu behar denean.
20. Pisten eta ateratze-bideen trazaduraren diseinuan, % 10 baino gehiagoko maldak saihestuko dira. Muga hori salbuespenezko kasuetan gainditu ahalko da, paisaia-inpaktu kaltegarriak saihesteko asmoz. Bideok ur-pasaguneak eduki beharko dituzte lursaileko hustubide naturaletan, bai iraunkorrak bai urtarokoak. Gainera, udal-bideekiko edo mendiko bide nagusiekiko lotuneak egiteko, kudeaketa organoari kontsulta egin beharko zaio alde zuzenetatik, haiek eraikitzeko era aproposena zehazteko asmoz. Pisten eraikuntzan eta konponketan sobera dauden materialen metaketa zorrotzaz kontrolatuko da.
21. Edozein motatako baso-aprobetxamenduek lursailean, ur-ibilguetan, azpiegituretan edo bideetan sortutako kalteak jarduera egikaritzen duenak leheneratu beharko ditu ahalik eta lasterren eta, nolatan ere, aprobetxamendua bukatzen denetik 6 hilabeteko epean gehienez.
22. Natura-ondarearen gune babestuko baso-masen gainean produktu fitosanitarioak aplikatzeko, kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko da; horrek ziurtatuko du kontserbatu beharreko habitatei eta espezieei eragingo ez zaiela, 2009/128/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko urriaren 21ekoa, pestiziden erabilera iraunkorra lortzeko Erkidegoaren jarduera-esparrua ezartzen duenean eta garapen-araudian ezarritakoa bete beharko delarik. Nolanahi ere, zeharo debekatuta dago dokumentu honen 5.1 artikuluan zehaztutako babes-eremuetan eta akuiferoak kutsatzeko kalteberatasun altuko edo oso altuko guneetan aplikatzea (Geoeskadin argitaratutako kartografian daude jasota).
23. Debekatuta dago zur hila erauztea eta zuhaitz lepatuak, urtetsuak edo barrunbeak dituztenak moztea, gainbehera-egoera aurreratuan edo hilda egon arren, baita hilzorian dauden edo zaharrak diren eta 36 cm baino gehiagoko diametroa duten zuhaitzak ere, kudeaketa organoak baimendu ezean (organo horrek eremuak, unadak eta lepatuen aleak hautatzeko esku hartuko du, kontserbatu beharreko habitatak eta espezieak dauzkaten azalera lehenesteko asmoz), eta baldin Batasuneko intereseko habitaten eta horiei lotutako flora-espezieen eta fauna-espezieen kontserbazioa arriskuan jartzen ez bada. Helburua da horiek erabiltzen dituzten espezieen (*Cerambyx cerdo* eta beste espezie saproxiliko batzuen, pizidoen, saguzarren, ugaztunen eta abarren) garapen egokirako behar adina mantentzea.

Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek lepatuen eta zuhaitz zahar eta urtetsuen (gainbehera-egoera aurreratuan edo hilda egon arren) basoetarako baso-kudeaketarako irizpideak ezarriko dituzte eta masa horien berezko ezaugarrien kontserbaziorako eta epe luzeko mantentzerako berariazko neurriak txertatuko dituzte.
24. Natura-ondarearen gune babestu honetako ibilgu publikoetan eta ibaien eta erreken zortasun-eta zaintza-eremuetan jarduketak egiteko, sektoreko administrazio eskudunak eman beharko du baimena, aplikatzekoa den sektoreko araudiaren arabera. Kudeaketa organoaren aldeko txostena jaso beharko da.
25. Lurzorua higadura-prozesuetatik babesteko oinarrizko funtzioa betetzen duten mendietan, higagarritasun altuko guneetan edo % 30 baino gehiagoko malda duten gainazalengan, ez da baimenduko mendiaren babes-funtzioa arriskuan jar dezakeen baso-aprobetxamendurik, eta babes-funtzio hori lehenetsi egingo da beste edozeinen gainetik. Baso-antolamendurako planek zehaztutako dute zein gainazal babestu behar diren baso-ustiapenetik arrazoi hori dela eta.

26. Baso-masen heldutasunaren alde eta basoko basa-faunako espezieentzako basoko habitaten harrera-ahalmenaren alde egiteko helburuarekin, seneszentzia-unadez edo mikroerreserbez eta habitat-zuhaitzez osaturiko sare bat diseinatuko da; zuhaitz horiek egokiro banatuta egongo dira titulartasun publikoko mendien gainazalean, Natura-ondarearen gune babestuko babes bereziko eremuekin konektatzeko elementuak izan daitezten.
- 26.1. Seneszentzia-unadak edo mikroerreserbak. Baso-maneyutik kanpo utziko da basoaren azaleraren % 5 eta % 10 bitartean, eboluzio naturalaren alde egiteko. Esku-hartzetik salbuetsita dagoen azalera 1 ha eta 4 ha bitarteko unadetan banatuko da. Mikroerreserben sarea baso natural moten adierazgarria izango da.
- 26.2. Habitat-zuhaitzak. Basoko hegazti eta kiropteroentzako harrera-ahalmen handiena daukaten zuhaitzak era sakabanatuan kontserbatuko dira, adibidez, ale handiak (DBH > 40 cm), estrahelduak, lehen 10-12 metroetan adarrik ez daukatenak edo pizidoek zulatutako barrunbeak eta hutsuneak dituztenak, gainbehera-egoera aurreratuan egon arren, baita hiltorian dauden edo zaharrak diren zuhaitzak ere. Balio kuantitatibo orokor gisa, gomendatzen da mendian zutik dauden 8-10 zuhaitz estraheldu uztea hektarea bakoitzeko, 35-40 cm baino gehiagoko diametrokoak, eta 20-40 m³ hektarea bakoitzeko maneyatutako basoetan.
- 26.3. Era berean, eremu irekietan edo larreen unadetan zuhaitz bakanduak kontserbatuko dira. Salbuetsita egongo dira pertsona edo ondasunentzako arriskua ekar dezaketen edo ibilguen gaitasun hidraulikoa arriskuan jar dezaketen aleak, zubiak daudelako edo buxatu eta uraldien ondorea areagotu dezaketen beste elementu batzuk daudelako.
- 26.4. Lurrean eta zutik dagoen zur hilaren helburu-balioak ezarriko dira, espeziearen eta masa- edo unada-motaren arabera.
- 26.5. Egiturazko dibertsitatea eta espazio-heterogeneotasuna areagotzeko neurriak:
- Masa mistoak mantendu eta sustatuko dira gainerako helburuekin bateragarriak diren unadetan, baita ekotonoen presentzia ere.
 - Masen barne-egitura dibertsifikatu egingo da, honako hauen aldakortasuna areagotzeko: diametroak, adar eta adaburuen estratuak, agregazio-maila desberdinetako oinen banaketa-ereduak, adin-moten dibertsifikazioa, etab.
 - Neurriak txertatuko dira zuhaitz-, zuhaixka- eta belar-estratuek sortutako heterogenotasun bertikala sustatzeko eta habitat-mota bakoitza eratzen duten segida-egoera eta ingurumen-gradiente desberdinetako berezko landarediak sortutakoa ere sustatzeko.
 - Espazio irekien kudeaketa aktiborako neurriak hartuko dira: unada irekiak, askotariko forma eta tamainetakoak, mantentzea eta sortzea, larreen plangintzan eta baso-suteen prebentzioan integratuta.
- 26.6. Baso-antolamendurako plan teknikoan jarraipen- eta berrikuspen-fasean, basoen "naturaltasun-indize" bat txertatuko da. Indize konposatu horretan, gutxienez, honako alderdi hauek bildu behar dira:
- Flora bereizgarriaren dibertsitatea, ugaritasuna, egoera eta joera (flora-katalogoan oinarrituta).
 - Basoko hegaztien egoera eta joera.
 - Koleoptero saproxilikoaren ugaritasuna eta dibertsitatea.
 - Basoko kiropteroen ugaritasuna eta dibertsitatea.

14. artikulua.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak.

1. Nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerak egiteko, Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko habitat naturalen eta espezieen kontserbazioarekin bateragarriak izan behar dute, eta horiek kontserbatzen lagundu. Hala ere, nahitaezkoa izango da kudeaketa organoak abeltzaintza-sektorearekin komunikazioa ezartzea, bateragarritasun hori lortzeko baldintzak elkarrekin analizatzeko.
2. Ez da baimenduko ardi-, zaldi-, behi-, ahuntz- eta erle-aziendaz bestelako abererik Natura-ondarearen gune babestuko lursail publikoetan, kudeaketa organoak berriaz baimendu ezean; organo horrek baloratu beharko du gunea kontserbatzeko helburuekin bateragarria ote den.
3. Ahuntz-azienda larratzeko, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan, guneko larre-habitatak eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko planean eta aplikatzeko den foru-araudian ezarritakoa beteko da. Nolanahi ere, soilik baimentzen da ahuntz-azienda larratzea kontrolatuta dagoenean, dela pertsona batek lagunduta, dela haren kontrola bermatzen duen beste edozein irtenbide edo sistemaren bidez. Horrez gain, beti dago debekatuta babes bereziko eremuetan, basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuetan, ibai-sisteman, mendietan eta baso-eremuetan, publikoak zein pribatuak izan, zuhaitz-masa naturalen eta basoko birpopulaketa- eta berritze-masen garapenei kalte egiten dienean, baita hartxingadietan, harkaitzetan, lapiazetan, megaforbioen eremuetan, haltzadietan eta kontserbazio-egoera dela-eta erabilera hori mugatzea gomendagarria den eremu hezeetan ere.
4. Natura-ondarearen gune babestu osorako abeltzaintza-antolamendu integrala egingo da, larre-habitatak eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko plana garatuz, abeltzaintza-jarduerari buruzko irizpide orientagarriak aintzat hartuta.

Plan horretako zehaztapenek, nolanahi ere, bateragarriak izan beharko dute Natura-ondarearen gune babestuko beste elementuetarako ezarritako kontserbazio-helburuekin, bereziki, ibaiei, errekaetoei, eremu hezeei, basoei eta flora eta fauna mehatxatuei dagokienez. Kudeaketa-planak, gutxienez, zehaztapen hauek bildu beharko ditu:

- a. Gune babestuko larreak eta txilardiak kontserbazio-egoera egokian mantentzearekin bateragarriak diren baliabideen eta bazka-ahalmenaren kalkulua.
- b. Gunean identifikatutako larratze-eremu bakoitzari dagokionez, gune babestuko larre eta txilardietako habitatak kontserbazio-egoera egokian mantentzearekin bateragarriak diren abere-zamen zehaztapena eta abeltzaintza-jarduera garatzeko baldintzena.
- c. Larreen sorketa eta hobekuntza:
 - Eralda daitezkeen azalerak
 - Eraldatzeko metodoak
 - Dauden larreen zaintzak eta hobekuntzak
- d. Larratze-aldien zehaztapena, espezieen eta eremuen arabera, abere-presioa ingurune naturalaren jasate-ahalmenera egokitzeko helburuarekin, gainlarratze-egoerak edo azpilarratze-egoerak saihestuz.
- e. Azienda mantentzeko behar diren larre-baliabideak bermatzeko prozesuak.

- f. Ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren enklabeak (eremu hezeak, flora eta fauna mehatxatuetako espezieentzako intereseko enklabeak, etab.) babesteko neurriak, gainlarratzea saihesteko asmoz.
 - g. Azienda kanpoan uzteko itxituren ezarketa, bai kontserbatu beharreko flora-enklabe zehatzak babesteko, bai gutxiegia erabiltzen diren gune jakin batzuk erabilarazteko, gainlarratzea egiten den guneak erabili beharrean. Abeltzaintza-azpiegituren zuzenketa, konponketa eta eraikuntza.
 - h. Larreak eta abeltzaintza-azpiegiturak hobetzeko behar diren inbertsioak, oraingo azienda mantentzeko eta natura-baliabideen gaineko inpaktuak saihesteko beharrezkoak direnak.
5. Mendi publikoen titularrak diren entitateek larreak arautzeko ordenantzak eman beharko dituzte, larre-habitata eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko planeko zehaztapenei jarraikiz; ordenantzek kudeaketa organoaren eta gaian eskumena duen organoaren nahitaezko eta aldeko txostena eduki beharko dute.
 6. Natura-ondarearen gune babestuko saguzar-espezie diferenteentzako kalitate oneko habitata daudela bermatuko da, landaredi autoktonozko belardien eta heskaien presentzia sustatuz, eskuragarri dauden txokoak handitzeko asmoz.
 7. Larre-habitata eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko plana egin bitartean, larre berrien ezarpen eta mantentzerako sastraken sasi-garbitzeak egiteko, abeltzaintza-jarduerarako irizpide orientagarriak kontuan izango dira eta baldintza hauek beteko dira:
 - Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuetan eta nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuetan dauden sastraka bihurtutako larreetan jardungo da. Sasi-garbitzeak puntualki bakarrik baimenduko dira; lurzati txikiei eragingo diete, non abere-zamaren bidez berreskuratutako larreen geroagoko mantentzea bermatu ahal den.
 - Ez da sasi-garbitzerik baimenduko Batasuneko intereseko habitatek okupaturiko guneetan, batez ere eremu hidroturbosoetan, helburua ingurune horien kontserbazio-egoera ona mantentzea edo berreskuratzea den kasuetan izan ezik. Horrelakoetan, lanak eskuz egingo dira, makineria astunik baliatu gabe.
 - Flora eta fauna mehatxatuak dauden enklabeak eta haien babes-eremuak (EKZP honen 5.1 artikuluan definituak) gordeko dira, Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieen ugalketa-guneak barne. Betebehar horretatik salbuetsita egongo dira enklabe horien aldeko kontserbazio-egoera mantentzeko helburua duten jarduketak. Kudeaketa organoak sasi-garbitzeak egiteko aldi baterako mugak ezarri ahalko ditu, espezie babestuak kontserbatzeko helburuen arabera.
 - Era berean, ur-ibilgurei, ibarbide-hondoei, arboladietara, heskaiei, mugei eta abarri lotutako zuhaitz-landaredi zein zuhaixka-landaredi naturala daukaten enklabeak gordeko dira. Heskai-sistemak erabiliko dira muga gisa.
 - Larre berrietan, gutxienez haien azaleraren % 5 erabiliko da espezie autoktonoen arboladiak sortzeko edo Batasuneko intereseko habitata mantentzeko. Gainazal horiek kokatzeko, lehentasuna emango zaie gune hauskorrek (eremu hezeak, etab.) babesteko helburuei eta, horrelako gunerik ez badago, paisaia hobetzeko irizpideei.
 8. Debekatuta dago sua erabiltzea landaredia edo landare-hondakinak erretzeko, larreak berritzeko xedekin edo gunean tradizionalki onartutako beste erabilera batzuetarako, kudeaketa organoak baimendu eta kontrolatu ezean, eta kasu horretan hedadura txikietan

eta horretarako adierazitako lekuetan egingo da. Inoiz ez da erabilera hori baimenduko babes bereziko eremuetan.

9. Debekatuta dago Batasuneko intereseko edo eskualdeko intereseko larre-habitatetako tipikotzat jotzen ez diren belar-espezieekin berrereintzea.
10. Kultura-ondarea babesteko guneetan egiten diren jarduketetan, ondasun horien narriadura saihesteko behar diren neurriak hartuko dira.
11. Orokorrean, debekatuta dago azienda basoko berritze-eremuetan eta birpopulaketa-eremuetan sartzea kudeaketa organoak baimendu ezean. Hala ere, nahitaezkoa izango da eraginpeko eremuko abeltzaintza-sektorearekin komunikazioa ezartzea, baimen puntualak adosteko, hala eskatzen denean.
12. Itxiturak instalatzean, basa-faunaren barreiadura eta mugimenduak bermatzeko eta haren heriotza saihesteko behar diren materialak erabili eta baldintzak beteko dira, salbu eta biodibertsitateari dagokionez sentikorrak diren eremuak, nekazaritza-laboreak eta abereentzako egonlekuak babesteko, gainlarratzea duten guneak baliatu beharrean gutxiegi erabiltzen diren larratze-gune jakin batzuk erabilarazteko edo helburu zientifikoekin instalatzen badira. Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo zientziaren eremuetan kalteak saihesteko xedea duten itxituretarako baimena babestu behar den denborara mugatuko da. Itxitura berriek kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute baimendu baino lehen.
13. Oro har, debekatuta dago habitat edo/eta akuiferoen harrera-ahalmena gainditzen duten produktu fitosanitarioak eta ongarririk (satsak eta medeagarriak), simaur-kargak, mindak eta arazketako lohiak erabiltzea Batasuneko intereseko nekazaritza eta abeltzaintzako habitatetan, batez ere belardi menditarretan eta txilardietan. Salbuespenezko inguruabarretan, Natura-ondarearen gune babestuko kudeaketa organoak praktika horiek baimendu ahalko ditu, elementu naturalekin nagusiki, behar bezala justifikatutako eskari puntualak badira, lurzorua analizatu ondoren eta ingurune hauetako espezie tipikoei, lurzoruaren dinamikari eta baliabide hidrokologikoei eragiten ez zaiela aztertu eta gero. Nolanahi ere, zeharo debekatuta dago NBAP honen 5.1 artikuluan definitutako babes-eremuetan aplikatzea.
14. Zuhaitz-masen baso-larregintzako aprobetxamendua erabilera horrekin bateragarriak diren masetara zuzenduko da.
15. Debekatuta dago abere hilak uztea leizeetatik, arrakaletatik edo ur-ibilguetatik hurbil.
16. Irizpide orokor gisa, eta kudeaketa organoak salbuespenezko baimena eman ezean Natura-ondarearen gune babestu honetako titulartasun publikoko mendietan geldialdi begetatibo bat ezartzen da, zeinean azizendak gunetik kanpo geratu beharko duen, larreei neguko atsedena emateko helburuarekin; horretarako, abeltzaintza-instalazioetan edo lursail partikularretan egon beharko du. Geldialdi begetatibo horrek, guneko batez besteko datu klimatikoetan oinarrituta, azaroaren 16tik martxoaren 31ra arte iraungo du (biak barne). Kudeaketa organoak, arrazoi klimatikoengatik edo behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiengatik, data horiek aldatu ahalko ditu, bai gune osoari bai azienda-motari dagokienez.

15. artikulua.– Ehiza eta arrantza.

1. Natura-ondarearen gune babestua, osorik hartuta, ehiza-kudeaketako unitate bat da, eta bertan dauden lursailak ehiza-araubide bereziko lursailtzat jotzen dira.

2. Ehiza-jarduerak bateragarria izan beharko du Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan kontserbatu beharreko habitatak, fauna-populazioak eta flora-populazioak babesteko helburuekin. Gune osorako ehiza antolatzeko plan tekniko bat egin arte, agiri hauetan xedatutakoaren arabera ehizatuko da: natura baliabideen antolamendurako plan hau, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPa, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideak eta neurriak, ehiza-barrutiak kudeatzeko planak eta ehiza arautzen duten urteroko foru-arauak.
3. Gaur egun Valderejoko Parke Naturalean dauden ehiza-espezieak basurdea eta orkatza dira. Gune babestuaren gainerako lekuetan, ehiza antolatzeko plan teknikoak ezartzen dituen espezieak ehizatuko dira; plan horrek, nolana ere, kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko du. Espezie-zerrenda hori Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan, NOGBko ehiza antolatzeko plan teknikoan eta ehizari buruzko foru-arauetan aldatu ahalko da, populazioen egoeraren arabera, eta kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko du.
4. Aurrekoarekin bat etorriz, Natura-ondarearen gune babestuaren ehiza-kudeaketa osoa egiteko eta horrek Natura baliabideen antolamendurako plan honetan ezarritako kontserbazio-helburuak betetzea erraztu dezan, ehiza antolatzeko plan tekniko bakarra idatziko da, gune babestu osoa barne hartzen duena. Plan horrek honako hauek zehaztu eta, hala badagokio, mugatuko ditu:
 - Ehiza-aprobetxamendua egin ahal zaien espezieak, haien populazioen kontserbazio-egoeraren arabera.
 - Basa-faunaren aterpeak izateagatik ehizarako ez diren lursailak diren Natura-ondarearen gune babestuko eremuak; horietan, Ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legearen 24. artikuluan ezarritako araubidea aplikatuko da.
 - Faunaren erreserba-eremurako edo aterperako xedatzen diren ehiza kontrolatuko eremuak, lege horren 15.7 artikuluan oinarrituta.
 - Gune erabakigarrien inguruko babes-eremuak (habiak egiteko eta umatzeko eremuak, elikadura gehigarriko eremuak edo apurtzeko, jateko eta paratzeko ohiko lekuak), Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan babestu behar diren fauna mehatxatuko espezieak kudeatzeko eta berreskuratzeko planetan ezarritako aldietan; plan horiek jada onetsita egon daitezke, edo natura baliabideen antolamendurako planaren indarraldian onetsi.
 - Natura-ondarearen gune babestuan ehiza-jarduera eta erabilera publikoa bateragarri egiteko behar diren segurtasun-eremuak eta prebentziozko neurriak.
 - Espezie katalogatuak kudeatzeko planetan (indarrean daudenetan edo etorkizunean onets daitezkeenetan) ehizari dagokionez jasotzen diren neurriak.
5. Aurrekoa gorabehera, Ehizaren 2/2011 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, lursail hauek ez dira ehizatzeke izango:
 - a. Gaur egun ehiza-aprobetxamendurik ez daukaten eremuak (erreserba-eremuak eta barrutietako erreserbak).
 - b. Babes bereziko eremuak, baita eremu hezeak eta haien babes-eremuak ere.
 - c. Ibai-sistema.
 - d. Onetsita dagoen edo NBAParen indarraldian onets daitekeen kudeaketa- edo berreskurapen-plana daukaten basa-espezie mehatxatuen gune erabakigarriak.

Eremu horietan ez da inolako ehiza-jarduerarik baimenduko, arrazoi biologikoak, zientifikoak edo osasunari lotutakoak daudenean edo pertsonentzako, laboreentzako edo faunarentzako kalteak saihesteko direnean izan ezik. Kasu horretan, baimenak kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko du, eta organo horrek finkatuko ditu aplikatu beharreko baldintzak. Inoiz ez da baimenduko espezie mehatxatuentzako zuzeneko eragina, arriskuak

edo eragozpenak ekar ditzakeen jarduketarik, ezta selektiboa ez den harrapaketa-metodorik ere.

6. Ehiza antolatzeko plan teknikoa onetsi arte, prebentziozko neurri hauek hartuko dira:
 - a. Hegazti nekrofagoentzat, *“Euskal Autonomia Erkidegoan Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Baterako Planaren”* 13. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio; plan hori maiatzaren 22ko 229/2015 Foru Aginduaren bidez onetsi zen Arabako Lurralde Historikoan.
 - b. Natura-ondarearen gune babestuan dauden eta hegazti nekrofagoak kudeatzeko planean aipatzen ez diren espezie harkaiztar mehatxatuentzat, 500 metroko babes-erradioak ezarriko dira haien gune erabakigarrien inguruan. Dena den, Bonelli arranoen ugalketa-bikote bat finkatuz gero, ehiza larriko uxaldien egutegia egokitu egingo da, habiak egiteko puntuen inguruko 1,5 km-ko erradioan jarri beharreko kakoak beti jar daitezten espeziea ugaltzeko aldi erabakigarritik (otsailaren 1etik uztailaren 15era bitartean) kanpo.
 - c. NOGBko babes bereziko eremuan sartutako gainerako eremu harkaiztarretan (24. artikuluko 2.1 eta 2.4a idatz-zatietan deskribatu dira), debekatuta egongo dira ehiza larriko uxaldiak 500 m-ko erradioan, urtarrilaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean, kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean; horretarako, natura-ondarearen elementuen kontserbazioa bermatu beharko da.
 - d. Era berean, okil beltzen habietatik edo, hala badagokio, espezie horrek okupatutako unada mugatutik 400 m-ko erradioan, debekatuta dago otsailaren 1etik abuztuaren 15era bitartean ehizatzea, Natura-ondarearen gune babestuko kudeaketa organoak baimendu ezean. Kudeaketa organoak urtero ezarriko du babes-eremu horren zedarriztapena, eta bai babes-perimetroa bai debekualdia egokitu ahalko ditu, ehiza-modalitate bakoitzerako, populazioen egoeraren eta ingurune lursailaren ezaugarrien arabera.
7. Ehiza antolatzeko plan teknikoak neurriak, arauak edo jarraibideak ezarri beharko ditu Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieentzako zuzeneko eragina, arriskuak edo eragozpenak saihesteko eta Natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio-helburuekiko bateragarritasuna bermatzeko. Halaber kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko du aprobetxamendua adjudikatu aurretik. Era berean, ehizaren aprobetxamendua urtero arautzen duten dekretuetan eta foru-aginduetan, une bakoitzean beharrezkoak diren aldaketak txertatuko dira, aipatutako kontserbazio-helburuarekin bat etorrarazteko asmoz.
8. Salbuespenez, arrazoi biologikoak, zientifikoak edo osasunari lotutakoak daudenean edo pertsonentzako, laboreentzako edo faunarentzako kalteak saihesteko gomendagarria denean espezie jakin batzuetako aleak harrapatzea edo haien populazioak murriztea, egokiak diren baimenak eman ahalko dira, kudeaketa organoak aldeko txostena eman ondoren; organo horrek finkatuko ditu kasu bakoitzean aplikatu beharreko baldintzak.
9. Ehizakotzat jotzen den espezie baten populazioak gainbeheran daudela egiaztatzen bada, kudeaketa organoak espeziearentzako debekualdia proposatu ahalko du, eta populazioak berreskuratzeko neurriak gaitu. Nolanahi ere, ez da harrapakarien kontrolik baimenduko ehiza-espezieen populazioak hobetzeko metodo gisa.
10. Kirol-arrantza oro har debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuko ibai eta erreketan, Sobróngo urtegian izan ezik. Hala ere, kudeaketa organoak baimendu ahalko du, hala badagokio, ibaiaren tarte baxuetan, baldin eta haren arauketa bateragarria bada fauna-populazioen, flora-populazioen eta dauden Batasuneko intereseko habitaten kontserbazio-helburuekin. Arrantza-jarduera horiek ibaiaren ahalmen piszigenikoa errespetatu beharko dute eta arrain-populazioentzako arriskurik ekartzen ez duten modalitateen bidez egin beharko dira.

11. Debekatuta dago arrantza-fauna edo ehiza-fauna aloktonoko espezieak edo barietateak askatzea edo horiekin birpopulaketak egitea.
12. Natura-ondarearen gune babestuan fauna ustekabean edo legez kontra sartzen bada, ez da haren ehiza-aprobetxamendua edo arrantza-aprobetxamendua baimenduko. Aitzitik, espezieak kontrolatzeko neurri egokiak ezarriko dira horiek deuseztatzeko.
13. Basa-espezieen barreiadura-fenomeno edo birkolonizazio naturaleko fenomeno naturalak gertatzen direnean eta horiek nolabaiteko mehatxua dakartenean, ez da ez ehiza-aprobetxamendurik ez arrantza-aprobetxamendurik baimenduko, eta jarraipen-neurri egokiak sustatuko dira espezie horien kontserbazio-egoera ona ziurtatzeko.

16. artikulua.– Erauzketa-erabilerak.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 46.2 artikuluan ezarritakoa betetzeko eta Natura-ondarearen gune babestu honen II. eranskinaren (memoriaren) 3.4.6 idatz-zatian egindako analisisan oinarrituta, erauzketa-jarduerak debekatuta daude Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko NOGBaren mugen barruan.

17. artikulua.– Eraikuntza-erabilerak, erabilera industrialak eta azpiegiturak.

1. Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 37. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, bai parke naturalak bai Natura 2000 sareko lekuak Natura-ondarearen gune babestuak dira. Lurralde-antolamendurako tresnek eta hirigintza-plangintzak inguruabar hori jasoko dute eta toki horietan bermatuko dute dauden habitat naturalak, espezieak eta natura-ondarearen gainerako elementuak kontserbatuko direla, agiri honetan finkatutako helburuen arabera.
2. Natura-ondarearen gune babestuaren eremu osoan debekatuta dago lurzoru urbanizaezina birsailkatzea eta hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri bihurtzea.
3. Hirigintza- eta eraikuntza-jarduerak Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan finkatuta dauden hirigunetara (Lalastra, Lahoz eta Sobrón) mugatuta egongo dira eta ez da hirigintza-hazkunderik baimenduko aipatutako guneetan bermatzen ez bada. Eremu horietan, udalerrri bakoitzeko hirigintza-planeamendu orokorrean ezarritako eraikuntza-baldintzak beteko dira, NBAP honetan zehaztutako alderdietan izan ezik.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa gune babestuko lurraldearen gainerako tokiak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuta egongo dira.

4. Hauek dira Natura-ondarearen gune babestuan baimendutako eraikuntza erabilerak, onartutako tokiko hirigintzan ezarritakoari jarraitzen dion hiri eremuak kanpo utzita:
 - a. Natura-ondarearen gune babestuaren hornidurarekin eta erabilera publikoarekin erlazionatuta daudenak, kudeaketa organoaren baimena dutenak eta haren helburuarekin bat datozenak.
 - b. Sistema orokorrekin edo onura publikoko beste sistema batzuekin erlazionatuta dauden eta Natura-ondarearen gune babestuaren lurraldean nahitaez kokatu behar diren eraikinak.
5. Ez da baimentzen bizitegi-erabilerarako eraikin berriak eraikitzea, Lalastra, Lahoz eta Sobrón hiriguneetan izan ezik, 17.3 artikuluan adierazi den moduan.
6. Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuetan, abeltzaintza-ustiatzeari lotutako oinplano berriko eraikuntzak, handitzeak edo eraikinen erreformak

baimentzen dira, baliatzen dituen ustiategiaren neurriarekin proportzionalak badira eta ustiategi hori lurzorua erabilerari lotuta badago, 50. artikulua 2. idatz-zatian ezarritako baldintzetan.

7. Bordak eta aterpeak handitu, berregituratu edo erreformatzeko, kudeaketa organoaren baimena eduki beharko da. Ingurune paisaiarekin adosten diren materialak baliatuko dira. Era berean, obra-hondakinak ingurunetik kendu beharko dira.
8. Kiropteroen edo intereseko beste espezie batzuen aterpeak dauden eraikinetan, zubietan edo bestelako azpiegituretan obrak egiteko, kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko da eta une oro bermatu beharko da haien kolonien eta aterpeen kontserbazioa.
9. Titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan, eraikinak birgaitzeko eta estalkiak edo kultura-ondarearen elementuak (hala nola txabolak, baselizak, zubiak, errotak, etab.) konpontzeko obretarako lizentziek eta baimenek, kiropteroen aterpeak dauden gunen babestuaren eremuan, horiek babesteko bete behar diren baldintzak ezarriko dituzte. Arauketa horretan, besteak beste, debeku hau sartuko da: ezingo da birgaitzeko eta konpontzeko lanik egin maiatzetik abuztura bitartean, ezta hibernatzeko hilabeteetan ere (abenduaren 1etik otsailaren 28ra bitartean), kudeaketa organoak berriaz baimendu ezean; hartara, organo horrek espezieon eskakizunak eta azpiegituren kontserbazio-beharrak hartuko ditu kontuan.

Nolanahi ere, debekatuta dago produktu organokloratuak edo organofosforatuak erabiltzea zuraren tratamendu intsektizidetan, bai eraikinak eta instalazioak zaharberritzean bai horiek birmoldatzean. Permetrinak erabili ahalko dira, kudeaketa organoaren baimenarekin, maiatzetik abuztura bitarteko alditik kanpo. Sarbide errazeko tokietan kiropteroen koloniak edo aterpeak aurkitzen badira, kudeaketa organoak kasu bakoitzean aproposak diren neurriak hartuko ditu horietan bandalismoa saihesteko.

10. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gunen babestuaren mugen barruan, debekatuta dago energia sortzeko eta eraldatzeko instalazio berriak eta lotutako azpiegituren instalatzea. Haize-parkeei zehazki dagokienez, hona hemen bateraezintasun horren arrazoiak:
 - a. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gunen babestua hegaztientzako babes bereziko eremua da, Hegaztien Zuzentarauaren babesean izendatua. Árcenako mendilerroko harkaitzetan eta gailurrerian, gunen babestu horretako funtsezko kontserbazio-helburu diren hegazti-espezie mehatxatuak bizi dira eta egiten dituzte habiak. Espezie horietatik gehienak nabarmenki kalteberak dira mota horretako instalazioekiko.
 - b. Hasiara batean haize-instalazioak koka litezkeen eremuak bat datoz interes bereziko habitat eta espezieekin, harkaitz eta larre menditarretako inguruneei lotutakoekin, eta horiek Natura-ondarearen gunen babestu honetako babestu beharreko eta kontserbazio bereziko funtsezko elementuak dira.
 - c. Harkaitzak eta mendi-gailurreriak lehen mailako paisaia-baliabideak dira EAEko testuinguruan.
11. Oro har debekatuta daude instalazio industrialak, fluidoak, substantzia kimikoak eta erabilera industrialari lotutako hondakinak metatzeko biltegiak, baita gunen babestuko intereseko habitatei edo espezieei eta natura-ondarearen beste elementu batzuei narriadura nabarmena ekar diezaikeen beste edozein erabilera industrial, eraikuntza-erabilera edo azpiegitura ere.
12. Debekatuta daude zabortegiak, hondakindegia, materialen, ibilgailuen edo makinaren aldi baterako zein behin betiko bilketa edo metaketa eta haien mantentze-lanak, Natura-ondarearen gunen babestu osoan, kudeaketa organoak salbuespenezko arrazoiengatik, beti ere aldi baterakoak, baimendu ezean. Hori gertatuz gero, horretarako berriaz adierazitako leketan egingo dira bakarrik, eta inoiz ez kontserbatu beharreko habitatetan. Gainera, hala

badagokio, hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuan ezarritakoa hartuko da aintzat.

13. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa hegaztientzako babes bereziko eremu (HBBE) bat denez, ez da baimentzen energia edo fluidoak garraiatzeko, telekomunikazioetarako edo antzeko xedeetarako aireko azpiegitura berriak eraikitzea. Salbuespenez, eta badauden azpiegitura eta eraikinetarako zerbitzu gisa edo gunee babestuko zerbitzurako, eta behar bezala justifikatutako kasuetan, kudeaketa organoak baimendu ahalko ditu.
14. Natura-ondarearen gunee babestu guztian debekatuta daude gasa, petrolio eta produktu deribatuak garraiatzeko azpiegiturak. Lurpeko gainerako azpiegitura linealak (kolektoreak, ur-eroanbideak, telekomunikazio-sareak, linea elektrikoak, etab.), ahal bada, badauden azpiegitura eta zortasunetan bermatuko dira, kudeaketa organoak egokiro ebaluatu eta haien aldeko txostena eman ondoren.
15. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa, osorik hartuta, 'babes-eremutzat' jotzen da, *abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuak, goi-tentsioko linea elektrikoetako hegaztien elektrokuzioaren eta talken ondoriozko heriotzak murrizteko neurriak ezartzen dituenak, xedatutakoaren arabera, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko aginduan (horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, barreadura eta kontzentrazioarako lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira, non goi-tentsioko aireko linea elektrikoetan ez elektrokutatze edo talka ez egiteko neurriak aplikatuko baitira)* ezarri bezala. Beraz, dauden lineei dagokienez, aipatutako araudian ezarritako arauketak aplikatu beharko dira.
16. Instalazio ez-linealak debekatuta daude, kontserbazio-helburuak (ikerketa, zerbitzuak, etab.) lortzeko balio dutenak izan ezik. Inoiz ez, nolana ere, babes bereziko eta ibai-sistemako eremuetan. Instalazio horiek kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute, eta organo horrek debekatu ahalko du paisaia-hauskortasun handieneko eremuetan horrelakoak instalatzea.
17. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunee kudeatzeko jarraibideek eta neurriek dauden eta hala behar duten azpiegiturak basa-faunarentzat egokitzeko eta iragazkortzeko neurriak ezarriko dituzte, mota guztietako garraio-azpiegiturak, komunikazio-azpiegiturak eta energia sortzeko azpiegiturak barne, baita haien osagai artifizialak ere (deribazio-kanalak, karga-ganberak, drainatze-sareak, kanadar pasabideak, etab.). Halaber, erabiltzen ez diren baso-pistak leheneratzeko neurriak ezarriko dituzte.

Faunarentzako puntu beltzak detektatzen badira, bai bide-sarean, bai sare elektrikoan edo gunee babestuko beste azpiegitura batzuetan, istripu-tasa murrizteko ekintzak gauzatuko dira, fauna-pasabideak egokituz, lineak zuzentzeko jarduketak eginez, etab., bai Natura-ondarearen gunee babestuko azpiegitura-sarean bai haren babes-eremu periferikoan.
18. Mendiko paisaiaren hauskortasuna eta kalteberatasuna, Natura-ondarearen gunee babestuko zati handi bateko aldapa malkartsuak eta haien ingurumen-balio garrantzitsuak bateraezinak dira gunee babestuaren eremuan bide-azpiegitura berriak eraikitzearekin; beraz, baimendu daitezkeen jarduketak dagoen bide-sarea mantentzera eta, hala badagokio, hobetzera mugatuko dira.
19. Debekatuta dago Babes Bereziko Eremuetan, ibai-sisteman (gurutzeguneetan izan ezik) eta NBAP honen 5.1 artikuluan definitutako babes-eremuen barruan pista berriak eraikitzea. Orobat debekatuta daude gunee erabakigarrietatik igarotzen direnak edo sai zuria eta beste espezie harkaiztar mehatxatu batzuk egon ohi diren puntuetarako sarbidea errazten dutenak. Natura-ondarearen gunee babestuko gainerako aldeetan, basogintza-lanetarako,

nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueretarako eta larrialdietarako (suteak itzaltzeko, uholdeetarako, etab.) erabiltzen direnak soilik baimenduko dira.

20. Pista berriak irekitzeko eta badaudenen mantentze-lanak egiteko, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da. Sustatzaileak beharra justifikatu beharko du, diseinu eta trazadurarako hautabideak aipatu, obraren eragina ebaluatu, eta sor daitekeen ingurumen- inpaktua txikiagotzeko hartuko dituen neurrien berri eman. Trazaduraren diseinuan, % 10 baino gehiagoko maldak saihestuko dira. Muga hori salbuespenezko kasuetan gainditu ahalko da, paisaia-inpaktu kaltegarriak saihesteko asmoz. Bide horiek ur-pasaguneak eduki beharko dituzte lursaileko hustubide naturaletan, bai iraunkorrak bai urtarokoak. Pisten eraikuntzan eta konponketan sobera dauden materialen metaketa zorroztasunez kontrolatuko da.
21. Baimenduta dago larrialdietako lanetarako, zaintzarako eta suteak itzaltzeko ibilgailuek zirkulatzea, baita suaren aurka borrokatzeko ur-biltegiak instalatzea ere, kudeaketa organoak baimendu ondoren.

18.artikulua.– Ur-baliabideen erabilera.

1. 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Uren Legearen testuategina onartzen duenaren 59.7 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, emari ekologikoak ez dira erabiltzekoak; aitzitik, ustiapen-sistemei oro har ezartzen zaien murrizketatzat hartu behar dira.
2. Emari ekologikoen erregimenak habitaten edo espezieen aldeko kontserbazio-egoera mantentzeko edo leheneratzeko egokiak izango dira, haien eskakizun ekologikoak beteko dituzte eta haientzat ezinbestekoak diren funtzio ekologikoak epe luzean mantenduko dituzte. Babestu beharreko espezieei dagokienez, emari ekologikoen erregimenaren helburua izango da espezie horien funtzionaltasun ekologikoa babestea eta mantentzea (ugaltzeko, umatzeko, elikatze eta atsedena hartzeko guneak), baita habitatena ere, espezie horiek babesteko araudietan jasotako betekizun eta jarraibideekin bat etorriz.
3. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko uren aprobetxamendurako emakidetan, eremu horri dagozkion plan hidrológicoetan ezarritakoa aplikatuko da, arroaren arabera eta betiere, aukera guztien artean, habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzeko edo leheneratzeko onuragarriena den emari-erregimena esleituz, haien eskakizun ekologikoak (ugalketa, umatzea, elikadura eta atsedena) betetzeko eta haientzat ezinbestekoak diren ur-masen funtzionaltasun ekologikoa epe luzean mantentzeko.
4. Uren aprobetxamendurako emakida berri bakoitzerako espedientearen esparruan, haren beharra, teknikoki bideragarriak diren hautabideak eta aukeratutako irtenbidearen ingurumen-egokitasuna analizatu beharko dira, eta gunean kontserbatu beharreko elementuetan eta bereziki eremu hezeetan eragin nabaririk sortuko ez dela bermatu.
5. Kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko da ur-aprovetxamenduetarako emakida berriak eman aurretik edo indarrean dauden emakiden funtsezko ezaugarriak aldatu aurretik.
6. Baimendutako erabileren funtzionamendu zuzenerako ezinbestekoak diren azpiegitura hidraulikoak eraikitzea eta mantentzea baimentzen da, kontserbatu beharreko elementuen babesa arriskuan jartzen ez badute edo arriskuan jartzeko aukerarik sortzen ez badute, arroko erakunde eskudunaren baimena alde batera utzi gabe.
7. Kudeaketa organoak, arro-erakunde eskudunaren aurrean, emarien adarren zaintza eta kontrola sustatuko ditu, edozein aprobetxamendu-motatarako, baita emari ekologikoen erregimenaren aplikazioa ere, ur-aprovetxamendurako emakida zahar eta berrietan. Hartara,

arreta berezia jarriko du emariak murrizteak Natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio-helburuak erdiesteko mehatxu handiagoa ekar dezakeen kasuetan.

8. Era berean, arro-erakunde eskudunaren aurrean, ur-baliabideen aprobetxamendurako instalazioen egituren egokitzapena sustatuko da, ur-inguruneari lotutako espezieen mugikortasuna eta ziklo biologikoaren garapena zailtzen badute. Egokitzapen horretan, zenbait jarduketa egingo dira faunaren goranzko nahiz beheranzko zirkulazioa ahalbidetzeko, ibai-konektagarritasuna hobetzeko eta finkatutako emari ekologikoen erregimena kontrolatzeko.
9. Debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuan baimendutako erabilerei, suteak itzaltzeko edo biodibertsitatea hobetzeko xedatuta ez dauden putzuak eta biltegiak eraikitzea edo instalatzea. Ura atxikitze edo biltegitratzeko xedea duten instalazioak (adibidez, edanlekuak, uraskak, putzuak edo biltegiak) eraikitze, uren aprobetxamendurako nahitaezko emakidaz gain (hala badagokio), kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko da; organo horrek haren kokapenaren egokitasuna ebaluatuko du, babestu beharreko habitaten eta espezieen kontserbazioari eta eremu hezeetako erregimen naturalaren mantentzeari dagokienez. Instalazio horiek anfibioen edo basa-fauna babestuko beste espezie batzuen heriotza saihesteko neurriak izango dituzte.
10. Lotutako edanlekuak eta itxiturak halako moduan eraiki eta mantenduko dira non putzuz betetako eremuetanazienda sartzeari saihesteko den. Ur-harguneez, nolahi ere, eremu horiek mantentzeko nahikoa den emari askea utziko dute.
11. Ezingo da aplikatu produktu fitosanitariorik, ongarririk, araztegiko lohirik, konpostik, mindarik edo simaurrik. Halaber, aplikazio horietarako erabilitako makinak ezingo dira garbitu putzuz beteta dauden edo elurra duten lursailen gainean, ezta ur ibili edo geldien gainean ere.
12. Edozein obra hidrauliko egin aurretik, kudeaketa organoaren aldeko txostena beharko da, arroko erakunde eskudunaren baimena alde batera utzi gabe..
13. Debekatuta dago zentral hidroelektriko berriak instalatzea.

19. artikulua.– Erabilera publikoa.

1. Erabilera publikoko kudeaketa helburu honen menpe egongo da: Natura-ondarearen gune babestuaren eremuko habitat naturalen, basa-faunaren eta basa-floraren kontserbazioa bermatzea, bereziki gunearen kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren elementuena. Ingurune naturaleko elementu bitxiak eta kalteberenen kontserbazioa beti lehenetsiko zaio erabilera publikoaren eskariari. Beraz, kudeaketa organoak beharrezkotzat jotzen dituen premiazko neurriak eta mugak ezarri ahaliko ditu, babes-helburuak betetzeko asmoz, batez ere habitatentzako, espezieentzako eta kontserbatu beharreko beste elementu batzuentzako mehatxu-faktorea ekar dezaketean jarduerari dagokienez.
2. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestua kudeatzeko jarraibideak, erabilera publikoari dagokienez, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan eta Natura-ondarearen gune babestu honen multzoko Erabilera Publikoko Planean (EPPan) zehaztutako dira; azken plan hori kudeaketa organoak egin beharko du. Plan horietan, berriazko irizpideak, arauketak eta neurriak ezarriko dira, gutxienez alderdi hauei buruz:
 - Interpretazio-zentroak.
 - Atsedanlekuak.
 - Mendi-ibiliak, txirrindularitza, zaldiketa eta haien ibilbideak.

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

- Kirol-jarduerak.
- Espeleologia.
- Erabilera publikoko jarduera antolatuak eta komertzialak, basa-espezieen aprobetxamendu publikoan oinarritutako jarduerak barne (ornitologia).
- Kanpaleku antolatuak.
- Basa-produktuen bilketa.
- Mota guztietako ibilgailuen sarbideak eta zirkulazioa.
- Lan-txakurrak, laguntza-txakurrak, itsu-txakurrak, etab.

EPPak Natura-ondarearen gune babestua sektoretan banatu ahalko du erabilera publikoari dagokionez duen kalteberatasunaren arabera, ezarritako zonakatzea, NBAP honetan erabilera eta jardueretarako xedatutako mugak eta basa-espezie mehatxatuentzako aldi erabakigarriak kontuan izanik.

3. Kanpaldi-modalitate guztiak debekatuta daude, kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean. Gaua igarotzea baimentzen da.
4. Debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuan kanpinak instalatzea.
5. Oro har, debekatuta daude guneko balio natural, sozial edo kulturalak hondatzen dituzten edo honda ditzaketen jarduerak.
6. Oro har, txirrindularitza eta zaldiketa debekatuta daude Natura-ondarearen gune babestu honetako zidor-sarean, kudeaketa organoaren baimena eduki ezean edo Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan edo Erabilera Publikoko Planean ezartzen diren eremuetan egin ezean, beste erabilera batzuekin bateragarriak direla zehaztu ondoren eta ibiltariak eta paseariak zidor-sareari ematen dioten erabilera lehenetsiz.
7. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren barrualdean aisia-jarduera antolatuak egiteko, kudeaketa organoari aurrerapen nahikoarekin jakinarazi beharko zaio, eta organo horrek jarduerok burutzeko baldintzak zehaztu ahalko ditu, kontserbatu beharreko elementuen gaineko eragin nabariak saihesteko asmoz; dena den, baliteke beste baimen batzuk beharrezkoak izatea, kasuan kasuko jardueraren arabera.
8. Kirol-ekitaldi antolatu masiboek (adibidez, mendiko lasterketek, orientazio-lasterketek, mendi-martxek, BTT edo zaldizko martxek eta bestelakoek) eta guztiz edo neurri batean Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan garatzen diren erabilera publikoko jarduera komertzialek kudeaketa organoaren baimena eduki beharko dute; organo horrek gunean eta kontserbazio-xedeetan sor daitezkeen eraginak identifikatu beharko ditu eta, horietan oinarrituta, prebentziozko neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarri eta jarduerak kontserbatu beharreko elementuetan duen inpaktuaren jarraipena egiteko protokolo bat diseinatu.

Kudeaketa organoak jarduera horiek garatzen diren aldia eta eremua mugatu ahalko ditu, gune babestuko kontserbazio-helburuak eta zonakatzea aintzat harturik. 5.1 artikuluan definitutako babes-eremuak eta babes bereziko eremuak errespetatuko dira gutxienez; horietan ez dira erabilera horiek baimenduko, behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiak daudenean izan ezik, eta baldin eta natura-ondarearen elementuen kontserbazioa bermatzen bada.

Oro har, jarduera horiek ez dira gaueko ordutegian baimenduko, dauden atsedenleku, ekipamendu edo azpiegiturei lotutako erabilera publikoko eremuetan izan ezik.

9. Debekatuta dago eskalatzeko bide berriak irekitzea eta jarduera hori horretarako baimendutako leku eta aldietatik kanpo egitea; leku eta aldi horiek eskalada arautzeko planetan ezarrita daude, eta foru-erakundeek aldizka eguneratzen dituzte.

10. Babesturiko lurralde osoan debekatuta dago jolas-xedeekin egurra moztea kudeaketa organoaren baimenik gabe. Inoiz ez da erabilera hori baimenduko babes bereziko eremuetan.
11. Debekatuta dago jolas-xedeekin sua piztea, horretarako gaitutako lekuetan eta aldietan izan ezik.
12. Debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuko bisitariak barrualdean motordun ibilgailuak aparkatzea, horretarako gaitutako eremuetan, zirkulazio askeko bideetan eta Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan definitutako diren leku baimenduetan izan ezik. Debeku horretatik salbuetsita daude landaguneetako auzotarrak. Aparkalekuak diseinatzean, atsedeneren ahalmena kontuan hartuko da eta sor dezaketen paisaia-inpaktua saihesteko ahalegina egingo da.
13. Natura-ondarearen gune babestu honetako zirkulazio mugatuko bide eta pistetan ibilgailu motordunak erabiltzeko modua Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 26ko 52/2007 Foru Dekretuan araututa dago. Nolanahi ere, debekatuta dago zirkulazio mugatuko bide eta pistetan ibilgailu motordunak erabiltzea, baita Lalastra-Lahoz errepide-tartean ere. Bide horiek Natura-ondarearen gune babestuko zerbitzuek (zaintza, sorospen eta salbamendukoek) eta beste administrazio batzuek beren eskumenak (JPHaren zaintza eta kontrola, etab.) gauzatzean eta baimendutako erabileretarako (nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzakoetarako) soilik erabili ahalko dituzte. Era berean, ehiza-jarduerarako egun baliodunetan soilik, kudeaketa organoak ehiztarien ibilgailuak igarotzea baimendu ahalko du, betiere berak alde aurretik adierazitako aparkalekuetaraino, edo ehiza larriko piezak biltzeko eta beste zerbitzu puntual batzuetarako.
14. Txakurrek lotuta joan beharko dute erabilera publiko intentsiboko atsedeneren lekuetan, bideetan eta zidorretan, baita larre-eremuetan ere abereak dauden aldietan. Arau horretatik salbuetsita daude laneko txakurrak, abereei laguntzen dietenak edo Natura-ondarearen gune babestuko zaintza-jarduketetan eta kudeaketa-jarduketetan (erreskateetan, etab.) parte hartzen dutenak eta, ehizatze aldi baliodunetan, ehiza-txakurrak ere bai.
15. Debekatuta dago gunean lasaitasuna eta baretasuna hondatzea ihes-hodi libre duden ibilgailuak, megafonoak, turutak, musika-tresnak, irrati-gailuak edo antzekoak erabiliz edo gune babestu honetan kontserbatu beharreko espezieetan eragin kaltegarriak badituzte.
16. Barrunbe bat bisitatzea errazteko xedea duten eta kobaren barruan geratu behar diren babes-elementuen (pitioen, soken eta abarren) instalazio orok kudeaketa organoaren berariazko baimena eduki beharko du.
17. Natura-ondarearen gune babestuaz kanpoko pertsonen edo erakundearen menpe dagoen hezkuntza-azpiegituren instalazio orok (instalazioek, panelek, seinaleek eta abarrek) kudeaketa organoaren baimena eduki beharko du.
18. Halaber, aintzat hartu gabeko beste edozein nahasmendu debekatuko du kudeaketa organoak, haren kokapena, iraupena edo maila akustikoa dela-eta sai zuriaren umatzeari, elikadurari edo atsedeneri kalte egin ahal badio espeziearentzako gune erabakigarrietan, ezarritako aldi erabakigarrietan.
19. Debekatuta dago bideak eta ibilbideak margo edo beste elementu ezabaezinez balizatzea edo markatzea, gune babestuko GR, PR edo zidorretatik kanpo. Natura-ondarearen gune babestuaz kanpoko taldeek antolatutako ibilbideetan seinaleak jartzea ezinbestekotzat jotzen bada, kudeaketa organoaren baimena eduki beharko dute, eta markatu beharreko ibilbidea, pertsonen kopurua eta egingo diren data doia zehaztu beharko dira. Ekitaldi berezietan

erabilitako edozein motatako seinaleak material biodegradagarriak izan beharko dira eta kendu egin beharko ditu baimendutako taldeak berak jarduera burutu eta berehala.

20. Debekatuta dago Natura-ondarearen gune babestuaren kudeaketari edo aprobetxamenduari ez dagokion seinaleztapen oro: errotuluak, plaka edo monumentu oroigarriak edo hiletetakoak, mendiko gutunontziak eta abar, iraunkorrak nahiz aldi baterakoak izan, kudeaketa organoak berriaz baimendu ezean. Kasu horretan, material biodegradagarriak erabiliko dira.
21. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan instalatzen diren karteak edo seinaleak ezingo diete elementu naturalei edo kultura-ondasunei eragin edo kalterik egin.

20. artikulua.– Zientzia- eta ikerketa-jarduerak.

1. Natura-ondarearen gune babestuko ikerketa-jarduerak, ahal denean, honetan ardaztuko dira: gune babestuan kontserbazio-jarraibideak ezartzean eta biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbazio-egoera zehaztean eta horren jarraipena egitean. Horretarako, arreta berezia jarriko dute mehatxu-maila handiagoa edo kontserbazio-egoera txarragoa duten Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitatetan eta espezieetan, baita beren funtzionaltasun ekologikoagatik eta ekosistemen egoeraren adierazle izateagatik funtsezkoak izan daitezkeen espezieetan ere. Funtsean, alderdi hauek hartuko dira aintzat: banaketa, populazioen kontserbazio-egoera eta jasaten dituzten presio eta mehatxuak.
2. Horri dagokionez, egiten diren zientzia- eta ikerketa-jarduerak natura-ondarearen elementu jakin batzuei emango diete lehentasuna, hain zuzen ere kontserbatzeko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa ezinbesteko gunetzat dutenei (II. eranskinaren, memoriaren, 3.2.4 idatz-zatia).
3. Natura-ondarearen gune babestuko zientzia- edo ikerketa-jarduerak kudeaketa organoak baimendu beharko ditu, gauzatu baino lehen.
4. Berriaz debekatuta dago ale edo material naturalak biltzea, mineralak, fosilak, espeleotemak (estalaktitak eta estalagmitak) zein flora-espezieen edo fauna-espezieen aleak izan, ikerketa-lanak xede dituztenak edo aprobetxamendu arautuak direnak izan ezik, aipatutako kudeaketa organoaren baimena badaukate.
5. Funts publikoek finantzatutako zientzia- edo ikerketa-jardueretan Natura-ondarearen gune babestuko natura-ondarearen ezagutzan agerian jartzen den edozein aurrerapen kudeaketa organoari jakinarazi beharko zaio. Horrek, bestalde, Euskadiko Administrazio Orokorreko organo eskudunari emango dio lan horien datuen eta emaitzen berri, Euskadiko Naturari buruzko Informazio Sistemari (ENIS) informazioa eguneratuta edukitzeko helburuarekin. Horrez gain, informazio hori argitaratzeko eta jendarteratzeko laguntza eta erraztasunak emango ditu, natura-baliabideen babeserako arriskurik ez badakar. Funts publikoek finantzatuta ez dauden azterketetan edo lanetan, aktiboki sustatuko da xedapen hori betetzea.
6. Jendaurrean jarri beharreko agiri guztiak, natura baliabideen antolamendurako plan honen helburuekin zerikusia daukaten eta baliabide publikoek kontratatzen eta finantzatzen diren Natura-ondarearen gune babestuari buruzko lan zientifiko eta teknikoek dibulgaziozko laburpen bat jasoko dute, herritarrek erraz ulertzeko modukoa, eta hori ingurumen-organuari bidaliko zaio ENISen sartzeko.

**VALDEREJO-SOBRÓN-ÁRCENA MENDILERROAREN NATURA-
ONDAREAREN GUNE BABESTUAREN ZONAKATZEAREN
ARABERAKO ARAUAK ETA BABES-EREMU PERIFERIKOA**

1. atala.– Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzea eta babes-eremu periferikoa.

21. artikulua.– Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzea kontserbatu beharreko habitaten eta espezieen banaketaren arabera eta gunearen erabileraren arabera.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatzeak gunea Natura 2000 sarean sartzea eragin duten habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera ona mantentzeko edo lortzeko beharrari erantzuten dio. Halaber, natura-ondarearen elementu guztiak babestea du helburu, geodibertsitatea barne, erabilera publikoarekin eta jarduera ekonomikoen mantentzearekin batera, baldin eta gorde nahi diren balioekin bateragarriak badira.

Beraz, eremu bakoitzaren barruan erabileren eta aprobetxamenduen berariazko antolamendua ezartzen da; eremu horiek beren balio naturalak, kontserbazio-egoera eta kalteberatasuna kontuan izanik bereizi dira, baita dauden erabilerak eta aurreikusitako joerak aintzat hartuta ere, baina ez zaie erantzuten lurralde-antolamenduari edo hirigintza-antolamenduari lotutako irizpideei.

2. Natura-ondarearen gune babestuaren zonakatze-kartografia I. eranskinean dago. Eremu hauek bereizi dira:

Eremua	Azalera (ha)	NOGBaren azalaren %
a) Babes bereziko eremuak	1.046,73	% 15,36
b) Basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	2.007,51	% 29,45
c) Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	1.037,04	% 15,22
d) Baso-ekoizpeneko eremua	2.186,62	% 32,08
e) Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuak	356,5	% 5,23
f) Ibai-sistema	153,49	% 2,25
g) Hiri, ekipamendu eta azpiegituretarako eremuak	27,83	% 0,41
Guztira	6.815,71	% 100,0

22. artikulua.– Babes-eremu periferikoa.

Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuko babes-eremu periferiko bat ezartzen da; eremu hori 100 metroko zabalerako babes-banda da, gunearen kanpoko mugatik neurtuta, hiriguneak kanpo utzita.

2. atala.– Babes bereziko eremuak.

23. artikulua. Definizioa.

Habitat natural edo espezie bakanen edo oso mehatxatuen ordezkaritza onenak hartzen dituzten lurralde babestuko guneak dira. Beren bitxitasunagatik, ezaugarri adierazgarri edo estetikoengatik eta basa-faunaren edo basa-floraren kontserbaziorako garrantzitsuak izateagatik balio natural gailenak dauzkaten enklabeei dagozkie.

24. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

1. Eremu honek 1.046,73 ha hartzen ditu, hau da, Natura-ondarearen gunek babestuaren guztizko azaleraren % 15,36, eta horretatik % 93,6 OPMetan dago. Eremu hauetan, Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitat-mota eta espezie-mota hauen ordezkaritza onenetako batzuk daude, Natura-ondarearen gunek babestuko funtsezko elementu gisa hautatuak eta memoriaren (II. eranskinaren) 3.2 idatz-zatian zehatz-mehatz deskribatuak:

a. Harkaitzetako eta kobetako habitatak. Lotutako interes bereziko flora eta fauna (hegazti harkaiztarrak eta kobetako eta antzeko inguruneetako kiropteroak).

Árcenako mendilerroko harkaitzetan habia egiten duten hegaztiak hauek dira: sai zuria (*Neophron percnopterus*), sai arrea (*Gyps fulvus*), arrano beltza (*Aquila chrysaetos*), belatz gorria (*Falco tinnunculus*), belatz handia (*Falco peregrinus*) eta hontz handia (*Bubo bubo*).

Noizbehinka, ugatza (*Gypaetus barbatus*) eta Bonelli arranoa (*Aquila fasciata*) ere ikus daitezke. Aipatutako habitatez gain, harkaitzek Batasuneko intereseko beste habitat batzuk hartzen dituzte, adibidez, mendiko megaforbioak (6430), horiek kontserbatzeko funtsezko gunek baitira, eta kobak (8310); azken horiek bereziki garrantzitsuak dira eremu honetan dagoen kiroptero-komunitatearentzat. Gainera, flora eta fauna mehatxatuetako espezie askoren aterpeak dira.

b. Baso natural eta erdinaturaletako habitatak dituzten masak (garrigak, erkameztiak, hariztiak, pagadiak, amilburu-oineko basoa, *Pinus pinaster* espezieko pinudiak). Lotutako basa-flora eta basa-fauna (basoko hegaztiak, kiropteroak eta basoko beste ugaztun batzuk, basoko ornogabeak).

c. Txilardi, sastraka esklerofilo eta larreetako habitatak. Lotutako interes bereziko flora eta fauna (ingurune irekietako abifauna).

d. Eremu hezeetako habitatak: habitat lenitikoak eta hidroturbosoak.

2. Hautatutako gunek Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gunek babestuko enklabe hauetan daude:

2.1. Gailur eta harkaitzetako eremuak.

a. Santa Anako, Vallegulleko eta Purón ibaiko haitzarteko eremuetako kareharrizko harkaitzak eta lotutako habitatak. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 486,62 ha-koa, Valderejoko sektorearen hego-mendebaldeko muturrean hedatzen dena, Gaubeako 141., 142., 143. eta 148. OPMetan. Nagusiki kareharrizko harkaitzez, hartxingadiez, larre harritarrez eta txilardiez osaturiko eremu zabala da; pagadiak eta amilburu-oineko baso mistoak ere badaude bertan, baita garrigak eta ezpeldiak ere hego-orientazioko mazela eguzkitsuenetan. Purón ibaiko zenobia ere hartzen du barne, kiroptero mehatxatuentzako intereseko koba.

b. Recuenco eta Sillarrejoko gailurreria, Valderejon. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 42,27 ha-koa, Gaubeako 121., 147. eta 148. OPMetan, Recuencoko eta Sillarrejoko tontorren artean hedatzen dena. Kareharrizko harkaitzez, hartxingadiez, larre harritarrez, txilardiez eta amilburu-oineko pagadi basofiloiez osaturiko gailur-lerro estua da.

- c. Karria haitzeko ekialdeko sektoreko harkaitzak, Arrayuelas eta Karria haitzaren artean, Valderejon. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 59,85 ha-koa; Recuenco-Sillarrejo gailurreriaren jarraipena da. Gaubeako 110., 113. eta 145. OPMetan dago eta harkaitzak, hartxingadiak eta amilburu-oineko baso mistoak eta pagadiak hartzen ditu barne.
- d. Kareharrizko harkaitzak eta amilburu harritsuoko oineko basoak Cueto eta La Mota artean, Sobrónen. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 105,67 ha-koa, kareharrizko harkaitzez, hartxingadiez eta amilburu harritsuoko oineko pagadi kaltzikolez osatua. Gaubeako 134. OPMan dago.
- e. Mazo haitzeko hego-mendebaldeko magala eta harkaitz-azaleratzeak, Sobróngo hego-ekialdeko muturrean. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 118,25 ha-koa, kareharrizko harkaitzez eta garrigez osatua; Lantaróngo eta Gaubeako 57. eta 140. OPMetan dago.
- f. Kareharrizko amilburu-oineko harkaitz-azaleratzeak eta baso mistoak (9180*) Bachicaboko gailurrerian, 81,41 ha-koak; Gaubeako 108. eta 140. OPMetan daude. Bachicabo mendiko ekialdeko mazelako ezpeldiak eta sabinadiak ere hartzen dituzte barne.
- g. La Torcako amildegiko harkaitz-azaleratzeak eta kareharrizko amilburu-oineko baso mistoak (9180*), Sobróngo mendebaldeko sektorean. Natura eta paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 47,24 ha-koa; azalera horren % 74,3 57. OPMan (La Torca) dago.

2.2. Basoak

- a. Las Torcas eta Cuervo haitzeko ipar-mazelako pagadi azidofiloak (9120), Valderejon. Paisaiagatiko kontserbazio-intereseko gunea, 27,96 ha-koa. Natura-ondarearen gune babestuan dauden Batasuneko intereseko habitat-mota horretako eta tamaina handi samarreko alde bakarrak dira. Gaubea udalerriko 143. eta 145. OPMetan daude. Malda handiko eremuetan dauden eta babes-funtzio garrantzitsua duten baso naturalen beste azalera txiki batzuk ere hartzen dira barne; funtzio hori beste erabilerei nagusitu behar zaie.
- b. Haritzak (*Quercus robur*) dituen enklabea, Sobróngo haitzartean. Hautatutako guneari, 0,78 ha-koak, *Quercus robur* espezieko ale taldekatu gutxi batzuk dituen unada bat hartzen du barne eta Arabako mendebaldeko muturrean dauden espezie horretako populazio bakantetako bat da. Lantarón udalerriko 57. OPMan dago.
- c. *Pinus pinaster* espezieko pinudi naturaletako enklabeak, Sobrónen. Hautatutako guneari, 5,74 ha-koa, 57. OPMan (Lantarónen) eta 140. OPMan (Gaubean) dago.

2.3. EAEko Hezeguneen Inbentarioko hezeguneak eta haien babes-banda, 30 m-koa; funtsezko elementu hori barne hartzen duten Batasuneko intereseko habitaten mugatik neurtuko da, agiri honi erantsitako habitaten kartografiarekin bat etorriz:

- a. I. taldea: Valderejoko idoiak (GA16: 1-19), Polledoko istingak (B1A2), Cotillo-Puróngo amildegiko istinga (B1A3).
- b. III. taldea: Cotillo-La Tejerako amildegiko istinga (B1A20), La Cocinillako istingak (B1A21: 1-3), Corroko istingak (B1A10: 7-15), Lantaróngo istingak (B1A17: 1-3).
- c. Lahozko idoiari (GA-16-05) dagokionez, balio natural azpimarragarririk gabeko idoi artifiziala da; beraz, ez da sartu babestu beharreko eremu hezeen artean, Natura-

ondarearen gune babestuko zonakatze-kartografian (I. eranskinean) ikus daitekeen moduan.

- 2.4. Enklabe txikiak. Eskala dela-eta edo zuhurtziagatik kartografiatu ezin diren beste enklabe batzuk ere barne hartzen dira babes bereziko eremu gisa:
 - a. Espezie nekrofagoen gune erabakigarriak edo etorkizunean izendatuko diren gune erabakigarriak.
 - b. Flora mehatxatuko espezieen kontserbazio-gune bereziak edo etorkizunean izendatuko diren kontserbazio-guneak eta haien babes-perimetroa; azken hori gutxienez 10 m-koa izango da, haien kokapen ezagunen ingurukoa. Galtzeko arriskuan dauden espezieentzat, kontserbazio-gunea haien berreskurapen-planean zehaztutakoa izango da.
 - c. Turismoak ustiatu gabeko kobak (8310), beste eremu batzuetan sartuta daudenak eta eskala dela-eta kartografiatu ezin direnak.
 - d. *Cladium mariscus* espeziea duten istingak (7210*), trabertinoetako landaredia (7220*) eta istinga basofiloak (7230), beste eremu batzuetan sartuta daudenak eta eskala dela-eta kartografiatu ezin direnak, eta 30 metroko babes-perimetroa haien inguruan.

25. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Babes bereziko eremuetarako kontserbazio-helburu orokorra da haien dinamika naturalaren alde egitea, ahalik eta giza esku-hartze txikienarekin, kontserbazioa beste erabilera batzuen gainetik lehenetsiz eta haien bilakaera naturalaren jarraipena eginez.
2. Helburu orokor horrek helburu eragile hauek dakartza:
 - 2.1. Balio altuko enklabe horiek babestu eta kontserbatzea, haien dinamika naturalaren alde eginez, ahalik eta esku-hartze txikienarekin eta haietan eta haien ingurunean egiten diren jarduerak kontrolatuz.
 - 2.2. Hobekien kontserbatuta dauden baso-masen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna bultzatzea.
 - 2.3. Batasuneko intereseko habitaten kontserbazioa bermatzea eta habitat horiei lotutako flora-espezieen eta fauna-espezieen kontserbazioa, populazio-eboluzioa eta bideragarritasuna bermatzea, batez ere Natura-ondarearen gune babestuko funtsezko elementu hauek:
 - a. Basoetako habitatak. Baso naturalek okupaturiko azalera handitzea eta haien egitura eta funtzioak hobetzea.
 - b. Harkaitz-habitatak eta kobak, mehatxu-faktoreak txikiagotu eta kontrolatzeko eta habitat horien ezagutza hobetzeko asmoz.
 - c. Espezie harkaiztarrak. Helburua da espezie harkaiztar mehatxatuak kontserbatzea, habiak egiten dituzten guneak zorroztasunez babestuz, elikadura- eta bizi-eremuaren beharrezko gutxieneko azalera kontserbatuz eta berezkoak ez diren heriotza-arrazoiak ezabatuz.
 - d. Basoetako eta kobetako kiropteroak. Helburua da kolonien kopurua eta tamaina mantentzea eta ahal den neurrian handitzea eta haien aterpe-, ugalketa- eta elikadura-habitaten ezaugarri fisikoak, biologikoak eta ingurumen-ezaugarriak kontserbatzea eta hobetzea, espezie guztiek habitat horiei ematen dieten erabilerearen fenologia ezagutzea, hau da, hibernatzen duten eta umatzen diren

aldiak, baita gizakiek haiekiko dituzten jarrerak hobetzeko hezkuntza-jarduerak sustatzea ere.

- e. Eremu hezeak. Helburua Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko hezegune nagusiak babestea da, kontserbazio-egoera egokia lortu edo manten dezaten.
 - f. Eremu hezeei lotutako Batasuneko edo eskualdeko intereseko fauna, bereziki *Ichthyosaura alpestris*, *Epidalea calamita* eta *Discoglossus jeanneae* espezieak, mehatxu-faktoreak murriztu eta kontrolatzeko, haien populazioak hobetzeko eta haien kontserbazio-egoeraren ezagutza areagotzeko.
 - g. Flora mehatxatua. Helburua da babes bereziko enklabe horiei lotutako flora mehatxatuko populazioak monitorizatzea eta dauden berreskurapen-planetan ezarritako neurriak betearaztea. Era berean, berriazko kudeaketa-planik ez daukaten flora mehatxatuko espezieak berreskuratzeko planak egitea bultzatuko da.
- 2.4. Paisaiako elementu bakanak eta balio geologiko eta paisaia-balio bereziko guneak babestea eta kontserbatzea.
 - 2.5. Natura-ondarearen gune babestuan eta haren babes-eremu periferikoan dauden interes geologikoko lekuen ezagutza hobetzea, haien balioa azpimarratzea eta haien garrantzia jendarteratzea.
 - 2.6. Arkeologia-ondarea eta paleontologia-ondarea babestea eta kontserbatzea.
 - 2.7. Baso helduei lotutako biodibertsitatearen ikerketa eta jarraipena sustatzea.

26. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

1. Eremu hauek baliabide eta bitxitasun naturalak kontserbatzeko eta babesteko dira. Horretarako, egiten diren jarduerak zorrotzasunez kontrolatuko dira. Basa-flora eta basa-fauna babesteko beharrezkotzat jotzen denean, banatzen diren eremuak edo enklabeak mugarriztatu edo markatuko dira, baita hesitu ere, beharrezkoa balitz.
2. Salbuespenez, kudeaketa organoak jarduketak proposatu ahalko ditu, habitaten eta haiei lotutako espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko eta haien osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko helburuarekin soilik.
3. Oro har, erabilera-araubideak lehentasuna ematen die habitaten eta haiei lotutako espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko eta haien osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko xedea duten jarduketei.

27. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1. Gutxienez, baso autoktonoko oraingo masak mantenduko dira, eta horietan egiten diren basogintza esku-hartzeen xedea haien egitura eta funtzioak hobetzea izango da.
2. Zaintzeko eta suteetatik babesteko basogintza-jarduketak baimentzen dira.
3. Debekatuta dago eremu honetako basoetatik zur hila erazteak, xede komertzialak dituzten aprobetxamenduak, egur-eskariak eta biomasa-aprobetxamenduak egitea, toki-hornidurarako bada ere.

28. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak.

1. Abeltzaintza-erabilerak baimentzen dira, baldin eta ez badute arriskuan jartzen natura-ondarearen elementuen edo lotutako prozesu ekologikoen kontserbazio-egoera, eta betiere Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako

mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko zuzentarauek eta neurriek eta, hala badagokio, Natura-ondarearen gunea babestuen multzoko Larreen Antolamendurako Planak araututakoaren arabera. Abeltzaintza-erabilera honetatik salbuetsita daude harkaitzen eremuak (EB 8210 KOD), hartxingadiak (EB 6430 KOD), lapiazak eta megaforbioen eremuak (EB 6430 KOD), haltzadiak (EB 91E0* KOD) eta eremu hezeak, haien kontserbazio-egoerak erabilera hau mugatzea aholkatzen badu; kudeaketa organoak erabakiko du hori eta behar diren prebentziozko neurriak hartuko ditu.

2. Debekatuta dago ahuntz-azienda larratzea edo egotea.
3. Debekatuta dago larreak sortzea.

29. artikulua.– Erabilera publikoa.

1. Babes bereziko eremuak erabilera publiko mugatuko gunetzat joko dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Erabilera Publikoko Planak egingo duen sektORIZAZIOAN.
2. Kudeaketa organoak baimendutako jarduera zientifikoak, hezigarriak eta ingurumen-dibulgazioko jarduketak egin daitezke, gunean osotasun ekologikoari eragiten ez badiote. Ildo horretan, ikusi orobat kobei eta lotutako espezieei buruzko arauketak.

3. atala.– Basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak.

30. artikulua.– Definizioa.

1. Baso autoktono natural edo erdinaturaletako gunek dira, bai publikoak bai pribatuak; horietan, intentsitate baxuko baso-aprobetxamenduak egiten dira, eta baso-erabilera masen kontserbazio-egoera onarekin bateragarria izan daiteke.

Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan, ezaugarri hauetakoren batek definitzen ditu eremuak:

- a. Mendi publiko edo pribatuak, zeinetan baso natural edo erdinaturalak nagusitzen diren.
- b. Batasuneko interesekoak edo eskualdeko interesekoak diren eta Natura-ondarearen gunea babestuko funtsezko elementutzat jotzen diren habitaten presentzia.

31. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

1. Eremuak 2.007,51 ha hartzen ditu, hots, Natura-ondarearen gunea babestu guztiaren azaleraren % 29,45. Azalera horren % 89 OPMetan dago. Hauek dira zedarritzatutako eremu nagusiak:
 - 1.1. Vallegruleko mendilerroko hego-mendebaldeko, Cuervo haitzeko hegoaldeko mazelako eta Recuencoko iparraldeko garrigak (9340), Valderejoko sektorean, eta Sobróngo hegoaldeko erdiko erkameztiak (9240) eta garrigak.
 - 1.2. Pagadi azidofiloak (9120) eta kaltzikolak (G1.64 eta 9150) eta Tilio-Acerion mazelako basoak (9180*), aurreko kategorian sartuta ez daudenak; oro har azalera diskretuetako guneeetan banatuta daude, zenbait amildegitako hondoa edo ipar-orientazioak okupatzen dituzte eta bi sektoreetan barreiatuta daude.
 - 1.3. Era berean, kategoria honetan Sobrón sektoreko sastraka esklerofiloetako eremu batzuk (ezpeldiak, 5110, eta sabinadiak, 5210) sartzen dira, baita txilardiak ere (4090), eskuarki Valderejoko sektorean, malda handiko eta hego-orientazioko mazelen gainean.

2. Hauek dira habitat horiei lotutako Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieen taldeak:
 - 2.1. Flora: baso-inguruneei lotutako espezieak, hala nola *Buxbaumia viridis*, *Ruscus aculeatus*, *Ilex aquifolium*, *Quercus robur*, *Taxus baccata*, *Paeonia officinalis subsp. microcarpa*.
 - 2.2. Fauna: baso-inguruneei lotutako espezieak:
 - a. Kiropteroak: *Myotis myotis*, *Barbastella barbastellus*.
 - b. Ugaztunak: basakatua (*Felis silvestris*), muxar grisa (*Glis glis*) eta lepahoria (*Martes martes*).
 - c. Ornogabeak: lepidopteroak, adibidez, *Euphydryas aurinia*, *Euplagia quadripunctaria*, koleoptero saproxilikoak.
 - d. Basoko hegaztiak: zapelatz liztorjalea (*Pernis apivorus*), arrano sugezalea (*Circaetus gallicus*), aztore arrunta (*Accipiter gentilis*), gabirai arrunta (*Accipiter nisus*), arrano txikia (*Hieraaetus pennatus*), zuhaitz-belatz europarra (*Falco subbuteo*), lepizuli eurasiarra (*Jynx torquilla*), okil beltza (*Dryocopus martius*), okil txikia (*Dendrocopos minor*), etab.

32. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Eremu hauetan, habitatak eta lotutako espezieak babestea eta haien kontserbazio-egoera hobetzea da lehentasuna. Baso-aprobetxamenduek ez dute arriskuan jarri behar lekua izendatzea eragin duten habitaten, flora-espezieen, fauna-espezieen eta haien osotasun ekologikoaren mantentzea. Baso-kudeaketa jasangarria Natura-ondarearen gune babestuko biodibertsitatea hobetzera bideratu behar da.
2. Helburu orokor horrek helburu eragile hauek dakartza:
 - a. Zuhaitz-masen aprobetxamendua bateragarri egitea Batasuneko edo eskualdeko intereseko baso-habitaten kontserbazio-egoera onarekin, basogintza-erabilera estentsiboaren antolamenduaren bidez.
 - b. Baso naturalek okupaturiko azalera osoa handitzearen alde egitea.
 - c. Baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Hobekien kontserbatuta dauden enklabeak beren oraingo egoeran gordetzea.
 - d. Basoko habitatei lotutako fauna mehatxatuko espezieen espazio-banaketa, dibertsitatea eta populazio-maila areagotzea: basoko kiropteroak, kiroptero zuhaitzarrak, ugaztunak, basoko abifauna, ornogabe saproxilikoak, etab.

33. artikulua.– Sustatutako erabilerak.

1. Basoko habitaten eta Batasuneko edo eskualdeko intereseko lotutako espezieen kontserbazio-egoera egokia lortzearen menpe egongo da basogintza-erabilera estentsiboa, haientzako funtsezko gunea baita Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestua.

34. artikulua.– Basogintza-erabilerak.

1. Oro har, eremu hauetan sustatutako erabilera baso natural eta erdinaturalen kontserbazio-egoera hobetzeko jarduketegi dagokie. Horretarako egokitzat jotzen bada, baso garai irregularraren masa bihurtzeko ahalegina egingo da; alegia, ahalik eta egiturazko eta berariazko dibertsitaterik handiena, hazien bidezko berritze naturala eta lurtean eta zutik

dagoen zur hilaren presentzia sustatuko dira eta neurri nabarmenak edukitzeagatik apartekoak diren zuhaitzak kentzea saihestuko da.

2. Gutxienez, baso autoktonoko oraingo masak mantenduko dira eta baso horiek eremu hauetan okupaturiko azalera handitzeko ahalegina egingo da, bereziki titulartasun publikoko mendietako lursailetan.
3. Planifikatutako baso-aprobetxamenduak baimentzen dira, baldin eta aprobetxamendu-metodoa ez bada baso-soilketak. Egur-eskariak ere baimenduta daude, zuhaitz-masaren heldutasunaren eta egiturazko konplexutasunaren garapen egokia bermatzen badute. Ez da baimenduko baso-aprobetxamendurik edo egur-eskaririk eremu hauetan ezarri beharreko seneszentzia-unadetan edo mikroerreserbetan.
4. Zuhaitz-masa nagusian txertatutako habitat txikiak (adibidez, soilgune txikiak, eremu hezeak, zohikaztegiak eta zingiradiak) egoera egokian mantenduko dira, arrainen, anfibioen, intsektuen eta abarren ugalketa-zikloan duten funtzioa betetzeko moduan.

35. artikulua.– Baso-baliabideen antolamendurako planetan eta mendien antolamendurako proiektuetan edo plan dasokratikoetan sartu beharreko helburuak.

Biodibertsitatea areagotzeko eta basoko inguruneetako habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko xedearekin, aipaturiko planak eta proiektuak egiteko eta onesteko eskumena daukan organoak helburu hauek sartuko ditu titulartasun publikoko mendietan:

1. Ingurune naturala kontserbatzeari eta jasangarritasunari buruzko irizpideak dituen baso-kudeaketa bat sustatzea, eremuan dauden baso-masa autoktonoen kontserbazioaren eta eboluzio naturalaren alde eginez.
2. Eremuko baso-masak pixkanaka tokiko berezko landaredi-sorta potentzialari dagozkion baso naturaletara pasatzea sustatzea.
3. Batasuneko intereseko habitatak eratzen dituzten masa naturalen egiturazko konplexutasuna eta dibertsitatea areagotzeko neurriak edukitzea.
4. Neurri eta egoera guztietako (zutik zein lurrean dagoen) zur hilaren bolumena handitzea.

36. artikulua.– Baso-baliabideen antolamendurako planetan eta mendien antolamendurako proiektuetan edo plan dasokratikoetan sartu beharreko irizpideak.

Biodibertsitatea areagotzeko eta basoko inguruneetako habitaten eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko xedearekin, aipaturiko planak eta proiektuak egiteko eta onesteko eskumena daukan organoak xedapen hauek sartuko ditu titulartasun publikoko mendietan:

1. Kudeaketa organoarekin koordinatuta, kontserbatu beharreko espezie edo komunitateentzako sektore erabakigarriak identifikatuko dira. Honako hau jotzen da sektore erabakigarritzat: espezie batek urtero populazioa mantentzeko garrantzitsua den bere ziklo biologikoko funtsezko zati bat garatzen duen mendiko eremua.

Sektore erabakigarri horietan, basogintza-lanen egutegia egokitu egingo da hegazti-espezie babestuen eta kiroptero zuhaiztarren aldi erabakigarrietan ukipenak saihesteko, kudeaketa organoak baimendu ezean, eta kasu horietan kontserbatu beharreko elementuei eragiten ez zaiela ziurtatuko du kudeaketa organoak.

37. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak.

1. Oro har, eremu hauetan debekatuta dago larratze estentsiboa, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek eta larre-habitatak eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko planak erabilera hori baimentzen duten tokietan izan ezik. Nolanahi ere, ez da larratzerik baimentzen ez berritzen ari diren basoko eremuetan ez birpopulaketetan.
2. Debekatuta dago eremu hauetan ahuntz-azienda larratzea edo egotea.
3. Debekatuta dago larre berriak sortzea.

4. atala.– Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak.**38. artikulua.– Definizioa.**

Aldaketa gutxi izan dituzten sistema naturalak edo sistema erdinaturalak hartzen dituzten gunek, zeinetan abeltzaintza-erabilera kontrolatu batek habitat-mota jakin batzuk kontserbazio-egoera onean mantentzen baititzake. Ezaugarri hauetakoren batek definitzen ditu eremuak:

- a. Abeltzaintza-erabilera estentsiboko belar-formazioak.
- b. Txilardien eta mendiko larreen mosaikoa.
- c. Sastraka esklerofiloak.

39. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

1. Eremuak 1037,04 ha hartzen ditu, hots, Natura-ondarearen gune babestu guztiaren azaleraren % 15,22. Azalera horren % 86,75 OPMetan dago. Sastraka eta larreetako gune garrantzitsuenak biltzen ditu; hain zuzen, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan, funtsean, Batasuneko intereseko habitat hauei dagokie: txilardi lehor azidofiloak (4030), goi-mendiko ipurudi herrestariak (4060), genistak dituzten txilardi kaltzikolak (4090), ezpeldiak (5110) eta sabinadiak (5210), larre harritar kaltzikolak (6170), orkideak dituzten edo orkidearik ez duten larre mesofiloak (6210 eta 6210(*)), *Brachypodium retusum* espezieko larre xerofiloak (6220*) eta belardi menditarrak (6230*).
2. Sastraken, txilardien eta larre menditarren mosaikoa, funtsean, Valderejoko sektorean dago, Vallegrul eta Lerón artean hedatzen den goi-lautada zabalean. Sobrónen, sastraka esklerofiloak, ezpeldiak eta sabinadiak hobeto ordezkaturik daude; gainerako habitatak, aldiz, sektore osoan sakabanaturik dauden azalera eskuarki diskretuetan banatzen dira.
3. Hauek dira habitat horiei lotutako Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieen taldeak:
 - 3.1. Flora: kontserbaziorako intereseko espezie ugari dituzten mendiko ingurune irekiei lotutako espezieak, adibidez, *Orchis cazurlensis*, *Orchis italica*, *Paeonia officinalis* *susbp. microcarpa*, *Ephedra nebrodensis*, *Narcissus asturiensis*, *Narcissus nobilis*, *Narcissus bulbocodium*, *Arenaria erinacea*, *Centaurea lagascana*, *Coeloglossum viride*, *Genista eliasseanenii*, *Genista florida*, *Himantoglossum hircinum*, *Luzula nutans*, etab.
 - 3.2. Fauna: mendiko eta landazabaleko ingurune irekiei lotutako espezieak:
 - a. Kiropteroak: *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros*.
 - b. Mendiko eta landazabaleko hegaztiak: mendi-tuntuna (*Prunella collaris*), mendi-txirta (*Anthus spinoletta*), pirripioa (*Lullula arborea*), pitxartxar nabarra (*Saxicola rubetra*), buztangorri iluna (*Phoenicurus ochruros*), buztanzuri arrunta (*Oenanthe oenanthe*), harkaitz-zozo gorria (*Monticola saxatilis*), belatxinga mokogorria (*Pyrrhocorax pyrrhocorax*), belatxinga mokohoria (*Pyrrhocorax graculus*), mendi-

txirriskila (*Carduelis citrinella*), mirotz zuria (*Circus cyaneus*) antzandobi arrunta (*Lanius collurio*), landa-txirta (*Anthus campestris*) eta abar.

40. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Eremu hauetarako amaierako helburua da belar-habitatak, sastraka-habitatak eta haien mosaiko-antolaketa kontserbatzea eta, aldi berean, toki-komunitateen garapen sozioekonomikoari lotutako produktu naturalen eta ingurumen-zerbitzuen fluxu jasangarria sortzea eta erakargarritasun eta balio eszeniko handiko paisaia bat mantentzea.
2. Helburu eragile hauek dakartza:
 - 2.1. Habitaten eta lotutako espezie mehatxatuen kontserbazio-egoera onarekin bateragarriak diren abeltzaintza-kudeaketarako jarraibideak ezartzea, erregimen estentsiboko larratzearen antolamenduaren bitartez.
 - 2.2. Batasuneko intereseko larre eta sastrakak kontserbazio-egoera onean mantentzea bermatzen duen abeltzaintza-kudeaketa bat bultzatzea, haien mosaiko-antolaketa eta oraingo azalera mantenduz, gutxienez lehentasunezko zat jotzen direnei dagokienez: belardi mesofiloak (EB 6210* KOD), belardi lehorrak (EB 6220* KOD) eta belardi menditarrak (EB 6230* KOD).
 - 2.3. Habitat horiekin erlazionatutako flora mehatxatuko populazioak kontserbatzea, berreskuratzeko planetan ezarritako neurriak betearaztea eta haien eraginkortasuna ebaluatzea.
 - 2.4. Goi-mendiko eta landazabaleko abifaunaren oraingo populazioak eta haren elikadura-guneak kontserbatzea eta espezie enblematikoen ugalketa-guneak berreskuratzea.
 - 2.5. Natura-ondarea kontserbatzearekin bateragarriak diren edo horretan laguntzen duten baso-larregintzako aprobetxamenduen aukerak harmonizatzea eta hobetzea, produktibitate ekonomikoa, eskualdeko nortasuna eta eremuko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko modua da eta.
 - 2.6. Abeltzainen bizi-baldintzak hobetzea.

41. artikulua.– Sustatutako erabilerak.

1. Eremu hauetan sustatutako erabilera sastraka, txilardi eta larre natural eta erdinaturalen kontserbazio-egoera hobetzeko jarduketei dagokie. Eremu horiei lotutako larratzeak eta abeltzaintza estentsiboak ingurumen-balioak babestearekin bateragarriak direla ziurtatu behar dute, larre, txilardi eta sastrakak mosaiko-egitura irregularra mantenduz, ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren enklabeak (eremu hezeak, flora eta fauna mehatxatuetako espezieentzako intereseko enklabeak, etab.) gordez eta paisaiaren dibertsifikazioaren eta biodibertsitatearen alde egiten duten inguruneke elementuak (heskai eta arboladi naturalak, harrizko hormak, etab.) babestuz. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek behar diren neurriak txertatuko dituzte eremu horietan abeltzaintza-erabilera estentsiboa lehentasunez garatzeko.
2. Kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean eta baldin eta agiri honetan zehaztutako helburu orokorrak eta helburu zehatzak betetzen badira, debekatuta dago Batasuneko intereseko habitaten erabilera aldatzea xede duen edo horien azalera galtzea dakarren jarduera oro.

42. artikulua.– Abeltzaintza-erabilerak eta basogintza-erabilerak.

1. Larratze estentsiboa edo erdiestentsiboa baimentzen da, baldin eta abeltzaintza-presioa ingurune naturalaren jasate-ahalmenera egokitzen bada eta gainlarratze-egoerak edo azpilarratze-egoerak saihesten badira.
2. % 30 baino gutxiagoko maldetan dauden larreen sorketa eta hobekuntza eremu honetara bideratuko dira. 14.7 artikuluan (nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak) ezarritakoa aplikatuko da larre berriak sortzeko sasi-garbitzeetan espezie autoktonoen arboladiak landatzeari dagokionez.
3. Debekatuta dago eremu hauetan egun dauden espezie autoktonoetako arboladiak, ezpondetako landaredia eta heskai naturalak kentzea, behar bezala justifikatuta dauden eta kudeaketa organoak berariaz baimentzen dituen kasuetan izan ezik.
4. Debekatuta dago larre berriak lantzea % 30 baino gehiagoko maldak dituzten lursailetan.

5. atala.– Baso-ekoizpeneko eremuak.**43. artikulua.– Definizioa.**

1. Batasuneko intereseko habitatak ez diren ekoizpen-intereseko baso-masak hartzen dituzten gunek dira. Eremuak 2.186,62 ha hartzen ditu, hau da, Natura-ondarearen gunebabestuaren azaleraren % 32,08.
2. Hemen, funtsean *Pinus sylvestris* espezieko pinudiak hartzen dira barne; zuhaitz hori espontaneo da eremuan eta lurzorua babesteko zeregin garrantzitsu bat betetzen du. Pinudiek Natura-ondarearen gunebabesteko hedadura zabalak estaltzen dituzte, bai Valderejo sektorean bai Sobrónen. % 84,5 OPMetan dago.

44. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Eremu honetarako helburu orokorra da baso-lurzoruen produkzio-ahalmena mantentzea, basogintza-jarduerak Natura-ondarearen gunebabestuaren osotasun ekologikoa arriskuan jar ez dezan.
2. Helburu orokor horrek helburu eragile hauek dakartza:
 - 2.1. Erabileren dibertsitatea mantentzea, habitaten eta espezieen dibertsitatea babestuz.
 - 2.2. Ingurunearen kalitatea kontserbatzea.
 - 2.3. Zuhaitz-masen aprobetxamendua bateragarri egitea Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitaten kontserbazio-egoera onarekin.
 - 2.4. Basogintza-erabilera intentsiboa antolatzea, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroaren osotasun ekologikoa arriskuan jarri gabe.

45. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

Basogintza-erabilerak baimentzen dira, natura baliabideen antolamendurako plan honetan habitatak, basa-florako eta basa-faunako espezieak kontserbatzeko ezarritako helburu eta irizpideekin bateragarriak diren praktikak baliatzen badira.

46. artikulua.– Basogintza-erabilera.

1. Baso-aprobetxamenduetan, landaredi autoktonoa, zuhaixka-espezie eta zuhaitz-espezie lagunak errespetatuko dira, batez ere eremu hezeen, istingen, ibarbideen eta ur-bazterren ingurunean. Horretarako, mozteko baimenak bereziki murriztailea izan beharko du mota horretako habitatekin mugakideak diren aprobetxamenduetan; hain zuzen ere, makinak pasatzeko eta landaketa berrietan lurra zulatzeko mugak ezarriko dira.
2. Ez da baimenduko % 30 baino gehiagoko maldetan dauden lursailen deforestazioa dakarren erabilera-aldaketa bat xede duen jarduerarik.
3. Mozteko baimenak emateko, irizpide teknikoak, ekologikoak, ekonomikoak eta paisaiari lotutakoak hartuko dira aintzat eta aprobetxamendua egiten zaien masen barrualdean dauden espezie autoktonoen unaden babes berezia xedatuko da, baita kontserbatu beharreko fauna-espezieena eta flora-espezieena ere.
4. 13.10. artikuluan ezarritakoa, baso-aprobetxamenduetan ur-bazterreko habitatak babesteari buruzkoa, aplikatzekoa da.
5. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek zehaztuko dituzte Natura-ondarearen gune babestuaren barrualdean dauden lursailetan egin beharreko basogintza eta birpopulaketako zereginetarako diru-laguntzen araubidearen berariazkotasunak, jabeak beren mendiak birpopulatzera eta egoera onean gordetzera animatzeko xedearekin. Arauketa horrek jarraibide eta irizpide hauek hartuko ditu kontuan:
 - a. Landaketa adinkideko lurzati handietan, jabeekiko akordioak lehenetsiko dira, jabeok beren mendiak kudeatzeko planak egin ditzaten; plan horietan, espezie bakoitzaren banaketa egokiena hartuko da kontuan, eta Natura-ondarearen gune babestuko EKZPan, Natura-ondarearen gune babestua kudeatzeko jarraibide eta neurrietan eta sektoreko legerian ezarritako laguntzak aplikatuko zaizkie.
 - b. Arrazoi fisikoak, ekologikoak edo paisaiari lotutakoak direla-eta babes berezia behar duten eremuetan, espezie autoktonoen nahitaezko gutxieneko ehunekoak baino gehiago aplikatzeko ahalegina egingo da, jabeekin adostuta.
 - c. Baso-ustiapenetan, ingurunean inpaktu txikia duten tekniken erabilera sustatuko da eta horretarako diru-laguntza emango da.
6. Planifikatutako xede komertzialak dituzten baso-aprobetxamenduak baimentzen dira, baita egur-eskariak ere.
7. Ekoizpena xedatutako basa-pinuen pinudiak ondoz ondoko garbitze uniformeko mozketen bidez antolatuko dira, 120-140 urteko txandetan.

6. atala.– Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuak.**47. artikulua.– Definizioa.**

1. Bazka-belardi, zereal-belardi eta laboreen eremuak, heskai naturalak eta arboladi txikiren bat dituztenak; Lalastra eta Lahoz artean hedatzen dira eta haraneko leku topografiko onuragarrienak hartzen dituzte. Sobróngo sektorean garrantzi gabekoak dira.
2. Eremuak 356,5 ha hartzen ditu, hau da, Natura-ondarearen gune babestuaren azaleraren % 5,23.

48. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Eremu honen helburu orokorra da lurzoruen nekazaritza-ahalmena eta nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak mantentzea, baita aldi berean nekazaritza-paisaia eta kontserbaziorako balioa daukaten habitatak eta espezieak egon daitezkeen ekosistemak babestea ere.
2. Hauek dira eremurako planteatutako helburu eragileak:
 - 2.1. Nekazaritza-aprobetxamendua bateragarri egitea Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitaten kontserbazio-egoera onarekin.
 - 2.2. Nekazaritza-erabilera intentsiboa antolatzea, Natura-ondarearen gunek babestuaren osotasun ekologikoa arriskuan jarri gabe.
 - 2.3. Larreen eta belardien abeltzaintza-erabilera antolatzea, Natura-ondarearen gunek babestuaren osotasun ekologikoa arriskuan jarri gabe.

49. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

1. Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak baimentzen dira, natura baliabideen antolamendurako plan honetan habitatak, basa-florako eta basa-faunako espezieak kontserbatzeko ezarritako helburu eta irizpideekin bateragarriak diren praktikak baliatzen badira.

50. artikulua.– Nekazaritza-erabilerak eta abeltzaintza-erabilerak.

1. Nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerei lotutako mendiko eremuen bereizgarria den paisaianiztasunari eutsiko zaio: heskaiak, harrizko hormak, belardiak edo bestelakoak.
2. Oinplano berriko eraikuntzak, abeltzaintzako ustiapenei lotutako eraikinen handitzeak edo eraberritzeak baimentzen dira, baina hirigintza-araudia bete beharko dute, eta kudeaketa organoaren baimena eduki. Era berean, baldintza eta arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak bete beharko dituzte, hain zuzen, abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren I. eranskinean jasotakoak, baita NBAP honetan ezarritakoak ere, murriztailegoak direnean.
3. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenek erabiltzen dituzten jardunbideak bateragarriak izango dira Natura-ondarearen gunek babestu honetako natura-ondarearen elementuen kontserbazio-helburuekin eta kontserbazio-irizpideekin. Baldintza hauek ezartzen dira nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera duten lursailentarako:
 - 3.1. Urteroko laboreetarako (zerealetarako, koltzarako...), lurzorua babesteko neurriak hartuko dira % 3 baino gehiagoko maldetan.
 - 3.2. Malda % 3 eta % 5 bitartekoa bada, maila-lerroen arabera goldatu beharko da.
 - 3.3. Malda % 5 eta % 12 bitartekoa bada, husteko eta iragazteko terrazak egingo dira, higadura kontrolatzeko asmoz.
 - 3.4. Nolanahi ere, urteroko laboreetarako, baimendutako gehieneko malda % 12 izango da.
 - 3.5. Urte anitzeko edo noizbehinkako nekazaritza-laboreetan (ereiteko eta lurzorua goldatzeko 3 urtetik 6 urtera arteko zikloak dituzten bazka-espezieen laboreetan eta beste batzuetan), onartutako gehieneko malda % 18 izango da.

- 3.6. Ustiatzen ari diren laboreek modu berean ustiatzen jarraituko dute, eta, laborea aldatzeko edozein proiektu eginez gero, kudeaketa organoak horri buruzko txostena eman beharko du.
- 3.7. Lurzatiak banatzeko heskaiak eta arboladiak kontserbatu egingo dira.

7. atala.– Ibai-sistema.

51. artikulua.– Definizioa.

Natura-ondarearen gune babestua zeharkatzen duen ibai-sarea (beren interes bereziagatik beste babes-kategoria batzuetan sartu diren tartek izan ezik) eta bi ertzetako babes-bandak hartzen ditu barne; azken horiek hedadura aldakorra dute, ibilguaren neurriaren arabera. Sistema lehen mailako igarobide ekologikoa da espezieak igarotzeko, barreiatzeko eta migratzeko eta populazioen arteko truke genetikoa egiteko.

52. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

1. Natura-ondarearen gune babestuan, ibai sistema Purón ibaiak eta haren ibaiadarrek ordezkatzeko dute bereziki, Molinos erreka barne. Espazio horren barruan garrantzi gutxiago duten beste ibai-ibilgu batzuk Sobróngo sektorean daude eta iparraldetik hegoaldera doazen amildegien multzo interesgarriak dira (La Torca, El Molino eta El Valle); oso malkarrak dira eta 800 metro baino gehiagoko desnibela dute Ebroren eta mendilerroaren kotarik altuenen artean. Aldizkako ibilgu horiekin lotutako landarediak bat egin ohi du aldameneko serie potentzial klimazikoarekin, eta gutxitan bereiz daiteke ur-bazterreko berezko landaredia.
2. EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Plana aplikatzeko ondorioetarako, gune babestuaren eremu guztia lehentasunezko interes naturalistikoko zonatzat joko da, eta ibai-sistema gisa zedarritzatutako eremua, era berean, lurraldearen arloko plan horren D.2 idatz-zatian definitutako ibilguaren babesgunea da.
3. Ibai-sistema Natura-ondarearen gune babestutik igarotzen diren sare hidrografikoko ibilguen bi aldeetako babes-banda batzuen bidez ezartzen da; zabalera aldakorrekoak dira (ibilgu publikoko mugaketa-lerrotik zenbatu behar da): 30 metro $10 < A \leq 100$ km²-ko adar-arroa duten ibai-tarteetarako, 15 metro $1 < A \leq 10$ km²-ko adar-arroa duten erreketarako eta 5 metro < 1 km²-ko adar-arroa duten ur-ibilguetarako edo jariatzeetarako. Halaber, Sobrón urtegia hartzen du barne gune babestuan dagoen zatian; 35,14 ha dira guztira, hots, Natura-ondarearen gune babestuaren % 0,52.
4. Ibai-sistema definitzeko parametro horiek eta zonakatzeko-kartografia bat ez badatoz, artikulua honetako deskribapena gailenduko da.
5. Purón ibaiko ibarbasoa, nagusiki, flora-multzo zabal batek osatzen du. Batasuneko intereseko 91E0* habitatari, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior* espezieetako baso alubialei (*Alno-Padion*, *Alnion incanae*, *Salicion albae*) dagokie; Batasuneko intereseko habitat hori Habitat Zuzentarauaren (92/43/EEE) I. eranskinean sartuta dago eta, gainera, lehentasunezko zatitza da.
6. Hauek dira habitat horiei lotutako Batasuneko edo eskualdeko intereseko espezieen taldeak:
 - 6.1. Lotutako intereseko fauna:
 - a. Ugaztunak: igaraba eurasiarra (*Lutra lutra*), bisoi europarra (*Mustela lutreola*) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*).
 - b. Hegaztiak: martin arrantzalea (*Alcedo atthis*).

- c. Arrainak: Haasi barboa (*Barbus haasi*).
- d. Ornogabeak: ibai-karramarro autoktonoa (*Austropotamobius italicus*).

6.2. Lotutako intereseko flora: *Osmunda regalis*.

53. artikulua.– Helburu orokor eta eragileak.

1. Helburu orokorra da ibai-sistemaren funtzionaltasun osoa mantentzea, kontserbatzea eta berreskuratzea, intereseko zenbait habitat eta espezie ugari garatzen diren eremu gisa eta dibertsitatea eta prozesu ekologikoak mantentzen laguntzen duen igarobide ekologiko gisa.
2. Helburu eragile hauek proposatzen dira:
 - 2.1. Dinamika hidromorfologikoa mantentzea, Natura-ondarearen gune babestuko ibai eta erreketako uren egoera ekologiko ona eta erregimen naturaletik ahalik eta hurbilen dagoen emari ekologikoen erregimena bermatzen laguntzeko, sistema horri lotutako intereseko habitaten eta espezieen populazioen kontserbazio-egoera onerako ezinbesteko betekizuna delako.
 - 2.2. Urari lotutako habitatak, fauna-populazioak eta flora-populazioak aktiboki kontserbatzea eta haien heldutasunaren eta egiturazko konplexutasunaren alde egitea.
 - 2.3. Ur-bazterreko ibai-habitaten kalitatea eta kontserbazio-egoera hobetzea, dibertsitate ekologikoa bermatzen duen igarobide ekologiko etengabea, sistema horren funtzio bioklimatikoa eta ibai-paisaiaren mantentzea berreskuratzeko asmoz.
 - 2.4. Ibai-sistemari lotutako fauna mehatxatuko populazioak kontserbatzea eta haien jarraipena egitea (ugaritasuna, banaketa eta kontserbazio-egoera), espezie hauetan arreta berezia jarritz: igaraba eurasiarra, bisoi europarra, ipurtatsa eta ibai-karramarro autoktonoa.
 - 2.5. Ibai-lurraldean garatzen diren jarduerak kontrolatzea, habitat eta espezieen kontserbazio-egoeran nahasmenduak saihesteko.

54. artikulua.– Sustatutako erabilerak.

1. Eremu hauetan dauden habitatak, espezieak eta haien bitxitasunak kontserbatzeko xedearekin, haien erabilera nagusia aipaturiko habitat eta espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko jarduketei eta haien aukera didaktikoen aprobetxamenduari dagokie.
2. Kudeaketa organoak gunean kontserbatu beharreko elementuak hobetzeko, kontserbatzeko eta berreskuratzeko sustatzen dituen jarduketak baimentzen dira, habitaten eta haiei lotutako espezieen kontserbazio-egoera hobetzeko eta haien osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketen mehatxuak geldiarazteko xede bakarrarekin.
3. Kudeaketa organoak ibai-dinamika eta ibai-morfologia kontserbatzeko eta berreskuratzeko helburua duten jarduketak bultzatuko ditu, baita habitat urtarrei lotutako landare-formazio naturalak, flora-populazioak eta fauna-populazioak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak ere. Ildo horretan, ibarbasaok mantentzea eta berreskuratzea sustatuko eta lehenetsiko da, bai luzetara bai zeharka. Horretarako, ur-bazterreko landaredirik ez dagoen edo espezie aloktonoek hori ordezkatu duten ibai-ertzak basoberrituko dira, ibai-ibilguaren luzera osoan landaredi naturalezko banda jarraitu bat ezartzeko helburuarekin.

Ibarbasoa birsortu edo leheneratu behar den tartean, ibai-ertzetako edo inguruneke landaredi naturaleko berezkoak diren zuhaitz-espezieen, zuhaixka-espezieen, aldaxken eta hazien tokiko bariatateak erabiliko dira (haltzak, lizarrak, sahastiak, etab.). Ingurumena

birsortzeko edo leheneratzeko neurriak halako moduan planifikatu beharko dira non nagusiki geldialdi begetatiboan eta obrak amaitu eta ahalik eta denbora-tarte laburrenean egingo diren. Gainera, landare-espezie inbaditzaileak barreiatzea eta ugaritzea saihesteko behar diren neurriak hartuko dira.

55. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

Administrazio hidraulikoak uren arloan dauzkan eskumenak alde batera utzita, ibai-sisteman erabilera-arauketa hau aplikatuko da:

1. Aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planean adierazitakoarekin bat etorriz, ibai-sistema gisa zedarriztatutako eremuan debekatuta dago lursail naturala aldatzeko edozein esku-hartze (eraikinak, edozein motatako instalazioak edo eraikuntzak, bai finkoak bai desmuntagarriak, lur-berdinketak, lur-mugimenduak, etab.) egitea, onura publikoko eta interes sozialeko azpiegituren instalazioei eta obra publikoari lotutakoak nahiz kultura-ondarea babesteko behar bezala justifikatutako ekintzei lotutakoak izan ezik.
2. Oro har debekatuta daude urak beren ibilgutik normaltasunez zirkulatzea oztopatzea, zirkulazio hori aldatzea edo ibilguaren morfologia aldatzea dakarten jarduketak, azpiegiturak eta instalazioak, biodibertsitatea hobetzeko eta kontserbatzeko xedea dutenak izan ezik eta interes publikoarekin zerikusia duten arrazoiengatik salbuespenez baimendu behar direnak izan ezik, populazioen hornikuntza eta saneamendurako, erregimen hidrológicoa kontrolatzeko zein pertsonak babesteko izan. Jarduketa horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planeko kontserbazio-helburuekin bateragarriak izan beharko dute eta, hala badagokio, behar bezala ebaluatu beharko dira. Gainera, kudeaketa organoaren aldeko txostena eduki beharko dute, dagokionean arrotzak baimendu aurretik.
3. Ibai-sistemako berezko zuhaitz- eta zuhaixka-masak, bai eta zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak mantenduko dira, basogintza-jarduerak espezie aloktonoen mozketak kontrolatuetara edo espezie autoktonoen landaketetara mugatuz, baita osasuna zaintzeko edo leheneratzeko mozketak kontrolatuetara ere leheneratze naturalik gabeko unaden kasuan. Gainera, masa eta unada naturalen naturaltasun, heldutasun eta egiturazko konplexutasun bikainak lortzea xede duten basogintza-jarduketak egin ahalko dira, kudeaketa organoak baimentzen baditu. Debekatuta daude xede komertzialak dituzten basogintza-aprobetxamenduak.
4. Ibai-sistemarekin mugakideak diren baso-aprobetxamenduetan, 13. artikuluko 10. idatzatian ezarritako baldintzak beteko dira.
5. Ibaiertzetan edo eremu hezeetan, landarediaren belar-sastrakak kentzeko, landare-hondarrak, zuhaitz eroriak eta abar kentzeko edo ibai-ibilgutik zur-hondarrak kentzeko, sektoreko administrazio eskudunaren berariazko baimena beharko da, baita kudeaketa organoaren aldeko txostena ere; organo horrek irizpide hauek erabiliko ditu kontserbatu beharreko elementuen gaineko ondorea baloratzeko:
 - Ibarbasoaren egoera ekologikoaren gaineko efektua.
 - Ibilguaren ahalmen hidraulikoa galzorian jartzeko arriskua, zubiak edo buxa daitezkeen bestelako elementuak egoteagatik, hondarren metaketetatik uraz beheiti.
 - Uraldietan ibilguak husteko funtzioa.
 - Uholdeek edo ezponda-indusketek eragin liezaioketen jabetzarik (eraikinik, etxebizitzarik) edo azpiegiturarik (errepiderik) badagoen.
 - Espezie mehatxatuen gaineko ukipena, jarduketak egiteko aldiak.

6. Gune babestuaren eremuan baimen daitezkeen lurpeko instalazio eta azpiegitura linealek (hondakin-uren arazketarako instalazioek, kolektoreek, ur-eroanbideek, gasbideek, telekomunikazio-sareek, sare elektrikoek eta abarrek) ibilguko ezpondaren gailurretik 15 m-ra egon beharko dute, dagoeneko badagoen bide baten azpitik igaro ezean.
7. Administrazio hidrauliko eskudunak ezartzen dituen baldintzak betetzeaz gain, ibilguak gurutzatzea dakarten azpiegituren proiektuetan (gasa, petrolio eta produktu deribatuak garraiatzeko edo banatzeko lineetan, ur-, saneamendu- edo telekomunikazio-instalazioetan) gurutzatzeko irtenbideek ibilgua eta haren ur-bazterrak aldatzea saihestuko dute. Horretarako, ahal bada, badauden igarotze-azpiegiturak (zubiak, bideak...) erabiliko dituzte eta, aukera hori ez badago, eskuragarri dagoen teknika onenari helduko zaio, hots, eraginkorrenari eta aurreratuenari, kontserbatu beharreko lekuko elementuen gaineko inpaktua txikiagotzeko asmoz, ekonomiaren eta teknikaren ikuspuntutik bideragarria den moduan, kostuak eta onurak kontuan hartuta eta kasuan kasuko inguruabarren arabera. Proiektu horiek onesteko, ezinbestekoa izango da tokiaren osotasunari kalterik egingo ez diotela egiaztatzea, hala badagokio egoki den ingurumen-ebaluzioko prozedura egin ondoren.
8. Ur-baliabideen aprobetxamendurako emakidetan ezartzen diren baldintzak betetzeaz gain, kudeaketa organoak zainduko du ur-inguruneari lotutako espezieen mugikortasuna eta haien ziklo biologikoaren garapena zailtzen dituzten azpiegiturak dauzkaten ur-baliabideen aprobetxamendurako emakiden titularrek behar diren jarduketak burutu ditzaten faunaren zirkulazioa, bai goranzkoa bai beheranzkoa, ahalbidetzeko, ibai-konektagarritasuna hobetzeko eta finkatutako emari ekologikoen erregimena kontrolatzeko.

Era berean, iragazkortzeko neurriak ezarriko dira, osagai artifizial jakin batzuek (hala nola drainadurek, kanadar pasabideek...) basa-faunarentzako eta etxe-faunarentzako heriotzarako puntu beltzik sor ez dezaten.
9. Jabari publiko hidraulikoan egiten diren landaketek arro-erakundearen nahitaezko baimena behar dute, eta horren esparruan bilduko da kudeaketa organoaren aldeko txostena.
10. Debekatuta daude egur-eskariak eta biomasa-aprobetxamenduak, toki-hornidurarako bada ere.
11. Debekatuta dago zur hila erauztea, kudeaketa organoak berariaz baimendu ezean; horrelakoetan, zuhaitz eroriak edo landare-hondarrak dauden kasuetara mugatuko da, ibilguaren ahalmen hidraulikoa galzorian jartzeko arriskua badakarte, zubiak edo buxa daitezkeen bestelako elementuak egoteagatik, hondarren metaketetatik uraz beheiti.
12. Debekatuta dago simaurrak edo produktu fitosanitarioak erabiltzea 10 m-ko banda batean, ibai-ibilguen ertzen bi aldeetan, salbuespenezko eta kudeaketa organoak baimendutako arrazoi justifikatuak egon ezean. Edonola ere, organo horrek ziurtatu beharko du ez zaiola eragiten babestu beharreko elementuaren osotasunari.
13. Oro har, larratzea debekatuta dago ibarbasoa eta ur-bazterreko landaredia garatzen diren eremuetan. Azienda organo-kudeatzaileak berariaz adierazitako lekuetan bakarrik egongo da, eta erabilera hori debekatuta egongo da natura-ondarearen elementuen edo lotutako prozesu ekologikoen (Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu behar direnen) kontserbazio-egoera arriskuan jar daitezkeen eremuetan.
14. Jabari Hidraulikoari buruzko Erregelamenduaren arabera, lehentasunezko fluxu-eremuan egiten diren itxitura eta hesi berri guztiek iragazkorrak izan behar dute, hau da, urek askatasunez zirkulatzea ahalbidetu, pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko asmoz.

15. Natura-ondarearen gune babestuko ibaien eta erreken erabilera publikoaren ondoriozko kontserbazio-arazoak edo kutsadura atzematen badira, kudeaketa organoak neurriak hartuko ditu eremu edo tarte jakin batzuetan jende-oldea mugatzeko.
16. Debekatuta dago eremu hauen barnean hartutako putzuetan bainatzea.

56. artikulua.– Basa-flora eta basa-faunaren babesa eta kontserbazioa.

1. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek berariazko neurriak garatuko dituzte karramarro autoktonoa babesteko eta Natura-ondarearen gune babestuko erreketan egotea sustatzeko.
2. EKZPak eta kudeatzeko jarraibideek eta neurriek jarduketak xedatuko dituzte ibai-sistemari lotutako espezieen eta, bereziki, karramarro autoktonoaren kontserbazio-helburuak arriskuan jar ditzaketen espezie inbaditzaile aloktonoak kontrolatzeko. Horretarako, karramarro gorria eta karramarro seinaladuna kontrolatzeko programak garatuko dituzte.
3. EKZPak eta kudeatzeko jarraibideek eta neurriek jarduketak xedatuko dituzte arrain-komunitatea osatzen duten arrain autoktonoen espezieen habitataren, banaketaren, ugartasunaren eta kontserbazio-egoeraren ezagutza hobetzeko.
4. EKZPak eta kudeatzeko jarraibideek eta neurriek neurriak xedatuko dituzte Natura-ondarearen gune babestuko ibaietan dauden migrazioarako oztopoak iragazkor bihurtzeko. Indarreko emakida-errealitatea kontuan hartuko da.

8. atala.– Hiri, ekipamendu eta azpiegituretarako eremuak.

57. artikulua.– Definizioa.

Eraikinak, ekipamenduak, harrera-eremuak eta azpiegitura eta eraikuntza artifizialak egoteagatik zortasun bereziak dituzten guneak hartzen dira barne eremu honetan. Ezaugarri hauetakoren batek definitzen ditu eremuak:

1. Errepideak, urtegiari lotutako azpiegiturak eta, oro har, Natura-ondarearen gune babestuaren barruan dagoen eta legeria partikularrak araututako zortasunak dituen edozein azpiegitura edo instalazio.
2. Erabilera publikoko ekipamenduak dituzten guneak, jolas-erabilerarekin, ingurumen-interpretazioarekin eta ingurumen-hezkuntzarekin zerikusia duten jarduerak hartzeko edo arautzeko direnak. Gune horiek 'erabilera publiko intentsiboko gune' gisa sartuko dira Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Erabilera Publikoko Planean.
3. Udalerrri bakoitzeko hirigintza-planeamenduan hiri-lurzorutzat, lurzoru urbanizagarritzat, komunitate-ekipamendutzat edo hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren babes-ekipamendutzat jotzen diren eremuak.

58. artikulua.– Deskribapena eta kokapena.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroan, Lahoz, Lalastra eta Sobróngo hiriguneetako hiri-lurzorua edo urbanizagarria den lurzorua sartzan da eremu honetan; 27,83 ha hartzen ditu (Natura-ondarearen gune babestuaren azaleraren % 0,41).
2. Natura-ondarearen gune babestuko zonakatzean kartografiatu ez diren arren arestian aipatutako ezaugarriekin bat datozen bestelako eremu eta elementu linealak edo puntualak

ere joko dira hiri-eremutat eta ekipamendu eta azpiegituretarako eremutat; beraz, mota horretako eremuei dagokien arauketa aplikatuko zaie. Honako hauek dira:

- a. Eskualdeko eta tokiko errepideen sarea eta dagokien zortasun-eremua.
- b. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko pistak eta zidor eta ibilbideen sarea.
- c. Barreiatutako eraikinak eta beste azpiegitura eta eraikuntza artifizial batzuk.

59. artikulua.– Helburu orokorrak.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko natura-ondarea eta kultura-ondarea babestea, badauden eta hala behar duten azpiegitura eta eraikinen paisaia-inpaktua txikiagotzeko behar diren leheneratze-neurriak hartuz.
2. Eraikuntza eta azpiegitura berriak ingurunean eta paisaian integratzea; Natura-ondarearen gune babestuko kontserbazio-irizpideekin bateragarriak izan beharko dute.
3. Naturaz gozatzea naturagunearen kontserbazioaren ondoriozko beharrekin bateragarri egitea.
4. Herria ingurune natural eta kulturalera hurbiltzea ahalbidetzen duen jolas-erabilera estentsiboaren alde egitea, jendeak horri buruz duen ezagutza areagotzea eta kontserbatu behar diren inguruko sentsibilizazio handiagoa lortzea.
5. NOGBko periferian jolas-erabilera intentsiboaren ordezkotako aukerak garatzeari lehentasuna ematea.

60. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

1. Oro har, azpiegitura bakoitzerako aplikagarria den sektoreko legeriari dagokion araudia aplikatu beharko da eremu hauetan.
2. Ibilgailu motordunen zirkulazioa bide hauetan bakarrik egongo da baimenduta: bide nagusian (A-4338, San Millánetik Lalastrara) eta Sobróngo sektoreko A-2122 errepidean (BU-530) eta A-4324 errepidean (Sobrón Goira).

9. atala.– Babes-eremu periferikoa.

Natura-ondarearen gune babestuko babes-eremu periferikoa natura baliabideen antolamendurako plana onesteko dekretuaren I. eranskineko mapan, babes-eremu periferikoa deritzonean, agertzen dena da. GeoEuskadi Euskadiko Datu Espazialen Azpiegiturearen Atariko bisorean kontsultatu edo horko artxibo digitaletik deskarga daiteke.

61. artikulua.– Helburua.

ENOBLaren 44. artikulua ezartzen duen moduan, eremu honen helburua da kanpoaldeko inpaktu ekologikoak eta paisaia-inpaktuak saihestea.

62. artikulua.– Erabilera-araubide orokorra.

1. Babes-eremu periferikoan, Habitat Zuzentarauaren 6.2 eta 6.3 artikuluetan eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 46.3 eta 46.4 artikuluetan ezarritako araubidea bete beharko da.
2. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa Natura-ondarearen gune babestua izatea eragiten duten helburuak eta NBAPean ezarritakoak erdiestea galarazi edo zaildu dezakeen edozein jarduketa egiteko eremu honetan, kudeaketa organoaren baimena eduki beharko da.

3. Kudeaketa organoak, babes-eremu periferikoan, indarrean dagoen legeriaren arabera, Natura-ondarearen gune babestuaren errealitate fisiko edo biologikoa nabariki ukitu edo honda dezakeen edozein jarduera mugatu edo geldiarazi ahalko du.

POLITIKA SEKTORIALAK BIDERATZEKO ERREFERENTZIAKO IRIZPIDEAK

63. artikulua.– Basogintza-sektorea.

Basoen plangintza eta kudeaketa

- 1.1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko mendien baso-kudeaketa jasangarria sustatuko da, beren biodibertsitatea, produktibitatea, berritzeko ahalmena, bizitasuna eta bai orain bai etorkizunean beren funtzio ekologiko, ekonomiko eta sozialak betetzeko gaitasuna manten dezaten, beste ekosistema batzuei kalterik egin gabe.
- 1.2. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuko baso-kudeaketa, eta batez ere mendi publikoena, baso naturalen, erdinaturalen eta ur-bazterreko landarediaren kontserbazio-egoera hobetzera eta haien okupaturiko azalera handitzera bideratuko da, baita haien egitura, osaera eta funtzioak hobetzera ere. Kudeaketa horrek hobekien kontserbatuta dauden enklabeak oraingo egoeran mantentzen direla bermatuko du eta flora eta fauna mehatxatuetako basa-espezieen kontserbazioa, populazio-eboluzioa eta bideragarritasuna ziurtatuko ditu. Era berean, gune babestuko zuhaitz-masen egoera begetatibo eta fitosanitario egokia zainduko da.
- 1.3. Mendi publikoen antolamendurako planak eta proiektuak edo haien berrikuspenak prestatzeko, "Proyectos de ordenación de montes. Herramientas para la conservación en los espacios protegidos" (Europarc, 2013) eskuliburuan ezarritako irizpideak beteko dira. Gainera, plan eta proiektu horiek biodibertsitatea kontserbatzeko eta hobetzeko eskakizun berriekin bat etorriko dira, basoko biodibertsitatea babesteko, basoen naturaltasuna eta osotasun ekologikoa hobetzeko eta ingurumen-zerbitzuak bermatzeko helburuak, adierazle neurgarriak eta berariazko neurriak barne, horiek baitira plan edo proiektuaren lehentasunezko helburuak antolamendu-arlo publiko osoan. Nolanahi ere, planok NBAP honetan jasotako zehaztapenak aintzat hartuko dituzte.
- 1.4. Oro har, espezie autoktonoetako basoberak (pagadi, erkamezti, amezti eta artadien masak) egitura irregularreko baso garai bihurtzeko xedea duten neurriak hartuko dira. Zuhaitz lepatuen basoei dagokienez, haien beharretara egokitutako berariazko kontserbazio-neurriak eta kudeaketa-neurriak hartuko dira.

Zuhaizti horien kudeaketaren helburua izango da ahalik eta egiturazko eta berariazko dibertsitaterik handiena erdiestea, hazien bidezko berritze naturalaren alde eginez (baso garaian), ohiz kanpoko tamainako zuhaitzak kentzea saihestuz eta zutik eta lurrean dagoen zur hilaren dentsitatea handituz. Egokiagotzat jotzen diren lekuetan, erreserbatze-teknikako jarduketak sustatuko dira, hazien bidezko berritzearen alde eginez eta fuste handieneko zuhaitzak gordetzen saiatuz, sakabanatzaile izan daitezen.

Bestalde, zuhaixka-espezie eta zuhaitz-espezie lagunen (astigarren, hurritzen...) kontserbazioa zainduko da; hori sustatu egin behar da eta balioa eman behar zaio, batez ere abifaunak jateko fruituak ematen dituzten espezieei dagokienez.

- 1.5. Itsas pinuen unaden pixkanakako naturalizazioa sustatuko da (9150 habitata, pinu mesogear endemikoz osatutako pinudi mediterraneoak), haren banaketa potentzialeko eremuan, habitat horren azalera handitzeko helburuarekin. Populazio naturalen nortasun genetikoa babesteko asmoz, habitat horietan bildutako haziez hedatzea

sustatuko da, bai badauden eremuen aldamenekoetan, bai estazio-ezaugarri baliokideak dituzten beste eremu batzuetan.

- 1.6. Batasuneko intereseko habitatak diren baso naturalen hedapena sustatuko da, basapinu espezieko koniferoen unadak pixkanaka ordezkatzuz. Horretarako, borondatezko akordioak egingo dira baso-lurzatien jabe diren entitateekin, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko guneko berezkoak diren BIHetako baso-espezie autoktonoen landaketa sustatzeko.
- 1.7. Mendi publikoak eta pribatuak antolatzeko planek eta proiektuek mozteko txandak eta lanak egokituko dituzte Natura-ondarearen gunee babestuko eremu bakoitzean ezarritako kontserbazio-helburuetara.
- 1.8. Baso-kudeaketak ziurtatu beharko du ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren enklabeak (eremu hezeak, flora eta fauna mehatxatuetako espezieentzako intereseko enklabeak, etab.) babestuta daudela. Halaber, 7220* habitatetik hurbil dagoen ingurunearen ingurumen-ezaugarrien mantentzea ziurtatuko du, nagusiki lotutako landarediari dagokionez.
- 1.9. Kiropteroek ehizatze eremuetarako onuragarriak diren baso-soilguneak sustatuko dira.
- 1.10. Basoko kiropteroen habitata eratzen duten baso autoktonoen hedapena indartuko da eta dauden masak babestuko dira, helduak diren edo kota baxuenetan dauden gunetan arreta berezia jarriz. Gainera, debekatuta egongo da ale urtetsuak moztea, egur-eskarietarako bada ere, eta baso horietan zehar pista berriak sortzea. Era berean, bertan dauden abelburuen kopurua erregulatuko da.
- 1.11. Baso-masen zatikatzeko prozesuak saihesteko neurriak hartuko dira eta kanpoko zein barruko konektagarritasuna sustatuko da, beste habitat batzuetan bermatuta, adibidez, ibaietako ur-bazterreko landaredian, baso-espezie autoktonoen arboladietan, finken mugetako eta landa-bideen ertzetako heskai naturalatan, etab.
- 1.12. Haltzadiak kudeatzeko, ibai-ekosistema guztia ikuspuntu funtzionaletik hartuko da aintzat, komunitate guztien (belazeen, sahasien, komunitate urtarren eta abarren) arteko dinamika naturala ziurtatuz eta batzuei edo besteei lehentasuna emanez, kasuan kasuko tartearen egoeraren arabera (arriskuak, zatikatzea, ibilguaren zabalera, propietateak eta abar kontuan hartuta).
- 1.13. Baso-lursail partikularrei dagokienez, etorkizuneko antolamenduak jabearen, dagokien foru-aldundiko mendi-zerbitzuaren eta Natura-ondarearen gunee babestuko kudeaketa organoaren artean adostuko dira, irizpide hauei jarraikiz:
 - a. Basoberritze orotan espezieen nahasketa lehenetsiko da. Seneszentzia-unadak edo mikroerreserbak sartzeko bultzatuko da koniferoen baso-masetan, masa linealatan edo hostozabal autoktonoen arboladietan, dibertsitate ekologikoa eta paisaia-dibertsitatea areagotzeko, basa-faunarentzako aterpeak edukitzeko eta suteen aurkako langa naturalak izateko asmoz.
 - b. Ahal denean, izurrien eta baso-gaixotasunen aurka borrokatzeko eta horiek kontrolatzeko metodo biologikoak edo integratuak erabiliko dira.
 - c. Baso-soilketak saihestuko dira.
 - d. Ahal den neurrian, baso-masen muga gisa lerro zuzenak ezartzea saihestuko da, bai espezie desberdinak erabiltzean bai mozketak eta suebakiak egitean.
 - e. Faunarentzako aterpeak eratuko dira aprobeitxamendu-lanetan sortzen diren zur eta adarren kantitate txiki bat metatuz eta eraikiz. Gomendio hori komenigarria da masetan egiturazko konplexutasun urria daukaten eta azken buruan Natura-

ondarearen gune babestuan dauden ugaztunei eta anfibioei bakarrik aterpeak eskaintzen dizkieten formazioetan.

- 1.14. Baso-suteen prebentzioa eta horiek itzaltzeko lanen eragingarritasuna hobetzeko, dagoen bide-sareko ertzak edo dauden beste azpiegitura lineal batzuk erabiliko dira suebaki-eremuak ezartzeko, ahal denean.
- 1.15. Zuhaitz lepatuak kontserbatzeko eta kudeatzeko neurri bereziak hartuko dira, haien balio ekologikoa, didaktikoa, etnografikoa eta are zientifikoa dela eta.

Baso-aprobetxamenduak eta baso-lanak

- 2.1. Baliabide edafikoen eta ur baliabideen kontserbazioa bermatzeko helburuarekin, sasi garbitze estentsiboak eta lur mugimenduak mugatuko dira, eskuzko landaketa sustatuko da, landaketa mekanizatuaren ordeztuz, eta mailarako mozketa-metodoak bultzatuko dira, adibidez, mehaketak, arboladien bidezko berritzea edo elkarren ondoko bakanketak, baso-soilketaren ordeztuz.

Egur-eskarien markaketa halako moduan egingo da non unadaren kontserbazio-egoera hobetzen lagunduko baitu, baso-plangintzan kudeaketa organoak egokitzat jotzen dituen irizpide teknikoak eta ingurumen-irizpideak (lurrean zein zutik dagoen zur hila, zuhaitz lepatuak eta zaharrak, etab.) aplikatuz.

- 2.2. Lehendik dauden zur hilaren hondarrak errespetatuko dira eta, ahal den heinean, haien bolumena handituko da. Lurrean eta zutik dagoen zur hilaren kantitatea ebaluatuko da, abiapuntuko balio bat lortzeko, eta espezie autoktonoen basoetan egotea sustatuko da, kudeaketa organoak espeziearen eta masa-motaren arabera zehazten dituen balioetara heltzeko asmoz.

Natura-ondarearen gune babestuari buruzko azterketa zehatzagoak eta berariazkoagoak eduki arte, helburu-balio hauek hartuko dira kontuan, erreferentzia gisa:

- Pagadietan (EB 9120 KOD) 30 m³/ha zur hil baino gehiago gomendatzen da; horietatik gutxienez 12 m³/ha 30 cm baino gehiagoko diametroko zatietan egongo dira, eta gutxienez 4 m³/ha zutik dagoen zur hil egongo da.
- Ameztietan (EB 9230 KOD), batez beste, 20 m³/ha zur hil masa helduetan eta 10 m³/ha masa gazteetan; horietatik, bolumen totalaren % 50 baino gehiago zur lodia (>=30 cm) izango da.
- Baso heldu maneiaturtan, zur hil totalaren % 20 gutxienez zutik dagoen zur hila izango da.

- 2.3. Lurperatuta edo erdilurperatuta dagoen zura eta inguruko lurra mugitzea saihestuko da ezinbestekoa ez bada, *Lucanus cervus* espezieko larbak babesteko. Era berean, enborrak aldi baterako metatzea edo gutxienez denboraldi bat ipurditik ebakita egon den zur lehorra kentzea saihestuko da, intsektu saproxilikoaren errunaldi posibleak babesteko.
- 2.4. Zura erauzteko, baso-pisten eraikuntza eta makina astunen erabilera txikiagotzen dituzten aukerako metodoak sustatuko dira, lurzorua nahasmendua ahalik eta gehien saihesteko eta Batasuneko intereseko habitatak edo espezieak dauden guneen sargarritasuna eta zatikatzea mugatzeko helburuarekin.

- 2.5. Neurriak hartuko dira ibai-sareari egiten zaizkion solido esekien eta produktu fitosanitarioen ekarpenak txikiagotzeko eta solido esekiez kargatutako jariatze-urak azaleko uretara heltzea saihesteko.

Ikerketaren eta basogintza-erabilera jasangarriaren sustapena

- 3.1. Basogintza-ziurtapen jasangarriko zigiluak, hala nola FSC edo PEFC, ezartzea bultzatuko da; horien bidez, ekoizpenaren balioa handituko da eta agiri honetan Natura-ondarearen gune babestuko babes-helburuak eta kontserbazio-helburuak erdiesteko asmoz proposatu diren neurriak beteko dira.
- 3.2. Baso naturaletako eta erdinaturaletako habitaten eta lotutako espezieen kontserbazio-egoera ona lortzea eta hobetzea ahalbidetzen duten baso-kudeaketarako jarraibideak ezartzeko xedea duten ikerketa-jarduerak bultzatuko dira.
- 3.3. Baso-, ingurumen- eta klima-zerbitzuekin eta basoen kontserbazioarekin zerikusia duten laguntzen ezarketa aktiboki bultzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren esparruan.
- 3.4. Euskal Autonomia Erkidegoko Baso Inbentarioa basoko habitaten kontserbazio-egoeraren jarraipena egiteko tresna izan daiteke. Laginketa-sailen biodibertsitateari eta banaketari buruzko datuak biltzeko metodologia diseinatzean, kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko Habitat Zuzentarauan ezarritako betekizunak aintzat hartuko dira.

64. artikulua.– Nekazaritza eta abeltzaintzako sektorea.

1. Gunearen abeltzaintza-erabilera txilardien, sastraka esklerofiloen eta larre menditarren multzoaren oraingo azaleraren eta mosaiko-antolaketaen kontserbazioa bermatzera bideratuko da, habitaten eta lotutako espezieen kontserbazio-egoera egokiarekin bateragarriak diren abeltzaintza-kudeaketarako jarraibideak ezarriz.
2. Erabilera baimendua den eremuetan, xede honetarako egokiak diren lurzoruen nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera sustatuko da, haien gaitasun biologikoaren eta produkzio-ahalmenaren mantentzea ziurtatzen duten praktikak aplikatuz eta inguruneko ekosistemak behar bezala errespetatuz.
3. Mendiko larreen kontserbazioarekin zerikusia duten nekazaritzaren eta ingurumenaren arloko laguntzen ezarketa aktiboki bultzatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren esparruan, edo etorkizunean programa horretan txerta daitezkeen beste praktika batzuekin zerikusia duten laguntzak sustatuko dira.
4. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko habitaten eta abeltzaintza-jardueraren kudeaketak helburu eta irizpide hauek edukiko ditu:
 - a. Abeltzaintza estentsibo antolatua lehenestea abeltzaintza intentsiboa edo kontrolik gabeko abeltzaintza estentsiboaren gainetik.
 - b. Alturako larreetan jarduera mantentzea, garatzen den Batasuneko intereseko habitatak errespetatuz eta larreen, txilardien eta ingurune horietan bildutako eremu hezeen mosaiko-egitura irregularra kontserbatuz.
 - c. Landaredi autoktonozko larreak eta heskaiak sustatzea, fauna-espezie guztientzat eskuragarri dauden nitxoak eta kalitate oneko habitatak handitzeko helburuarekin.

- d. Abeltzaintza-presioa ingurune naturalaren jasate-ahalmenera egokitzea, gainlarratze-egoerak edo azpilarratze-egoerak saihesteko.
 - e. Ingurumenaren ikuspuntutik sentikorrenak diren enklabeak (eremu hezeak, flora eta fauna mehatxatuetako espezieentzako intereseko enklabeak, etab.) babestea.
 - f. Natura-ondarearen gune babestuko natura-ondarearen elementuen gaineko inpaktuak saihesten dituzten abeltzaintza-azpiegitura egokiez hornitzea.
 - g. Abeltzaintzaren garapena, mantentzea eta bideragarritasun ekonomikoa laguntzea, abeltzaintzan modu profesionalean diharduten pertsonen partaidetza eta prestakuntza sustatuz.
 - h. Produktu deribatuen kalitatea bultzatzea eta haien komertzializazioa sustatzea.
5. Larreak sortzeko edo mantentzeko belar-sastrakak kenduz gero, irizpide hauek beteko dira:
- a. Ahal denean, % 30 baino gutxiagoko malda duten guneetan egingo da, udaberritik udazkenara arte, eta eguraldia lehorra denean.
 - b. % 30 baino gehiagoko maldetan, belar-sastrakak, batez ere eskuz kenduko dira, nahiz eta kudeaketa organoak makina txikiak eta inpaktu txikikoak erabiltzeko baimena eman ahal izango duen, sastrakak kendu beharreko azaleraren eta habitatetan aurreikus daitezkeen eraginaren arabera. Forma geometrikoak saihestea, lerroen jarraitutasunik ezaren alde eginez, lursailaren konfigurazioan bermatuz.
 - c. Sastrakak larreak hobetzeko asmoz kentzen direnean, jarduketa horren paisaia-inpaktua aintzat hartuko da eta sestra-kurbekiko perpendikularrak diren lerro zuzenak saihestuko dira.
 - d. Ez da belar-sastrakarik kenduko malda handiagatik edo lurzoru eskasengatik higadura-arriskuak atzematen diren eremuetan; aitzitik, horrelakoetan zuhaitz-estalkia leheneratuko da eta ordezkapen-etapa serioletara eboluzionatzea eta arboladiak eratzea sustatuko da.
 - e. Sasi-garbitzeak puntualki bakarrik baimenduko dira; lurzati txikiei eragingo diete, non abere-zamaren bidez berreskuratutako larreen geroagoko mantentzea bermatu ahal den.
 - f. Sasi-garbitzeetatik salbuetsita egongo dira habitat horietan espezie mehatxatuak dauden eremuak eta haien babes-perimetroak.
6. Agiri honetan Natura-ondarearen gune babestuaren eremu jakin batzuetan produktu fitosanitarioak erabiltzeari dagokionez ezarritakoa alde batera utzita, produktu horien erabilera oro har erregulatu eta mugatuko da, pixkanaka murrizteko eta Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitaten eta espezieen kontserbazioaren alde egiteko.
7. Eremu hezeen ingurunean, ongarri kimikoen eta produktu fitosanitarioen erabilerarik behar ez duten nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak sustatuko dira, adibidez, nekazaritza ekologikoari eta nekazaritza integratuari lotutakoak.
8. Erabiltzen ez diren itxiturak kentzea sustatuko da, baita daudenak egokitzea ere, basa-faunaren mugimenduetan eragin nabarmenak atzematen diren kasuetan. Era berean, lurzatien arteko itxitura gisa heskaiak landatzea sustatuko da.

9. Eremu hezeen ingurunean, ongarri kimikoen eta produktu fitosanitarioen erabilerarik behar ez duten nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak sustatuko dira, adibidez, nekazaritza ekologikoari eta nekazaritza integratuari lotutakoak.
10. Polinizatzaileen ikerketa eta kontserbazioa sustatuko da. Era berean, erlezaintza jasangarriaren garapena bultzatuko da, flora-espezieen polinizazioa eta gunean dauden Batasuneko intereseko habitaten iraupena bermatzeko, basoetan, txilardietan eta larreetan arreta berezia jarritz.
11. Larre menditarretako, txilardietako eta sastraketako habitaten kontserbazio-egoera ona lortzea eta hobetzea ahalbidetzen duten abeltzaintza-kudeaketarako jarraibideak ezartzeko xedea duten ikerketa-jarduerak bultzatuko dira.

65. artikulua.– Azpiegiturak.

Natura baliabideen antolamendurako plan honetan ezarritako debekuak alde batera utzita, irizpide orientagarri hauek kontuan hartuko dira Natura-ondarearen gune babestuko azpiegiturak eta ekipamendu handiak direla eta:

1. Gune babestuan pista eta baso-bide berriak eraikitzea saihestuko da eta, batez ere, Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitatei eragin diezaieketenak ahalik eta gehien murriztuko dira. Halaber, dagoen pista-sarea optimizatzeko ahalegina egingo da eta jada erabiltzen ez diren pistak kentzea sustatuko da.
2. Azpiegitura berriak (errepideak, trenbideak, energia ekoizteko eta garraiatzeko azpiegiturak, fluidoak garraiatzeko sareak, telekomunikazio-seinaleak, etab.) eta ekipamendu handiak eraikitzea saihestuko da. Horretarako, eremu horren mugetatik kanpo dauden ordezkoko kokapenak edo trazadura-irtenbideak aztertuko dira.
3. Egokiro ebaluatu ostean baimentzen diren lurpeko azpiegitura linealak (kolektoreak, ur-eroanbideak, gasbideak, telekomunikazio-sareak, sare elektrikoak, etab.), ahal bada, badauden azpiegitura eta zortasunetan bermatuko dira.
4. Eraikuntza eta azpiegitura berrien iragazkortasun ekologikoa eta paisaia-integrazioa bermatuko dira.
5. Badauden edo sortu berri diren pisten ertzetan marko zabal eta irregularrez babestutako arbola-landareen instalazioa sustatuko da, haien paisaia-inpaktua txikiagotzeko, konektagarritasunaren alde egiteko eta ingurunea dibertsifikatzeko xedearekin.
6. Beharrezkotzat jotzen diren komunikazio-bideen ingurunean kutsadura akustikoa murrizteko neurriak hartuko dira.
7. Erreferentzia moduan, pisten gehieneko dentsitate bat ezartzen da Natura-ondarearen gune babestuko eremu bakoitzerako:

Babes bereziko eremuak	Debekatuta
Basogintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	Gehieneko dentsitatea: 10 m/ha
Abeltzaintza-erabilera estentsiboa duten kontserbazio-eremuak	Gehieneko dentsitatea: 10 m/ha
Baso-ekoizpeneko eremuak	Gehieneko dentsitatea: 30 m/ha
Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpeneko eta landazabaleko eremuak	Gehieneko dentsitatea: 30 m/ha
Ibai-sistema	Debekatuta, gurutzeguneetan izan ezik
Hiri, ekipamendu eta azpiegiturarako eremuak	Ez dagokio

8. Badauden eta erabiltzen ez diren pistak leheneratzeari emango zaio lehentasuna, berriak eraiki beharrean.

66. artikulua.– Erabilera publikoaren plangintza eta kudeaketa.

1. Ingurune naturalaren erabilera eta gozamenak haren ingurumen-balioak eta balio kulturalak errespetatzen dituztela bermatuko da eta balio horien ezagutza sustatuko da, haien garrantzia agerian jarriz eta kultura-ondarea kontserbatzeko egiten duten ekarpena jakitera emanez.
2. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuko Erabilera Publikoko Plana onetsi arte, irizpide orientagarri hauek beteko dira:
 - a. Erabilera publikoko jarduerak eta ekipamenduak Natura-ondarearen gune babestuko eremu bakoitzaren gaitasunera eta kalteberatasunera egokituko dira, jardueren intentsitatea aintzat harturik.
 - b. Harrera-guneak eta atsedenlekuak behar diren azpiegituz hornituko dira seinaleei, altzariei eta zerbitzuei dagokienez.
3. Kanpaldi libre kontrolaturako eta kanpaleku antolatuetarako baimenak mugatu egingo dira harrera-ahalmen nahikoa duten guneetara, NOGBko kontserbazio-helburuekin bat etorritik. Horrelako jarduerak, jolas-erabilerarako instalazio finkoak, piknik-guneak, kanpinak eta erabilera publikoaren kudeaketarako eta funtziorako behar den ekipamendua Natura-ondarearen gune babestuarekin mugakideak diren guneetara eta eragin sozioekonomikoko eremuko hiriguneetara bideratuko dira oro har. Harrera-ahalmen nahikoa duten puntu zehatzetan metatuko dira, eta, horretarako, kudeaketa organoa udalekin eta administrazio-batzarrekin koordinatuko da.
4. Kudeaketa organoak analisi diagnostiko bat egingo du jakiteko Turismo Jasangarriko Europako Ziurtapenaren (CETS) lorpena gune babestu osora hedatzeko aukerarik badagoen, turismo jasangarriaren printzipioak aplikatzeko borondatezko konpromisoan oinarrituta, Natura-ondarearen gune babestuen kudeatzaileentzat eta enpresentzat, estrategiak partaidetzaren bidez zehazteko.
5. Erabilera publikoaren kudeaketa bat etorriko da kontserbazio-konpromisoekin, gizartearen itxaropenekin eta zenbait erakundek, hala nola UICNek (International Union for Conservation of Nature), EUROPARCek (Europako Parke Natural eta Nazionalen Europako Fundazioa), EWSek (European Wilderness Society), EUSKALITek (Bikaintasunerako Euskal Fundazioa) edo AENORek (Espainiako Normalizazio Erakundea), eremu horretarako proposaturiko estandarrekin.
6. EPPak Natura-ondarearen gune babestuaren erabilera publikoaren eta jende-oldearen jarraipena egiteko sistema bat ezarriko du, horren tamaina eta espazio- eta denbora-banaketa ezagutzeko helburuarekin, kontserbatu beharreko habitaten eta flora- eta fauna-espezieen prebalentziari dagokionez, jarduera horien kudeaketa etengabe egokitze oinarria baita.

67. artikulua.– Gobernamentua.

1. Natura-ondarearen gune babestuaren plangintza eta kudeaketa nahasitako administrazio publikoek eskurapenerako, errentamendurako, gozamenerako, zortasunerako edo antzeko beste figura batzuk eratzeko neurriak bultzatuko dituzte balio ekologiko altuko finketan, batez ere Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko elementu oso mehatxatuentzako puntu erabakigarriak direnean, horrelakoak hartzen dituztenean edo aukera-irizpideek gomendatzen dutenean.

2. Lurraldearen jabe eta erabiltzaile diren pertsonak eta entitateak Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko balio eta baliabide naturalen kontserbazioan eta erabilera egokian nahasten dituzten kudeaketa-formulak bultzatuko dira.
3. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuan eragina duten agenteen eta sektoreen (nekazaritza eta abeltzaintzakoen, basogintzakoen, ehizakoen, turistikoen eta abarren) prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, lurralde honetarako planteatutako kontserbazio helburuak erdiesteko eta kontserbazio-neurriak eraginkortasunez aplikatzea lortzeko xedearekin.
4. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko inguruneke herritarrak gunearen kudeaketan nahasiko dira, eskain ditzakeen zerbitzuei lotutako jardueretan integratzearen alde eginez.
5. Sektore pribatuak eta udal-eremuak kontserbazio-jarduketan finantzaketan edo kudeaketan parte hartzea errazten duten formulak bultzatuko dira.
6. Herritarrek boluntariotza-programen bidez laguntzea sustatuko da, baita lurraldea zaintzeko borondatezko akordioak egitea ere, jabeen, zaintza-entitateen eta beste agente publiko eta pribatu batzuen etengabeko lankidetzaz errazteko.
7. Babes bereziko eremuetan eta ibai-sisteman erakunde publikoek lursail partikularrak eskuratzeari emango zaio lehentasuna, ahalik eta gehien babesteko ikuspuntutik kudeatu ahal izateko.
8. Zenbait erabileraren arteko gatazka badago, ingurunean inpaktu txikiena duten jarduerak lehenetsiko dira, baita orokorragoak izateagatik erabiltzaile gehiagori onura ekartzen dietenak ere, baldintza beretan.
9. Kudeaketa organoak komunikazio-plan bat zehaztuko du; bertan, komunitate-laguntzen eta beste laguntza publiko batzuen onuradun izan daitezkeenentzako informazio-jarduketak eta sustapen-jarduketak xedatuko dira, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerrokorako ezarritako kontserbazio-helburuak lortzen laguntzen duten neurriak aplikatzeko.

68. artikulua.– Ingurumen-arloko hedapena eta Hezkuntza.

1. Administrazio publikoek garatzen dituzten ingurumen-hezkuntzako programek Natura-ondarearen gune babestuaren ezagutza hobetzeko edukiak hartuko dituzte barne, gunean dauden Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitat eta espezieen balioen ingurukoak, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen kontserbaziorako, baita nekazaritza eta basogintzako jarduerak habitaten eta basa-espezieen kontserbazio-egoeran duten eraginaren ingurukoak ere, gizartea horiek babestu beharraz kontzientziazteko helburuarekin. Programa horiek bai jendearentzat oro har bai babesturiko eremuan garatzen diren erabilera eta jardueretan inplikaturik dauden sektoreetako teknikarientzat izango dira, bereziki eragin-eremuko biztanleentzat.
2. Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko flora eta faunako basa-espezieen garrantziari, egoerari eta oraingo arazoei buruzko informazio, dibulgazio eta sentsibilizatorako jarduerak bultzatuko dira, baita pozoiaren erabileraren ondorioei, beste inpaktu batzuei eta haien eraginak planteatutako kontserbazio-helburuei buruzkoak ere, proposatzen diren kontserbazio-neurrien aplikazio eraginkorra erdiesteko asmoz. Gizartearentzat oro har eta, batez ere, tokiko herritarrentzat eta gunearen erabiltzaile eta bisitarientzat, ikastetxeentzat eta espezie-talde horien eta haien habitaten kontserbazio-egoeran eragin handiena izan dezaketen jarduerak egiten dituzten pertsona eta taldeentzat izango dira.

3. Natura-ondarearen gune babestuaren eremuan eragina duten sektoreen prestakuntza, sentsibilizazioa eta aholkularitza indartuko dira, espezie exotiko inbaditzaileak egotea, hedatzea eta lehian aritu ahal izatea saihesteko helburuarekin.

69. artikulua.– Garapen sozioekonomikoa.

1. Administrazio publikoek, ahal duten neurrian, Natura-ondarearen gune babestuaren eragin-eremuan ekonomia dibertsifikatzen lagunduko dute, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroarentzat ezarritako kontserbazio-helburuekin bateragarriak diren jarduera ekonomikoen alde eginez eta horien garapena sustatuz.
2. Natura-ondarearen gune babestua eskualdeko produktu eta zerbitzuetarako erreferentzia izatearen alde egingo da, Natura-ondarearen gune babestuaren dibulgazio-baliabideen bitartez lurraldeko eragin sozioekonomikoko eremuaren gaitasun ekonomikoa oro har eta gaitasun turistikoa bereziki sustatuz.
3. Europako Batzordeak definitutako Batasuneko lagundutako finantzaketarako bideak aplikatuko dira Natura-ondarearen gune babestu honetan Natura 2000 sarearen helburuak erdiesteko behar diren kontserbazio-neurriak eraginkortasunez egikaritzeko. Ildo horretan, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza (LGENF), Euskal Autonomia Erkidegoan Landa Garapenerako Programaren (LGP) bidez antolatzen baita, Natura 2000 sarea kudeatzeko lehen mailako tresna da, besteak beste.

70. artikulua.– Klima-aldaketara egokitzeko irizpide orientagarri orokorrak.

Natura baliabideen antolamendurako planak, klima-aldaketara egokitzeko estrategia gisa, “ekosistemetan oinarritutako egokitzapen” delakoa ezarri du. Haren xedea da ekosistemak kontserbazio-egoera onean mantentzea eta, horrela, ahalik eta erresilientziarik handiena lortzea. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek klima-aldaketarako egokitzapena barne hartzen duten jarraibideak eta neurriak finkatu beharko dituzte eta printzipio hauetan oinarrituta egiturako dituzte:

- Ikuspegi globala eta integratzailea hartzea, gune babestuak eta horiek dauden lurraldea unitate funtzional bakartzat jotzen dituen.
- Ziurgabetasuna kudeatzea, erabakiak hartzeko informazio zientifikorik onena oinarri hartuz eta egindako ekintzen emaitzak etengabe ebaluatuz.
- Aldaketa beti hor dagoen prozesu gisa txertatzea eta ekosistemek ingurumen-egoera berrietara eta perturbazio naturalen erregimenaren aldaketetara egokitzeko duten gaitasuna areagotzea.
- Testuinguru berri baterako gobernamentu-tresna berriak garatzea, agente gehiago barne hartuz, gizarte-babesa eta klima-aldaketaren ondorioei buruzko sentsibilizazioa hobetuz.

EBALUAZIO EGOKIA

71. artikulua.– Ebaluazio egokia.

1. Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuan Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 46.4 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da, plan, programa edo proiektuen ebaluazio egokiari dagokionez.
2. Bestalde, NBAP honetan plan, programa, proiektu edo jarduera batzuk identifikatu dira, zeinek eragin nabarmena eduki baitezakete Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko Natura-ondarearen gune babestuan kontserbatu beharreko natura-ondarearen elementuen

kontserbazio-helburuen lorpenean edo hori oztopa baitezakete; beraz, horiei buruzko analisi zehatza eta ebaluazio egokia egin beharko dira. Hauek izango dira, gutxienez:

- 2.1. Kokapenaren arabera eta gunean kontserbatu beharreko elementuetan, habitatetan, espezie kalteberetan eta, bereziki, kontserbaziorako Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa ezinbestekotzat daukaten horietan duten eraginaren arabera, eremu hauetan programatzen diren planak, programak edo proiektuak eta jarduerak:
 - a. Babes bereziko eremu harkaiztarrak. Babes bereziko eremuetan hegazti harkaiztarren kontserbazioari edo berreskuratze-aukerei eragin diezaieketen jarduketak.
 - b. Hegazti nekrofagoentzako gune erabakigarriak. Hegazti horien kontserbazioari edo berreskuratze-aukerei eragin diezaieketen jarduketak, EAEn Europar Batasunaren Intereseko Hegazti Nekrofagoak Kudeatzeko Plan Bateratuaren 6. artikuluan ezartzen den moduan.
 - c. *Quercus robur* espezieko haritzak dituen enklabea, *Pinus pinaster* espezieko pinudi naturalak eta Bachicabo mendiko ezpeldiak eta sabinadiak, Sobrónen. *Quercus robur* edo *Pinus pinaster* espezieetako aleen kontserbaziorako arriskua ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduera eta Bachicabo mendiko ezpeldien eta sabinadien osotasun ekologikoa arriskuan jar dezaketena.
 - d. Flora mehatxatuko populazioen ingurunea. Natura-ondarearen gune babestuko flora mehatxatuko populazioen ingurunean eta, nolana ere, NBAP honen 5.1 artikuluan definitutako babes-eremuan egindako edozein jarduera.
 - e. Eremu hezeen, zohikaztegien eta istingen ingurunea. Natura-ondarearen gune babestuan inbentariatutako eremu hezeak edo haien ur-erregimena aldatzea edo ezabatzea ekar dezakeen edozein plan, programa, proiektu edo jarduera, baita haien babes-eremuan daudenak ere (NBAP aren 5.1 artikulua).
 - f. Ibai-sistema. Ibilguaren eta haren ur-bazterren edo erregimen hidraulikoaren aldaketa hidromorfologiko esanguratsu bat dakarren edozein jarduketa.
 - g. Geologia Interesdun Lekueta eta ondare geologikoko beste elementu batzuetan, horiek aldatzea edo suntsitzea dakarren edozein jarduketa.
 - h. Oro har, gunean kontserbatu beharreko Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitata eta espezieak aldatzea edo suntsitzea dakartenean, Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroa haien babeserako funtsezko gunea bada (II. eranskinaren, memoriaren, 3.2.4 idatz-zatia).
- 2.2. Plan, programa edo proiektuaren xedearen arabera eta eragina jaso dezaketen kontserbatu beharreko elementuen arabera, plan edo proiektuaren tamaina edo munta edozein dela ere.
 - a. Baso-antolamendurako planak, mendien antolamendurako proiektuak, basoen kudeaketa jasangarrirako plan teknikoak edo bestelako plan eta proiektu baliokideak, plangintza horrek eragina eduki ahal baitu basoko, sastraketako, larreetako habitatei dagokienez eta lotutako flora-espezieei eta fauna-espezieei (hegaztiei, saguzarrei, basoko beste ugaztun batzuei eta intsektu saproxilikoei) dagokienez ezarritako kontserbazio-helburuen lorpenean.
 - b. Abeltzaintza-ustiategi intentsiboetan animaliak hazteko xedea duten instalazioen eraikuntza edo handitzea.

- c. Ibilgailuentzako pista eta bide berrien, zura ateratzeko bideen eta basogintza eta abeltzaintzako beste azpiegitura batzuen irekiera, Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitaten azalera handiei eta gunean kontserbatu beharreko lotutako espezieei eragin ahal diezaieketelako.
- d. Baso-biomasaren aprobetxamendurako proiektuak, espezie autoktonoen basoen egitura eta funtzioak alda ditzaketelako, eta zur hilaren presentzia murriztu.
- e. Azpiegitura hauei buruzko plan, programa eta proiektuak, kokapenerako edo trazadurarako beste aukerarik ez dagoenez Natura-ondarearen gune babestuan garatu behar badira eta aplikagarri den ingurumen-ebaluazioari buruzko araudian ezarritako atalaseak gainditzen ez badituzte:
 - Ur-baliabideen saneamendu, hornikuntza eta erregulaziorako plan eta proiektuak.
 - Sedimentuen hodiak, defentsak, dragatzeak eta kokapen-aldaketak dakartzaten proiektuak.
 - Dagoen errepide-sarea hobetzeko edo handitzeko jarduketak.
- f. Azaleko eta lurpeko uren hargune eta aprobetxamendu berriak edo jada daudenen aldaketak, bakarrik zein beste aprobetxamendu batzuekin konbinatuta eragin nabarmena eduki ahal badute eremu hezeetan eta haien babes-eremuetan, uretako eta ur-bazterreko habitatetan, arrain-faunaren migrazioan eta errunaldian eta ugaztun eta ornogabe urtarrengan.
- g. Kirol-ekitaldi antolatu masiboak, adibidez, mendiko lasterketak, orientazio-lasterketak, mendi-martxak, BTT edo zaldizko martxak eta bestelakoak eta guztiz edo neurri batean gune babestuaren eremuan garatzen diren erabilera publikoko jarduera komertzialak.

JARRAIPEN-PLANA

72. artikulua.– Natura Baliabideen Antolamendurako Planaren aplikazioaren aldizkako ebaluazioa.

1. Natura baliabideen antolamendurako plan hau 6 urtean behin ebaluatuko da.
2. NBAPean ezarritako politika sektorialak bideratzeko erreferentziako irizpideak eta arauketak garatzeko, Valderejoko Parke Naturaleko EKZPa, Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideak eta neurriak eta Natura-ondarearen gune babestuko erabilerak eta aprobetxamenduak arautzen dituzten gainerako garapen-planak erabiliko dira, bai Valderejo sektorean bai Sobrónen. Beraz, aplikazioaren ebaluazioa, Parke Naturalari dagokion zatian, Parke Naturaleko Zuzendaritzak egiten duen eta horko Patronatuak onetsi behar duen jardueren eta emaitzen urteroko ebaluazio-memorian oinarrituko da, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa, azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 65. artikuluan ezarritakoaren arabera.
3. Modu osagarrian, NBAP aren ebaluazioa aplikazio-adierazleen zerrenda honetan oinarrituko da, NBAP ak kontserbatu beharreko elementuei dagokienez ezartzen dituen xedapenak kontuan hartuta:

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Adierazlea	Sektorea	Kontserbatu beharreko elementuak	Helburu-balioa (orientagarria)	Denbora-helmuga edo aldizkakotasuna (orientagarria)
Basa-fauna eta basa-florarentzat balioa daukaten elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua	Jarduera zientifikoak eta jarraipen-jarduerak	NOGBaren eremua. Kontserbatu beharreko elementuak	1	6 urte
Baso-suteen aurkako plana	Basogintza-erabilera	NOGBaren eremua	1	6 urte
NBAPera egokitzeko baso-baliabideen antolamendurako planen eta mendien antolamendurako proiektuen edo plan dasokratikoen kopurua	Basogintza-erabilera	Baso autoktonoak Eremu hezeak Larreak eta sastrakak Basoko basa-fauna eta basa-flora Ibai-sistema	2	6 urte
Barrunbeak kudeatzeko plana	Erabilera publikoa	Espeleologia-ondarea Kiropteroak	1	6 urte
Ehiza antolatzeko plan teknikoa	Ehiza	Basa-fauna	1	6 urte
NOGB osorako Erabilera Publikoko Plana	Erabilera publikoa	NOGBaren eremua	1	6 urte
Salbuespenez emandako baimenen kopurua eta mota	Zenbait erabilera eta arauketa	NOGBaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
Larre-habitatak eta abeltzaintza-jarduera kudeatzeko plana	Abeltzaintza-erabilera	Sastrakak eta larreak Eremu hezeak	1	6 urte
NOGBko kontserbatu beharreko elementuei buruzko azterketen eta ikerketa-lanen kopurua	Ikerketa	NOGBean kontserbatu beharreko elementu guztiak	6	6 urte (urtekotutako data)
Seneszentzia-unaden eta mikroerreserben kopurua eta azalera (ha)	Kontserbazioa	Baso autoktonoak Basoko basa-flora eta basa-fauna		6 urte (urtekotutako data)

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Adierazlea	Sektorea	Kontserbatu beharreko elementuak	Helburu-balioa (orientagarria)	Denbora-helmuga edo aldizkakotasuna (orientagarria)
Administrazioak NOGBan eskuratutako edo errentatutako lursail partikulararen hektareen kopurua	Gobernamendua	NOGBaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
Ingurumenari buruzko dibulgazio, sentibilizazio eta hezkuntzako jarduketan kopurua	Komunikazioa. Ingurumen-hezkuntza	NOGBaren eremua. Kontserbatu beharreko elementuak.		6 urte (urtekotutako data)
NOGBan baimendutako eta egikaritutako azpiegitura-proiektuen kopurua eta ezaugarriak	Azpiegiturak	NOGBaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
NOGBan ebaluazio egokia egin zaizen planen, programen eta proiektuen kopurua	Zenbait erabilera	NOGBaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
Basogintza-ziurtapen jasagarriko zigilua duten baso-ustiapenen kopurua	Basogintza	NOGBaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
Lurraldea zaintzeko kontratuen, ingurumen-kontratuen eta beste akordio batzuen kopurua eta munta	Gobernamendua Basogintza-erabilera Nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilera	Natura-ondarearen gune babestuaren eremua		6 urte (urtekotutako data)
Espezie exotiko inbaditzaileak deuseztatzeko jarduketan kopurua				
Baso natural bihurtutako birpopulaketan azalera				6 urte (urtekotutako data)
NOGBaren paisiaren ikerketa			1	
Sektore pribatuak finantzatutako edo kudeatutako jarduketan kopurua				6 urte (urtekotutako data)
Talka egiteko edo elektrokutatutako arriskua murrizteko egokitutako lineen kopurua	Azpiegiturak	Abifauna		6 urte (urtekotutako data)

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Adierazlea	Sektorea	Kontserbatu beharreko elementuak	Helburu-balioa (orientagarria)	Denbora-helmuga edo aldizkakotasuna (orientagarria)
Leheneratutako eremu hezeak (perimetroko hesiak eta landaketa, drainaduren eta harguneen kontrola)	Zenbait erabilera	Eremu hezeak eta lotutako fauna eta flora	3	6 urte (urtekotutako datua)
Egokitutako edo kendutako itxituren kopurua	Zenbait erabilera	Basa-fauna Basa-flora mehatxatua Habitat mehatxatuak Nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako erabilera		6 urte (urtekotutako datua)
Kendutako edo iragazkor bihurtutako oztopoen kopurua	Azpiegiturak	Ibai-sistema Basa-fauna	1	6 urte

73. artikulua.– Funtsezko elementuen kontserbazio-egoeraren aldizkako ebaluazioa.

1. Valderejoko Parke Naturaleko EKZPak eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibideek eta neurriek espezie mehatxatuen populazioen erroldak eta inbentarioak aldizka eguneratzea xedatuko dute, baita habitat naturalen eta erdinaturalen azalerenak ere, mehatxatuen dauden Batasuneko edo eskualdeko intereseko habitatetan eta espezieetan eta kontserbaziorako gunehau ezinbestekotzat dutenetan arreta berezia jarriz (ikus II. eranskinaren, memoriaren, 4 idatz-zatiko funtsezko elementuen zerrenda). Funtsean, alderdi hauek hartuko dira aintzat: populazioaren eta umatzeko guneen tamaina (espezieentzat), azalera, egitura eta funtzioak (habitatentzat) eta kontserbazio-egoera eta jasaten dituzten presio eta mehatxuak (bi kasuetan).
2. Jarraipenen emaitzak Euskadiko Administrazio Orokorreko natura-ondarea kontserbatzearen arloan eskumena duen organoari helaraziko zaizkio, Natura 2000ri eta basa-flora eta basa-fauna mehatxatuetako espezie katalogatuei dagokienez informazioa emateko betebeharrak betetzeko xedearekin.
3. Hegaztien Zuzentarauaren 12. artikuluko eta Habitat Zuzentarauaren 17. artikuluko ebaluazioekin bat etorritik, kontserbazio-neurrien betetze-mailari buruzko txosten bat egingo da, neurri horiek Batasuneko intereseko habitat-moten eta espezieen kontserbazio-helburuetan eta kontserbazio-egoeran izan duten ondorea ebaluatzeko asmoz. Txosten hori egiteko, Eusko Jaurlaritzako organo eskudunak Natura-ondarearen gunehabestuko habitat eta espezieen banaketaren eta kontserbazio-egoeraren jarraipenari buruzko datuak eta informazioa eskatu ahalko dizkio kudeaketa organoari, baita Valderejoko Parke Naturaleko EKZPan eta Natura 2000 sareko Valderejo-Sobrón-Árcenako mendilerroko KBE/BBEko gunea kudeatzeko jarraibide eta neurrietan xedatutako neurrien eta kontserbazio-jarduketan egikaritze-mailari eta eraginkortasunari buruzkoak ere.
4. Jarraipenen aldizkakotasuna egokitu ahalko da jarraipen-sare globalen diseinuan eta ezarpenean aurrera egin ahala.
5. Hurrengo taulan, agiri honetan ezarritako amaierako helburuen eta helburu eragileen jarraipena egiteko beharrezkoak diren adierazleak aipatzen dira, Natura-ondarearen gunehabestuan kontserbatu beharreko elementuei dagokienez. Kasu bakoitzean, abiapuntuko balioa finkatzen da eta, orientatzeko asmoz, erreferentziako helburu-balio bat eta denbora-helmuga bat ere ematen dira.

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Funtsezko 1. elementua	Helburu eragilea	Alderazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu-balioa (orientagarria)	Helmuga (orientagarria)	Jarraitzearen aldizkakotasuna (orientagarria)	
Baso natu-ralak eta erdinatu-ralak	1.1. Baso naturalek okupaturiko azalera osoa handitzearen alde egitea	Baso naturalek okupaturiko azalera (BIH)	1.713,5 ha	% 2ko gehikuntza	2030	6 urte	
		Lurraldea zaintzeko kontratuaren kopurua	Ezezaguna		2030	6 urte	
	1.2. Baso-masa autoktonoen naturaltasuna, heldutasuna eta egiturazko konplexutasuna hobetzea. Hobekien kontserbatuta dauden enklabeak beren oraingo egoeran mantentzea	Habitaten kontserbazio-egoera	Egokia (E) Desegokia (D) Txarra (T)	Egin gabe	Mantentzea (E) Nabarmen hobetzea (D, T)	2030	6 urte
		Basoak antolatzeke plana idaztea		Egin gabe	Eginda	2030	6 urte
		NOGBko antolamendu- eta kudeaketa-planaren ondoriozko helburuak hedatzea		Egin gabe	Eginda	2030	6 urte
	1.3. Basoko kiroptero mehatxatuen banaketa eta populazio-eboluzioa ezagutzea eta zuhaitz-masen bereizgarriak direnak babestea, basoko espezieen eta espezie zuhaitzarren beharrak betetzeko, <i>Myotis myotis</i> eta <i>Barbastella barbastellus</i> espezieetan arrera berezia jarriz.	Berritze naturala mantentzeko onargarria den abere-zama eta baso-ungulatuak zama ezagutzea		Ezezaguna	Ezaguna	2030	3 urte
		Seneszentzia-unaden eta mikroerreserben azalera (ha)		0 ha		2030	6 urte
		Kontserbazio-egoera		Ezezaguna	Ezaguna	2030	3 urte (GA): <i>Myotis myotis</i> , <i>Barbastella barbastellus</i>
	1.4. Ugaztun mehatxatuen banaketa eta populazio-eboluzioa ezagutzea	Ingurumen-hezkuntzarako eta guneko berezko natura-elementuak kontserbatzearen garrantziaz sentsibilizatzeke lantegien, jardunaldien edo jardueren kopurua		Ezezaguna	Ingurumen-hezkuntzarako eta guneko berezko natura-elementuak kontserbatzearen garrantziaz sentsibilizatzeke lantegien, jardunaldien edo jardueren kopurua pixkanaka handitzea	2030	6 urte
		Eskauldeko intereseke ugaztun-espezieen aldizkako jarraitzearen egitea		Zati bat egin da	Guztiz eginda	2030	6 urte
	1.5. Basoko abifaunako espezieak kontserbatzea eta berreskuratzea. Berezkoak ez diren heriotza-arrazoak ezabatzea	Espezieen araberako kontserbazio-egoera		Ezezaguna	Ezaguna	2030	3 urte (GA) 6 urte (K)
		Animalia hilak jasotzeko eta berreskuratzeke protokolo bat egitea		-	Protokoloa eginda egotea	2030	6 urte
	1.6. Kiroptero saproxilikoak (besteak beste, <i>Lucanus cervus</i> eta <i>Cerambyx cerdo</i> espezieen) banaketa ezagutzea eta populazioen jarraitzearen egiteko sistema bat ezartzea	Espezieen kontserbazio-egoera		Desegokia	Nabarmen hobetzea	2030	6 urte
		Basoko hegaztien heriotza-tasaren jarraitzearen egiteko protokoloa			Protokoloa egitea	2030	6 urte
		Koleoptero saproxiliko esanguratsuenen aldizkako jarraitzearen egitea		Eginda	Eginda	2030	Urtekoa

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Funtsezko 2. elementua	Helburu eragilea	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu-balioa (orientagarria)	Helmuga (orientagarria)	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)	
Txilardien, otadien eta larreen mosaikoa	<p>2.1. Erabilera tradizionalak (abeltzaintza, erlezaintza, etab.) bultzatzea, halako moduan non txilardi hezeen eta larre menditarren multzoaren egungo azaleraren kontserbazioa eta mosaiko-antolaketarena bermatzen diren, kontserbazio-egoera egoki batekin bateragarriak diren kudeaketa-jarraiabideak ezarritz</p>	Habitaten kontserbazio-egoera	Egokia: 4030, 6230* Desegokia: 4020*	Mantentzea (E) Nabarmen hobetzea (D)	2030	6 urte	
		Larre-baliabideak antolatzeke eta kudeatzeko plan teknikoa idaztea	Idatzi gabe	Idatzita	2030	6 urte	
		Larratzeari buruzko akordioak tokikoak ez diren erakundeekin	Ezezaguna	Eginda	2030	Urtekoa	
		Erlezaintzari buruzko plan estrategikoa idaztea	Idatzi gabe	Idatzita	2030	6 urte	
		Nekazaritza eta ingurumeneko kontratuen kopurua	Ezezaguna		2030	Urtekoa	
		Abeltzaintza-sektorearentzako laguntzak komunikatzeko plana idaztea	Idatzi gabe	Idatzita	2030	Urtekoa	
		Kiropteroen kontserbazio-egoera	Ezezaguna	Egokia	2030	3 urte <i>Rhinolophus ferrumequinum</i> , <i>Rhinolophus hipposideros</i>	
		Flora-osajerari buruzko azterketa idaztea	Idatzi gabe	Idatzita	2030	6 urte	
		Kontserbaziorako balio handiena duten enklabeetako flora-osiera ezagutzea eta lotutako flora mehatxatuko populazioen jarraipena egitea. Halaber, <i>Orchis cazarlensis</i> , <i>Narcissus asturiensis</i> , <i>Petrocoptis lagascae</i> , <i>Paeonia officinalis subsp. microcarpa</i> eta <i>Ephedra nebrodensis</i> espezieen populazioek NOGBan duten eboluzioa ezagutzea, baita espezie horien gune potentzialaren prospekzioan ahalegina areatzea ere, populazio-gune berriak aurkitzeko asmoz	Ezaguna	Kontserbazio-egoera	Egokia	2030	6 urte

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Funtsezko 3. elementua	Helburu eragilea	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu-balioa (orientagarria)	Helmuga (orientagarria)	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
Kobak, harkaitzak eta lotutako habitatak 3.1. Harkaitz-habitata eta kobak kontserbatzea, mehatx-faktoreak murriztea eta kontrolatzea eta habitat horien eta lotutako Batasuneko edo eskualdeko intereseko floraren ezagutza handitzea 3.2. NOGBan dauden kiroptero haitzulotar mehatxatuen banaketa eta populazio-eboluzioa ezagutzea. Kiropteroen aterpe nagusien ezaugarri fisiko, biologiko eta ingurumen-ezaugarriak babestea (turismoak ustiatu gabeko kobak, EB 8310 KOD). Gizakiek kiropteroekiko dituzten jarrerak hobetzeko hezkuntza-jarduerak sustatzea 3.3. Flora mehatxatuko populazioen jarraipena egitea eta jarduketek NOGBan duten eraginkortasuna ebaluatzea. Flora mehatxatuko espezieak berreskuratzeko dauden planetan ezarritako neurriak betearaztea eta berriazko kudeaketa-planik ez daukaten flora mehatxatuko espezieak berreskuratzeko planak egitea bultzatzea 3.4. Espezie harkaitzarrak kontserbatzea, habiak egiten dituzten guneak zorrotzasunez babestuz, elikadura- eta bizi-eremuaren beharrezko gutxieneko azalera kontserbatuz eta berezkoak ez diren heriotza-arrazoiak ezabatuz. Espezie nekrofagoentzako eskaintza trofiko egokia bermatzea	Lurpeko barrunbeek katalogoa egitea	Ez dago	Badago	2030	6 urte	
	Barrunbeak kudeatzeko plana	Hasia	Amaitua	2030	6 urte	
	Eskalada erregulatzeko plana	Ez dago	Badago	2030	6 urte	
	Habitaten kontserbazio-egoera	Egokia (E), Desegokia (D)	Mantentzea (E) Nabarmen hobetzea (D)	2030	6 urte	
	Flora mehatxatua eta megaforbioak monitorizatzea eta kontrolatzea			2030	3 urte	
	Kontserbazio-egoera	Ezezaguna	Egokia	2030	6 urte (K) <i>Miniopterus schreibersii</i>	
	Eskalada erregulatzeko plana	Ez dago	Badago	2030	6 urte	
	Abifaunari buruzko ingurumen-hezkuntzako kanpaina diseinatzea		Kanpaina egikaritzea	2030	Bi urtean behin	
	Barrunbeak kontrolatzea		Egin gabe	2030	Urtekoa	
	Galtzeko arriskuan dauden espezieen kontserbazio-egoera		Txarra	Nabarmen hobetzea	2030	3 urte
	Espezie kalteberen kontserbazio-egoera		Desegokia Txarra	Nabarmen hobetzea	2030	6 urte
	Espezie kalteberen kontserbazio-egoera		Txarra (sai zuria) Desegokia (gainerakoak)	Nabarmen hobetzea	2030	Urtekoa (sai zuria) 3 urte (gainerakoak)
Espezie nekrofagoen behar trofikoak (kg/urte)				2030	6 urte	

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Funtsezko 4. elementua	Helburu eragilea	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu-balioa (orientagarria)	Helmuga (orientagarria)	Jarraipenaren aldizkakotasuna (orientagarria)
Eremu hezeak	4.1. Heze nagusien banaketa, kontserbazio-egoera eta eboluzioa ezagutzeari	NOGBko eremu hezeen inbentarioa	-	Inbentarioa eguneratuta egotea	2030	6 urte
		Habitatzen kartografia	2014an eguneratu zen	Eguneratzea	2030	6 urte
		Banaketa, kontserbazio-egoera eta joera	Ezezaguna	Ezaguna	2030	6 urte
4.2. Hezegune nagusiak babestea, kontserbazio-egoera egokia lortu edo mantentzeko	Barrualdeko aintziren eta hezeguneen kalitate ekologikoa	Habitatzen kontserbazio-egoera	Ezezaguna	Egokia	2030	6 urte
		Ezezaguna (Eze.) Egokia (E) Desegokia (D) Txarra (T)	Ezezaguna (Eze.) Egokia (E) Desegokia (D) Txarra (T)	Ezaguna (Ezag.) Mantedzea (E) Nabarmen hobetzea (D, T)	2030	Urtekoa
4.3. NOGBan <i>Ichthyosaura alpestris</i> , <i>Bufo calamita</i> eta <i>Discoglossus jeanneae</i> anfibio-espezieen populazioak kontserbatzea, baita halentzat ezinbestekoak diren habitatak ere		Lotutako espezieen kontserbazio-egoera	Askotarikoak	Egokia	2030	3 urte

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

Funtsezko 6. elementua	Helburu eragilea	Adierazlea	Hasierako balioa edo izaera	Erreferentziako helburu-balioa (orientagarria)	Helmuga (orientagarria)	Jarraiaren aldizkakotasuna (orientagarria)
Hegazti harkaiztarrak 6.1. Harrapari nekrofagoentzat eskuragarri dagoen elikagai-kantitatea handitzea, abeltzaintza tradizional estentsiboa sustatuz 6.2. Sai arrearren, sai zuriaren, arrano beltzaren eta belatz handiaren ugalketarako populazioak ezagutzea eta arrata berezia jartzea ugatza eta Bonelli arranoa agertzeko aukeran 6.3. Zuzeneko jazarpenengatik eta NOGBari eragiten dioten linea elektrikoetan taila egiteagatik edo elektrokutatzeagatik abifaunak duen heriotza-tasa murriztea. Halaber, nekazaritza-pestizidetatik datozen pozoien erabileraren ondorioz hegazti nekrofagoek duten heriotza-tasa ezagutzea 6.4. Harrapari harkaiztarrak umatzeko lekuen ingurunean lasaitasuna bermatzea, habitatan eragozpenak saihesteko eta, ondorioz, produktibitatearen igoera lortzeko	Abeltzaintza estentsiboko abelburuen kopurua	Ezaguna	Abere-zama handiagoa	2030	6 urte	
	Eskuragarri dagoen eskaintza trofika ezagutzea	Egin gabe	Eginda	2030	6 urte	
	Sai arreen eta sai zuriaren ugalketa-bikoteen kopurua	Ezaguna	Ezaguna	2030	Urtekoa	
	Sai arrearren barreiaurari buruzko datuak edukitzea	Ezaguna	Ezaguna	2030	Sai arrearren barreiaurari buruzko datuak edukitzea	
	Ondo kontserbatutako apeuen kopurua	Apeu bat	Bi apeu	2030	6 urte	
	Arrano beltzen eta belatz handien ugalketa-bikoteen kopurua.	Ezaguna	Ezaguna	2030	3 urte	
	Linea elektrikoek NOGBko harrapariengan duten eragina ezagutzea	Ezezaguna	Ezaguna	2030	6 urte	
	Tailen aurkako gailuak dituzten dorre elektrikoek kopurua	Ezezaguna	Handitzen joatea	2030	6 urte	
	Animalia hilak jasotzeko eta berreskuratzeako protokolo bat egotea	-	Protokoloa eginda egotea	2030	6 urte	
	Pozoiak erabiltzeagatik hildako banakoek kopurua	Ezezaguna	Pozoiak erabiltzeagatik heriotza-tasari buruzko datuak eskuragarri egotea	2030	6 urte	
	Gehitzen diren banakoek kopurua	Oraingo populazioei buruzko datuak	NOGBko hegazti harkaiztarren populazioak handitzea	2030	6 urte	
	Eskalada erregulatzeako plana	Ez dago	Badago	2030	6 urte	
	Pozoiak erabiltzeagatik hildako banakoek kopurua	Ezezaguna	Pozoiak erabiltzeagatik heriotza-tasari buruzko datuak eskuragarri egotea	2030	6 urte	
Sai arrearren barreiaurari buruzko datuak edukitzea	Ezaguna	Ezaguna	2030	6 urte		

2023ko maiatzaren 12a, ostirala

	6.5. Zuhaitz-masa helduenak kontserbatzea eta intereseko basoko hegaztientzako, adibidez, okil beltzarentzako, habitatak diren oinak, bai hilak bai eroriak, mantentzea	Basoetan metatutako zur hilairen kantitatea (tona/ha)	Ezezaguna	Zutik eta lurrean dagoen basoko zur hilairen kantitatea pixkanaka handitzea	2030	6 urte
Basoko hegaztiak	6.6. Intereseko basoko hegaztien ugalketarako populazioen egoera ezagutzea: miru beltza, miru gorria, arrano sugezalea, aztore arrunta, gabirai arrunta, arrano txikia, belatz europarra, apo-hontza eta hontz ertaina. Halaber, buztangorri argiak duela gutxi egin duen ugalketaren inguruko datuak eskuratzea.	Gunean dauden okil beltzen bikoteen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna	2030	3 urte
		NOGBan dauden intereseko basoko hegazti-espezie nagusietako bikoteen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna	2030	3 urte
		Buztangorri argien bikoteen kopurua eta espezieak NOGBan duen ugalketa-arrakasta	Ezezaguna	Ezaguna	2030	6 urte
	6.7. Ibarbasoak eta pagadiak berreskuratzea, jendeak hobekien kontserbatuta dauden eremuetara duen sarbidea mugatuz, buztangorri argiari eta okil beltzari gune berriak kolonizatzen laguntzeko	Ibarbasoen eta pagadien kontserbazio-egoera	Desegokia	Egokia	2030	3 urte
Mendiko hegaztiak	6.8. Larre menditarretan dauden hegazti paseriformeen populazioak ezagutzea	Paseriformeen populazioei buruzko datuak edukitzea	Ezezaguna	Hegazti paseriformeen populazioak ezagutzea	2030	3 urte
		Fruta-arbolak dituzten berreskuratutako heskaien metro linealak	0	Berreskuratutako heskaien metro linealen kopurua pixkanaka handitzea	2030	6 urte
		Heskaien kontserbazio-egoera eta egiturazko edo loturazko dibertsitatea	Desegokia	Ona edo egokia	2030	6 urte
Landazabaleko hegaztiak	6.9. NOGBko leku eraldatuenean heskai-lerroak berreskuratzea eta gunearen eremuan dauden zuhaixka-heskiak kontserbatzea	Kontserbazio Plana	Egin gabe	Eginda	2030	6 urte
		Heskai berrien metro linealak	0	Heskai berrien metro linealen kopurua pixkanaka handitzea	2030	6 urte
		NOGBan dauden antzandobi arruntzen bikoteen kopurua	Ezezaguna	Ezaguna	2030	Urtekoa